ITXARO BORDA

Zeruetako erresuma

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2005 Itxaro Borda
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2005eko apirila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Dohatsu bihotz barnez pobreak
Haiena baita zeruetako erresuma.
Dohatsu doluan daudenak
Neure aldera deituak baitirateke
Kontsolatuak izateko.
Dohatsu eztiak lurraz jabetuko baitira.
Dohatsu justiziaz gose eta egarri direnak
Asea erdietsiko baitute.
Dohatsu urrikiz dabiltzanak
Urrikalduko bainatzaie.
Dohatsu bihotzez garbiak
Ikusiko baitute Jainkoa.
Dohatsu bake-egileak
Jainkoaren seme izendatuko baitira.
Dohatsu justiziagatik zapalduak
Haiena baita zeruetako erresuma.

MATEO

Mentir pour dominer la mort, inventer des histoires, celles qui aident à tenir debout, pour que cela soit possible, supportable. Et garder le secret d'une langue tue...

ANNE MARIE GARAT

–1–

Azken egunetako uhar nasaiek ibaia loditu eta lohitu zuten. Erreka etxe zolan isurtzen zen eta, gauez loak har zorian zegoela, uraren burrunba elkorra entzun zezakeen. Azantz ikaragarria deika ari zitzaiola irudikatzen zuen eta bakarretan amets gaiztoetarik itotzear iratzartzen zen. Orduan ohearen gainean jartzen zen, hatsanka. Barnea iraultzen zion antsia tzar hori zer zen ez zekien. Destorbua, martxo erditsutako eurite etengabearen kontu ezarri eta berriro etzaten zen, mihise eta estalkien gerizpearen segurtasunean.

Buhameak itzuli ziren. Nako eta bere familia osoa. Senar-emazteak, koinatak eta sei haurrak. Umeak etxekoen adinekoak ziren. Edo parekoak. Denak bihurrikeriaz hantuak, eta biziak. Bidean, urrunetik heltzen ikusten ziren, euriaren erasoei oldartzeko gorputzak ezkel eta makur. Ogi zaku higatuak zeramatzaten soinean eta, egia erran, ilunez apaintzen zirela, zapiaren beilegia eroaten zuten kolore bakarra zen.

Bazterretan muskiletarik jazartzen ziren arboletako hosto berdeek hausten zuten gristasuna. Ahotsen harramantzak eta zakur mehakoilaren zaunka erlastuek buhameen hurbiltzea iragartzen zuten. Handik laster, haurrak eta gizonak, loiroan aiduru zeudela, taldean, Nakok atea jotzen zuen:

– Egun on anderea, amoina otoi, jainkoak sariztaturen zaitu!

– Zato barnera arren –ihardesten zion amak, baserriko haurrak mahaiaren inguruan metatzen zirela, ttattit eta behingoz mutu.

Amak aulkia luzatzen zion. Nako sutondoan plantatzen zen, burua apal eta begiak ezkel, sukaldeko izkina orotara hedatuz. Hangar irekiaren maldan kabitzen ziren gainerakoak, mihimenezko zareak biltzeko prest. Halatan, arropa bustiek, ile beltz eta kixkurretan behera lerratzen zitzaizkion ur-ttorttolek, eskuan zeraman plastikozko poltsak, denek, euriak kearekin ezkonduz osaturiko usaina zeukaten. Hortik hara, *buhamea* hitza ahoskatze berarekin, bapore-hats heze hori etortzen zitzaion kasko zokoaren kilikatzera. Larruari zetxikan urrin berezia zen,

Nakok ausarki eta ohartu gabe barreiatzen zuena. Airean geratzen zen bizpahiru egunez, aldi berean pobrezia mehatxu eta partitze oihu sakon.

Anartean amak Nakori, etxe hartako gosaio andanek milikatu baina oraino soberaz utzi haragiz aberats zen xamangoa eskaintzen zion.

– Arrautzik bazinukea, anderea?

– Ez dute erruten, badakizu, euri itsusi hauekin...

– Hiruzpalau, otoi! Jainkoak sariztaturen zaitu.

– Aise mintzo zara. Baina, bai. Graxi, zoazi arrautzeka!

Sukaldeko berotik ezkaratzeko hotzera lehiatzen zen neska. Aterkia jantzi eta buru-has, loiroa zeharkatzen zuen oilategiraino. Etxearen eta hangarraren arteka hertsian, gizonak eta haurrak taldean eleka ikusten zituen, baina ez zuen hargatik ametsetako lukainkak zenbatzeko astirik galdu. Oilategiko atea klaskarazi zuen, oilo kolokak eta oilar nagiak kurukuruka beren habietarik ihes izutuan abiatzen miretsiz, belar flokak eta luma arinak altxarazten zituztela. Txitxak

piu-piuka sumatu zituen. Ahateak karrankaz. Eta ondoko zerragian, hurrengo abenduan galkatuko edo engisatuko ziren antzara kalapitatsuak. Oreka moldeko bat apurtu bailuan, damu. Baina, zurubi ahuletan gora jo zuen eta habietan errun berriak ziren lau arrautza harrapatu zituen. Uzta eskuetan, oilategiko horma kanpora zabaltzen zuen axeri zein azkonar zuloari beha geratu zen. Beste mehatxu bat, murmuratu zuen biloak hazkatzen zituela: oilategi zaharkitua, batez ere euri egunetan, zorri eta kukusotegi ikaragarria bilakatzen zen.

Eriak are zaluago ari zitzaizkion ileetan hazkabozka udako arratsalde amaigabeetan, oiloak baratzean bezala. Denbora labur barne, zorri eta kukuso leinu osoak buruan kabitu zitzaizkiola iruditzen zitzaion. Lau arrautzak amari eman zizkion, eta honek Nakori, ez da deus xurxurlatuz.

– Jainkoak sariztaturen zaitu, anderea –erraten zion buhameak–. Beharbada baliatzen ez dituzun arropa zenbait ere bazinuzke, so egizu gure haurrak nola bezti diren.

– Justuki, erabiltzen ez ditugun puska batzuk baztertu dizkizut. Pierra, hoa ezkaratzean den pildagiaren xerka. Agudo!

– Jainkoak sariztaturen zaitu, anderea.

Nakok irri maltzurra zeraman ezpainetan. Pierra, erbiaren abiaduran desagertu eta agertu arropa-poltsa zekarrela. Artean, amak, sutan berotzen ari zen kafea zerbitzatzera apailatzen zela, bihotza alegera, kantatzen zuen:

– Jainkoa neurekin zorretan! Hoberik ez da! Baina tira, oizu kikera eta on egin dagizula!

Bat-batean isiltasuna hedatu zen sukaldean. Euriaren atabal kolpeak aditzen ziren leihoetan, ardien marrakak, antzaren karranka, pulinda baten uhuru hantua, haurren hatsartze urria, koilareen asotsa kikeren hegietan, bi eztul eta loiroan geratu buhame-saldoaren karkaila uherrak. Elkarrizketa garatu zen, Nako lehen:

– Eiherateko Zokoan egonen gara. Esperantzetan naiz eta ez dakit zuzen noiz erdituko dudan.

– Zenbagarrena duzu?

– Zazpigarrena. Zare beharrik baduzue?

– Bai, bistan dena. Ene gizonak mihimenak zamatu ditu. Txirikordatzen ahal dituzue. Hangarraren aixolbean.

– Pierrak zare-biltzen ikasi nahi baldin badu, aski du gureganatzea!

– Jinen da.

Nako sukaldetik atera ondoan, baserriko haur andana, sudurra leihoan itsatsirik buhame familiaren juntari beha zegoen. Euriak zerraikan. Haize kolpeek etxe inguruko zuhaitzen kukulak inarrosten zituzten. Loiroko lohian zanpa-zanpa aitak, Artoizeko elgera laguntzen zuen bildots-saldoaren itxura eroa baizik ez zen ageri. Eskuak xamangoz, arrautzez eta debaldezko arropa higatuz emokaturik, Nako gizon eta umeenganatu zen, azken aldi batez leihotik so zeudenei deiadarka:

– Jainkoak sariztaturen zaituzte!

– Arren emaztekia, haugi hona!

Marraka marranta bat aditu zen, Nakoren senarra zirudien Martizena agian. Baina baserriko mukizuek ez zezaketen iragar zein zen gizon horietan Nakoren bizi-lagun zehatza. Kontatzen zen buhameek hapamapalapa hizkuntzaz gain,

ezkontzeko ohitura berezia zutela: alabaina, pegarra hausten zuten eta lurrean hedatu zati kopuruaren arabera emaztea gizonarekin egoten zen, gero alda zezakeen, edo berdin batekin edo bestearekin ibil zitekeen, eta ez zitzaien nehondik bekatu.

Jendeak izanagatik, aitaren partetik *nola nahi ere jendea jende* zela maiz aditzen zuten arren, fedezko urratsak orokorrean ongi seinalaturik zeramatzaten haurrak segur ziren begi-bistan zeukaten buhame saldoak ez zuela arras segitzen giristinotasun trinkoaren ildoa. Familia bien artean halako distantzia bat bazela nabaritzen zen, leize bat. Buhameak kanpoan zebiltzan, eske, bazter batetik bestera dindilizka, ke busti urrin eta gristasun olde, beraiek baserriaren geldotasunean ohatuak zeudela, sute idorraren beroa eta laborantzako emaitzaz bete katiluak segur.

Noiztenka *ze buhameak zareten* oihua altxatzen zen aitaren edo amaren zintzurraren hondoko gaitzespen, haurrak zainetan zirenean, ilargi aldaketa garaietan eter edari likitsa eraginik gabe zegoela, zizareek hertzeak korapilatzen

zizkietenean adibidez. Behialako leizea, bata bestearenganako gutizia batek azpatzen zuen eta, horregatik agian, Nakok maite zuen baserri hartara urtean bizpahirutan amoinaka hurbiltzea eta amak, erregina bailitzan, Nakoren errezibitzea.

Ohoin fama zeukaten ordea. Etxeko laugarren alaba Mattina behin gaitzeko malko-uholdean lehertu zen, buhameek Parisko osabak bere zorionetarako igorri panpina ustez ebatsi ziotelako. Ortzaizean han hara galduak ziren jada, zira arrosazko pupetaren desagertzeaz neska ohartu zenerako. Eskolara, katiximara eta igandeetan mezetara eroaten zuen oparia eta zinez atxikia zitzaion. Ondoko egunetan Otsabideko sasiak mirazkatu zituzten etxekoek, baina ez zuten Sisiren aztarnarik kausitu. Mattina ezin kontsolatua zen. Mutur zegoen sukaldeko izkina ilunenean, eri kartzelatua.

Graxi ahizpa txikiaren lasaitzeko saio adiskidekorretan zinpurtzen zen, ondoriorik gabe. Neskatoak buhameak biraoka madarikatzen zituen batez, Pierrak panpina labean urtuarazi zuela ai-

tortu zuen, mendekuz, Mattina zelakoan haurretan gastatuena, paga eta peka zezan behingoz:

– Irrigarria zen ikustea zira jori malguzko itsasoaren erdian plastikozko bi begi bakartu igerika! Nahiko nuke Mattinarekin gauza berdina obra ahal baneza!

– Mutiko mentsa, baduka burutik?

Amak Mattina altzoan hartu zuen eta hitzeman zion Donapaleun panpina berria erosiko ziola eta handik hara, buhameak ebasleak izateaz baino, etxeko haurrak bata besteaz mesfidatzen hasi ziren.

Gaurkoan, Pierra zaregintzaren ikastera abiatu zen lasterka, hangarraren maldara, buhameen erronda moldatu berritik hatz batean zegoela ordea. Martizek borobilaren bihotza zirudien sua piztu zuen. Xirmenduz zein buruxkaz sustatu sutetik hastapenean, ke marra meharra bermatzen baldin bazen, ondotik su nasaia, ausarta eta tematsua emendatzen ari zela ikusten zuen Pierra etxeko premu iragarriak. Amak eman xamangoa nabalaz karrakatu zuen Nakok: hezurrari xingar peza politak kentzen zizkion oraino! Makila baten puntan dilindan errearazi,

eta txori umeak nola, hala txioka ari ziren umeen artean partekatu zituen. Une batez, Pierrak, hortzen martzilika, zintzurren irenste hotsa eta euriaren kolpeka baino ez zituen entzun. Martiz buhameak sakelatik ganibeta jalgi eta saihetsean metatuak ziren mihimen ezpaletarik bat hartu zuenean, mutikoak bazekien ekiak, ilunpeak, uhar bortitzek eta haizeak joaz beltzatu aurpegiarekiko gizon zardaia zare txirikordatzen hasiko zela.

Pierra so geratu zen: han, euri trebeskariak teilatuak eta loiroa astintzen zituela, buhame taldeak sua atitxatu zuen. Bazterretan bildu belar metatxo baten gainean, bi egur idor bermatu zituen Martizek eta gizonetarik batek sua eman zion. Nako eta haren alaba gehienek mihimenen puntarik lodienak erre zituzten. Martizek lurrean kukubilkaturik, mihimen gotorrenak gurutzean jarri zituen, zare zolaren oinarria osatzeko. Gero, gune hartan, mihimen flakoagoak sakatu zituen eta, handik hara, zarearen biltzeari ekin zion.

Orena aitzina zihoala, zarea handitzen eta moldatzen segitzen zuen Pierrak, begiak zulo.

Mihimenen zati hutsalak sura aurtiki zituen. Azkenik Martizek zarearen giderra landu zuen: hamar bat mihimen mehe plegatu zituen eta trebeki bihurdikatu. Zarea egina zen eta erabili aurretik, lehortzera utzi behar zela irakatsi zion Pierrari buhame nagusiak. Mutikoa, zare berria eskuetan, etxeko sukaldera abiatu zen, lasterka. Itzuli zenean, ikasia egiaztatuz, berak molda zezan, Martizek beste zare baten hondoa ondua zuela begimendu zuen.

Bederatzi urteko baserri hartako andregaia zen Graxik eguna amaren gonapean pasatu zuen, Nakok aipatu *esperantzetan* hitzak zer deabru erran nahi zuen jakinguraz.

– Zer da esperantzetan izatea?

– Haur bat ukanen du laster Nakok –labur eta gehiegi sakondu gabe erantzun zion amak.

– Nola sortzen dira haurrak?

Neskatxa lelotu zen, galdera halako antsia batez apainduz. Amak ez zuen alabaina, gaiaren muinera lerratzeko inbeia handirik:

– Badakixu bildotsak nola sortzen diren? Haurrak berdin sortzen dira!

Labe gainean irakiten ari zen urari, mekanikoki eta kasurik gabe, zuritu eta ebaki baratzekiak bota zizkion.

– Utz nazaxu bakean, neska...

Solasaldia bururatua zela ontsa konpreniarazi zion, bortitz.

Isilik geratu zen arren, Graxik ez zuen xehatsunik aski: bildotsa bezala haurrak mundura-tzen baldin baziren, emaztearen kasuan, pixa egiten zuen lekutik jazartzen zirela argi zen. Pottotta itxuratu zuen eta haur baten pasatzeko leku nahikoarik ez zela iritzi zuen. Une hartan, haurraren sortzea, toki hartarik ezinezkoa iruditu zitzaion. Eta disgustu erraldoiak kateztatu zuen, bera ere behar bada, hodi ilun, bekatu gunea zen pottotta hortarik ilki zela pentsatzera ausartzean. Garbi zitzaion halaber, amak ez zuela arazoaren nondik norakoen azaltzeko gutiziarik. Funtsean, ez zuen Graxiren galderei nehoiz erantzunik ematen. Graxi, jadanik, itsumandoka bizi zen.

Etxetik hangarraren maldara joan zen Graxi ere, Pierra zaregintzan nola ari zen kukuxkatzeko. Pierra eskulangintzan trebe zen. Martizek

hasi zion zarea, emeki-emeki, nahiz eta buhamearen ekinaren orekarik ez zeukan, gora zetorren. Graxik, begirada jeloskorrak botatzen zituen Nakorengana. Haren sabel hantua ikusten zuen, amarena noiztenka zen eran, anaia edo ahizpa txikia sortu baino lehen. Buhamea lurrean zegoen, zangoak zabal-zabalik.

Emaztea batzuetan zutitzen zen eta eskuahurrak gerrian pausatzen zituen aiaiaika. Dena oihu elkor eta hasperen zen. Kolore zurbail bereziaz hornitua zuen begitartea. Larrua trunpilo gorriz tatxatua. Euriz busti eta haizez nahasi ile beltzak kopetan behera erortzen zitzaizkion. Mihimen puntak erretzen akitzen zenean, etzaten zen, burdina herdoilduzko baserriko lanabes baliogabeetan bizkarra emanez. Orduan, Martizek emaztearen nagi bulta orro zakar eta zaintsuaz inarrosten zuen, non ez zen ukabilka:

– Emaztekia! Higi hadi amiñi bat! Deabru auherra...

Nakoren sabelari beha zegoela, oroitu zen aurreko eguberri karietara aitarekin Mehainera zirenean zaldia Miruenera saldu eta laguntzera, Damaseko errekan buhameak harrapatu zituela.

Ohartua zen jadanekoz Nakoren tripa loditzen ari zela, baina ez zuen deus erran. Bazuen beste egitekorik: zaldiak zaindu eta beharrean, akuilatu! Ohituraren arabera, bidea errazago eroateko, zaldiak binaka gidatzen ziren. Orduan, aita zaldien aitzinean zebilen urratsean eta bera ondotik, trinkili-trankala, eskuan matoa zatxikala.

Heltzerik ez zeukan xendra, isilik aztalkatuko zuten aita-alabek buhameekiko juntarik suertatu ez balitz. Bazkaldu gabe zegoen Graxi eta gozokiak martzilikatzen zituen, paperak, batzuk harri zuri koxkorrak bailiran, lurrean barreiatuz. Eguberri izanez alaina, elizatik etxeratzean Maria harrapatu zuten, aitaren adineko lehengusu erdi itsua. Graxiri bere zakuan aspaldian mutxitzen eta zahartzen ari ziren *la pie qui chante* ononak eskaini zizkion. Emaitza eder eta bakarra.

Bi sunpur hertsiz osatu zubitik trebeskatu zuen ibaia. Aita eta zaldiak uretatik pasatu ziren. Erreka haren ertzean ikusi zituen buhame taldearen sutearen hondakinak, errautsa, ilauna, ikazki egurrak eta sasietan dilindan, botaiak ziren hainbat etxeetan erdietsi arropa zapituak. Eta Nakoren sabelaren erronda. *La pie qui chan-*

te bat biluzi eta ahoratu zuen. Pasta sukratuaren erruz, hortzak sabaiari itsatsi zitzaizkion. Hamar kilometro urrunago Graxiren oin txikiak nekatu ziren; mintzatzeko ahalmena halaber urritu zitzaion; aitari ez zion ezer galdegiten, salbu:

– Urrun dea oraino?

Eguberri hartan buhameak, zaldiak eta baserriko jendeak, Damaseko patarraren maldan zeudela, elkarri agurka saihetsetik hunkikaratu ziren. Ez zuketen zorionik ere opatu zutenez bata besteari. Buhameak ez ziren fededun kiskalduak eta baserrikoek ez zuten bestabururik ospatzen. Alabaina, meza saindua segurtatu eta etxean, izan Eguberri edo astean behineko ostiral, lanak baizik ez zuen garrantzirik. Eta bozkario zerbait baldin bazen, norberaren pozaren ez erakustea garrantzitsua zen: irri eta kantarik ez, sekula.

Ez zen hargatik familia tristea, ez. Baina, hiltzearen mahuma zeruan zirurika ibiltzen zela zirudien, saia hegalari: bizi-alegrantzia muskilen itotzaile. Graxi oroitzen zen aitak nola kontatzen zituen tribuaren istorio guztien oinarrian herioa zegoen: aitatxi, arreba, izebak, bera baino lehen

sortu bi umeak, denak misterioski hil ziren, sendiarengan eta partikulazki Graxiren izpirituan errua dei zitekeenaren aztarna sakonak zutabetuz. Errua biziari buruzko eskakizunekiko arrapostu ezarekin ezkontzen zenean, horma itsua eraikitzen ari zitzaion ondikoz.

Alta, eta beharbada herio mehatxuaren kontrako arma zen, umorea eta zirto iturri bilakatzen zen edozein solasaldi, izan etxekoekin, izan auzoekin, izan ahaide hurbil eta urrunekin, izan azkenik buhameekin. Baserriko giroa bitxia zen: ematen zuen guztiak azken jujamenduaren aiduru zirela, une orotan bizitza zalantzan zegoela eta edonor *supituki* hil zitekeela hitz edo pentsamendu bat oker marmaratu orduko. Graxik soinean zekarren herio metatu haien zama: aldi berean haurretan tristeena zen, nehoiz sortu behar ez zuelako, eta alaiena, beti aitzina eta eremu berriak ikertzera deliberatzen zelako. Ilunpe eta argitasunezko Eguberri hartan, Mehainerateko xendra hertsian, aita buhameen hizkuntzan trufatu zitzaion:

– Apakipitupuapa hipizapa?

– Epezepez –ihardetsi zion, hartze ona eta arraileria larruari josia bailuan.

– Apaitzipinapa opordupuapan.

Graxik azken begirada zorroztu zuen Damaseko patarraren zolara, zaldiak axolagabeki haiatzen zituen bitartean. Goxoki bat biluzi eta ezpain artean ito zuen: sukrea berriz ere hortzetan isuri zen, pastak ahoaren irekiera trabatzen ziola. Bazterretan, buhame saldoaren harramantza salbu, ez zen ezer entzuten, txori hoztu eta goseti baten hegaldia agian; deus gutxi. Zaldi-oinetako burdinak klaska-klaska ozenez antzeman ziren eta erritmo lagungarriaz baliatzeko, denbora pasatzeko, kantuz hasi zen neskatoa.

Ezagun zitzaion ahairea hartu, elizan hainbatetan adituetarik bat menturaz, eta bat-batean berak asmatutako hitzez apaindu zuen. Ikara latza sentitu zuen bizkarrezurrean behera sigisagatzen: Zer ziren bada burumuinaren harpe hitsetarik jaukitzen zitzaizkion ele horiek? Zer lotura zuten aurrean bazihoakion zaldi parearekin, doi-doia ikusten zuen eta huxtuka zebilen aitarekin, laburki baina sakonki begitandu buhame taldearekin edo nehondik jaukitzen zitzaion melo-

diarekin? Ez zion, behialakoan, euri geldiezinak erantzunik eman.

Tapatapa bazebilen, Mehainera heltzearekin ideiak narrats eta jadanik bide eginaz nekatua. Egiaren errateko, zaldietako bat, urteko garainoa, Mehaineko Miru tratulantaren etxean utzi eta Arbideraino jarraitu zuten, uharrak uharra aments zeukala, eta handik berriz Otsabidera. Iluna zen aspaldi etxera itzuli zirenean, zipatuak eta Graxi zangoetarik minez. Baina orduz geroztik, Damaseko pentokan herrokatu eta zaldizko bidaia urrunak goraipatzen zituzten hitzak bazerabilzkion gogoan dantzan: aitorrik gabeko atsegina. Nehoiz ez bide zen bidaia hartarik zinez errealitatera itzuli.

Hiru hilabete geroago, Nakoren sabelean josten zuen soakoa. Ohikoa baizik ez zen. Borda zaharrean zaldia orroaz larrantzi zen. Zakurra zaunka elkorka. Antzarak oilategitik kalapitan aditzen ziren. Martiz zare plegatzen ari zen, Nako mihimen punta erretzen, haien haurretarik handienak zarearen giderra bihurdikatzen eta Pierra saio-lantxoa bururatzen. Aitak, ardiak laxatu zituen eta lohian txapatxapa ihalozka pasa-

tu ziren, muturrak lurrera, ilatxetan iratze zein ote abarrak perlatzen zirela, kakaila pikorren artetik. Suaren ke usaina, euriak zanpatu larruena, etxe barnekoak eta ardi-troparen tepoa denak juntatu ziren Graxi oroitzapenen zurrunbiloan gatibatzeko. Martiz zutitu zen erranez:

– Hara, egungoa egina dugu. Ez ote dugu salda xorta bat merezi?

– Ama! Salda nahi dute.

Pierra sukalderatu zen oihuka, berak osatu dudazko zarea esku-muturrean inguruka, eihera hegal! Pierraren zinominokak begimentzean, haurrak oro ezkaratzeko bortara hurbildu ziren pika beleak bailiran, guztiek Pierraren galdea biderkatzen zutela. Hondarrean, saldaz erdiraino bete eta bazter jarria zuen tupina buhameak aterpetzen ziren hangarraren maldara eraman zuen amak.

Begi kliska batez joan ziren buhameak, ateri bultaz balia. Urez estali sutea oraino ketan zegoen, mihimen zatiak lurrean, arropak eta tupina hutsaren tapakiak sasietan. Irudiz, beste etxe batera joateko edo, beharbada, euriz eta kez azpatu beraien bidearen ez ahanzteko abiatu ziren.

Alta, ziotenaren arabera, nehon ez ziren baserrian baino hobeki hartuak; baina Nakoren errana, buhameek zuten etxekoen laudatzeko ohituragatik, mendratzekoa zen. Egunak joan, egunak jin, Graxik saldo ibiltariaren itxura burutik ezabatu zuen. Eskolako lanetan zinpurtzen zen eta batez ere, gordean, aitzineko Eguberriko Mehainerako bidaia hartan asmatu kantuaren hitzak paperean etzaten. Ohartzen zen hargatik ele haiek haizea bezain arinak eta iheslariak zirela. Baina, idazten baino lanean zerraikan: aroa ederrera ari zen goizetan ardiak landara gidatzen zituen eta eskolarik ez zuen egunetan, anai-arrebekin bat, aihena estekatzen zuen, lerroz lerro eta lairaz laira. Martxo hondarrean, Eiherako mazelatik kukua entzun zuen, sakelan zentimo izpirik ez zeukala:

– Aurten ere ez gara aberastuko!

Aita zerura beha bermatu zen, oharraren mingar arina ezpainetan. Aitzurka jarraitu zuten, mahastia jorratzen, hostoak bekandatzen eta mihimen multzoak gerrian zintzilik, abarrak alanbreari estekatzen.

Behin, ordea, eskolatik etxerakoan, harrobiaren parean, naharretan botaiak, jantzi purtzilikatuak sasien balantzan sumatu zituen. Zozomiko egunetan eguraldiak berriz eurira jotzen zuen: ekia eta laino astunak borroka ari zirela zirudien, eta jadanik ez zitekeen asma udaberriko guda hilgarria nork zuen irabaziko. Graxik bazekien buhameak itzuli zirela. Ez ziren baserritik pasatu. Bizikleta hartu eta auzoaren ingurua egin zuen: buhame arrastorik ez! Non ziren bada? Manana Larre adineko emaztea ur bazterretik artilez hanpatu zakua bizkarrean zetorrela elestatu zuen. Bizikleta pausatu eta harengana joan zen:

– Ikusi ote dituzu buhameak?

– Dudarik ezin hor gaindi direla. Zertako xerkatzen ditun?

– Horrela. Jakiteko.

– Ez zauna aski jakitea buhameek haurrak ebasten eta saltzen dituztela. Kasu eman neska!

Gomendioa mailukatu eta zakua lurrean pausatu zuen, hatsartzeko eta soin minberatuegiaren lasaitzeko. Akotea ozkan ezarri eta eskuak gerriondo gotorrean iltzatuz gehitu zion:

– Beharbada Eiherateko Zokoan atzemanen ditun. Baina kasu egizan, sustut.

– Bai Manana, milesker.

Arratsalde apalean Eiherateko Zokora gidatu zituen urratsak. Bezperako ikaragarriko uharren ondotik, egun hartan jagoitik, lantzurda arina ari zen. Batzuetan euria, lazkiago. Etxe aitzineko pentzea zeharkatu zuen lasterka eta ibai hegira heldu zen, bustiriko belar gorakoiek belaunak iraultzen zizkiotela. Hatsanka zebilen. Ahoa zabalik. Azkeneko lasterra bailitzan. Izengabeko mendietarik zetorren buztin-urak erreka loditzen zuen, eta elge bazterra apalago zen tokietan irudi zuen ibaiaren sabela hantzen bezain nagitzen zela.

Ibaiaren erdian uhin-ildo kexatuek apokalipsia irudikatzen zuten: zurrunbiloek edonor eroan zezaketen, idi parea uztarrean, orga hutsa eta itzain trebe eta harroa, behin Herriot zenak kontatu egiazko istorio batek erakustera ematen zuen eran. Kontuz bazebilen Graxi eta, halaz, ohikoan baino inguru zabalagoa egin zuen, beste orduz zuzen heltzen zen Eiherateko Zokora iristeko. Uraren burrunba gogorraz gain, ibaitik

zikin, lokatz likits eta ustel urrina altxatzen zen. Aspaldian hil eta menturaz arbol erroetan traukatu zerri zein bildots hilkiak baziren, plastikozko ontziak eta etxeetan beharrezkoak ez ziren mila gauza zaharkitu. Urak oheratzean ertzetan metatu hondakin kopurua ikusgarria zen alabaina.

Behialako uraren hiro usain tepoari euri eta kearena eransten zitzaion. Sudurrez bederen bazekien Nakoren sendia hor zegoela, Eiherateko Zokoan, zenbait egunentzat plantatua. Urak handi izanez, nasatik aski urrun eraikia zuten kanpamendua, tola soilez, egur ahulez osatu horma eta aterik gabeko errota abandonatu baten maldan. Martiz lanean azaltzen zen, zaregintzan bistan dena. Haurrak lohian plisti-plasta jostatzen ziren, izeba edo Martizen bigarren andrea izan behar zuen emazteak oparoki erasiatzen zituela: debaldetan.

Aterpe doiaren pean Graxik Nako ezagutu zuen, lur-arras bustian etzanik eta erdi-biluzirik. Nasaiki berotzen zuen suaren gaineko kerren karratuetan ur irakinez bete pertzak pausatuak ziren. Etxez etxe amoinatu oihal beilegiak kantoi batean zeuden, metan. Sua aditzen zen, kriski-

kraska, urrunetikako plazer erraldoi, ahalik idorren mantentzen ziren xirmenduak klikatzen. Martizen xorroxtarriaren asots kolpekatua zurean zizelkatu opotsean hezetzeko sartzen oihartzen zen, floka-floka, dailu zein labanaren ezpain eskainietan xirrixarra, ezti eta eraginkor suertatzearren. Sasi baten gibelean belauniko, Graxik mugimendu guzti horien azantz, bapore eta segida mikorik ez zuen huts egiten.

Etxolaren barnetik garrasi sakona oldartu zen.

Dolorez plegaturiko Nakoren aldemenera punpan hurbildu zen Graxik izeba zela uste zuen emazte bat. Haurrek beren jokoak ez zituzten horregatik laburtu, are gutxiago Martizek bere betekizuna:

– Erran emaztekiak, ari hadi apalago, zazpigarrena dun.

– Hago isilik gizona... erdiminak ditiat.

Nakok orroaz eskuak sabel hantura ekartzean gerri-jauzi berria egin zuen. Hankak ireki zituen, azpiak lurrean ozenaraziz. Neskatoak ikusgarria sekula ez bezala, begiz jan zuen: ile beltzez itsustu buhamearen zangartetik lohi mal-

guarekin nahasten zen odola bazerion. Ezkerreko ahurra pottottara eramanik, bere larru leun eta garbia baino ez zuen haztatu. Harrigarria zen: buhameak agian haurra munduratuko zuelako pentsuak burua zirikatu zion eta berehala oka gutiziaz zarpaildu zen.

Lekutu behar zuen, baina kurios-pinterdia zenez, sasiaren atzealdean eta lokatzean iltzatu zen, geldo. Mutu. Izutua. Begimentzeko baimenik nehoiz edukiko ez zukeen zerbaiten lekuko. Bekatuaren minean ihalozka. Hala baitziren ipurdiak, gerriak, pottottak, pittilinak eta izter-azpiak. Eki arraioetara erakusten ez ziren gorputz zatiak hots.

– Buha ezan orain... azkar: bat, bi... bat, bi, hiru eta bulka! –manuak herrokatu zizkion izeba zitekeenak.

Emaztearen hankartetik isuri gorri eta beroa bazetorren burrustan, hatsartzen zuen oroz, airez betetzen eta arras husten zen, hiltzear, intziri elkor, heren eta minberaka, alaba gehienak gorputzaren gainaldea lurrean indarrez atxikitzen ziola, izebak sabela torratzen eta aluaren irekieraren aitzinamendua mirazkatzen ziola.

Emaztearen oihu eta negarren oihartzuna biderkatzen zuen labanaren mihian hara-hona zebilen xorroxtarriaren xirrixarra metalikoak.

Haizea altxatu zen eta euria gelditu. Bazterrak bustiak ziren. Haurra kanpora aurtikitzen ari zen emaztearen sabeletik uholdetu odolarekin zeruko ura nahaspulotzen zela ohartu zen Graxi. Dardaraz zegoen bere sasiaren atzealdean: urde hiltze goizetan baizik ez zuen horrenbeste karmin koloreko jario burrustatzen mirestsi. Baina, haurraren sortzea ez zen urde-ehaitea, hor misterio bat gehiago bazela aitortu zuen bereber neskato herabeak. Anitzetan aditua zuen, alabaina, norbait zentzean eta malkoak ekiditeko asmoz, etxeko azkazi zaharrek huxtukatzen zutela:

– Sortzeak hiltzea...

– ...eta hiltzeak sortzea!

Herriko apeza filosofo merke lanetan zinpurtzen zen, ahoa plegatuz, hobiaren zakarretik bizi berri baten ildoak zabaltzen zirela uste zuelako. Graxik handien hitzen erranahia ez zuen erabat ulertzen, hala nola nekez sinets zezakeen niniken eremuan gertatzen ari zena: buhameak,

berme eta errain ukaldika, irrintzi eta auhenka *lanean* zerraikan.

Bat-batean emazteak oihu elkorra bota zuen. Handik laster ordea, gauza borobila atera zen emaztearen zangartetik. Izebak gorputzaren mugimenduak neurkatzen zituela, ezpainetara ura luzatzen eta noiztenka kopeta mustukaz lehortzen zion, amultsuki. Borobila buru bat zela segurtatu zuen Graxik; ikuskizunak soa gatibatu zion: hortik hara guztia agudotu zen. Buruaren ondotik besoak eta soinaldeak jauki ziren, gero sabela eta azkenik oinak, lekeda beltz, zeru grisaren pean distira ketsuz emokatuak. Izebak umea eskuetan hartu zuen.

Niniaren lehen hatsaldiak lurra irentsi eta inarrosiko zuela zirudien: negarrez hasi zen, zartaketa kosmiko. Zilkoi hertzeak lotzen zuen oraino jende-puska txiki eta ahula ume-ontzia haizatzen ari zen amari. Orduan ekaitz, negar, ihortziri eta hasperen minberak ozenegi, Martiz zutitu zen; labana zorroztu berriaz zilkoi-hertzea ukaldi finko batez ebaki zuen. Buhamearen alaba gehienak etxola doiaren aterpean dindilizka zebilen sua indartu zuen. Ur beroz mukurutu bazi-

na hurbilduz, mununu jada negarlaria garbitu zuen izebarekin.

Nako hatsanka zebilen, hedailo. Orroaz, erlats. Akidura erraldoiak lur lohitsuan gurutzefikatua. Martizek lanetara jo zuen. Izebak umea troxetan ekarri zion buhameari eta, papo aldea azalduz, bi bularren erdian pausatu. Umearen ezpainek titi puntak bilatzen zituzten goseti, arrakastarik gabe. Buhameak burua altxatu zuen, sabeletik jalgi zitzaion zazpigarrenari behatzeko, izebak semea zela azaldu eta erantsi zion:

– Gure aitatxiren omenez Teodoro izendatuko dugu.

Jarraitu zuen:

– So egizu, esnez egarri da, xerri tipiaren pare titia xerkatzen du! Lagundu ezazu amiñi bat.

Nakok orduan lehen aldikoz ukitzen zuen Teodororen burua ezkerreko titi malgortuaren gainean mantendu zuen, eztitasunik gabe. Mutikoa murtxa-murtxari tematu zen. Ase ezin.

Oinka astunak hauteman zituen Graxik. Nor ote zen? Ibaiaren hegira itzulikatu zen eta Ber-

nat auzo zaharra trinkili-trankalaka zetorrela ohartu zen. Eskapatzeko punpa egitera saiatu zen, baina zaharra bera baino zaluago zen oraino:

– Zer ari haiz hemen barrandan? Hauek ez ditun bederatzi urteko neska batek ikustekoak!

– Galdu naiz.

– Galdu? Hi? Gezurtia!

– Ez deus erran amari, otoi.

– Haugi...

Bernaten urratsak etxeraino jarraitu zituen noiztenka atzera begiratzen zuela; batetik, bekatuan harrapatua eta, bestetik, paperean etzan ez zezakeen gauza izugarri baten lekuko izan zelako. Bernat segur aski ez zen isilik egonen, hura zen kalakaria! Amaren erasialdia eta aitaren hira pairatuko zituen.

Sabelaren barnetik oldartu garrasia ez zuen ahantziko.

–2–

Zirri-zarra urruna. Haize arinak bazterrak kateztatzen zituen. Arrats apalean ez zen seguru sentitzen. Erriflea eskuetan hartu eta zutitu zen Peter. Handik laster klaska mehatxukorra aditu zuen, are hurbilago aldi honetan. Atzera egin zuen. Sagebrush gaziek ttakatzen zuten errautsez estalitako lurrera makurtu zituen begiak: ez zuen ezer ikusten. Zer ote zen azantz hori? Nondik zetorren? Oinak dardaraka nabaritu zituen eta arma tinkiago atxiki zuen, eskumuturrak hormatzeraino. Iruditu zitzaion biziaz eta odolaz husten ari zela. Hasieran pentsatu zuen ardiak ebasteko barreiatzen ziren indio salbai haietarik bat zatekeela, zolarik zola hurreratzen ari. Bazekien, artzain zaharragoek erranik, bush likitsean horrelako lanjerra bazela. Inguruak mirazkatu zituen eta ez zuen nehongo gizon azal gorriren aztarnarik nabaritu. Bat-batean herotsak gibelean zeuzkan: klaska-klaska eta sabel sakon huxtu hatsantuak.

Itzulikatu zen tanpez.

Rattlesnake ikaragarria begi-bistan zeukan. Laguntza deia zintzurrean emokatu zitzaion. Bush zabal eta biluzian oihu egin arren, ez zen kiderik agertuko, bi mila ardi eta bildotsekin bakarrik baitzegoen Roosevelt Utah aldean. Neurtu ez zezakeen une etengabe batez gizona suge erraldoiaren parean aurkitu zen, horma bezain geldo, paralesiatua. Sugea, bere gorputz meharreko ezpalak kraskaraziz, begietara so zegokion. Txabola aldetik marraka ahul eta aseak sumatu zituen. Ttette zakurra artaldea zaintzen zebilen eta astoa hantxe, alhan.

Sugea errauts artean berme azaldu aurretik, etxetik ekarri Biblia irakurtzen ari zen. Liburua, gaurkoan, lurrean hedailo zeukan, laguntza gutxiko. Peter mugitzen saiatu zen. Burua eta besoak inarrosi zituen. Sugea beti hor zegoen aitzinean, alimaleko ezten zitalaz ziztatzeko prest. Azken ordua bertan higatuko zuela iruditu zitzaion eta otoitzari eman zen: *Gure Aita zeruetan zarena*... Baina ez, ez zen Utah zoko horretan zenduko suge nazkagarri batek ausikirik. Oraino gazte eta geroaren jabe zen. Erriflea altxatu eta sugea jotzeari ekin zion.

Erriflearen puntarekin hautsa nola-nahika zapaltzen zuen, suge sotil higikorra aldi oroz huts eginez. Gizona punpa eta jauzika ari zen, izuaren eraginez hatsa elkor hartuz; sugea aldiz, ezpalak ozen eta argi, uhinka zebilen, ezker eta eskuin. Borroka behin betiko derrigorrez irabazi behar bailuan. Herrestari trebe adina kexatua, Bibliaren gainera hupatu zen. Peterrek orduan, ikaragarriko kolpea bota zion, bizkarrezurra errautsiz.

Gizona errifleaz tiro egin zezakeela oroitu eta guduka tokitik aldendu zen, rattlesnakea atzetik zebilkiola. Dindilizka keinatu zuen: tiroa naturan galdu zen; bigarrenak ere airea baizik ez zuen zulatu; hirugarrenekoaz azkenean sugeari lepoa urratu zion, ezten iluna kanpoan burua batera eta gorputz malgua bestera aurtikiaraziz. Narrastia hila zen baina ezpal soinularien oiharrak entzuten zituen, hezur karkarekin nahas. Doietarik pasatu zen. Kopetako izerdia esku-gibelaz lehortu zuen. Suge-lekedaz busti Biblia eskuratu eta esker onezko kanta bat eskaini zion Jainkoari.

Harri metatuz osatu jargian pausatu zen. Akitua. Pairatzen zuen bakardadea deitoratzen.

Otsabidetik partitu eta Utah ustel honetara etortzea erabaki zuen eguna madarikatzen. Coloradoko Grand-Junction hirian kokatua zeukan John osabak, sei urte zuela gonbidatu zuen, arraiki:

– Haugi enekin Ameriketara.

– Zertara?

– Artzain lan ona atzemanen deat eta aberastuko haiz.

Ez bat ez bi, biloak hazkatzeko astirik gabe osabari baiezkoa eman zion. Hilabete batzuk geroago, airekotik jaitsi zen New Yorken, txapela kaskoan eta puskilaz bete zaku txikia ahurrean. Eta hor bushean, sugearekiko heriotzarainoko borrokaren ondotik, lehen aldiz usnatu Ameriketako airearen usainaren nostalgiak izpiritua larrantzi zion: hezea, karatsa, bultzakorra. Abiadura handian diruz okituko zen, herrira itzuliko gero, eta Maritxu dendari gaztearekin ezkondurik, aitatxiren etxalde abandonatuan laborantzan plantatuko.

Dolar nahikoa sakelaratzeko hiru sasoi zilegitu zizkion bere buruari, baina jada seigarrena zazpigarrenera ari zen eta herriratzeaz etsitzen zihoan. Pierraren ordez kideek jada, euskaldu-

nek barne, Peter deitzen zuten: Peter handik, Peter hemendik, hainbeste John, Jack eta Frankieren artean. Artzain-multzoak bereber eta barnekoi funtzionatzen zuen, nahiz artzain guztiak ez ziren mende laurden bat aitzinagokoak nola, denak Euskal Herritik etortzen: txikanoak, indioak eta Europa ekialdekoak baziren. Halaz Peter Frankierekin bazebilen, Pablo eta Jerzyrekin ere bai.

1963ko azaroaren 22ko eguerdi hastapen hartan Los Angelesko Desert Inn ostatuan zegoen, Mike Emerson polizia lagunarekin, kafea hurrupatzen. Alabaina, zazpi urteren buruan, artaldea saldu eta osaba okituari agur erran zion. Dineh Jones navajo artzain kide baten autoan sarturik bideratu zen Las Vegasera. Nevadako hiri handiko Greatest kasinoan bizpahiru hilabete eman zituen atezain lanetan, mafiaren manu eta mehatxupeko beharra utzi zuen arte, hain zuzen. Irabazitako zent guztiak emazteetan gastatzen zituen: Marika polones pulposa, azpiak erraz irekitzen zituen Klozie eskoziarra eta apainketarako molde arras bereziekiko Monikaren konpainian, hau amerikarra zen jatorriz eta

larrua diru eta errauts trukean saltzen zuen. Monikarekin barrabilak egunean lauzpabost aldiz husten zituen, Las Vegasko karrika ilun eta etxe zokoratuetan orduak droga bila ibiltzearen sari. Pentsatu zuen bere droga-sare propioaren antolatzea, baina italiarrak zeuden merkatuko arrano eta belaunak tiroz xehakaturik bururatu zuen hango egonaldia, ametsetik amesgaiztorako bidean.

Dena aldrebes bihurdikatu zitzaion ezen, larrua salbaiki jo eta koman zegoela irudiz, motel bateko gela beilegi nazkagarri batean gaindosiaz hil zitzaion Monika. Hatzak eta aztarnak xeheki garbiturik han berean abandonatu zuen emazte apurtua. Peterrek lehen aldikoz begiratzen zuen hilotz bat, ardiak, rattlesnakeak edo bestelako kabalak hilik ardura ikusiak zituen arren: tristura eta eskapatzeko gutizia nabaritu zituen bere baitan. Hiritik ahalik lasterren ihes egitea deliberatu zuen. Halaz 66 highwayan barna zebilen trucker baten kabinan kokatu zen, hitzeman baitzion honek Los Angeleseraino eroango zuela.

Desert Inneko kontuarrari bizkarrez berme, koskoilak karrakatu zituen eta eskumuturra su-

durrera altxatu zuen. Mike Ermerson begi-zuloetara so zegokion eta Peterrek eleka zerraikan, bizia hitzez are ederkiago hornituko bailuan:

– Soik, ya see man, trucker hark Kingmanera behar zian, Albuquerquetik garraiatzen zizkian haragiak denda handi batean utzi eta zuzen, right man, Los Angelesera abiatu gintuan, Mojave mortuan zehar Barstoweraino. Husky, fucking xofur bat baizik ez zian, Johnny Cashen K7a behatzen zian, bazter guztietan wanted man dela oihukatzen duen ahots barnakorrarekiko kantari berri horren zinta ya know, zakila eroki torratuz gidatzen zian trucka son of bitch hark, eta pitili puntatik giderraren gainera lerros, esnea burrustan isurtzen zitzaiolarik, bidean ezker eskuin sigi-sagaka ibiltzea izugarri maite zian. Uste nian parean ziztu bizian zetozen kamioi edo cadillac gorrietarik bat kuskatuko ginuela eta hor akabatuko zela ene bidaia.

Kontaketaren une zehatzean Mike botatzear zegoen. Sabela nahas nabari zuen eta estomaka trebes. Hala ere gogoan zetxikan Peterrekin taldea osatzera deitu zuten eguna: LAPDko burua zen John Biscayk, polizia izateko etsamina erdie-

tsi berri zuen Peter aurkeztu eta hortik aurrera elkarrekin patruilan ibiliko zirela iragarri zion.

Mike, Watts auzoan sortua zen eta bere amaren etxetik ez zen anitz urrundu. Ama aipatzen zuen, aita, alkohola trafikatzen zuela, ezezagun batzuek Riverside aldean zitzikatu ziotelako, oraino haur hotza zela. Aitaizuna kalitu zioten gaiztaginen harrapatzeko sartu zen LAPDan. Ez zuen, egia erran, ikerketa handirik eramateko baimenik erdietsi, karrikako iskanbilak, istripuak eta izenik gabeko beltzen edo txinatarren shopcenter-etako ebasketa urriak argitzeko salbu.

Zeregin horretan, bikotea moldatzen zuen Euskal Herritik hastapenean artzain, gero atezain eta gaur polizia lanetan zebilen gizon misteriotsu bezain tirriagarriarekin. Loa zutik hartzeko istorioak lerrokatzen zizkion Peterrek, ya know eta ya see-ka, basamortuan Europa zaharretik etorri beste immigratuekin, hinki-hanka mintzatzen ikasiriko amerikar perpausaren bihotzean fucking elea edonon sakatuz. Desert Inn-en zeudela, kafe kikera ketan aitzinean, Mikek Peterri amultsuki eta telebistari aldizka begiratzen zien,

gerrietan zintzilik zeuzkaten talki-walkien zurrunga-bitsak ostatuaren barnean oihar.

Kolorezko itxurek Ameriketako lehendakaria Dallasen erakusten zuten. Peterrek ez, atzerritarra zen orduan, naturalizatu berria baitzen, baina Mikek bai, John F. Kennedy hautagai demokratarentzat bozkatu zuen, hiru urte zuela. Presidente modernozalearen urratsen segitzea gustatzen zitzaion, zela pantailetan, zela egunkarietan. Itzalak bazituen noski: emazte zalea zen, kristaua, Cochinos Badiako zorri-zakua debaldetan inarrosi zuen... Halako barne-poz aitorrezinaren bulkadaz, presidentea eriz erakusten zion polizia lagunari:

– See him Peter... Our president!

– Bai, man, our president. Enea ere bai. Errak Mike civic-rights delakoen eremua zabalduko ote die beltzei? Borrokatu beharko duzue naski. Zuriak zuritegi dituk. Baina hi erdi-beltza haiz... erdia baizik. Jakin ezak ez huela hatz bakar bat higituko ni artzain ibili naizen mortuetan, ez rattlesnake edo koioteengatik, baina four corner aldean beltzak ez direlako maite. Lanean elkarrekin jarri gintuzten arte, nik halaber ez nizkian

beltzak biziki estimatzen. Ya know, Euskal Herrian beltzik ez duk eta azken beltza ikusten denean, miseriaren seinale garratza dela aitor dezakeat. Bertsolariek eta ditxolariek beti kontatzen ditek, meza eta bezpera arteko kermezetan, haurra beltza sortu zitzaien Manex eta Memenaren istorio irrigarria: kedarrez likisturiko gizonaren tximiniarena aditzean, karkazailka lehertzen gintukan, apeza barne. Mike, hi ordea, ez haiz arras beltza, kafesne kolorekoa baino. Eta lankide haut, gainera ene istorioei ahoa zabalik beha egoten haiz.

– Aita mexikar zuria nuen. Ama bortxatu zuen eta gero marineetan sartu zen 1945ean Berlingo batailan hiltzeko. Ama Dimorrekin ezkondu eta bost anai-arreba baditut, denak ni baino gazteagoak. Dimor ere erail zuten ezezagun batzuek duela sei urte...

– Sei urte...

Euskaldunak mutikoaren solasa moztu zuen:

– See Mike... Duela sei urte, Wyomingeko mendi urdinen maldan dagoen Dinosaur Land eskualdeko Roosevelt Utah aldean ene lehen rattlesnake bat eho nian. That fucking beast...

Eta hitzez hegaldatzen zen, muturpean zeukan kafeari muzin eginez, istorioak errotzen zitzaizkion mortuetara, Mikeren zoramenerako.

Four Corner eskualdea zuen aipagai: New Mexiko Gallup hiriaren sartaldeko eremu zabalak hain zuzen. Bi urte pasatu zituen herrialde garratzean, John osabaren hiru mila ardiak zaintzen. Gero eta artalde handiagoen ardura ematen zioten eta jadanik bederatzi hilabeterentzat joaten zen, astoa, zaldia eta ttette zakurra lagun. Ez hain aspaldiko Dinosaur Land hartan behin rattlesnake hura kalitzera behartua izan zenean, ez zuen gehiago bakartasunaz sufritzen: bizian txertaturiko elementu garrantzitsua bihurtu zitzaion nehor gutxik hain luzaz paira zezakeen mina. Bederatzi hilabete horietan egiazko salbaia bilakatzen zen, kabalen erdiko kabala burugabea. Joey nagusiaren mutilak lau asteetarik behin bizigailuak eroaten zizkionean, ardiez ahalik lasterren axolatzera lehiatzeko, haragi freskoa gordinik irents zezakeen: ai zer plazera odolaren jario lodia kokotsean behera isurtzen sentitzea!

Garai haietan Kayenta, Chinle eta Moencopi navajo hirixken artean ibiltzen zen artzain. Basamortuetan, errautsez eta gatzez emokatu belarrez asetzen ziren ardiak. Eta ardiez, gaua apaltzen zenean, desertuetako azeri oihukariak. Koioteak egiazki partida zituen: urruneko lur ertzetan garrasika ari izan ondoren, nehork ez ustean, itsumandoka hurbiltzen ziren. Bildots mantso edo ardi motel baten lepora jauzi egiten zuten. Ilunpearen isiltasunean, hasperen elkorra baizik ez zen entzuten eta zer herrestatu baten oihartzun uhargia. Alha-tokietara heltzean, beti jestu berak bihurdikatzen zituen Peterrek: ur xirripa edo putzu bat atzeman, arroka arteko itzal bat, suerte gehiago zeukanean zuhaitz bat, eta han eraikitzen zuen oihalezko etxola, eskumenean zeuzkan ekaiekin. Lekuaz jabetua zela irizten zuenean, debaldezkoak bailiran, puskak lurrera aurtikitzen zituen. Noiztenka, besterik ezinean, zeru-betean pausatzen zen, izarrak geriza eta ilargia beilari.

Hargatik, bizia salbatu zion erriflea ondoan zetxikan. Anitzetan hala zioen Mike lankideari behintzat, koioteak eta suge ziztulariak ez ziren

areriorik gaiztoenak. Alabaina, Albuquerquetik Flagstaffera zihoan bide handitik bazterturiko lege eta jainkorik gabeko cow-boy deabruek edo berrehun kilometro eskasetan zegoen Mexikoko mugatik etorri gosaio pikarraiek ardiak ebasteko raid delakoak antolatzen zituzten. Orduan, bospasei gizon armatu bakarraren kontrako borroka horretan, erasoak irauten zueno, artzainak bazekien hobe zuela arroila sakon baten gerizan geratzea. Hilarena egitea, hots. Tiroak, heiagorak eta zaldien lauhazka azantzak jabaldu arte.

Ortzaizean altxaturiko errauts zutoina zen atake horien iragarlea. Gero zaldien aztalkaden harramantza. Eta azkenik, astoaren aztoramena. Zakurraren zaunka-intziriak, herioari. Une horietan artzainak ez zezakeen laguntzarik eska: polizia tribal posturik hurbilena Shiprock herrian zegoen, erokeria bat. Etxekoek nehoiz deus jakin ez zuten arren, Peterrek ezagutzen zituen zuzentasun eta oreka izpirik gabeko gatazketan zendu euskaldun zenbait. Hala nola Tanny izenarekin Ameriketan ibili zen Donazaharreko Bettan. Basamortuko gaiztaginek Farmingtongo eremuts batean ehortzi zutela ikasi zuen geroago. Osaba

Johnek, hilabeteroko bisitaz joan zitzaiolarik ardiak barreiatuak, zakurra hezur eta astoa saiek eta arranoek haragi hiroaz biluzia kausitu zituen, baina Tannyren arrastorik ez.

Shiprockeko polizi-etxera joan zen John. Ikerketa neketsuaren ondorioz, Tanny Redroad zekarren egur puska zuria harrapatu zuten Farmingtongo zelaian, gizagaizoa munduan egon zeneko lekukotasun bakarra. Nehork ez zuen Bettan Bidegorriren ama zaharra, semearen herio tristeaz abisatzeko kuraiarik ukan. Frankie Etxandi herriratzen zenean, eta Bettanen amak bere adiskide minaz galdatzen zionean, adiskideen artean hitzartutako ihardespena zeraman ezpainetan:

– Ez dakit, egia erran, badu bulta bat ez dudala haren berririk. Uste dut artzaintzaz aserik, San Francisco aldera jo duela bizitzera. Peterrek erran dit ez hain aspaldi neska ukrainar batekin ezkondu dela...

– Haurrik badutea?

– San Francisco ez da Durangoko atean.

– Bettan mutiko moxkotea izan da betidanik –eransten zuen amak, berri gabezia ulertzeko eta onartzeko.

– Noizbait agertuko da...

Solasa esperantzatsu bururatzen zuen Frankiek, egia bere latzean bazekiela: ama bati dolorerik ez zitzaion hazten ahal, alabaina, semea salbaietan salbaiena baldin bazen ere.

Goian bego marmarikatu zuen, Mikek gurutzearen seinalea zegien artean, Desert Inneko ostatuko barran telebistari begira zeudela. Eguerdi zen Dallasen. John F. Kennedy lehendakaria, gain zabalduarekiko beribil beltzean sartu zen, arrosaz beztitu Jackie emaztea eta zaindariak saihetsean. Dallasko Herriko Etxetik ateratzen ari ziren hautetsi eta lekuan lekuko arduradun politikoak agurtu zituzten, hirian zeharreko ibilaldiari lotzear. Alegrantzia nabari zen bazterretan, halaber Desert Inneko barne keztatuko jendeen joan-etorri alferretan. Taberna bidearen aldamenean kokatua zen, ezantza saltegia eta drive-in jatetxea zetxizkiola. Kaliforniako eta batez ere Los Angelesko goiz ederra jauki zen egun hartan. Peterri, basamortuko argi-urrako

ikaragarriak oroitarazten zizkion haietarik. Begietarik bat pantailan iltzatua, hitz uholdea ez zen gelditzen:

– Hey Mike, ya know, lurralde leherretako zirrintak benedikatze moduan hartzen nizkian. Gaua salbo eta sano pasatu zitzaianaren zigilu. Ardien marraka eztia eta astoaren zintzur-karraka elkorra aditu nizkian, iratzartzen eta jan bila zebilen edozein herrestari edo hegaztiren azantz xehea eta azkenik, lur ertza ekialdetik gorri. Su horrek erretzen ninduan, soleitzen, kiskaltzen, sortzen, basamortuko errautsarekin nahasten zihoan hautsa bihurtzen banintza. Bet ya man!

– Bederatzi hilabetez artzain egoten zinen, emazterik gabe?

– Ya Mike, ene makila ferratuaz urrizarik zirikatu ezinik. Baiki. Baina segur izan hadi arrats bakar bat ez nuela iragan ziztua husteke. Aski nian, eman dezagun Motelera nentorren pausagaraietan txikatzen nuen Maureen irlandesa biluzirik itxuratzea: haren sabel gurintsua, haren izter borobilak, haren hanka laburrak, haren bular balantzariak, haren lepo lodia eta partikulazki hain trebeki eskaintzen zidan haren uzki-

zuloa. Gibeletik gainkatzen nian, ni zamari eta hura behor. Pitilia sartzen niokan gogor, kolpe bakarraz, busti-bustirik gordean atxikitzen zian alu erraldoian. Gustatzen zitzaidan ipurdi-mazela oparo haiek ene sabelpe gosetiaren jo-mugatzat sentitzea. Gerriko gantzazko eraztun trinkoak aztaparkatzen niozkan eta lauzpabost errainukaldiz basamortua inarrosiko zian oihua largatzen nian, esneak alde guzietarik euri irristatzen eta zaplastatzen gintuela. Maureenek gero behatza hazi-bitsez emokatu alura bideratzen zian ile artean bermatzen zitzaion kukurusta arrosaren bortitz ferekatzeko, berak ere intzirika gozatzeko gisan. Buztana milikatzen zidaan bururatzeko eta ene koskoil pare ximurtua musuka ausikitzen. Artzain nintzelarik, Maureenen xuxurla imajina eta altxatzen zitzaidaan, tanpez. Zenbatetan ez dut Maureenen izena ene nabalaz mortuko zuhaitz apurren enborretan zizelkatu? Arbola guztiek Maureen idatzia dakarten Chinleko leku bat ezagutzen diat, boy. Emaztegairik baduka Mike?

Peterren poliziakidea isildu zen. Soakoa pantailan hormatzera utzi zuen. Hasperenka. Ahurra

bilo-aire kizkurretan pasatuz. Dallasko karrika zabalak miretsi zituen, Watts bere auzoko ertz zikin eta hertsiekin erkatzen zituela. Peter ere kartier likits eta ezeztu horretan aterpetzen zen, orduak etxean ez, baina polizia autoan gastatzen zituen arren. Biek funtsean. Los Angelesko polizia zerbitzuetako funtzionarioak izanagatik pobreak ziren, bazekiten hargatik Aingeruen hirian, eta beren barranda-ibilaldietan frogatzen zuten, beraiek baino askoz pobreagoak bazirela. Basamortuko gerorik gabeko erreserbetarik etorri indio hipnotikoak, Asiatik ontzi doietan heldu xinaurri-familiak, Deprezione Erraldoiaren ondotik Mississippi ibaiaren haran hezeetarik goseteak bultzatu zuri zurbailak, sator-zuloetan metatuak bizi ziren beltzak eta aberastea helburu zeukaten euskaldunak, ez bakarrik Los Angelesen, baizik eta Kalifornia osoan biltzen ziren denak.

Artean Kennedy lehendakariaren auto iluna Texasko hiriko karrika irekitik txukunki lerratzen zen. Espaloietan jendeak bandera amerikarrak harrotzen zituen alegrantziarik handienean, batzuek beren etxe-goretako leihoetarik konfetiak

aurtikitzen zituztela. Lehendakariaren bizkartzainak alde orotara barranda zeuden, eskua palto azpian zeramaten pistolen gainean, zer gerta ere!

Mikek kaxa ilunean, presidentea eta arrosa arinez apaindu bere emaztea garraiatzen zuen beribila haur begiz zerraikan. Zoratua.

– Gaizo Anderea...

Jackie erakutsi zuen lagunak ikusteko gisa, eta nehork salbu koilareak kikeren hegiak kuskatzean zegien asotsak hautsi ez zuen isiltasun unearen ondotik segitu zuen:

– Iragan urtean hil zen mister presidentearen ohaideetarik bat zela zioten Marilyn Monroe pulposa! Hemen berean. Beverly Hillsen.

– Norentzat ari hintzen gaizo-ka Mike?

– Jackie eta Marilynentzat, bientzat.

– Hey man, aise urrikaltzen hizala hi! Ez didak erantzun: baduka emaztegairik?

– Bai.

– Baia? Nor da?

– Matty, Riverdale auzokoa.

– Errak, haren karrikatik pasatzen arduratuko gaituk ez, ikusteko dena ongi dabilanez? River-

dalen ez direa zuriak bizi? Emaztegai zuria duk orduan?

– Yes.

– Baina, ya fool man, ez duk eskubiderik. Hemen beltzak beltzekin dituk, zuriak zuriekin, eta gu poliziak zaindari, nehor ez dadin nahastu... Ez Jackie ez Marilyn ez dituk gaizoak, hi haiz bai, egiazko tetelea.

– I know.

Burua apaldu zuen mutikoak. Mutu geratu zen. Peterrek gerriondoa ukabilaz jo zion, bere zoritxarraren zurunbiloaren menpetik erauz zedila erregutzeko. Soa, aldizka karrikara eta pantailara zerabilkion. Hitz egiteko itxaropena galdu zuen eta halaz, oroitzapenetan barna igeri abiatu zen. Mentalki, zazpi urte lehenago utzi Euskal Herriko xendretan kausitu zen: herriko plazatik behera jaisten zen, idiak uztarrian atzetik zeuzkala, *behia-be* motelki errepikatuz eta zenbaitetan orroaz kantari. Katzo eta Migatxo izeneko idiak ziren eta gogoan zuen uda zela, nola muturra gantzaz estaltzen zitzaien ulu bluien ziztadak ekiditeko. Batzuetan Aran auzoko tabernan gel-

ditzen zen ardoz erdi-bete baso baten hurrupatzeko.

Gaztea zen oraino. Belar edo ogi biltze sasoietan neskekin ederki jostatzen zela zerasaion segidan, ondoan zeukan Mike poliziakide beltzaran interesatuari. Bereziki dendaria bihurtzeko seroretan ikasten ibiltzen zen Maritxurekin. Hargatik, amak igorri azken gutunaren arabera, andere lerden harekin ezkontzeko xedeak oro ezabatu zitzaizkion: Maritxu jada Salarteko Pauli hitz-emana zen Jainkoaren aitzinean. Negar muskila menperatu zuen han, Durangoko Basque Hotel likitsean; bera ere ez zen, arte horretan, hain garbi eta sanoki bizi izan. Damuek ez zuten iraun eta bertan zegoen Meriemen jokatzera lehiatu zen, Aitaren batean.

– Ya know, Mike, hots emaitean, uste nian munduaren jabe nintzela. Eta tirrint... Itzain zikin bat baizik ez ninduan.

– Herrialde berde batetik heldu zara beraz?

– Bai, right, geroztik ez diat ene lurra bezain ezti eta samurrik nehoiz eta nehon kausitu.

– What’s a pity!

– Ya.

Pantailek lehendakariaren autoa erakusten zuten beti, Dallasko karriketan paseatzen. Ertzetan metatu jendeek star and stripe bandera inarrosten zuten eta CBSko mintzalariak Kennedyren goizeko hitzaldia laburbiltzeko kontzentratzen ziren. Bat-batean Peterren kolkoa itxura idor batek andeatu zuen: sei-zazpi hilabete Arizonako edo Mexiko Berriko basamortuetan artzain zinpurtu eta, sosa sakelan Durangoko Basque Hotelera hurbiltzen zen, gela alokatzen zuen, jana eta arropa garbiketa segurtatzen. Behin baino gehiagotan Koshe bizkaitarrarekin Colorado zolan aurkitzen zen Plazerville hiri fantomera joaten zen, han bizi baitziren malestrukaki juntatu egurrez moldatu etxola batean, Arnalt eta Pette bi zuberotarrak.

Maule inguruetarik jinak ziren Ameriketara mende-zirrintan, eta ez zuten sekula aski diru sakeleratu etxera harro itzultzeko; alabaina aberastuak baizik ez ziren herriratzen! Halaz donadoen bakartasunean ezjendetzen ari ziren. Uranio meategietan lanean zebiltzan indioak gordetzen ziren aterpe abandonatuetan. Gustatzen zitzaion dineh-ko semeak eguzkiaren ohorez dan-

tzan mirestea eta haize azkarreko gauetan jendeen deboila irudikatzen zuten egoitza erorietako ateak danbaka entzutea. Izuaren oihartzuna. Noiztenka koiote garrasi bat. Urrats astunak errautsez ito karrika nagusian. Pette eta Arnalten Plazervillen kokatzeko errabia ez zuen ulertzen, non ez ziren bi gizonak arrunt aberetuak.

Peter, halaber, sekula herriratuko balitz arras bestelakotua atzemanen zuketen otsabidetarrek. Desert Inneko kontuarrean bazekien jakin, ez zela nehoiz itzuliko. Balizkoan arrotz higatuko zela Euskal Herriko bere xokoan. Alta Otsabide maite zuen eta nola! Trufaz hertsatzen zitzaizkion itzain zeltiarrei erraten zien hordimenak gatibatu baino lehen: *am proud to be a wild basque-american man, fuck ya!* Hargatik John Biscayk zuzentzen zuen LAPDan sartuz geroztik, jendetzen ari zela egiazta zezakeen, nahiz eta maiz herioarekiko hurbiltasun tirriagarriaren zirrarak eskas sentitzen zituen.

Bakartasuna, larru-gosea, hauts gorri zutoinak airatzen eta begiak itsutzen zituzten haizeak, Rocky Mountainsen gailurretan kilikari zartatzen ziren argi-urrako urdinak eta ardiak au-

rrean zein urrixak solasgai, hirira bideratzea plazer zitzaiola aitortzen zion Mikeri. Kosheren cadillac arrosa zeukan menean, askatasunik biluzienean edonora abiatzeko prest, Plazerville, Grand Junction, Roosevelt, Albuquerque, Phoenix edo behinekoan nola Mississippi ibaiaren aho lohitsuan faltsuki kukutzen ziren krokodilen haiatzera Saint-Louiseraino. Hondarrean salbaitasuna hobesten zuen, bai eta LAPDen dastatu orduen finkotasuna, ordreen zehaztasuna eta bertako elkartasun sentimendu arraroa.

Kosheren cadillac arrosaren irudi distiratsuak eroan zuen telebistan geldigabe agertzen zen lehendakariaren anderearen kolore bereko jantzira. Arratsaldeko biak ziren. Isiltasuna hedatu zen bi gizonen erdian. Ostatuko berinaz bestaldean ibilera kulunkaria zeukan alimaleko beltz bat iragan zen. Haren itzalean, jatorri ezin asmatuzko beste bizpahiru gizaki kulunkatu ziren: asiarrak izan zitezkeen, amerindioak, Europa hegoaldeko greko edo italiarrak. Azal iluneko nafartarrak ere bai. Zazpi urteren buruan Amerikak zer ziren bazekiela uste zuen: arragoa zen. Nornahik zernahi obra zezakeen lurraldea. Hemen zioen, lehenda-

karia erakutsiz, ororen gainetik libertatea da indarrean, ez herrian bezala beti auzoak erranen, pentsatuko, kitzikatuko, kontatuko duenaren lotsaz, buruak apal. Bizia ukatzen bailitzan.

– Han, nola beztitzen eta merkatuan edo meza saindutik landa norekin mintzo hizan kasu eman behar duk. Han dena hertsia eta txikia duk! This fuckin’ care. Herrian lanean aritzen ahal haiz turkoaren pare, ez duk sekula ez eskerrik, ez saririk eta ez ohorerik, etxe onetik ez baldin bahator! Ameriketan alderantziz. Lan eta bazter-laguntzaz zurubian gora hupatzen ahal haiz, Polizian berean. John Biscay ere artzain hasi zuan Mojaveko mortuan eta soik, orain Los Angelesko poliziaburu duk. Edo Pette eta Arnalten gisa, Plazervillen antzeko hiri fantoma batean gorde haiteke, lotsarik gabe: jendearen edozein ibilmolde zilegia duk.

– But ya land is beautiful.

– Of course. My bloody land. I am a basque-american boy.

Peterrek Mike ikertu zuen goitik behera, bitxiki.

Lehen xixtan endelegatu ez zuen isiltasun dorpea hedatu zen ostatuaren barnean. Karriketan mantsoki edo presaka zebiltzanak berinetan behari plantatu ziren. Mikek pantaila erakusten zuen hatsanka:

– Somethin’s happening... See him! The president. His head.

– Ya... Burua inguratzen eta gibeleko pausagian luzatzen dik, leihoetarik agurka ari zaizkionei ihardesteko.

– No, see the woman: she’s afraid.

– Right, zerbait gertatzen duk hor, Mike...

Desert Inneko behatzaile guztiek, Jackie bitxiki lau hanketan bermaturik autoaren atzealdera hapataka lehiatzen jarraitu zuten. Orduan zen kameren aitzinean argitu emaztearen gonaren ezker aldeko odol tatxa.

– Laguntza eske badabilak.

– See, auto beltza ziztuan badoak karrikaren erditik!

– They kill the president...

Han zeudenak aldizka oihuka ari ziren ezinezko gauza agitu bailitzan. Beste batek behialakoaren agiturikoa gezurtatu zuen. Multzo batean

jada *they* hark nortzuk biltzen zituen ikertzen zen: hipotesi gehienak Errusiako zein Kubako komunisten edo mafia sareen ardatzetan biribilkatzen ziren. Mike eta Peter hitz-huts geratu ziren, berotzen ari zen jendaldearen baitan urtuak.

Kalamatatik eratorri Georgos taberna jabeak, grekatuz, berriak eragin loeria zamatsutik aterarazi zituen bi polizia-gizonak:

– He-hemen ego-go-nen zarete a-ala? Ez duzu-zue la-lanik?

– They kill our president...

Mikeren ondoan errautsi zen Peter. Txapelak ozkan jarri eta bortara zuzendu zituzten urratsak, Watts auzoko sirenak oro ozen zirela. Kanpoan emazte taldeak negarrez ari ziren, batzuk borobiletan trinko, salmoak kantatzen, eta Peterrek gizonen mateletan behera nehongo malkorik ez zela lerratu ez zezakeen segurta. Egun tristea zen amerikanoentzat, izanagatik euskaldunak. Edo beltzak. Edo navajoak. Edo Beijingo haurrak. Denak ahul sentitzen ziren. Geriza gabe jadanik. Destinuaren harri barkagaitzak lehertuak. Denbora laburrean, kasik ehungarrenekoz, Mikek automata moduan erran zuen:

– They kill our president!
– Fuckin’ the fuckin’ the fuck...
Murdukari, Peterrek tu egin zuen airera.

–3–

Maiana Artoiz, aitaren arreba txikiena, Frantxua seme zaharrenaren Baionako apartamentura heldu zen, autobusa Otsabiderako bide-juntan harturik. Emaztea errainarekin garatzen ziren pataska etengabeez aspertuta zegoen; Marysek alabaina hutsak eta akatsak baizik ez zizkion aurkitzen, eta bakarretan Jakes semeak, andrearen ildotik, erasiaka erabiltzen zuen. Egia erran Maianak ez zukeen nehoiz horrelako egunerokotasunik asmatu, bere sortetxean berean. Gauez oheratzen zenean negarrez urtzen zen: senarra galduz geroztik, alta ez zuen hark ere gozoki tratatu, pairatzen zuen egoera tristea iruditzen zitzaion. Goiz batez ordea, askariteko bilduak ziren sukaldeko mahaian, erabaki erraldoia jakinarazi zien:

– Banoa Frantxuarekin bizitzera.

– Zoazi deabruetan hara, nahi baduzu –erantzun zion Marysek, irri karkaila lotsagabea askatuz.

– Frantxuak bederen jendeki tratatuko nau! –auhen bat askatu zuen, eta oiloen bazkatzera abiatu zen, euriz lohitu loiroan jadanik puru-puruka aditzen zela.

Hortik aurrera, Marysek ez zion hitzik luzatu eta Jakes haren soakoari ihes zebilkion. Maianak halatan, bospasei egun pasatu zituen puskila apurrak apailatzen, Frantxuari telefonoz deitu ondoan.

Frantxua halaber ez zen sobera bero amaren errezibitzeko. Apartamentuaren txikitasuna azpimarratu zuen, lan-orduen nekea eta bakardade premia. Baina haurretik mutikoak bihotz ona zuen eta, hondarrean amore emanez, amaren galdea onartzea besterik ez zitzaion geratu. Frantxuaren duda eta zalantzek Maianarengan izua eragin zuten: norekin bada jardungo zen, nehork ez baldin bazuen bere konpainiarik maite. Ala Etxepareko Janinaren maneran, kantonamenduko hiriburuko zahar egoitzara jo behar zuen? Ez zekien zer eta nola egin. Arimaren zokoan hargatik semearen baiezko txepelaren oihartzuna zetxikan, amodiozko seinale ahul. Frantxuari segurtatu zion epe laburrerako baizik

ez zela etortzen, ezin-bizia zeukala, errainak gaizki maneiatzen zuela eta laster bere apartamentua aloka zezakeela Baionan, berdin zitzaiolako azkenean hirian edo baserrian, bake apurra dastatzen zuen ber. Baldintza horiek guztiak entzunik baiezkoa eman zion Frantxuak, unean uneko aterabidea zela berretsiz goraki.

Baionara joan bezperan, Iratzeta deitu etxe ondoko mendi aska lasaira abiatu zen Maiana. Haritz berde eta gorakoi baten azpian jarri zen, xakurra aldamenean, ibiltzearen bortxaz hats hantua. Iraganak, armiarma sare uher, gatibatu zion pentsamendua. Bost haurrak jauki zitzaizkion buruhonaren harrotzera: Frantxua gehiena, Jakes bigarrena, Anttoneta, Terexa eta Leon. Jakes salbu denak Otsabidetik kanpo hegaldatu ziren, Anttoneta Parisera, Leon eta Frantxua Baionara irudiz Europa osoa lanez lan kurritu ondoan, eta Mustafarekin ezkondu zen Terexa Marseillara. Behe-mailako funtzionario bilakatuagatik, ofizio onak zituzten denek, eta segur aski akuilatuak izan balira are situazione hobeak erdiesten ahalko zituztela sinesten zuen Maianak. Baina baserrian dirurik ez zen eta senarrak esko-

latzen zirenak gorrotatzen zituen. Adibidez, Frantxuak gaitzeko zafrakoak biltzen zituen, aitak liburu bat eskuetan harrapatzen zuen aldi oroz eta ongarria hedatzera igortzen zuen, zalu. Mutikoak, orduan, errabiaz elge malkarreko iratze eta ote-goroztun puloak barreiatzen zituen, madarikatua zela errepikatuz. Frantxua ezik, besteak oro familiatu ziren, eta bere iritziz bekan baizik ikusten ez zituen zortzi arra-haur konta zitzakeen Maianak. Pena eta gogortasun handian umeak altxatu arren, ondorengo aberatsa zeukala ondorioztatu zuen.

Frantxua amodio hurbilaz troxatu zuela oroitzen zen emaztea: ez zekien zergatik baina bere sabeletik munduratuko zen lehen haurra neska zatekeela imajinatu zuen beti Maianak. Oihu, garrasi eta odol artean, pitili txikiarekilako artxoa jazarri zitzaion. Senarra, amaginarrebak eta amaganaiak pozik zeuden, etxeko *lehen haurra* mutikoa zela jakin zutenean. Urte hartan, Ameriketan plantatua zen Peterrek berak zorion gutun bat bidali zion, Verdungo trintxeretan bizia galdu zuen Maianaren anaia zaharraren omenez Frantxua deitu zutenaren bataiora ez zela etortzen

ahalko erantsiz. Alegrantziarik handienean ospatu zen etxeko jaungaiaren munduratzea, baina handik laster umetxoa eritasun horiak jo zuen eta kasu bereziaz artatzeko premia gainditu zen. Hiriburuko ospitalera eramaten zuten tarrapataka, Xarlestegi herriko auto-jabe bakarraren bizaldiko urdin ilunean. Iratzetako haritzetan Maianak begiak hertsi zituen: oraindik ere malkoak lerratzen zitzaizkion, xatarrez eta buruxkandoz tinkatu eta gaixotasunak ahuldu mutikoa besoetan gauak gauari zihoaneko irudiak berritxuratzen zituenean. Frantxua hilen zela uste zuen aldi oroz. Zalantza astun hura zeukan kasko-zokoan danbaka jagoitik. Ondotik jinen ziren haurrek ez zuten inolako osagarri arazorik eduki, liliak bezala sortzen eta hazten ziren, indartsu, kementsu, norbere bide goiztiarraz segur antzaz.

Jean senar zenarekin geroarekiko eztabaida hitsak eramaten zituen, batez ere arratsaldeetan biak bakarrik loaldira joaten zirenean:

– Ez dinagu Frantxua emaire hori etxeko atxikitzen ahal!

– Osagarriz ahul izanagatik, gazte fin eta abila duk.

– Ba, hik beti haren alderdia hartzen dun, emaztekia. Etxalde hau egiazko gizon baten meneko utzi behar dinagu.

– Nik Jakes bortitza baino Frantxua eztia hauta nezakek.

– Jakes duken eta kito!

Gizonak Maianaren solasa tanpez mozten zuen, eta isiltasun pisuaz lehertuak elkarri bizkarrez pausatzen ziren, mende laurden hartan zegiten eran. Halaz Jakes zatekeen Artoizeko nagusia eta emazteak *bedi beraz* xuxurlatzen zuen, etsia. Baina egia erran Frantxua xarmantegia zen laborantzan plantatzeko, ikastea gustuko zuen eta orduak pasa zitzakeen aritmetika ariketak osatzen. Batzuetan, Jakes etxeko eta besteak oro kanpoko zirela deliberatu zenean, josten edo trikotatzen ari zenean, Maianak Frantxua bere presentzia soilaz laguntzen zuen ikastetxeko beharretan galtzen zelarik, behiak eta ardiak jetzi ondoan. Suak zirauenо egoten zen sukaldeko mahaiaren puntan disertazio edo latinetik erdararako itzulpenak ontzeko, hiztegi mardulak eskumenean. Frantxua horrela ikustean, bera baino bi urte zaharrago eta apeztu

zen Gilen anaia irudikatzen zuen: seminario txikitik oporretara zetorrenean grekera edo latinerako perpausak goraki arrapasatzen zituen, biak ur hegian kabala zain zeudela; agian hizkuntza desagertu haien soinuaren oinarria bilatzen zuen oraindik Frantxuaren ikasketen karietara.

San Andres katedralaren maldan autobusetik jaitsi zenean, Frantxua Gilenen ildotik apeztuko zelako ametsa zerabilkion gogoan dantzari. Baina kolegiotik landa mutikoak ez zuen seminarioko bidea hartu, herriko auzo bati esker harrapatu Baiona ezkerraldeko burdingintza saileko lanerakoa baizik. Han zegoen geroztik, Aturri ertzeko fabrika erraldoi batean, nahiz eta denborarekin langileak bekandatzen ari ziren. Goizero joaten zen, eguna burdin-ur usainez itoa eta mailu gotorren klinki-klanka herotsez zapaldua bukatzeko. Hala erraten zion bederen, intentzio txarreko jende batzuek Maianari so-zeharkariz bere seme kuttunaren bizimoldea arras desberdina zela ulertarazten zioten arren. Frantxua hargatik gizon prestua zen, ezkondu ez baldin bazen ere.

Zernahi gisaz, autobuseko gidariak emazte adinduaren puskak lurrean pausatu zituen eta

bidaia hor bururatzen zitzaiola konturatu zen. Hirurogei urteetan zehar lautan baino ez zen Baionara etorri, eta katedraleko dorre karratuei begira pixka bat ezbideratua senti zitekeen. Bazterrak aztertu eta bereber galdatu zuen:

– Non da Frantxua? Ene bila etorri behar zuen. Ez da nehon ageri!

Gidariak emaztearen pentsamenduaren haria sumatu bailuan erran zion, irri maltzurra ezpainetan:

– Ba al dakizu non bizi den?

– Bahai gizon, bistan dena. Haren zuzenbidea paper honetan daukat.

– Hobe dukezu oinez abiatzea, ez da hemendik sobera urrun.

Eskualdunen karrikan zeukan Frantxuak apartamentua. Zakua fermuki zatxikala, entzuna zuen nonbait Baiona ohoinez betea zela. Pannecautik sartu zen hiriaren bihotzera; jendea elkarri oihuka zebilen, hizkuntzak eta keinuak nahasiz. Abiadura lasterrean pasatzean, autoek espaloi hegiak inarrosten zituzten. Dendetako gauza miragarriei beha aitzinatzen zen Maiana. Arraposki, ikusten ez zuen jendea kuska baleza ere.

Fama likitseko kartierra zela bazekien, anaia zaharrenak berak kontaturik. Alabaina 1944ko maiatzean Gexanek soldadu klaseak egin zituen Baionako kasernan eta armadako kargudun ausartek Baiona Txikiko putetxeetara eroaten zituzten, kanpainetarik jazartzen ziren mutil lohitsuak doi bat zibilizatzeko:

– Maialen zunan... –azaltzen zion anaiak, irri kokina begietan–. Xu-ka ari zitzaidanan: xauri puttil xure makila ferratua non ezar eakutsiko dautxut. Ostatuan, argi gorriak, eta urdinak, eta horailak, denak josteta ari zitunan eta edatera eman zigutenan, ausarki, gerlara edo STOra beharrak ginelakotz menturaz. Belaunetan jarri eta Maialenek mihia ahoan sakatu zidanan, akuilu kolpeaz hautsi eta bihurdikatzen zen sugea bezala ingurukari. Ez ninan, Maiana, sekula horrelakorik ezagutu! Apezaren oharren arabera bekatoros bilakatzen ari nindunan... Alaxokotzia! Orduan ostatuan gizon bat sartu zunan tarrapataka, Frantzia Librearen irratian amerikanoak Europaren salbatzera zetozela oihuka. Ez bat ez bi, gure kaporal zuberotarrak erreserbista tropak deitu zitinan eta kasernara itzuli gintunan, tarra-

pataka. Xarlesek ez zinan galtza astunen altxatzeko astirik ukan: bazauna! Ostatuko neskak irriz karkailaka lehertzen aditu gintinan, Pannecau ilunean ibiltzen hasi ginenean.

Barmon Hotelaren paretik pasatzean, Maiana segur zegoen anaiak hor zuela ordutik anitzetan elegai ukan zuen Maialen hura gurutzatu. Bizkitartean, ogi egin berriaren urrinak sudur mazelak kilikatu zizkion eta gosea nabaritu zuen: bazen bulta bat jada Artoizetik gosaldu gabe abiatu zela. Kruasan baten erosteko ametsa egiaztatu zuen: baserrian ez zen horrelakorik oizu! Dendariari eriaz nahi zuena seinalatu zion eta Pannecau zubiaren gainean, ibaiari so, lasaitua, gozakia klikatu zuen. Bi poliziek goitik behera ikertu zuten beltzez beztitu anderea, jendea izateko ordez lurretik kanpoko izaki arraroa bailitzan. Oroitu zen orduan, bere aitaren gomendioaz:

– Apezak eta jendarmeak errespeta itzan!

– Bai aita –ihardesten zion apalik.

Hor zegoen izotz bi gizon armatuen aurrean, eta zekien hizkuntza apurra berbilduz ausartu zen:

– Pardon, où se trouve la Rue des Basques?

– Pourquoi devez-vous y aller?

– Je vais chez mon fils...

– Depéchez-vous ma p’tite dame: il y a une manifestation cet après-midi.

–Vous traversez le pont et c’est la première à gauche! –erran zion lehena baino mantsoago zirudien bigarren poliziak.

Eguerdi aitzin semearen etxean izango zen eta karrikako nahasmenduek ez zioten arratsaldearen bakea trabatuko. Zer ari zen Frantxua, bila jinen zitzaiola hitzeman eta agertzen ez zena? Ahaztu zitzaiona?

Eskualdunen karrikako 12. zenbakira iritsi zen. Peko borta zabalik zen eta zurezko eskailera borobil kraskalarietan gora jo zuen, bosgarren estaian kokatzen zen semearen apartamenturaino. Hirugarreneko estaia-artean goiti egitear geratu zen, gohain eta gogoeta: nola mila deabru bizitzen ahal ziren jendeak, familia osoak alaina, zahar, zoko eta mutxi baporea zekarten kukumixa kaiola hauetan? Ez zezakeen irudika. Negarra begietara jauki zorian zeukan, berriz, Frantxuaren atarira heltzean. Gutun azal bat atzeman

zuen kisketan dilindan: *ama, hara giltzak, sar eta etxean bezala egixu* idatzia zuen mutikoak. Tristura bulta bat jasan zuen: Artoizen haren despeditzea berantetsia zuten eta Baionan ez zen denmendrenik ere igurikatua. Errotik ez-maitatua zen. Maider bere amak bortxaketa baten fruitu likitsa zelako ez zuen amodioz ase, senarrak zapi zahar maneran erabili zuen eta haurrek begirune adiskidekorrik ez zioten eskaintzen: bere burua itotzea itxuratzen zuen bizia zen harri zamatsua bizkarretik kentzeko. Baina, bekatuaz eta besteen baimenik gabe erabakitzeaz beldur zen. Artoizetik ihes joatea izan zen hartu zuen delibero bakarra, bereber eta beretzat.

Pentsu ilunen ildoa abandonatu zuen eta egongela zirudien kanapean jarri zen. Ez zen handik mugitzera atrebitu. Gorputza gogortzen zitzaiola irudikatu zuen, herio atari. Armairu gainean pausatua zen argazki batek ebatsi zion soa: Frantxua han zen, zutik, sei urte zituela, bere ile beltz kixkulatuekin, arropa zuri brodatuaz apaindua. Eztitasuna zerion potretaren egitera hiriburura autobusa hartu eta joan ziren egunaz ongi gogoratzen zen Maiana. Amaren ha-

rrotasuna biderkatzen zuen nekatto polita ematen zuen, zinez. Baina zuhurki hornitua zen apartamentu hartan, bazekien samurtasunaren ordu haiek guztiak ahitu zitzaizkiola. Haurrak ingratak zirela marmaratu eta loak hartu zuen.

Zeruak urdin sakonera ari ziren, Maianak norbait etxean sartzen aditu zuenean. Frantxuak kanapean etzanik harrapatu zuen ama. Elkarri begira geratu ziren. Harrituak. Maiana altxatu zen eta musu uzkurrak trukatu zituzten: ez batak ez besteak ez zekien amodioaren azaltzen.

– Etorri xira beraz?

– Bai.

– Bidaia ongi pasatu?

– Bai.

– Zerbait jan nahi duxu?

– Bai...

Eleez zeken zebilela konturatzen zen Maiana. Semerik kuttunenaren aixolbean zegoen eta ez zezakeen, *bai* durduzatia salbu, hitz izpirik ahoska.

– Hemen nago orain –ausartu zen, zintzurrean birla gottorra borobiltzen nabaritzen zuela.

Biloak ozkan jarri zituen eta otoi sukaldeko bidea erakuts ziezaion galdatu zuen.

– Utz axu ama, nik eginen dixit kozina gaur –artekatu zuen Frantxuak, segituz–: Dutxatu be-harra nuxu lehenbailehen, egun izugarria ukan dudalako.

– Lantegian?

Gizona bainugelara lehiatu zen arraposturik eman gabe.

Amak artean zakua ireki eta bere puskak se-meak seinalatu armairu batean pausatu zituen *hemen nago orain* mailukatzen zuela berekiko. Telebista piztu zuen eta han azaltzen zen eskual-deko berri-sailari beha geratu zen. Baionan arra-tsaldean, Pannecau zubitik pasatzean elerran poliziak iragarri manifestaldirako lanean zeuden itxuraz: jende multzo bat, trinko hiriko karriketan aitzina zihoan, CRSek aldean, aurrean, atzean moldatzen zuten kolore gabeko harresi baten zi-rrikitutik *errefuxiatuak askatu* zeraman bandero-la zurbail baten gibeletik. Oihuak hautematen ziren: *...euskadin bizi be-har dute* eta noiztenka Baionako kalerik hertsienean oilo larrua besoe-tan hazi arte oihar zen *gora ETA mili-tarra* ozena.

Poliziek kargatzen zuten jende-lerroa Baiona Txikira heltzean, manifestariak ulu nardagarrien pare barreiaraziz. Lasterkariak ikusten ziren, matraka kolpeka lurrean errendituak, kopetan behera odola zeriotenak, ukabila gorarik eta aurpegia zapi gorriz gorderik indar errepresiboak mehatxatzen zituzten gazteak, gertatzen zenaz jabetzen ez ziren bizidun anonimoak. Erreportaiaren hondar segundoek Poliziak hiriko zubiak nola blokatzen zituen azaltzen zuten. Maiana kezkatua zen: nora jitera bortxatu zuen errainaren gaiztakeriak? Agian Frantxua istorio zikin horietarik at bizi zen...

Ez zen ohartu, baina semea kozinatzen hasia zen. Labearen gaineko zartaginaren barnean xingar puska eta arrautza bi erretzen ari ziren olioan plisti-plasta. Emaztea hurbildu zitzaion. Dutxaren ondotik Frantxuaren gorputzeko usainak gohaina hazi zion.

– Ez hiz araiz eskualdun politikeroekin nahasten? –galdatu zion, mutikoa tanpez inguratu eta gogor begira zegokiola.

– Ama, otoi...

– Ba, bazekik, bakea ere ona duk.

– Ama jina baxira eni moralaren egitera eta zer egin behar dutan erratera, itzultzen ahal xira berehala.

– Ez, eztiat holako xederik, baina erraten ditek ETAko horiek gaiztaginak eta hiltzaileak direla. Ez nikek nahi hi horietarik edo horien denmendrena alde izaitea.

– Etxitela arrangura ama. Ni gauez ari nuxu Aturri hegiko lantegi batean.

– Sobera maite hut...

– Badakixit...

Aitortzaren urrakoa bertan hertsi zitzaien, Frantxuak zartagina eskuan ama mahaian plantatzera gonbidatzen zuela. Xingar xerra eta arrautzak azietan pausatu zizkion. Burua apalik amak hirian hartzen zuen bere lehenbiziko afaria semearekin partekatzeari ekin zion.

– Entsalada eta jogur bana gero!

Gizonak hozkailuaren atea ireki eta zerratu zuen ostikada ahul batez. Ama kezkaz betea zen:

– Eta ene kafesnea?

– Ezki ura edanen dixiu, sarrixago...

Frantxuaren proposamena amainari zen. Apairu arineko azietak zurrutegian metatu zituen.

Maiana ez zen hiru egunez apartamentutik irten. Semea iluntzeko hamaikak aldera lanera joaten aditzen zuen eta goizaldera sartzen. Eguna lo pasatzen zuen. Maiana jaikitzen zen eta orduak telebistari begira iragaten zituen, bezperako jateko hondarrak irentsiz eguerdiraino atxikitzeko. Arratsaldeetan Frantxuak erosketa zenbait egiten zituen, bakarrik. Alabaina amak ez zuen karrikaratzeko gutiziarik: lotsa zen, hiriaz, hiriko jendeez, manifestariez, poliziez, guztiez. Nahiago zuen etxean gelditu, semeak alegia deus ez ekartzen zizkion errege eta printzesen mundua azaltzen zuten aldikariak hostokatuz. Bat-batean, nehoiz ez ezagututako bizitzeko izua, duda eta disgustua sentitzen zuen bere baitan, hautsiko zela iruditzen zitzaion, zurubitik uretara jauzi eginen zuela behin-betiko: hila nahiko zuen.

Hogeikada astunetan hiririk gabe jardun zuen; Baionara lau aldiz baizik ez zen etorri. Alabaina, bidaia eta kanbiamendurik handiena

Maianarentzat, Etxeparetik Artoizerakoa suertatu zen ezkondu zen urtean. Aitak eta apezak hautatu Jean trunkiloarekin esposatu zen. Bortxaz eta alegrantziaz batera. Orduan, baserriko idiak uztarrian, arropak, aferak eta dotea osatzen zuen oihaleria osoa orgetan garraiatu zioten. Ez zuten hiriaren premiarik: zergatik bada abiatuko ziren erretoreak prediku aulkitik salatzen zuen Baiona bezalako galtokira? Gexanek soldadu-klaseak egiterakoan jasan afruntua jaukitzen zitzaion kolkora, noiztenka, Baiona hitza murmuratzean; gainera hirietara lekututako herritarrak anitzetan lizun eta zital kausitzen zituen. Hala ziren funtsean, Otsabidera zetozenean demagun Omiasaindukari, etxeetan, bideetan eta elizetan ibiltzen baitziren jendearen erranaz axolagabe. Eguneroko urratsak zuzen eramateko ongi kudeatutako ahalkea beharrezkoa zen eta ahalkearen erabat galtzea azken beltza zitekeen.

Sortuz geroztik Maianak ez zituen orenak sekula alferrik higatu; beti bazuen zerbait egiteko, etxea garbi, poallak bazka, ardiak jetzi, sasoiko traholak, haurrak ala arrahaurrak. Baionan ez

zuen higitzeko kalipurik ere. Zerraturik iragan zituen egunetan, eguerdi eta arrats aldera, auzoko apartamentuan aire txarrak buhatzen zuen: han zegoen bikoteak bazkaria elkar erasiatzen pasatzen zukeen, oihu eta garrasika. Maianak azietak erortzen eta hausten entzuten zituen, gorputzak ubeltzen zituzten ukabila kasken oihar elkorrak. Emazte zaharra orduan bere jargian kuxkurtzen zen, harremanak erre zitzakeen haserreak etxebizitzen mugak gaindituko bide zituelakoan. Baina laugarren goizean aspertu zen aitorrezinezko bere ametsa egiazta zain egoteaz, errainak arren laster etxera zedin otoiztuko ziola, alegia Artoizen haren behar gorria zutela, kukumixa kaiola hartarik ateratzeko nahikundea piztu zitzaion. Elizara joateko. Edozeinetara. Zabalik zatekeen lehenera.

Eskaileretan behera jaisten ausartu zen. Karrikara zenean jende-mugimendu bereziak durduzatu zuen. Merkatu eguna zen. Haize hegoz apaindu eki arraioak begiak erre zizkion: busti bitxia nabaritu zuen niniketan. Hotzikara. Murru baten kontra bermatu zen, hatsaren hartzeko. Etorbidearen puntatik susmaturiko katedralerai-

no ibiltzea erabaki zuen. Espaloi malkarrean gora zihoan, gurutzatzen zituen jendeetarik ihes. Espainiako kalea zeharkatu zuenean, auto-gidari baten laidoak jasan zituen:

– Errazu emaztekia, lekuak badira trebeskatzeko! Zer uste duzu ala zure kanpaina zokomoko haietan zirela oraino?

– Barkatu...

Zutik egotearren esku bat beribil zuriaren aitzinean pausatu zuen barkatu! Urrats ezkel bat:

– Hara!

– Papunatxo, ikas ezazu hirian bizitzen!

Burrunba ikaragarrian urrundu zen gidari harroa, trufari. Maianak soa apaldu zuen eta konturatu zen oinezkoen zebra-pasabidetik hamar bat zentimetrotan zegoela; ez zuen erraz ulertzen txofer ahozabalaren ohar-sail gutxieslea. Baina hiriko jendeak minbera eta gaitzikorrak ziren, ez zioten batak besteari deus barkatzen.

Katedraleko sarrera atzeman zuen eta hango ilunpean, ama-ontzi bero eta harkor batean nola, umekia bezain kuxkur belaunikatu zen. Urte leherkorretan mila aldiz *gure aita* marmaratua zukeen baiki; gaur ordea ez zen heltzen: hitzak ez

zitzaizkion ezpainetaratzen. Elizaren barnean begiak alha zeuzkan, hemen ezko-argiak, han bitrail koloretsua, hantxe oraino orgina erraldoiaren metalezko hodiak. Jendeak sartzen ziren zeinatuz, bazterrak miretsi eta isilik jalgitzen. Maiana jargia batean pausatu zen, ipurdi-erdia kanpoan, huts zen arren, balizko itzal bat trabatuko bailuan.

Burua makurtu zuen *Gure Aita zeruetan zarena* murmuzikatuz, segida bitxiki erabat ahantzia zuela konturatuz. Saiatzen zen: *emaguzu gaur gure egun huntako ogia*... baina gero, nola zen gero? *Barkatu gure zorrak* agian? Bai naski *guk ere gure zordunei barkatzen diegun...* zerbait horrelako zen. Zer zen ezintasun hori? Bihotzean, antsia trunpilotu zitzaion: Artoizetik kanpo emana, semearen etxean ez zen desiratua, hondar asteetan bereari abandonatua, inorekin hitz egin ezinik, tristura larriak larrantzia, ez jakin nora jo eta gainera hain ohizkoa zeukan otoitza, ezabatua. Hego haize beltzean, zuhaitz aldaxkaren puntan dilingo zegokeen hosto idor herbal bat zela zirudion. Herriko lagunetarik urrun deus ez zen: jendaldearen oldar mekanikoaren errit-

moak sustaturik orduan erraz eman zezakeen gaur egun agortzen zihoakion *Gure Aita* hura.

Elizako atean, eguzkiak kopeta erre zion eta malko muskilak lehortu. Harrizko eskaileretan behera itsumandoka zihoan, lurrean kukubilko zen gorputz bat kuskatu zuelarik. Berehala, zakurraren txanpa erlastuak aditu ziren.

– Kasu emazu amañi nondik ibiltzen ziren!

Emazteak eskale baten presentzia baimendu zuen, beztidura eta urrinetik beretik. Tabako hotz, pixa eta alkohol baporeak zerizkion. Ahoa handizki irekitzen zuen mintzatzean eta kokotseko bizar desordenatuaren artetik, karkara burlakoietan zinpurtzen zen oroz, hortzik gabeko sabaia jazartzen zitzaion.

– Amañi, gu ere Jinkoak eginak gara...

Behatza Maianaren sabel zimurtuan sakatu zuen, begitartera hats garratza botatzen ziola. Anderea itzulikatu zen. Gizonak akotetik trinko lotu eta eztiki erran zion:

– Baina, amañi, zer duzu negarrez?

– Utz nazazu, etxera behar dut.

– Segur naiz ez duzula aterperik ere! Eni gezurrik ez gero! Sakela horietan, sos pilik ez duzu...

Algara gordina are indartsuago buhatu zitzaion.

– Badakit ene ama zena irudi duzu.

– Ontsa da, utz nazazu gizon, ez zaitut ikusi, behaztopatu naiz, barkatu, ez zaitut nahitara bulkatu...

Maiana eskalearen besoen estekatik eskapatzen saiatu zen.

– Lagunduko zaitut amañi!

Zakurra deitu zuen:

– Haugi Elvis. Ekintza on bat bederen obra dezagun...

Etxeratu zen Maiana, eskaleak eta bere zakurrak lagundua. Baina ez arrunt. Ez zen presatua. Frantxua jadanik lanera joana zen. Afaria prest zeukan mahaiaren gainean. Arratseko zortziak ziren. Denbora ziztuan pasatu zitzaion eta batbatean damu zuen katedraleko sarrerako gizonari izenik ez galdaturik. Maiana oroitzen zen partekatu zuten txokolatesne haguntsuaz; karkazaila ozenak askatuz, ez zela bere edaria ai-

tortu zion eskaleak, ardo gorri lodi eta zikina maiteago zuela alabaina.

– Atzoko ene eskea aberatsa izan da... Goazen elkarrekin zerbaiten hartzera!

– Ez, semea aiduru dut –ihardetsi zion, baina gizonaren urratsetarik abiatu zen Port-Neufeko gozoki eta txokolate dendaraino.

– Lasai, amañi, hain bakartia eta bakartua ematen duzu. Zerbait berok on egingo dizu...

Irri larriaz lehertu zen. Lagunkina ematen zuen. Elerik gaineratu gabe, Maianak itzala azpildu zion, Elvis ttette melenga atzetik zeukatela. Hauxe eskipaia! Karrikako jende plaxentak harriturik inguratzen zitzaizkien; ez zen horrelako jende talderik ardura ikusten: eskale urrintsua, alde orotarik sanoa eta planttakoa zirudien emazte xaharra eta kukusoz kateztatu ora. Frantxuaren apartamentura heltzean, hain berandu, Maianak uzkurdura piko bat nabaritu zuen, baina ontsa pentsatzen jarri eta, semearenean pairatzen zuen utzikeria baino, eskalearen konpainia estimatzen zuen hondarrean. Afaldu eta usaiako otoitzak, katedralaren ilunpean berraurkitzea

zail suertatu zitzaion *Gure Aita* barne horzkaturik, oheratu zen.

Goizeko zazpietan iratzartu zen pixagale hantua. Altxatu eta komunerako bidean zela, ate artekatik, semea begiztatu zuen logelan, mirailaren aitzinean. Emaztez apaindua eta makillajea kentzen ari zen. Maianaren harridura izugarria zen.

– Baina Frantxua, zergatik beztitzen haiz horrela?

– Ama? Zer ari xira? Hemen ene gela da eta ez duxu sartzeko dretxorik!

– Atea zabalik zian...

Maiana trenputxartzear zegoen. Eleak nahasmahas jaukitzen zitzaizkion:

– Zergatik horrela beztitzen haiz? Ez haiz emazte bat arauz! Gaizki nauk.

– Ama?

Frantxuak amen batean Maiana bere etzangian luzatu zuen:

– Ene ofizioa duxu. Baionara jin eta sei urtez Aturri bazterreko burdinola hartan ari izan ninduxun lanean, baina neke zuxun eta jadanik gizonak ene ondotik nititxin.

– Gizonak? Mutikoa, mensten ari haiz ala?

– Bai, gizonak –jarraiki zuen ahalik amultsukien Frantxuak–. Eta behin haietarik batek jokaldi denboran, erran zitaxun emaztez beztitu behar nuela; hara. Horrela irabazten dixit ene bizia.

– Hire burua saltzen duk?

– Bai, ama.

Frantxuak kopeta apaldu zuen.

– Beraz gizagaldu baten ama nauk? Ez diat hemen minutu bat gehiagoz ere egon nahi. Ama familiako ohoretsua nauk.

– Bai hala xira, sortetxean berean nehork onartzen ez duen ama familiako akitua. Xaude enekin...

– Hirekin? Zer pasatu zaik gogotik horrelakotzeko? Orain konprenitzen ditiat herritarren begirada zeharrak hitaz urguiluz ari nintzelarik. Hiria bekatugunea zela zioen apezak eta hark zerbait bazekian: zergatik ez zait inor argi eta garbiki mintzatu?

– Ez baitzen erraz... Neska bat moldean maitatu eta hazi nuxu: ez xira bozkariatzen gaurkoan nolako emazte perfektua bihurtu nizan ikus-

tean? Ikus itzaxu ene bular faltsu ederrak! Eta azpiak, eta ixterrak, eta papoalde hau, ilerik gabe.

– Arras zozoa haiz. Bizia duk galdu. Fin eta abila hintzan!

– Emaztetzeko operazionearen ordaintzeko sosa behar dixit.

Sosa behar dixit mila aldiz aztalkatu zuen Maianak. Edozer obratzen zena diru premian? Ez zen haatik Frantxua sosaren erregetzaren ideiarekin hezia izan. Andere zaharraren orduko eguna burtzoro batean iragan zen, negarrez, galdezka eta semeari bereziki eman zion edukazioaz zalantzaz itoa. Semea hor zeukan alta, gohainaren uhinek gibelondoa zitzikatzen ziotela, salda usaintsua, ezki-ura edo kafe beltza sukaldetik ekartzen. Sekula ez bezala artatua eta gozatua sentitzen zen.

– Medikua deituko dixit.

– Ez.

– Baina sukarra baduxu ama!

– Hago isilik. Otoi.

– Ama!

– Hil nahi diat...

Berriz lotaratzen zen Maiana. Frantxua beha zegokion samurkiro, aspaldian egia aitortu bailion ez zuela gaurkoan horrelako krisiari jasanen pentsuz harilkatzen. Amaren zentzea itxuratzean, gizonaren sabelpetik kolkoan gora ikara eta izerdi hormatua igotzen sentitzen zituen. Gurasoek, etxeko bakeagatik, gaizki zegiten haurrak hitz egitera ez uztean, galdera zuzenik ez egitean eta haurrek gero, beren bizibideak hein batean finkatu eta, gurasoei egia ez agertzean. Herio desira, norberarekiko bortizkeria halaber, zioen bereber Frantxuak amaren hatsartze ahula gerizatzen zuela, inkomunikazioaren harresietan bermatzen zen, uholde.

Gau hartan gizonak ez zuen *lanera* jo. Bitxiki kontsideratu zituen emaztez maskaratzeko armairuetan eta mirailaren maldan zeuzkan girgilak. Ama lohasman zegoela, dutxatu zen eta fereka soil eztiaz zakila gogortu zitzaion: gizatasunak anbiguitatez oparitzen zion haragi puska esku biez torratu zuen, goitik beheiti, barrabiletan metatzen ari zitzaion kalipua bulkatuz. Zakila arrosaren puntta minbera kilikatu zuen, begiak apal eta auhenka. Gizon-maitale baten piti-

liaren koroa murtxatzea gustatzen zitzaion, ez-pata-jokoan berearekin bestea gurutzatzea eta ororen gainetik, gona altxatu eta zetazko azpiko gorri edo beltzak bazterturik, ohaidearena, ipurdi zuloan sartu aurreko istanteetan, zangartean arrain hezeren lekeda hara-honaka uhinka nabaritzea. Zakila ausartak uzkiko borta jotzen zionean, berea sumendia bailitzan jario uher eta irakinetan lehertzen miresten zuen. Apainketa lasterra arra kolpatu oihu eta garrasitan bukatzen zen. Orduan ere dutxapean zartatu zen, hazia urarekin nahasten zitzaiola. Maitale-ordaintzaileen ohetik jaikitzean, hatsanka, soaz hazta zitzakeen ipurdi mazela iletsuak, tripa sail hirukoitzak, koskoila hustuak eta oihan ilunetan aterpetzen ziren zakila jada hertuak irudikatzen zituen: amultsutasun erraldoiak bihotza gatibatzen zion. Idortu eta beztitu zen hasperenka. Sukaldaritzari eman zen, ama ez baitzen batere ongi.

Herots elkorrak aditu zituen ondoko gelatik. Emaztea ez zen kantitzen, paralesiatua irudi zuen. Frantxua deika zinpurtu eta azkenean Maiana trinkili-trankalaka egon-gelaratu zen, bi-

loak barreiatuak, begiak blai eta jantzi urdinak purtzilikatuak. Semeak galdatu zion:

– Mediku bat behar duxia?

– Zer mediku eta zer deabru? Kanpoko norbaitek ikus dezan ene makurra? Uste duk ez dela aski ala? Bihar Artoizera nihoak.

– Jakesen emazteak zahi-zaku antza erabiltzen xitu. Hobe duxu enekin egonik, orain egia baitakixu. Ontsa biziko gituxu biak.

– Eta zer erranen dute karrikan harrapatuko nautenek?

– Hori bai beldurra, xure eta herritar guztien urratsak trabatzen, geldotzen eta mugatzen dituena. Baduxia dirurik?

– Hire laguntzeko? Zentimarik ere ez.

– Ez...

Frantxua isildu zen. Jarraitu zuen:

– Ez ama, xuretako, hiri honetan jarduteko. Segur nuxu xure xahartasuna etxeko kontura doala zuzenka!

– Hire anaiak eta errainak ematen didaten dirua besterik ez diat. Eta funtsean ez diat sos beharrik.

– Gaixo ama!

Maianaren eguna bitxia izan zen. Frantxuarekin gaua inguma bipiltzen iraganik, goizik jaiki ziren biak, mutikoa elekari eta Maiana mutu-lehertua. Postara jo zuten kontu korronte bat irekitzeko eta handik itzultzean, emazteak bezperako eskalea topatu zuen; aurkezpenen tenorea zen:

– Semea, Frantxua...

– Ezaguna duzu kartier honetan –trufa eta aldi berean laguntasuna seinalatzen zuen barreaz kulunkatu zen–. Eta ni, amañi, nahi baldin baduzu jakin, Yves nuzu!

– Seme dohakabe baten ama dohakabea naiz, Yves.

– Preso ere izaten ahal zuzun –artekatu zion, murru zikinetan GALen atentatuen eta kartzelatutako euskaldunen egoera salatzeko itsatsiak ziren afixetako leloak erakutsiz.

Maianak bortitz so egin zion:

– Bi gaitzen arteko hautua baizik ez diat orduan? Ez ote zen Frantxua langile xume eta segitua izaten ahal, aita familiako normala edo nik dakita zer?

– Badakit Maiana –biribildu zuen Yvesek– leku segurretik, bizi bakarra edukiz gero, garrantzitsuena norbera bere gustura eta ahalik hobekien *izatea* dela. Eta osagarria lehen!

– Osagarria lehen...

Ahoa plegatu zuen Maianak, disgustuz, eskalearen magaletik aldentzeko Frantxuaren haiari ihardetsiz.

Frantxuak Jauregiberri kaiko jatetxe ponpoxera gonbidatu zuen bere ama. Karrikan zebiltzanean, noiztenka jendea haiei begira zegoen eta Maianak ez zezakeen bihotzean iltze herdoilduaren pare bermatzen zihoakion herabetasuna bazter: denak zelatari zituela zirudion, seme bekatariaren itzala seinalatzen ziotela eta batzuetan jende bildu multzo baten hegitik iragatean, *salatari* hitza herraz bihikatua aditzen zuen. Oroitu zen apalkeria berdinaz ito zela, zuela aspaldi Baiona bazter hauetan makisarrek tiroz eho zuten Josetekin larrua lehen aldiz jo zuenean, han, Bitxirineko belarkaren ondotik, soropilaren gunerik ilunenean. Uste zuen gero, hazi hezea azpi-artean isuri-bero nabaritzen zuela, denak beha zeuzkala, burla eta apalkoi. Ahalkea

larruari loturik zeramala iritzi zuen, doterik baliosena agian. Aski laster, errestaurantean ziren, mahaian plantatu eta isil-isilik bazkariten hasiak. Frantxuak ama inarrosi zuen:

– Altxa ezaxu buru hori ama! Kexu xira ala?

– Bakea emak mutikoa. Uste duk erraza dela enetako?

– Nitaz afruntatua xira?

– Nahiago diat deus ez erantzun.

Maiana mutu zegoen. Hargatik, haginen martzilika mendratuz eta leihotik kanpora so, denboraren buruan erantsi zuen:

– Gertatuak gertatu, jakin ezak, Frantxua, hire aitak ez nauela nehoiz errestaurantera gonbidatu.

–4–

Xarlesek ez zuen bere bizimoldea maite. Lan eta lan, goizetik arrats ostatura zetozkion jendeak haia-haia zerbitzatzen. Bar des Amis-ko nagusiak klienteren batekin sobera denboraz solasean ikusten zuenean, beti erasiatzen zuen, ahoan bilorik gabe. Zernahi aditzen zuen une horietan: alfer hutsa zela, ez-deus bat, euskaldunek ez zutela horrelako famarik, egiazkoak langileago zirela, Xarles kontratatu zuen egunean ez zuela suerterik izan... eta dena zinkurina. Hogeita lau urteko mutikoak, orduan, errabia barneratzen zuen, etxe inguruko bazter ederrez oroituz. Ez zuen erremedio hoberik eta zanpa-zanpa berriz hasten zen bezeroen desirei ahalik zaluen plegatzen.

Baserrian geratu Joanes zeukan gogoan, halaber Parisko hotel edo jatetxeetan barreiatu bere hiru arrebak. Aitama zaharrak haurrek lortu situazioneez harro ziren. Kapazitate handiak zituztela hots! Situazione eta kapazitate hitzen S-ak txaflakatzen zituzten, suge santsan. Hargatik,

Bar des Amis-era jinez geroztik bi urte lehenago baino zoriontsuago zen Xarles. Alabaina, Austerlitzen trenetik jaistean, herriko apezak izenpetu zion gomendio gutuna eskuan Neuillyra zuzendu zituen urratsak eta egunak, egunen ondotik, monsieur eta madamen mutil hezi gisa higatu zituen. Han ezagutu zuen Jeanne jaun-andere haien sehia.

Jeanne garaztarra zen jatorriz. Neska isil eta umilak mamu barrez betetzen zituen. Amorostu ziren. Ez zuten elkarrekin egoteko eskubiderik, madamek ez baitzuen bere teilatupean nahasmendurik nahi, baitzekien hark kanpainako gazte horiek egiazko kabalak zirela. Madamen ordrea ez zuen ez Xarlesek ez Jeannek hautsi. Lanean ari ziren, frantsesez hitz egin behar zutela kiskun-kaskun. Nagusiek handikiak errezibitzen zituztenean, gonbidatuen trufugai bihurtzen ziren:

– Jeanne dites-nous quelque chose en basque –eskatzen zion andreak.

Eta neskatxak erranahirik gabeko perpausa ahoskatu orduko, afariteko bilduak irriz karkaila-

ka lehertzen ziren. Ez zen, ez, ausagailu arraroagorik!

– Approchez, Charles –xuxurlatzen zion gero jaunak eta, bere adiskideei buruz bizkarrez bihurdikatuz, eransten zuen–: Regardez-moi ces mains de gueux...

Burges erraldoi haiek oro oihuka zinpurtzen ziren. Jaunak segitzen zuen:

– Imaginez que ce jeune paysan savait à peine parler français quand il est entré à mon service.

Harridura intziriak biderkatzen ziren, algara gordinak. Mutikoa gelatik urtzen zen burua apal, jaun-andreek esku gibelaz joateko keinua marraztu bezain laster. Baina ez zuen axolarik, bere bidea azpatuko zuela hiri handi hartan, jende hauen izpiritu hertsikeriaren azpitik.

Halako batean, Neuillyko palazioan abandonatu zuen Jeanne, Frantziako Asanblea Nazionalaren egoitzaren saihetseko karrikan zegoen Bar des Amis ostatuan zerbitzari jartzeko, Gaxtoni esker. Artean bi hilabete pasatu zituen lanik gabe. Euskaldun gazte gehienak juntatzen ziren Etoile aldeko Grenelle karrikako dantzaldian, hi-

tzetik hitzera, Gaxton atzeman zuen. Taberna batean leku bat libratu zela jakinarazi zion, haren partez aski zuela bihar berean presentatzea gehituz.

Akordeoi saldoek baltsak eta mila moldetako java alegerak eskaintzen zituztela garagardo baso parrasta bat hustu zuten elkarrekin. Goizaldera, La Motte-Piquet etorbidearen 26 zenbakiko egoitzaren seigarren estaian zeukan kukumixategitik iragan zen, begitartea garbitzeko, kafe azkar baten edateko eta Bar des Amis zelakora bideratzeko. Gaxton bera Trocaderoko ostatu bateko zerbitzari trebea zen eta Elli honen arreba aldiz Lutecia hotelean sehi zegoen. Otsabideko belaunaldi berria kasik osorik gurutzatzen zen Grenelleko besta haietan. Herrian debekatua zitzaiena obratzen zuten: neska-mutilen dantza hurbilak, mutikoak arraiki mozkortzen zirela. Asto eta mando, lanean higatzen zituzten asteak goizeko bostetarik gauerdi ederki pasa arte.

Zer eginen zuten bada herrian gelditu baldin baziren? Tillu edo Klente eskale ibiltari mehakoil haien plantan, amoina? Edo Arbideko harakinaren kontu, gauez kanpoan alhan zebiltzan behi

zein zaldi hiltzaile? Alabaina Xarlesek behin baino gehiagotan auzoko abereak kalitu zituen, jendeek kabalen desagertzea negartzeaz beste erremediorik ez zutela. Ez zen odol tatxarik ere ageri belarrean! Errazu zer eginen zuten, gaiztagin bihurtzeaz beste? Nahikoa goraki errepikatzen zitzaienez, ez zen Otsabiden alfer beharrik.

Halaz, etxeko zazpi haurrideetarik bat segidako geratu zen, bi neska seroratzeko Filles de la Croix komentura bidali ziren eta gainerako laurak, Xarles bezala, Parisen ziren sehi eta mutil. Azaltzekoa zen zertifikata erdietsirik Arno metroko langile bilakatu zela eta Xaxik gauez gau postako konkurtsoa aurkezteko etsamina apailatzen zuela. Ametsik gabeko lanak. Xarlesek zaldi ehaiten gordeka higatu urteak bihikatu zituen: sosa ederki sakelaratzen zuen eta arditen dardaraz edozein neska txirikorda zezakeen, oldar ez zitezkeen itsusienak barne, neskek diruaren ohorea baizik ez zutela begiko sinetsirik.

Xarlesen gustuko metro edo postako ofizio horiek bizi-segurtatzaileak izan arren, ez ziren aski emankorrak; Xarlesek agudo aberastu nahi zuen, beharbada bihurrikeriak baztertu eta seku-

la harremanak irauten baldin bazuen, Jeannerekin ezkondu, herrira itzulirik magasin edo jatetxe baten irekitzeko. Sos anitz izerdi soberarik gabe: Xarlesen filosofia zen. Gogoratu zen Bac karrikako Medaila Mirakulutsuaren elizan meza xumexumea entzunik nola apirileko igande arratsaldean Montmartre kaskora igo ziren Gaxton, Elli, Jeanne, Xarles eta bizpahiru adiskide. Eguzkiak esne-krema koloreko Sacre Coeur basilikaren kupula distirarazten zuen, eta goian Xarlesek besoaz Paris erakutsiz txanpatu zuen:

– Hau guztia neurea dateke, hemendik bi urte barne!

– Bakea emak –ebaki zion espantua Gaxtonek–. Gure gain jartzeko doia ateratzen baldin badiagu ez dukek gaizki.

– Ez zarete nehoiz helduko: irabazi txikiko kaka-jaleak zarete.

Paris osoa irudiz bermeetan inarrosarazteko oihua askatu zuen Xarlesek. Igande hartan lagun taldeak, sarrerako haiariaren dei amainakorrei elkor, hustu behar omen zuelako, Pigalleko putetxe baten atarian utzi zuen Xarles. Gavrochen

txapela zeroanak, laukote bildua ikustean, nondik bada zetozen eskatu zien:

– Euskaldunak gara –Xarles harro zen.

– Ni ere hala naiz!

Parisko aieruz mintzatzeari uko egiten zionean Otsabideko kantonamenduko herrixka bateko euskalkia erraz sumatu zitzaion.

– Bizi behar da nolabait... Nahi duzue zerbait edan?

Neskek buruarekin ezezko borobila kulunkatu zuten. Xarlesek urrizak Elli eta Jeanne Gaxtonen gomendioan laga zituen, azken aholkua emanez:

– Prestuki ibil zaitezte gero!

– Eta hi ontsa goberna!

Xarlesek haur mukizu zenean aitaren zintzurretik gaitzitzeraino aditzen zuena errepikatu zion Gaxtonek. Putetxean sartu zen, zangartea ahurraz banbaka joz. Besteek metroa hartu zuten eta norbera bere kukusotegietara bideratu zen, lanerako azkar eta prest izateko. Grenelleko hurrengo dantzaldirako hitzartu ziren eta bideak bertan bereizi zitzaizkien.

Bar des Amis tabernako eguerdiko mozturaren karietara, ogitarteko mehea hortz-artean

Xarlesek etorkizun hobeagoa zeukan amets, edozein. Otsabideko lehen auzo burlariaren zurbailarazteko modukoa.

Manexunek karkaza gordinez hartzen zuen urtean behin bi asterako etxe ondora oporretara zetorrenean:

– To auherrak ere hemen ditiaguk!

– Auherrak eta oraino pausatzera heldu...

Barrezka, eskua agurtzeko altxatzen zuen. Manexunek buneta goratzen eta aihena inguratzen zuen saparrera hurbiltzen zen:

– Jina beraz?

– Baha, zenbait egunentzat. Aita et'amengana.

– Ontsa dituk. Osagarrian. Eta zein poliki moldatu duten ez hain aspaldi dena errauts eta lohi zeukaten ezkaratza! Ikaragarri irabazten duzue dudarik gabe Paris horretan?

– Lan ere egiten diagu: goizetik arrats eta beti besteen meneko.

– Lana zer den ikasten duzue horrela. Bazinuten ba beharra: Oskilazoko haurrak ez zinetela lanean akitzen eta *Eskualduna* irakurtzen denbora galtzen zinutelako fama zinuten!

Hori entzutean, Xarlesek Manexunen begitarte inuxentaren ukabilkadaz kuskatzeko eta ubeltzeko gutizia salbaia bere baitan menderatzen zuen. Ez zion erantzuten. Isiltasuna hedatzen zen bien artean, eta soilik mahats-ondoen maldatik xoxo-moko horail baten kanta jazartzen zen. Irudiz sasoiz kanpo. Baina ez, arrazoitzen zuen bereber, zernahi urtarotan bazebiltzan xoxoak eta pika-bele zuri-beltzak lurraldeak harro eta alegeratzen. Xarlesek partitzeko keinua egiten zuen. Manexunek ez zuen nehoiz jakin nork eho zizkion Pentze Patarrean zeuzkan behor eta garaino preziodun haiek. Xarlesek irri mendekaria libratu zuen eta Manexunek besondoa tinkatu zion:

– Roxali ere hemen duk. Astearentzat hura. Atzo mezetan zian: hauxe andre mindulina bilakatua den Traputegiko premua! Parisera joanez geroztik ez dik espantu baizik. Apeza eta errientarekin frantses handi batean mintzo zian. Eta gu saihetsean, ausikitzeko prest. Bazauka? Traputegian ez ditek mutilik ere; balio dik ba espantuka aritzea! Bere frantses zerratuarekin eta soi-

nean dauzkan arropa koloretsuekin irudi dik puta bat...

Karkazail argamasa askatu zitzaion, ipar haize meheak mugiarazi buneta plantan jartzen zuela:

– Beharbada puta bat baizik ez duk Paris horretan.

– Ez, Roxali, gure Ellirekin Lutecia Hotelean sehi duk.

– Errak nahi duana, baina ene ustez...

Biltzen ari zen caporal tabakoz osatu zigarretara begiak apaldu zituen zaharrak. Poltsa gris karratua besapean zetxikan, ezkerreko esku ahurrean tabako azkar marra bat bihurdikatzen eta eskuineko eskuaz job paper azal fina tanpez pausatzen zuen. Saparreko pazoiaren kaskoan bi puntak jo zizkion aldizka eta zigarretatik eskapatzen ziren bizar hariak behatz zaintsuaz ebaki zituen. Xarles bozkarioz desafiatuz, hasperen bat bota eta ezpain izkinan landaturiko zigarreta meharrari su eman zion. Mahastian zehar desagertu zen:

– Lanera baniak!

Xarlesek berekiko buhatu zuen:

– Eta hire zaldien zitzi-sosa ene solexaren erosteko joan dela!

Manexunen hautinaren hegiko bidetik Oskilazora zuzendu zituen urratsak. Beti gauza bera zen: Parisera abiatzen zirenek ez omen zuten trufa garratza baizik merezi, hirira joaten zirelako, mutikoak mutil izateko eta neskak, nola ez, puta bilakatzeko. Alta, errepikatzen zuen Xarlesek etengabe, ez ziren denak herri honetan bizitzen ahal: ez zen lanik, ez zen dirurik eta bigarren gerla bururatu ostean etxeetara zetorren dirua Paris edo Bordeletik faturrak zuen mandatez ekartzen zuen. Baserri erdi-hustuetako seme-alaba zintzoek beren hilabete sari urritik bereizi eta noizbehinka igorri sosa zen.

Zena zela, etxe bederako gazteak noizbait partituko ziren, Parisera ez baldin bazen, kantonamendu zein departumenduko hiri nagusietara. Etxetik gertu agian. Batzuk ez ziren kantituko: haur soberakinetan semeak apez eta alabak serora sarraraziz jalgiko ziren zepotik. Batera baitzen ororen buru: batek hartuko zuen segida eta beste anai-arrebak oinarrizko habiatik hegaldatuko ziren, erregepittitta txepel.

Manexunek ez zuen hurbileko enpleguetara plegatzen zirenez gaizki-erratekorik: Parisera lanera joanak zituen partida. Bere irudiz, frantsestuak eta frantsesaren jakiteak zekarren urguilu astoz hanturik bazebiltzalako gero oporretara zetozenean. Jasan ezin zitzaion: zaharraren herraz harritzen zen Xarles, bazekielako batetik Manexun ez zela baitezpada euskarari atxikia eta, bestetik, berak ere lau anaia bazituela Arizonan kabituak. Baina Amerikak dirua metatzeko helburu ederrak ziren. Eta Paris, geltoki zikin bezain likitsa, batez ere neskentzat, zira freskoaren usaina zerion prediku aulkitik apezak zionaren arabera. Gainera herrian ez zen aski zaldi, behi edo ardirik izango gazteen sasi-bizibidearen segurtatzeko, Xarlesen bandak urtean seipazazpi kalitzen baldin bazituen: mutikoaren kolokahotsa irentsi zuen ipar haizeak.

Manexun eta horrelako gizon mindulinen mutuarazteko adina aberastuko zen laster. Nornahi harrapatzen zen Parisen. Bar des Amis ostatuko gainaldeko gelako billar jokoaren inguruan ezagututako Tadjik adiskidea demagun. Tabernako gela gelberetan itzal, arratoi soarekiko gizona

gurutzatzen zuen, plazerekin. Biziki gisakoa zen Xarlesekin, edari karioak igotzen zizkion oroz, gaitzeko diru puskak uzten zizkiolako. Batzuetan gaztearekin solasean galtzen zen eta sosa, noski borondatea baldin bazen horretarako, erraz eskuratzen zitekeela azaltzen zion:

– Aberastu gogo baldin baduk, haugi gurekin.

Nehork ez entzuteko gisan mintzo zitzaion, ahurra papoan banbatuz, moltsa gotorrak jantzia borobiltzen zion tokian hain zuzen. Xarlesek ez zekien zer ihardetsi, Parisera etorriz geroztik ez zuelako nehoiz hilabete saria aise bereganatu.

– Zer duzu eni proposatzeko?

– Chatelet metro geltokian biltzen gaituk, Mairie d'Ivryko norabidean. Hator. Langile on eta fina haiz. Ageri duk. Hire partea ukanen duk, galanta gainera.

– Gaur ezin dut, baina bihar arratsean han izango naiz.

– Erranak erran Xarles...

Idatzirik zeramazkien zuzenbide eta telefono zenbakien papertxo zuria luzatu zion.

– Deit ezak beldurrik gabe.

Zerbitzatzeko platera mahai kantoian pausatua zeukan, oihala ezkerreko beso-gainean eta eskuinekoaz Tadjiken bisita-karta hara-honaka erabiltzen zuen. Oraino horrelakorik horzkatu zuen bezeroen oihuak aditzen zituela *garçon! garçon*! hauxe da, beharbada, ene xantza eguna! Bihotza pil-pil ari zitzaion.

Hitzordu lekura bideratu zen Tuileries baratzeetan zehar. Tadjik misteriotsua eta haren lagunak han zeuden. Adiskideki errezibitu zuten eta, premiazkoak ziren seguritate neurriak zaintzearren, Ivryra zihoan metroan satortu ziren:

– Bihar gauean San Sulpizio mirazkatuko diagu.

Tadjik isildu zen auhen batean. Kideak oro begira jarri zitzaizkion. Batek ahapekatu zuen:

– Eta berri hori nor da? Fidagarria da?

– Alaina...

Arratoi aurpegiduna zaunkaz ari zen, asiar estepetako eleen ahaire bortitzegia mendratzen saiatuz:

–Agudo aberasteko nahikundea aski da fidagarria izateko. Zuek bezala. Eta arditak burrustan isurtzen dira zuen sakeletara, ez?

– Baiki!

Fanch izenekoak algaraz jarraitu zuen:

– Bihar San Sulpizio eliza biluziko dugu beraz. Berria kanpoan barranda utziko dugu eta irabaziaren ehuneko hogeia emango diogu. Zer diozue horretaz?

Tadjikek Fanchek finkaturikoa baieztatu zuen burua higituz. Berak ostu ontasunen balioaren ehuneko berrogeita hamarra zetxikan eta gainerakoa partekatzen zen hiru, eta hemendik aitzina lau kideren artean. Place d'Italiera heltzean norabidez aldatu ziren, billete berdinaz baliatuz. Chatelet-era itzultzean, eliza pikarraitzeko ekintza ozkan jarria zuten eta Port-Royal geltokian bereizi ziren.

Tuileries baratzea ez zen oraino hertsia, eta Xarlesek La Motte Piquet etorbideko sehi-gela urriraino jo zuen, arrangura kiratsak pentsamendua kilikatzen ziola: eliza erasotzea ez zen Manexunen zaldien kalitzea! Emeki bazebilen. Zuhaitz lainoen azpian agertzen zitzaizkion harri edo burdin-tailuei begira. Han-hemenka haur batzuk ari ziren jolasean, iluna jaistear zegoela.

Ez zuen Jainkoaren Etxea ontasunez arintzeaz besterik kausitu presaka aberasteko! Amak hori jakingo balu! Baina beranduegi zen gibel egiteko, ez zena gaiztaginetan eskualdunen artean nola, hala hitza hitz. Hargatik, ohe gainean etzan zenean, sabela nahas, goiti egiteko gutiziak sabela udalatu zion: xedez, obraz eta hitzez bekatu eginen zuen eta zuzen-zuzen infernuratuko zen. Lanera abiatzeko orduan izerdi hotzez zegoen, zepoan harrapatu azeri kaskogabea bailitzan.

San Sulpizioko ekintzan egiaz dena ongi pasatu zen. Atean geratu zen. Polizia edo susmopeko edozeinen hurbileraz kideak bi huxtuz abisatu behar zituen. Gauerdi hartan elizaren inguruak basamortu ziren. Jainkoaren Etxetik Tadjik, Fanch, Marcel eta Mario zakuak gauza ozentsuz hanturik jalgi ziren, harroki. Xarles ohartu zen guztiek pistola beltzak zeuzkatela eskuetan. Segur aski kargatuak. Premian, hiltzeko. Fanchek Xarlesi alde egiteko agindua eman zion. Errotak intzirika, ziztuan abiatu zen DS auto ilun batean metatu eta Parisen zehar, beribila harriz osatutako hiriko karriketan klas-klas ozenka,

Montmartre eskualdera lehiatu ziren. Pigalleko putetxe bateko soto sakonean aurkitu ziren laster, ebatsi aberastasunak espantuka elkarri erakusten.

Tadjikek diamantez hornitu kaliza jarri zion eskuetan:

– To... Hori hiretzat, Xarles, ongi etorri gisa.

– Ez, ez dut nahi. Bekatu da.

Urrats izutua egin zuen atzera, ez zuelako behinekoan horrelakorik ahurrean tinkatu. Besteak oro karkaila gurintsutan lehertu ziren:

– Hauxe inuxenta! Urrezko ontzi bat baizik ez duk, zozola! Har ezak, hirea duk!

– Ez, ez dut nahi. Bekatu da.

Fanchek kaliza aho aurrean bortxaz jarri zion, zerrikumeak bezala musuka zezan. Ez zuen Xarlesek sekulan kalizarik besarkatu. Apezak ere meza garaian jendeari bizkarrez altxatzen zuen zerura eta hor, iruditu zitzaion ohointzaz gain, Jainkoa zuzenean blasfematzen ari zela. Bulta txarra pairatu zuen. Hargatik, besteak baino gutxiago ez zela frogatzeko, pott nasaia eman zion.

– Hau enetako orduan!

– Bai...

Tadjikek segitu zuen, hotz:

– Anartean para ezak gainerako puskilekin. Mario joanen duk bihar auzoan ezagutzen dugun urrelari batengana, gureak diren opariok diru truke aldatzera. Ez dea hala Mario?

– Segur baietz, Abdelen dendara gaur bertan joko nuke, ordu honetan zerratua ez balitz. Uste dut orain beste lanik badugula! Goazen gaineko geletara, neskak zertan diren haztatzera.

– Ideia ona!

Marcelek zigarroa pitz eta txapela burura ekarri zuen.

Neskak aiduru zeuzkaten, herrokan. Tadjikek bi elez normaltasun itxurarekiko tratua hitzartu zuen Maiwen etxekanderearekin. Taldeko lau kide finkoek beren behokak zainartenen artean hautatu zituzten. Xarles beltzaran moxkote batekin gelditu zen. Emazteak mutikoa eskutik hartu zuen:

– Egun gogorra ukan omen duzue.

Irriz lehertu zen eta takoi kolpe batez ganbarako atea irekiz erantsi zuen:

– Gibeletik gustatzen zaidak...

Mihiak mihiari izugarriko lapatinkada eman zion. Trenputxartzear zegoen Xarles, baina hankarteko pastenagriaren bermea nabaritzean, sosegatu eta izpiritua bildu zen. Ederrak trebeki desegin zion zinta. Galtzak erori zitzaizkion eta, gotortutako zakila salboin urez eztiki garbitu ondoan, preserbagailuaz estali zion. Ez bat ez bi, beltzarana leiho saihetsera bulkatu zuen eta gona laburrak baztertuz zitzialde gurintsua agerrarazi zion. Ezkerreko behatzak alu bustian sartu zizkion, eskuinekoek zeta gorrizko atorraren pean bularrak bilatzen zizkiotela. Emaztea auhenka hasi zen. Ipurdi mazelak urratu eta gizonaren txistua itsumandoka bideratu zuen. Xarlesek tanpez sartu zion atzetik: bat-batean itsasoan igeri zebilen. Errain-ukaldika goiti eta beheiti mugitzen hasi zen, uhinka, neskaren uzkia eta bere garbots pare hantua elkarren kontra kuskaka sentitzen zituela, haizeetan klaskan zebiltzan bela zabal. Beltzaranaren titiak kilikatzen zituen, kukurusta gorria zimikatzen zion eta belarria ausikitzen. Neska ohe gainean lau hankaz jarri zen eta Xarlesek, zakurrak emea nola, hala

bete zuen, zutik eta oihuka. Orroaz hustu zen Xarles, hiltzera zihoan urde.

Emaztea hedailo geratu zen, atsegin intziri mikorik gabe. Mutikoak gorputz etendua inguratu zuen eta jario zuriz itsasoturiko haren sasiaren musukatzeari ekin zion. Neskak gizonaren burua biloetarik tiraka altxatu zuen, xuxurlatuz:

– Bihotz, bego horretan gaurkoz. Hire nagusiak ez dik gehiagorentzat ordaindu.

– Baina...

Xarlesek Tadjiken presentzia erabat ahantzia zuen. Bat-batean gogoratu zen, ikaraz, oren bi lehenago zaldi-pikatzailetik eliza-ohoinen gradora hupatu zela, kalizari pott lizuna eskaini zion unean hain zuzen ere.

Tadjikek eman zion lehen dirutzarekin Rivoli karrikako magasin panpox batean aratxe larruzko zapata zuri-beltzak erosi zituen. Ohoin bizimodua ohizkoa bilakatu zitzaion. Baketsua. Aireratzen zuen tiro bakarra emazteekikoa zen. Halatan, ondoko ekintza ugarietan arraina uretan bezala zebilen: eliza, banku edo posta-bulegoak erasotzen zituzten, autoz desagertzen ziren eta gaua Pigalleko putetxean bukatzen zuten. Hor

haatik Xarlesek ez zuen berriz atzetik hartua izatea hain maite zuen beltzarana nehoiz ediren. Bar des Amisko lana abandonatu zuen eta, euskaldunen elkartasun sareari esker, herriko gizon politiko baten bizkartzain zereginetan zinpurtu zen.

Gaxton, Elli eta Jeanne ez zituen ardura ikusten: ekintzarik ez zuen larunbatetan, Bac kaleko elizara joaten zen eta segur aski, kideak ohartzen hasiak ziren zein heinetaraino barnez kanbiatzen ari zen Xarles, itxuratik beretik. Hiru piezatako kostuma karioa zeraman soinean eta oinetan aratxe larruzko behialako oskiak. Gaiztagin baten potreta zen, kapetut.

Gaxton behin gomendioz hurreratu zitzaion:

– Kasu emak norekin ibiltzen haizen, Xarles. Hire aitak ontsa gobernatzeko aholkua eman ziakan. Oroit hadi horretaz.

– Zer duzue zuek? –herritarraren abisuaz kexu zen–. Ur benedikatuetako igelak baizik ez zarete. Utz ezak ene aita bakean!

– Itzul hadi bide egokira, Xarles.

– A bai? Zuen Eskualdun Gazteriak izeneko batasuna duka bide egokia? Apez, apezondo eta

serora zein seroragai erle-kofoin hori? Behi kaka urrina dariola?

– Gaizki ari haiz mutikoa...

Gaxtonek debalde bailitzan, Jeannerekin dantzara lehiatu aurretik, Xarles bertan landatu zuen. Jeanne Gaxtonen besotik urruntzen segitu zuenean errabia piztu zitzaion, eta menturaz askiko zuen paltoaren barneko sakelan zeraman pistola aireratzea, emaztegaia *ebasten* zionaren suntsitzeko. Ordez Grenelle aldeko dantza-tokia aztalkatuz, joan zen, bereber *ikusiko ditek* murmuzikatzen zuela. Luzaroan entzun zuen Grenelleko akordeoien soinu alegera, hainbat non Saint Florentingo elizatik zilarrean bizihaztu Jesusen tailua iltzatua zekarren egurrezko gurutzea ostean, ez jakin nork abisatutako poliziaz inguraturik, bera ere kalbarioko estazione zela, oraindik ere musika airos hura zerabilkion kaskozokoan.

Tadjiken bigarrena izendatua izan zen orduko eta, edozein lekutarik aberastasunak ostu ostean, lanjer eta mehatxu handienetarik jalgitzeko izugarri trebea zen. Salbu San Florentingo zoritxarreko egun hartan. Gurutze astunaren pean

zen, besoak zabalik, belauna eta gerria bi balaz zitzikatua. Odol zipoa begiratzen zuen. Hatsa eskas zeukan. Min zuen orotan. Mututua zen. Begiak Jesusen begietan landatzen zituen, salbamendu bila. Erran gabe zihoan, taldekideak hegaldatu zirela, Patrick barrandari berriak Polizia heldu zelakoaz multzoa abisatu bezain laster. Laguntzarik gabe zegoen beraz.

Bertan hilen zela seguru zen. Alta ez zen horretarako etorria. Informatzaileek eman xehetasunen arabera, San Florentin elizako ontasunak lapurtu eta saldurik, gaitzeko sos zionea erdietsiko zuten orokorki partekatzeko, partikulazki aldion Xarles ekintza-buruak. Gainera San Florentin izenak grazia berezia sortzen zion kolkoan: alabaina ez zena Seine ibarreko hiri horretako geltokian gertatu osaba Joanesek kontatzen zion istorioa?

Osaba miresten eta haren trakako fama harrapatzea xedetzen zuen. Amaren anaia lehen munduko gerlara abiatu zen 1915ean, adinean zeuden herritar frankorekin, hala nola Piarres Harrondo, eta justuki Paristik Verdunera zihoan trena San Florentinen ekuratu zenean zaldiak

kargatzeko, osabak ihes egin zuen. Subazterrean bildu ilobek Joanesen eleak edaten zituzten; zioenez, bizpahiru aste eraman zituen jendarmeekin herriratzeko kuku-muku latzean, eta gero, Urepelen gauez gau muga pasatuz, Oihartzunen errefuxiatzeko. San Florentin hiriaren omena beti goresten zuela errepikatzen zuen, berarekin zebiltzan anitz ez zirelako sekula etxera bizirik itzuli.

Funtsean, gauza berdina erran zion, desertoreen ideiaz aldatzera gobernuak eta Baionako apezpikutegiak Gipuzkoako haranetara bidali Etxebarne kalonjeari. Hamalauko sarraskia bukatu zen, bakearekiko dudak ereinez. Joanes sei urte geroago sartu zen Otsabidera, Pilar emaztea eta bi bedatsetako alaba besoetan. Bortizkeriak eta laidoak pairatu zituen. Ardura negar hegian zegoen. Azaroaren 11ko omenezko meza isiletan batez ere, orduan zuelako egiazki sentitzen zinez laxoa eta herabetia izan zela. Pierra, Emile, Frantxua, Kaiet edo Graxia bezainbat izan zitekeen *mort pour la France*, baina gerlari uko egin zion, gogoetatzeke, okazioneaz balia, San Florentingo geltokian.

Hargatik amodio debekatuak nola, hala gerlak ere ahanzten ziren. 1939an, emaztea eta haurrak etxean utziz, Joanesek berriz hartu zuen Frantzia iparraldeko bidea: berrogeita bost urte zituen jadanik eta ez zen irri egiteko eta eskapatzeko garaia. Verdun eskualdean bi aste iraun zuen; borrokan harrapatua izan eta gerla bururatzeraino Alemanian preso egon zen Poloniako mugako stalag batean. Azaltzen zuen zein molde errazean hamar mila kidetako batailoiak desarmatu, zaldi ederrak kalitu eta gerla-tresnak berenganatu zituzten alemanek, borrokarik gabe kasik. Pariserako bidean ezerk ez zituen arrastatzen ahal.

Xarlesek Joanes miresten zuen: trahitzailea zen, horregatik sufritzen zuen, eta aldi berean Frantziari umilki leial agertu zitzaion, Lehen Gerlan ez ordaindu zorra Bigarrenean nahikoa pagatuz. Baina ororen gainetik gizon zardaiaren bizitzeko gustua zein errabia amiratzen zituen, auzoen erran-merran larrutzaileei axolagabe zegokiela, emaztea eta amantea biak batera maitatzen zituela edo 1947an idiak saldu eta traturra erosi zuela; berritasunaren bila zebilen beti. Zer-

gatik ez jakin, Joanesek halako batean bere buruaz beste egin zuen. Xarles, ideiaz ideia jauzika bazebilen salbatzearren eta hor, hotsemaiten iragan orduak zeuzkan burkide, San Florentingo elizaren aitzineko plazan, kolpatua eta gurutze astunaren azpian lehertua zela.

Hil-hurran zena? Iragan hurbila biribilketa ertzoan bazebilkion: zenbait egun zuela Tadjikek ebasketaren detsea azaldu zion Pigalleko putetxeko beraien soto pribatuan. Barne-barnetik hunkitua zen eta iruditzen zitzaion Joanes osaba bezainbat izateko lehiaketa abiatzear zihoakiola San Florentin horretan: ez zuen hitzordua faltatuko. Alderantziz, zioen bereber. Egiaz ez zuen huts egin: lau kiderekin hormatik erauzi eta burdinazko boloiak altzairu segaz trebeki mozturik gurutzea elizatik atera zuten.

Ordea Patrickek etsaien presentzia seinalatu zietelarik, gurutzearen azpian bakarrik gelditu zen Xarles, Jesusen zilar uherrezko gorputza ilunabarreko eguzki-arraioekin jostari ari zela. Ortzaizeko ogi-landa irekietan dantzari zen haize freskoa susmatu zuen. Xarles bere aldian gurutzefikatua zen: gerritik edo belaunetik, ez zekien

zehatz, isurtzen zitzaion odolean ihalozka, besoak zabalik, aurpegia lurrera, zangoak bilduak, bi egur puska gogorrek bizkarrezurra errausten ziotela.

Irri xehe eta bihotz oneko profetaren mendekua ote zen? Zer ikusgarria! Non ziren lagunak? Tadjikengana joanak menturaz? Mariok ez bide zuen kalizez, eki sainduz, urrezko plata eta godaletez kunkuin bete zakua ahantzi? Eta Jeanne Gaxtonekin abiatua? Zer zauri latz zekarren San Florentingo elizak? Madarikatua zen ala? Aitzineko hilabeteetan arrobatu lau bankuak ebatserrazagoak zirena? Ez eiki. Florentin dohatsua zena zeru gorenetik, mende erdi bat lehenago osabak leku berean egin afruntuagatik Xarlesi arrabokatzen? Ekintza ongi zihoan Polizia jazarri arte. Zer pentsatuko zuen Tadjik nagusiak? Nork salatu zuen? Nor zen beraien arteko aingira-maingira mihi melenga?

Lau bele eta zozo bat zeuden plazaren erdian. Lau beleak armatuak ziren eta zozoa bera zen. Polizia buruzagia zela ematen zuenaren aldera amore eman seinalez, besoa higitu zuen. Tiro zaparrada jaso eta bala bi belarri ondoan

txistuka iragaten nabaritu zituen. Muina zartatuko zitzaiola zirudion. Bihotza banbaka ari zitzaion, beltzarana ipurdiko marra segituz atzetik hartu zuenean bezala. Lehertzear zegoen. Gurutzearen inguruan plantatu ziren gizon ilunak, pistolak trinkoki lurrean zegoenarengana zuzenduz. Ez zuen gehiago mugimendu bakar bat eginen. Beste hainbat gizon jaitsi ziren kamionetatik eta gurutze astunaren altxatzen tematu ziren:

– Alajinkoa, hauxe gurutzea! Kasu, gaixtagin honek gaitzeko indarra du!

– Bai, zain gaude!

Xarlesen belarriondoan pausatu ziren lauzpabost pistola. Dardaraz ari zen Xarles, itxuraz azken ordua iristen zitzaiola. Baiki bazituen Parisera lanera etorri aurreko urteetan gurutze hau baino pisuagoko ogi-zaku eta orgak besainka aireratuak! Eta harategira eramaten zituen zaldi zein behi zitzi-balak! Gustatzen zitzaion errain ukaldi batez zamaren bizkarreratzea eta trinkilitrankalaka selauru edo ganerrera hupatzea, beste kolpe zainart batez errautsez eta bihika zohituz emokatu zoletara aurtikitzeko; kopetan bazerion izerdia esku-gibelaz xukatzen zuen eta

ogi-ehaiteko makina zaharraren maldara lasterkatzen zen, lana ez baitzen egundainokoan bukatzen. Joko horretan gainera Otsabideko txapelduna zenez, ez zuen saindua izanagatik, lumaren arintasuna zeukan gurutze batek izuaraziko! San Florentingo plazan poliziak intzirika aditzen zituen, imilitz. Egurra higitzen zuten oroz, gorputza larranzten zitzaien. Indarka abandonatu zuten. Poliziaburuak erran zion, hatsartuz:

– Legearen izenean, arrastatzen zaitut.

– Ez bedi eskapa –orroatu zuten denek batera, armen mehatxupean baten batek esku-burdinak ukaraietan hertsatu zizkiola.

Jeanne-ri pentsatu zuen, Gaxton eta Elli Otsabideko adiskideei, agudo aberasteko bere ilusioari, Manexunen behor zitzikatuari, osaba Joanesen destinuari eta noizbait jasoko zuen gaztiguari.

Heriotzara kondenatuko zuketen. Ez zuen bada horrelakorik merezi, bere irudiko. Furgoi beltzean itzaleratu zutenean, gilotinaren mihi fin eta zorrotza lepondoan hotz lerratzen imajinatu eta trenputxartu zen.

Poliziek Parisera eroan zuten Xarles, jada hilotz.

–5–

Emazte ederra zen Janina. Santa Izpirituko auzoan kokaturiko etxebizitzako hirugarren estaiko lo-gela hertsian zeukan mirailean bere buruaren mirestea maite zuen. Ileak hori zituen, lepoa luze eta papoa oparo. Otsabidetik etorri zenean beltzarana zen, ekiak eta lanak ilundu baserriko neskatxen pare. Goizargi baserritik partitu zenean, herriko ohiturei uko egin zien. Bekan baizik ez zen hara itzultzen, salbaiki sangreaturiko Pierraren arreba zen eta paralesiak malgortu ama gaixoaren bisitatzeko demagun.

Orduan autobusa hartzen zuen San Andres plazan eta gau bat amaren ondoan iraganik, Baionara lehiatzen zen, hatsa eskas bailuan. Otsabiden ez zuten erraz patitzen hainbeste urguilu eta urreria zekartzan anderea: mezatik landako ahapezko oharrak itxura zitzakeen Janinak eta goiti egiteko gutizia hazten zitzaion. Hargatik, ezer entzuten ez bailuan, ele ona eta irri beroa eskaintzen zien.

Denak ahanzten zituen, ordea, lo-gelako mirailaren aitzinean zutun plantatzen zenean: bertan eta berehala inguruan zebilzkion gizonei atsegingarri agertzeko mila arrazoi finkatzen zituen. Herrian putaxka gisa zebilela zerasaten jeloskor andanei ihardesten zien, ezpainak bihotz, lan finko eta ohoragarria bazuela:

– Eta ongi ordaindua.

Seroretan jostun-ikasketetan elkarrekin egon ziren adinekoei espantu pixka bat egiten zien. Ordukoz neskatxa haietarik anitz ezkonduak ziren eta jadaneko familiatuak, haurrak eta emazteak besainka hezten zituzten gizonekin. Goizargiko etxekandere xahar ezinduak alabarekiko laudorio baino ez zuen. Janina beratzen zen ama ez-jakinaren sustenguzko hitzak aditzean.

Mirailaren aurreko egonaldi biluzietan, Janinak bere papo handi eta astuna astiro begiratzen zuen. Eskuak bularren azpian jartzen zituen, libre eta titi punta ubel zehatzekin jostatzen zen. Fereka bat. Fereka bi. Gustatzen zitzaion, bularralde hunkigarrian Wernerren ezpainak ibiltari nabaritzea. Soa apaltzen zuen gero zilborraren gunera eta, han, azpien juntan heda-

tzen zitzaion oihan beltzari miratzen zion, amultsuki. Ahur bat titietan kilikari utzi eta bestea zangartera ekartzen zuen, bustitzen zihoakion gunean pausatzeko: hatsanka sakon eta intziri motz hautematen zen lo-gela hertsi hartan, goizeko tenore zurbailetan. Aluaren gainaldeko kukurusta gogortua torratzen zuen, Wernerren pitilia berme eta nahikeriaz gorri asmatuz.

Izugarrizko arra zen Werner. Kapitain galtzak kitatzen zituenean Janinaren begiak ez ziren haren ipurdi mazela zainart eta ilezuetarik kantitzen. Werner inguratzen zenean, mizpira egurra bezain zut zeukan makila begiz jaten zion. Murruaren kontra zaplastatzen zen, arropak tarrapataka kendu ondoan, gurutzefikatua izateko gertu. Aleman armadako uniformea soinean, Wernerrek lukainka barna landatu eta larrua *blitz* jotzen zuten. Apaina hurrentzean, gizonak *danke schön* xuxurlatzen zion, belarria ausikiz eta sabelpean billetez hanpatu bere soldadu kasketa pausatuz. Janinak Wernerren txapela kaskoan zetxikan luzekiro, zangartea garbitzen eta maitia nun zira abesten zuela.

Baionara heltzean Janinak atzeman zuen lehen lana Pannecau karrikako Hot-Bar hartakoa izan zen. Emeki-emeki ostatuko bezeroak arimaz bezainbat gorputzez zerbitzatzen hasi zen, nagusiaren gomendioz. Urte bat eman zuen Hot-Barren, bizitzaz aldatzea erabaki zuen arte; herriko jendeak erran zezaketenaz beldur baitzen! Famaren salbatzeko, katedralean eliza-laguntzaile zen Arbidetar baten aholkuak jarraituz Rachel eta Jacob oihal-saltzaileen etxeko sehi bilakatu zen, Santa Izpiritu auzoan.

Rachelena zen egoitzaren hirugarren estaian lo-gela bat alokatu zuen, eta han berean errezibitzen zituen boterearen eta sosaren arabera hautaturiko gizonak, ar izugarriak zioen eran. Isil-isilik heltzen ziren Maubec karrikatik kasik ikusezina zen atearen maldara. Janinak igurikatzen zituen azotea eskuan, irri egiteko batzuetan eta besteetan hala nahi zutelako. Goizetan ordea, Rachelen sukaldera lanera abiatu aurretik, gaueko gizon-hazi txortolak xahatzen zituen eta mirailaren aitzinean bermatzen zen, plazer-tresnatzat zeuzkan urrezko ilairea zein itsasoko uhinen kulunka mamitsuzko bularren astuna

preziatzeko. Baina joan beharra zeukan: Eva iratzartuko zen.

Eva, Rachel eta Jacoben zazpi urteko alaba bakarra zen. Altxorra nola zaintzen zuten. Eva polita eta ongi ikasia zen. Janinak asko maite zuen. Egunean lau irakasle zetozkion. Janinak ezagutzen ez zituen Mozarten edo Bachen musika zatiak jotzen zituen Evak pianoan. Sehia negarrez urtzen zen melodiak entzutean. Hala aitortzen zuen behintzat, urguilu zizta batez. Alabaina gerla garaia zen. Azpiak irekiz bere moldean zerbitzatu zituen anitz herritar soldadu gozatu zituen. Haietarik franko ez ziren nehoiz ez itzuliko, batzuek beren zaldi ustelduen aixolbean 1940ko deboilan hilotz zeudelako eta gainerakoak oro Alemania iparreko kontzentrazio zelaietan preso. Giro horretan Eva eguzki-arraio eztia zela zirudion Janinari. Eva eta Werner, nahiz eta hau aleman okupazio armadako kapitaina zen. Baten samurtasuna ederresten zuen, bestearen indar basatia.

Eva, sekula munduratuko ez zuen alaba bezainbat maite zuen. Bi urte lehenago Baionara iritsi zenean esperantzetan suertatu zen. Hot-

Barreko nagusiak Aturri ibaiaz bestaldeko ertz hezean ohaturiko aingeru-urkatzaile batengana joatea aholkatu zion, lana galdu nahi ez baldin bazuen behintzat. Gerla ez zen oraino hasia eta gauak gauari, Maggy ostatuko bigarren zerbitzari adiskidearekin, zaldiz tiratu karro batean aterpetu ziren hilorginarenganatzeko. Ilunki bezti eta lur hiro usaina zebilkion andereari, hilekoak hirugarren aldikoz agor geratu zitzaizkiola salatu zion eta haurraren galaraztera nagusiaren manuz zetorrela.

Ketan irakiten zegoen edaria ezpainetara eman zion emazteak. Segidan halako loeria eroak gatibatu zuen Janina. Ohe baten gainean etzan zen. Sunpur arteketan zintzilikatzen zitzaizkion begiak belar idor eta tartaina sareetan finka zitzakeen. Sabeleko fruitua errautsiko ziona oihuka hurbiltzen entzun zuen:

– Ireki itzazu ixter horiek, hazia erein dizunari ireki dizkiozun maneran! Arren erna! Ez dut astirik!

– Ez minik egin otoi...

Erreguz ari zen Janina, Maggyk gorputza lauzean mantentzen ziola, bortizki.

– Plazeraren ondotik desplazera duzu...

Atsoak, akotea ozkan jarriz, kanta herrikoia aireratu zuen. Esku hutsaz alua zirikatu zion, zulokari. Janinak uste zuen nabala edo puñal bat sartzen ziola. Garrasika hasi zen. Sabelpea inarrosten zuen dolorez. Maggyk ahoa ahurraz tapatzen zion. Trenputxartu zen sufrikario ikaragarrien men. Handik ordu baten buruan bereratu zenean eta ohe kantoian odol putzu batean ito haragi puska gorriz erditara bete berontzia ikusi zuenean, konturatu zen egiazki hilortegin zuela. Menturaz ez zuen nehoiz gehiago bizia inori emango.

Arrapixkolatu arte egon ziren Maggy eta Janina atsotzar kurkuilatuaren txabolan. Odolez eta umeki zitzikatuz hanpatu pertza ondoan antzematen zuen, begiak bihurdikatzen zituen aldi oroz. Oraindik ere, egun parrasta pasatu eta, kontzientzia latz apurrez kontsideratzen zuen orduko nahitarako haur-galtzea, partikulazki sabeletik sorgin larderiatsuak erauziriko zitzi puskak uhin karminetan ihalozka, ume itxuratzen zituenean.

Ez zuen amets gaiztoagorik egiten. Ez. Baina kolkoaren lasaitzeko Hot-Barreko lana abandonatu zuen, Rachel eta Jacob Santa Izpiritu auzoko txokolategileen neskame bihurtzeko eta dirutrukean jokatuko zituen gizonak hautatzeko eskubidearen erdiesteko. Hala ezagutu zituen Eva zazpi urteko neskatxa ponpoxa eta Werner, okupazio armada alemaneko kapitain zainarta. Biek ongi ordaintzen zuten eta ez zuen gehiago ezeren beharrik. Noiztenka imajinatzen zuen Wernerrekin ezkontzen zela, Berlinera bizitzera joaten zirela eta, Aturri hegi misteriotsuko atsoak umeontzia masakratu zion arren, Evaren antzeko alaba bat ekartzen ahalko zutela. Baina gerla zen jadanik; Wernerrentzat ilusio handirik ez zeukan Janina, edozein ordutan galtzak apaldurik eta uniformea soinean presaka jautz zezakeen puta bat baizik ez zitekeen.

Iparraldeko fronteetara abiatu herritarrak ez ziren agertu. *Eskualduna* astekarian erraten zen alemanek preso zeuzkatela eta Ybarnegaray, Petainen ministro sei hilabetez izan zenak izparringi berean, preso haien bila abiatzeko bere xedea idazten zuen, noizean behin, berriki arte. Harga-

tik aspaldian ez zuen Janinak Garaziko diputatuaren hitzik irakurri. Baina apez euskaldunen artean mutil anitz bazeukala onar zezakeen, ez baldin baziren arras alemanen alde, bederen komunisten, judioen eta framazonen kontra oldartzen baitziren, sotanak sutan. Gerla aipatzen zuen Rachelekin, Jacob txokolate atelierreratzen zenean:

– Berri txarrak dira guretzat neska, Alemania, Polonia eta Holandatik. Frantzian ere ez dira hobera ari, bozkatu dituzten Judioen Estatutuari buruzko bi legeekin.

– Ez zauzue deus gertatuko hemen Euskal Herrian... Lasai Rachel! Beharrean lagunduko zaituztet. Hitza hitz.

– Badakizu noizez geroz Santa Izpiritu hontan gauden?

– Ez, ez dakit gauza askorik.

– Espainiako Errege Katolikoek 1492an judioak kanporatu zituen eta ordutik Aturri bazter hauetan bizi gara. Sinagoga bertan dugu. Txokolateriak eta oihalgindegiak hurbil. Etxean gaude.

– Baiki eta nola! Irauteko gisan ihardukiko dugu!

Rachel sehiaren besoetara erortzen zen, aldi berean izutua eta hunkitua. Janinak zotin estofatuka higatzen zen, Jacoben igandeetako paltoen papoetan *izar horia* arraposki eta ezer ez bailitzan josten zuela.

Behatz punta ziztatu zion orratzak. Odol ttantta batek bost besoko izar horia zikindu zuen. Janinak begiak hertsi zituen. Rachelek zenbait aste aurrerago Parisko Neguko Belodromoan agitu jende bilketa basatiaz erranak, jokaldiaren ondoko gorputzen zein arimen bakean Wernerrek salatu zionarekin uztartu zituen:

– Ni ere judioa naiz jatorriz, baina inork ez du jakin behar.

– Niri berdin zait.

– Janina, egun batez gaur enekin izatea ordainduko duzu garratz...

Titi puntak murtxatu zizkion.

– Ez, Werner, ez duket zorrik horregatik. Eta berdin zait judioa ala alemana zaren, edo biak: neure gizona zara.

– Neurekin ezkontzea eskatuko nizuke, jada esposatua ez banintz.

Etengabeko musu sakonaz elkartzen ziren berriz, Janina aldion Werner hatsantuaren gainean zaldizka zihoala. Bata bestearen barnera atseginez lehertzen zireneko olde oihutsuak karrikan pasatzen zen aleman armadaren urrats kolpekatuei gehitu ziren. Izar hori hura Jacoben jantzietan josten zuenean, amodioaren estiren auhenak eta soldaduen herotsak zeramatzan gogoan, lanjer hurbil baten seinale isila bailiran.

Eva nekatto polita zen, eta abila, eta bizia, eta jostaria. Rachelen egoitza garbitzen zuen orduetan, Janinak beti ondotik zeukan txokolate ekoizleen alaba bihurria. Eskola lanak egiten zituen eta gero pianoan jartzen zen eguerdi arteko unea nota finez aberasteko. Ordularia hamabi aldiz oihar zenean, Jacob sartzen zen eta gohaina usnatzen bailuan, *izar horia* zekarren aterkia disgustuz dilindatzen zuen. Arratsean jestu bera zegien, disgustuz.

Ilunabarretan, sotoan biltzen ziren denak, auzo zenbait barne, Londresko Irratitik munduko berriak entzuteko. Batzuetan Frantzia Librearen jeneral zuzendariaren ahots dardaratia hautematen zuten. Baina amerikarrak gerlari lotuko zi-

tzaizkiolako berririk ez zen aditzen, alta hori zuten gehienik espero.

– Sarraski honek ez duke azkenik! –Jacob etsirik zen.

Rachelek eransten zion:

– Joan behar genuke New Yorkeko kusiengana.

– Ez dugu txokolategia abandonatzen ahal, Rachel. Ez zaigu ezer gertatuko hemen.

– Alemanez beteak dira bazterrak... –emaztea oldartzen zitzaion, sotoaren argi ahularen azpian, gorputza itzal eta hausten zitzaiola irudikatzen zuela. Segitzen zuen–: Badakizu Janina kapitain aleman batekin dabilela?

– Otsoa bertan daukagu beraz –gizona irriz lehertu zen; irratia hil zuen eta solasaldiaren bururatzeko erran zuen–: Baina otso honek ez gaitu janen gure premia gorria daukalako, preseski jateko!

Otsabideratzen zen noiztenka Janina, baserrira, puska bila. Hor ikasi zuen bidenabar Otsabide ez bezala, 1942ko azaroaren 11 arte gunalde askean zegoen Arbide ere okupatu zuela aleman armadak. Arbideko Tartas oihanean biltzen ziren

jada Alemaniako kontzentrazio zelai eta hango laborantza zein lantegietarik ihes zetozen herritar gazteak. Janinari amak jakinarazi zion Gerard, bere lehen maitalea, arbola eta sasi nahasi haietan ezkutatzen zela. Ez bat ez bi, gizonarengana lehiatu zen, aitak alemanen begirada eta gutizia bekaitzetarik salbu atxikitzen zituen baserriko mozkinez zareak hanpaturik. Gogoa alai zihoan. Eta ez zen gutxi harritu Gerardek erasiatu zuenean:

– Hi alemanen putaxka haiz. Alde hemendik.

– Baina?

– Ez ditzakeen bi nagusi zerbitza!

– Nola dakik hori?

– Dena jakiten dun mundu txiki eta hertsi honetan. Habil, hoa berehala eta ez hadila nehoiz Otsabidera itzul!

Gerard azkenekoz ikusten zuela iruditu zitzaion orduan. Antsiak kiribilkatzen zuen. Goizargiko sukaldean, alemanek pairarazten zioten egunerokotasun dorpea kontatzen ahizpa txikia behatzen zuen:

– Zaldiz badabiltza bideetan eta nik arroila lohitsu zikinetarik ibili behar dut eskolara joateko.

– Arren Teexa, laster bukatuko da gerla.

– Aise mintzo haiz hi.

Ama negarrez asaldatu zitzaion:

– Kafea, txokoleta eta sukrea eskas ditinagu.

– Ama ekarri dizkizut. Rachel eta Jacoben partetik opari. Eta aitarentzat Wernerrek eman didan tabako grisa. Arrautzik baduxia?

– Ez dinagu deus ere.

Andere zohituak buruzagi aleman bati nola erantzun zion. Aldion esku hutsik Baionaratuko zen: noren erruz? Hargatik ama hurbildu zitzaion, xamango biluzia ahurrean:

– No, horrela ez hau goseak hilko.

– Mila esker.

– Ez adiorik. Hobe dun Goizargira gehiago ez agertzea...

Etxekanderearen oharra ordrea zen.

– Ongi da ama. Konprenitzen dut.

Otsabideko ateak zerratu zitzaizkion.

Etxekoek eta Gerardek haren bisitak ukatzen zituzten. Bihotzean mina ziztaka senti zezakeen.

Jasandako dolorea errepikatzen zien bai Racheli eta Jacobi, eta bai oraino ere salbaiki laztantzen zuen Wernerri. Mirailean bere burua miresten zerraikan goizetan, ahalkerik gabe funtsean.

– Ez dut gaizkirik egiten, bizi baizik ez naiz...

Berekiko marmarrean kulunkatzen zen, ahotsean ireki zauriaren nabardurak ozen. Isiltzen zen. Ahurrak papoan behera lerrarazten zituen, larruaren beroak jabalduko bailuan. Beztitzen zen eta zortzietan Racheleneko txirrina jotzen zuen. Egunak egunen ondotik bazihoazen, gerla giro zail horretan nahikoa elkar irudi.

Hargatik, okupazio armadek arrastatze handiak obratzen zituzten barnealdeko sasi eta xaretan. Makiak bake orokorra onartzen ez zuten gazte buru-beroz betetzen ari zirela erraten zion Wernerrek, Janinaren aluaren zolan zakila eskubristaz landatzen ziola. Frantzia mailan Lan Behartu Zerbitzuari eskapatu mutikoz osatu banda terroristak antolatzen ari omen ziren:

– Suntsituko ditugu banan-banan eta Londresen duten parpaila hura armada itsu eta huts baten jenerala izango da.

– Lasai Werner. Zurekin jokatzea maite dut. Arren zirika nazazu.

– Bihi bat ez da zutik geratuko...

Goiti eta beheiti ari zen, izerdia kopetan perla eta hatsa ezpainetan labain.

– Zeren lotsa zara Werner? Ez dutea alemanek gerla betirako irabazia?

– Baiki.

Gizonaren ipurdi eta gerri mugimenduak eten ziren bat-batean. Janinaren soa galdezkatzaile jauki zitzaion:

– Zer pasatzen zaizu Werner?

– Judio batzuen etxean ari zara lanean ez?

– Bai. Rachel eta Jacobenean. Eva deituriko alaba maitagarri bat badaukate.

– Horixe. Abisa itzazu judioen artean sarekada obratuko duela frantses poliziak bihar. Salba itzazu.

Ez zuen huts egin, jendarmeak eta zibilez beztitu gizon talde bat agertu zen argi-zirrintan bertan Rachel eta Jacoben etxera, Wernerrek jakinarazi eran. Janina garbiketan zinpurtzen zen. Ez zien nagusiei aleman kapitainak iragarritako gertakariez deus ere erran. Ez zen alabaina poli-

tikan sartuko, hain nekez zurkaizten zitzaion bizia galtzeko arriskuan. Zapia eskuan, burua makur eta bihotza lotsa hilkorrez handi zeukan.

Evaren gelan zegoen, polizia frantsesak sartu zirenean. Neskatoa armairu batean giltzatu zuen tarrapataka:

– Ixo orain!

– Zergatik?

Izu berria begietan zintzilik zeukan zazpi urteko txokolate ontzaileen alabak. Arropa astunen azpian gorde zen, dardaraka. Janinak, ezer ez bailitzan, gela xahatzen segitzen zuen; horrela atzeman zuten poliziek, oihal zarpaila ahurrean trinko eta erratza aldamenean. Bortizki mintzatu zitzaizkion:

– Nor zara zu?

– Etxe honetako sehia. Janina.

– Arrastatzen ote dugu hau ere?

Zibilezko hedexuri batek kezka agertu zuen. Buruzagia zirudienak gogoetatu eta ezezkoa eman zion.

– Apartamentu honetan beste nehor ba al da? –bazterrak miazkatzen zituen, oihuka.

– Ez dugu uste –bi gizon ilunen ihardespena eskaileretan oihartu zen.

– Arren, goazen! Arrain ederrak erori dira gure sareetara egun. Segur aski komandanturreko arduradunak zorionduko gaitu.

Brauki atera ziren ganbaratik.

Leihotik, Rachel eta Jacob maitagarriak polizien artean auto beltz batera igotzen begimendu zituen Janinak. Negarrez ari zen. Arrastatzearen hobendun sentitzen zen, Wernerren abisuari elkor egon zelako, berekoiz. Alta, asti aski edukiko zuen jende gaixo horien herioaren mehatxutik saihesteko! Bazekien alta, Rachelek anitzetan azaldurik, itzulerarik gabeko bidaiara eroaten zituztela! Janinak, norbaitek jakitekotan, Wernerren bezain Rachelen ahotik ezagutzen zuen Alemanian irekiriko esterminazio zelaien existentzia! Zergatik ez zuen haien salbatzeko eri ttittilik ere mugitu?

Gaizki-izate oldea gainditu zuen eta Eva armairutik jalgi. Neska alde orotara beha zegoen. *Non da ama* oihukatzen zuen. Janinak *eraman dituzte* baizik ez zion errepikatzen. Eva beztitu zuen eta puskilaz bete zaku bat hartu eta presa-

ka jalgi zen. Santa Izpiritu zubiaren gainean lerro beltz zeuden polizien erditik pasatu ziren biak, zanpa-zanpa. Pannecau karrikako Txabola ostatura lehiatu ziren. Janinak han, Chadefaud jauna elaire zuen. Berrogei mila libera luzatu zizkion Eva Atharratzeko bere azkazien baserrira laguntzeko, berehala.

Chadefaud tratulari ile zuridunak Janinari hitza eman zion Eva sano eta salbo Arbidera eta handik Zuberoara lagunduko zuela gau hartan berean. Ostatuko sotoetara gidatu zuen eta erran zion, egun hauetan bazterrak gizon lanjerosez mukuru zirela. Janinaren matela kilikatu zuen, irri maltzur eta lizunak kokotxa zimurtzen ziola:

– Gero, potxola, bokata-latsean elkarrekin ariko gara!

– Evak bizirik iraun behar du, ene alaba bezala da...

Auhen eta hipaka amildu zen Janina. Gizonaren arima-hondoa hunki zukeen emaztearen intziri desesperatuek eta *bai* zintzoaz despeditu zen.

Janinak ez zuen Chadefaud hanpurusa begiko, nahiz eta gerla aitzineko urteetan, Rachel eta Jacobenean sehi lanetan hasi baino lehen, harekin oheratzen zen erregularki. Wernerrekin partikulazki larru-tratu finkoetan abiatuz geroztik, ez zuen gizon trunkiloaren berri zehatzik. Harengana zuzentzen zen Otsabideko herritarrekin harremanetan jarri behar zuenean.

Halaz, gaueko ibilaldiz ibilaldi, Chadefaudek kafea, sukrea, tabakoa eta txokolatea helarazten zizkien Goizargitarrei, eta haiek ordainez baserriko ontasun parrasta baten jabe bidaltzen zuten Baionara, izan xingar ala barazki fresko. Paper eta arrazionamendu txartel faltsuak marrazteko lehena zen Chadefaud: bazuen zenbait eta zenbait jende Espainiara iraganarazirik, judioak, komunista iheslariak, erresistenteak eta ingeles aireko gidatzaileak. Pagatzen zuten ber gizonak ez zuen oztoporik ikusten. Erratekoa zen komandanturrarekin ere tratu onak bazituela, bestela ez zuen bere afera neholaz aitzina eramaten ahalko. Bistakoa zenez, Janinaren eta Wernerren *amodioaren* zatikako garapenak bazekizkien. Chadefaud ontzia urperatzen zihoane-

ko arratoi likitsa zen, eta hilotzez ase aurretik, gerla urteak herrokatzen, edozer saltzen eta komertzioa errentabilizatzen zituen. Haren beharra zeukaten.

Arratsalde hura Sanandres elizan pasatu zuen Janinak, xifriturik. Rachelek mehatxu hurbil gisa aipatzen zituen esterminazio zelaietarik Eva salbatu zuen maneran, guraso bikotea halaber salba zezakeela errepikatzen zuen etengabeko damu, bezperatik sarekadaren jakinean zegoelako. Aturri ibaira jauzi egiteko gutizia piztu zitzaion: hiltzea baizik ez zuen merezi. Ordez, Wernerren ikustera joan zen. Wernerrek hozki errezibitu zuen:

– Orain ezer ez dezaket...

– Zure esku zegoen jende horien heriotik salbatzea.

Marmarika gaiztoan zebilen alemana. Janinak eskuz kukutu zuen begitartea. Ile hori nahasiak zeuzkan. Werner aulkitik zutitu zen. Ondoratu zitzaion.

– Bihar arratsean zurera etorriko naiz.

– Zatoz Werner. Oso galdua sentitzen naiz. Hargatik Eva alaba salbatu dut.

– Badakit Chadefauden meneko utzi duzula. Badakit ere gizonak neskatoa Arbideraino arazorik gabe eraman duela. Lasai Janina.

– Eta ene nagusi-etxekandere onak? Ez dira hilen arauz?

– Judioak izanez ez dute eskapurik, zorigaitzez.

Janina marrakaz hautsi zen, urkatzen edo sangreatzen zen abere. Oihu basatiak barreiatuz eta ateak klaskaraziz Wernerren bulegotik kanporatu zen. Komandanturreko marmolezko eskaileretan aditzen ziren bere oski aztaldunen oiharrak. Iruditzen zitzaion ttaka-ttaka bakoitzak bihotza eta burumuina urratzen ziola. Herriko plazatik Santa Izpiritu zubian zehar apartamentura itzuli zen, hinki-hanka, trenputxartzear. Doluaren sareak bihotza tinkatzen zion. Sarraski erraldoiaz esperantzetan zegoen. Ustela zen funtsean.

Egunak kuxkur-etsiturik higatu zituen. Werner baizik ez zuen ikusten. Herioaren tentaldia zeukan anitzetan, ibaiertzean paseatzean edo zubitik iragatean: jautz egin eta kito. Baina ez zen ausartzen. Ideia zoroak bazeralbilzkion

kasko zokoaren iraul eta nahasle. Wernerrek sarekadaren berri ematean bere hobenkeria Janinaren bizkar jarri zuenean nola, hala emazteak zerbait obratu behar zukeen kulparen zamaz arintzeko; errazena Wernerren hiltzea zatekeelako ondorioetara heltzen zen gehienetan. Pentsuaren borobilak bizkarrezurrean gorako ikara hotza eragiten zion.

Alta... Amodioa egiten zutenean, gizonaren so uherrak Rachel eta Jacoben herioaren errudun seinalatzen zuela iruditzen zitzaion Janinari. Wernerren begimena bere baitako kontzientzia txarrarekin uztartzen zuen eta *zena zela* eransten zuen berekiko *ez naiz ni judioen suntsitzearen eragile, baizik eta gure lurrak okupatzen dituzten alemanak!* Nolabait kontsolatzeko bilatzen zituen hitzak murmuratzen zituen, azpiak kapitainaren errain-ukaldiei eskainirik eta gogoa hegan.

– Labana sabelean sar brauki eta...

– Zer derasazu liebe fraulein?

– Ezer ez.

Dardarka bukatzen zuen larrualdia. Presaka beztitzen zen hankartearen xahatzeko betarik

gabe. Durduzatzen zen. Evak sentituriko izu berdina zena?

Pannecau karrikako ostatura abiatu zen goiz batez, Chadefaud-i herriko eta Evaren berri eskatzeko. Gizon ile zuridun lodia harrapatu zuen, kontuarraren gibelean, Otsabideko plazan gertatu izugarrikeria behatzaileei azaltzen:

– Berrogeita hiru klasekoak ari zituan elizaren maldako belardian maniobra egiten. Kapitain alemanaren ondoan frantses armadako bi lotinant ere ba omen zituan. Eta hara non hilerriaren erditik begitarteak oihal zuriz estalirik zeuzkaten bost edo sei mutilez osatu taldea jazartzen zaien, mitrailetak ozen eta su.

– Hori Otsabiden agitu dela diozu?

Janinaren kezka argia zen. Irria libratu zuen Chadefaud-ek hortz ustelduxeak erakutsiz:

– Bai. Alemana eta bi frantsesak hilik suertatu dira. Eta Otsabideko gazte bat larriki zauritua.

– Nor zen?

– Uztaberriko Seinan. Uzkinazo zozo hura. Handik laster arrastatu dituzte erasotzaileak. Ixtunen gora heldu baitzen SS batailoi bat. Ez dute denborarik ukan sasira eskapatzeko.

– Nor dira giltzapetuak? –hirugarrenekoz mintzatu zen Janina.

Chadefaud-ek hiltzera kondenatuen zerrenda hitsa azaldu zuen:

– Pierra Mendi, Gerard Artzubi, Bettan Bilainberri eta Arno Suhats.

– Gerard Artzubi?

– Bai emaztekia, zer dun horrela harritzeko? –Chadefaud burlari zebilen.

– Hire gizongaietarik bat dudarik gabe? Aski dion Wernerri aipatzea.

Algara eta harramantza burbuilatsuak bete zuen ostatuko gela. Jende ezezagunez mukuru zen. Gehienak antzaz Espainiara eta gero Ingalaterrara joateko paperen aiduru zeuden. Janinak aditzen zuenaren arabera, gizon eta emazte horiek Lyon eskualdetik etortzen ziren, han gaitzeko sarekada egin baitzen erresistenteen artean. Alberte izenari ihardesten zuen andere akitu batek errepikatzen zuen, etsia:

– Max gelditu eta torturatu dute.

– Zer max eta zer sax? Mila deabru sosa emaidan eta hara hire paperak. Datorren aste hondarrean Londresen hago.

– Nor zen Max? –Janina Alberterengana hurbildu zen.

Andere tristeak, Frantzia trebeskatu zuela ihesean, harriturik so egin zion, eskakizun apalari ihardestea komeni zitzaion ala ez ez jakin. Azkenean ausartu zen:

– Max ezizenez baino ezagutzen ez nuen gizon hark itzaleko armada antolatu zuen eta, justu eraginkorrak ginen unean, trahitze baten medioz Klaus Barbie-ren zakurrek arrastatu dute. Alemanek ez ezik, itxuraz, erresistente batzuek ere haren galera nahi zuten, buruzagitzaz jabetzeko.

– Ez dut deus ulertzen anderea.

Janinak Chadefaud-engana jo zuen:

– Nola da Eva?

– Ongi. Gurasoak Auschwitzen dituela badakikezu leku segurretik...

Tratulanta mututu zen. Paper faltsu baten zuritasunean enkre iluna buhaka idorrarazi eta segitu zuen:

– Arren Janina, zoaz Wernerren ikustera eta behingoz zure lau herritarrak salba itzazu!

Wernerrekin hitzartu zen. Larrua arraposki jo zuten. Janinak lau herritarren biziaz urrikaltzeko otoiztu zuen komandanturreko kapitaina. Baina gizonak, mirailaren aitzinean, zakilaren nabardura eri puntaz zizelkatzen eta ferekatzen zuela, Rachel eta Jacoben kasuari zegokionez argiki ihardetsi zion:

– Ez dezaket ezer egin orain! Gainera zer, zuk hain emazte plaxenta, lau terrorista zikin horien aldea hartzen duzula?

– Anaia lau horietan daukat.

Gezurra ahoskatu zion, anaiaren ordez alabaina, Etxegoineko belar biltzeen karietarako uda-gau zohardi batez, birjinitatea ebatsi zion Gerard baitzegoen.

– Ezer ez dezaket.

Bigarren aldikoz Janinaren alua zirikatzear zihoala, erantsiz zuen Wernerrek:

– Astearte goizean adibidetzat fusilatuko dituzte Otsabideko plazan. Nahi duzu neurekin etorri, kuttun?

– Ez.

Janina haserre zen. Gogoa kexuaire zerabilkion. Gizonak hazia barreiatu zuen emaztearen

sabelpea emokatuz. Kapitain kasketa buruan gero, aluko muskila arrosa milikakatu zion, zor zion diru kopurua bular artean pausatu aitzin.

– Otsabiden zirateke beraz datorren asteartean?

– Ez dut eiki ikuskizuna huts egin nahi.

Barre egin zuen Wernerrek, kezkak kutsaturiko pozez.

Hil-zeinuak danbaka urrian aditzen ziren. Alemanek Otsabideko etxe guztietako jendeen biltzera igorri zituzten bai apeza eta bai auzapeza. Berde-kaki kolorez beztitu arrotzez setiaturik zen plaza hertsia. Hiri nagusietako komandanturreko ordezkariak hor zeuden, besta-garaietan Kanttu akordeoilari eta Pitxi txistulariek hornitzen zuten tauladaren gainean. Ez zen ordea alaitasunerako tirriarik. Etsenplua eman behar zen: terrorismo mota horrek ez zuen hazi behar. Bihirik ere ez.

Londresko irratia entzuten zutenek, amerikanoak jada Ipar Afrikan plantatuak zirelako zurrumurruak hedatzen zituzten. Berrien arabera laster lehorretaratuko ziren, baina ez zekiten noiz eta non. Jendeen artean zegoen Janinak irrati bidezko kutzumutzu horiek behatzen zituen, bis-

tan dena, Pannecau karrikako Chadefaud-en ostatuko gela handian. Bakearen alde zen Janina, baina hein bateraino.

Otsabideko estrada lilituan Werner ikusi zuen. Militarrak ez zekien emazteak herrira bidaiaz etortzeko xedea zuela. Wernerri begira geratu zen, hormaturik: gizon ederra zen gerlak iraun zuen urte beltz hauetako kasik bere maitale bakarra, etxerako premiazkoak ziren gauza materialen harrapatzaile suharra, bestela denak miseria gorria eihartuko baitziren... Janinak alta, Chadefaud-i mailegatu eta bularrarteko arroilaren beroan zetxikan pistola lizunki ferekatzen zuen.

Lau kondenatuak plazaren erdira ekarri zituzten. Murruen kolore arrosa eta presunerren atorren zuritasuna biak ezkontzen ziren, zeramatzaten galtza ilunekin kontrestan. Bazterretan auhen ukatu bezain urkatuak altxatu ziren. Adineko emazte saldo batek mantalinak buruan behera apaldu zituen. Gizonak zut bermatu ziren bunetak eskuan. Isiltasun hotza zen, eguerdi aldeko ekain-eguzkiak gogorki jo arren. Lau mutil gazteak sasiko urteetan iragan gosearen erruz

mehetuak ziren arras. Soldaduz tinkatu plazaren izkinan jarrarazi zituzten, bakoitza bere tokian: Gerard ezker, erdian Pierra eta Arno, eskuinean, bikarioaren saihetsean, Bettan.

Tauladan aleman buruzagi batek fusilaketa hasteko besoa altxatu zuen, *heil* orroaz. Ikara larriak zeharkatu zuen plazara derrigortutako jendetza. Apezak orduan kondenatuen begiak oihal zurbailez tapatu zituen. Gurutzearen seinalea marrazten zuen bitartean, lau soldadu uhin hiru lerrotan plantatu ziren. Mutikoek eskuak eta zangoak sokaz estekaturik zeuzkaten. Janinak *su!* entzun zuenean zotinka lehertu zen eta pistola eskuratu zuen.

Nehoiz ez zen berataz hain segur sentitu: hiltzea erraza zen azkenean, ez zen deliberatzearen beharrik ere, aski zen herra eta urrikirik eza erraietan ohora adina sustatzea, naturaren senari itsu jarraitzea. Jendeen erditik ildoa udalatu zuen eta estradaren azpira heldu zen. Wernerren soa orduan aztertu zuen eta tanpez, bihotzaren aldean, soldaduak kondenatuei tiroka ari zirela, hiru bala sartu zizkion. Gerard eroritako istant berean amildu zen Werner.

–6–

Andde arrastatu zutenean, bizia gaizki bihurtzen hasi zitzaiola pentsatu zuen Ttottek. Orain-dik ere Santaklara deituriko eroetxean zegoen ohe zuriari estekaturik, erremedioz galkatua eta atorra zurbailaren azpian biluz. Gogoeta terrentak zeramatzan: Zergatik herriko lagunek baztertu zuten, Andderen askatzeko sustengu taldera hurbildu ez zelako? Ez zena hautatzeaz libre? Nolaz bildu behar zuten ardi bailiran, Poliziak terroristatzat zeukan mutiko haren kartzelatik libratzea eskatzeko? Ttottek ez zuen ulertzen orduan gertatu zitzaiona. Jakin izan balu, ekaitza iragan artean, xume-xumea lerroan kokatuko zen. Baina ez. Segur aski Peter amerikar osabarengandik harrapaturiko burua erakusteko jaidura txarra zuen; egunak joan egunak etorri, amak ez zion besterik errepikatzen, *deabruen bisaia*!

Fama txarreko Santaklara ospitale psikiatrikoan giltzatu zuten.

Otsabideko laborari gazteetan Andde ez zen nornahi, eta horregarik Ttotte damu zen egoera

argiari kasu gehixeago ez egina. Herritarren miresmena zeukan. Euskal Herrian erreusitzen zuen gaztearen arketipa zela ere erran zitekeen: alabaina, aitak baserri aberats eta hedatuenaren ondorengo izendatu zuen Andde, nekazari eskolako BTS diploma erdietsi bezain laster. Instalatze primak erabiliz, etxaldea handitzeko zein barruki eta arditegiak berritzeko asmoa zuen. Aldi berean, euskal mugimendua zeritzonean parte hartzen zuen, batez ere laborantza alorrean. SAFEReko eskualdeko buruzagiaren bulegoa setiatzen, esnetegi industrialak gogorki okupatzen, Baionan antolaturiko manifestaldi eta preso politiko zein errefuxiatuen aldeko ekintzetan ikusten zen. Etxekoek, lurraren gustua eman baldin bazioten, ez zioten arbasoen mintzoa irakatsi. Lizeoan, baxoko euskara orduetan hitz apurrak ikasten eta gaineratikoak, herriko nekazariekin arto eta belar ensilatzeen karietara bereganatzen zituen. Halako batean, garai hartan ardura gertatzen zen eran, Poliziak Andde arrastatu zuen Iparretarrak mugimendu armatuarekiko zeuzkan balizko harremanak susmatuz.

Arankiloa mirazkatu zuten, xeheki. Ez zuten gauza handirik atzeman, salbu kagula beltz bi, ordulari zaharkitua, lau detonatzaile eta metroak metroari hari elektriko. Iparretarrak erakundearen propaganda paper zenbait kausitu zizkioten halaber, etxearen goian zeukan lo-gelan, *Penthouse* eta *Rugby 15* aldizkarien artean gorderik.

Atxilotze-egun hartan bertan montatu zen bilkuran Pierra Andderen lehen auzoak erran zuen:

– Denek baditugu horrelako gauzak gure hangar eta selauruetan. Ez dira nahikoak Andderen hobentasunaren zurkaizteko. Badakigu guk, haren eskola eta besta lagunek, ez dela terrorista horiekin nehondik ere lotua: errugabea da...

– Aski dituzte halaz, euskaldunak oro geldiaraztea eta preso sartzea, soilik euskaldun direlako aitzakiaz! –sutan oihukatu zuen Anari izeneko neska gazte batek Herriko Etxeko eztei-gelaren zoko batetik

Bere ikusmoldearen eskaintzera gonbidatua izan zen Ttotte, batasun berri baten sortzeko bat zeuden beste anitzen ondotik. Pierrak galdatu zion:

– Eta hik zer diok?

– Nik? Batetik zuzen irudi zait Andderen libratzea eskatzea. Baina bestetik Poliziak gure adiskidea kartzelaratzen baldin badu, zerbaitengatik daiteke. Ez dituk hire eta neure baserrira etorri. Anarik dioen bezain itsuak balira gu ere preso gintukean ordu honetan.

Bat-batean inguruan hedatu zen hormatze-aireaz ohartzean isildu zen. Manera ezaxola horretan hitz egina jada deitoratzen zuen. Taldearekin ados izaten ahal zen, bakearen amoreagatik, eta gero askiko zuen bilkuretara edo manifestaldietara ez azaltzea, ahantzi zuela edo lanpetua zelako aitzakia aurreratuz. Erraz egin zitekeena zen alabaina.

Ttotteren iritzia erabat baztertuz, gelan tinkatu gazteen odola irakiten nabaritzen zen. Anari mintzatu zen, ausart:

– Andde gure arteko hoberena da. Euskaldunena. Jakin dudanaz Arbideko posta-bulegoaren jautzaraztean parte hartzea leporatzen diote. Bai eta Arrietako zerga-etxearen kontrako ekintza.

– Hori da terrorismoa deitzen dutena? Gure zapaltzaileen aurkako erasoak kondenatzen dituzte?

Patzikuk, orroaz, aulkitik jauki eta ezkerreko eria luzatu zuen:

– Zuzentasuna baizik ez da. Bestela ahamen batez janen gaituzte eta gure hizkuntza suntsituko dute. Administrazioko egoitzak baizik ez dira Iparretarraken ekintzen jo-mugan; gehiagokorik ez. Ekintza garbiak eta sinbolikoak burutzen dituzteno herriaren askatzaileak dirateke. Guk ez dugu horrelako gauzetara plegatzeko ez kopeta ez eta kuraiarik!

– Kalte material handiak badira eta zergaetxeko zein postako langileek ez dute jasaten dugun zapalkuntza horretan errurik...

Ttotteri errana tanpez dolutu zitzaion, ezen taldearen ihardespena multzokorra suertatu baitzen:

– Etsaiaren ikurrak dituk eta bake adina askatasun uzten ez diguteno ez dituk ez libre ez eta bakean egongo.

– Langile xeheak... –auhenkatu zuen Ttottek, gelatik buru-makur jalgi aitzin, Anarik belarrira mailukatzen ziola:

– Etsaiak.

Denak *etsaiak* ziren beraz. Bera ere *etsai* sentitu zen bilkura herrikoian. Bitxiki ezen orduraino arraposki jarraitu baitzion gazteen taldeari. Gogoetak hegal utzi zituen: ez zuen astirik ondoko larunbatean Baionara manifestatzera joateko, bakarrik baitzen aita eta ama adinduekin baserriko lanen eramateko, eta gainera arratsalde hartan laugarren kusi zeukan Manez zaharraren ehortzetara beharra zen. Batzarreko giro nahasiaren ondorioen mendratzeko, Ttale Manezen ilobaren hitzak oroitzen zituen:

– Oihuka sartu ninduan Manezen etxean askari tenorean. Ez nian nehon ere kausitzen eta ganerrean oiloak hazkabozka hauteman nituenez, hara igotzea deliberatu nian, Manez han zitekeela, arto-buru bihikatzen...

Ttalek misterioa iraunarazten bazekiela baimendu zuen Ttottek eta ezustekoaren zigilua zekarten haren eleak errepikatu zituen:

– Hara non han aulki bat lurrean uzkailia ikusi nian! Kuskurtu ninduan haren zutik jartzeko eta, belauniko nintzen unean, sunpurretik dilindan zegoen zerbait latzek burua handizki jo zidaan. Ez ninduan den-mendrenik ere kezkatu, badakik, osaba Manezek urteko zingar-azpiak ganerrean zatxizkalako idortzen. Oihuka segitzen nian eta erantzunik ez. Sukaldera jaitsi ninduan eta Manezen itzalik nehon ez! Oiloak eta urdeak bazkaturik, etxeratu ninduan, lasai, eguneroko zerbitzua beterik.

Ttale hitz huts geratu zen. Manez, karlos errea, Arbidera joana zela ondorioztatu zuen, arrebarengana, hala baitzegien ez-ontsa zenean. Hargatik hiru egunen buruan, Ttaleren arabera, bazterrak arranguratzen hasi omen ziren:

– Ez genian inon gurutzatzen, ez igandean elizan, ez eta arrats apaletan Kantueniako ostatuan. Aita eta bi auzorekin Patzarrenera jo eta han atzeman genian, bai dilindan, sunpurrari lepotik lotua, bere buruaz beste eginik! Etxe hartako ustel urrin tepoa usnatzekoa zian...

Zainengatik menturaz, Ttale irriz lehertu zen:

– Segur nauk, nik zingar-azpi gottorrak zirela ustez, Manez gaizoaren zango puntek nindutela arratsalde hartan jo! Eta ez nian sorik ere altxatu: bazauka! Arrunt tetelea nauk. Manez urkatu berria hor nian eta ez diat kasurik eman!

– Eri zena?

– Ba, ez zuan hain ongi medikuek prostatako minbizia kausitu ziotenez geroztik. Baina ez duk suizidatzeko arrazoi bat, laurogeita sei urteetan, jinen zioan bai herioa, luze gabe, urrats mantsoan.

– Ez zikean sufritu nahi? –artekatu zuen Ttottek, justu Andde arrastatu zuten eguerdian, iragarritako bilkurara abiatu aurrean.

– Oraiko erremedioekin ez duk sufritzeko denborarik, mutikoa. Ohartzeke hilotz bilakatzen haiz!

Gazte xifrituak hasperenka zerraikan:

– Ez nauk egin dudanaz edo hobe erranik egin ez dudanaz harro: Manez salbatzen ahalko nian, gizonaren zango puntak ez banitu zingar-azpiekin nahasi!

Gainerako lagunak Baionan zeudela *Andde askatu* deiadarka eta Txikiko ostatuetan mozkor-

tzen, Ttotte Manezen ehortzetan zen, etxeko norbait ager zedin amoreagatik. Hilkutxa elizan sartu zenean, gerlari ohien bandera gorarik eta medailak putzuka gorri hertsi batean xintxo, jendalde bilduarekin, ahoak eman ahala *betiereko zoriona hil huni eman otoi jauna* kantatzen zuen, bizkitartean bezperagoko bilkuraren harat-honatekiko hausnar tematsuan zebilela. Barne-burrunba dorpeari ihes egiteko nolabait, ebanjelio denboran beren buruaz beste ziren herritar adinduen zerrenda osatu zuen: Mananek negu minean Uharane handi zela zubitik jautz egin zuen, Kaietek ere ura eduki zuen azken egoitzatzat Nazaren aldean, Manezen moldean Periku selauruko sunpurretan zintzilikatu zen, Augustek ihiziko fusilarekin kokotxa zitzifrikatu zuen, eta Maijanek hirurogeita zazpi bedatsetan satorkako pozoia irentsi zuen. Ez zen inkesta berezirik, zaharren suizidio tasa beti hein bat azkar zegoen herrialde horietan.

Bistan dena Ttottek gazte zenbaiten adibidea aipa zezakeen, fededunek *sinesten dut* marmaratzen zuten unean: Beinatek hogeita hiru urte zeuzkan, emaztegai polita, etxea eraikitzen, lan

ongi ordaindua SMSak barreiatuz adiskideei agurrak banatu zizkien goizean, Harpeko Zilo sakonera gorputza aurtiki aitzin. Sokorriek lau egun eraman zituzten hilotza argira ekartzen. Hautsia zen.

Andde arrastatu aurreko urteetan Ttottek ez zuen jendearen hil-gutizia ulertzen, baina orain ospitalean zegoela, ohe-burdinei estekatua eta pildorez kunkurino emokatua konprenitzen zuen, bera ere hortik pasatua zelako. Ezen Manezen ehortzetatik landa, Andderen sustengu komiteko kideek mutikoa erabat baztertu zuten, beti arrealde zebilen astoa bailitzan.

Medikua gelan sartzen segitu zuen, begia motel. Auhenka ari zen. Mekanikoki, kateztatua izateko asmorik ez zuela eta bere borondatez ipurdi mazela presentatu zion, pikura egin ziezaion. Bat-batean, odolak garraiatzen zion lasaitasun uhina zainetan hedatzen nabaritu zuen. Herriko hilak ahantzi zituen, biziak berdinki. Izpiritua itxura bitxiz hantzen zitzaion: oraindik martxan zeuden telefono mugikorrak metatzen zituen lurrean, ihardesgailuetako ahotsak ezagutzen zituen, lagun hurbilenak, gero ibaiertz ba-

tean bazebilen, hegiek ustelaren eta altzairuaren usain mikatza zekartela, adiskide min bikotea galdezka zebilen, buruxkando eta xatarretan urkatzen ari zen ume bat salbatzen saiatu zen, debalde, Andde jazarri zitzaion jaun eta jabe: *ez hoa ongi motel* mailukatzen zion kontzientziaren balizko eleak bailiran, Lilarekin amodioa egiten zuen amets-gaizto eta iratzartzen zen orenak orentegi ahitu ondoan.

Bakartasunaren zamak purruskatua bukatzen zuen. Erokeria bat. Azken urtea arras isolaturik higatua zuen, besta eta neskarik gabe, Lila ezagutu zueneraino. Andde sustengatzen zutenekiko menskeria eta basakeria zenbait obratu zituen, *heskualdunen* kontra ziren izenik gabeko mukizu batzuekin:

– Baakika zer den ETA?

– Nola nakike?

Inoxent-aire zebilen Ttotte. Panpilik, usaiako arraileria baitzuen, urguiluz eta herraz xerrent segitzen zuen:

– Eskualdun Tipula Andana...

Karkara gurintsuak gatibatzen zuen Le Routier taberna zokoan bildu saldoa. Panpilik bierrak

manatu zituen, ostalariak Johnny Hallydayren zinta azkarrago jar zezan garrasitzen zuen artean.

Lilaren ezagutzeak eta urte oso batez, haren etxean zerraturik bizitzeak arras moztu zuen Ttotte herriko gazteriarengandik. Hala ere ez zuen ahanztekoa eta inguma hitsak iratzarrarazten zizkion horrek, neskaren altzo beroan amildu aitzineko hilabeteetan, Panpili eta Le Routier ostatuko ohiko zuztarriekin euskal bestaz besta ibilia zen, pataska eta aharra xerkatzen: Panpili lodi bezain indartsua jende baketsuen artean bortitz sartzen eta gerla pizten zen. Andderen lagunak asaldatzen zitzaizkion eta ardura Ttottek berak, herri zenbaitetako plazen arrosa sudur puntatik edo matela azpitik zerion odolaz tindatzen zuen.

Ukabilak gorarik zebiltzan, barrak airean, botilak zapartaka, neskak elizen aterpean dardaraka izutuak eta kantonamenduko jendarmeak nahasmendu haietara hurbiltzen ziren bakanetan, larriki zaurituak kontatzen ziren. Biharamunetan Panpili, Ttotte eta lagunak aldizka komisariatik zein ospitaletik ilkitzen ziren, elurra bezain

sendo eta garbi, arrazoi on bat bazutelako otsoen aztaparretarik libratzeko. Ez zen hala agitzen ordea, Andderen sustengu komitekoentzat. Gertatzen zen, hil-biziko aharra partida sutsuetarik landa, baten bat kartzelatua izatea, polizia-gizon trebeek harengan terrorismoarekiko aztarna zerbait kausitzea lortzen zutelako, pegatina bat, aldizkari bat, kirol jantzi bat.

Gau-borroka horietarik batean, begitartea itotzen zion odol jarioa gelditzen saiatzen zela, Ttottek amets ikaragarria egin zuen: emazte baten aldamenean zegoen, Panpili motozerra piztuarekin anderearen lepoan makinaren mihiaz jostatzen zen, irriz karkailaka. Ttotte oihuz, ezbeharra ekiditen saiatzen zen, behin, bietan, eta hara non hirugarren aldian, justu Panpilik joko ankerra uztea deliberatzen zuenean, emaztearen zintzur zolan motozerraren kateak hodia ireki zion, odola tomate-saltsa adina lodi eta gorri bazeriola. Ttotte gaizoak orduan, sokorriko lehen aholkuak emanez, zauria eriaz tapatzen zuela, horman zintzilikatu telefonoan 15 zenbakia zaplastatu zuen. Esnatu zen punpan, izerdi.

Preseski, arrats hartako ekintza biolentotik at –baskoi eta anti-baskoien arteko bataila goizalderaino Klentte zaharraren artadian garatu zen–, neska gazte bat bazegoen etzanik, trenputxartua, hedailo eta doi-doia hatsartzen zuela. Apaldu eta mirazkatu zuen: bezperako motozerraren ametsa kolkoratu zitzaion, odol isuririk ez zitzaion susmatzen arren, nehondik. Elizaren maldara eroan zuen, bizkarrean. Eskuetan zeukan whiski botilako ttuttuna ahoan sakatu zion:

– Edan ezan emaztekia!

– Guruuup... Urrukkkua...

Boborimo elkorrak askatzen zituen neskatxak eta tanpez huntzaren gorotza zirudien mordoxka ilun baten antzeko zerbait bota zuen. Jarri zen ubelez perdukatu mutikoari harritua eta lotsaz so:

– Nor haut hi?

– Ttotte, Otsabidekoa...

Besoak besoetan, neska ipularrean berme mantentzen zuen. Neskatxak bortxatuko zuela uste zuen eta alde orotara higitzen zen, eskapatzear. Baina laster konturatu zen mutikoak ez ziola ohorea tatxatuko.

– Zer nahi duk orduan?

– Hor hintzen lurrean, irudiz hila –ihardetsi eta segitu zuen–: Sobera edanik ala gure borrokaren karietara kuskako bat bildurik?

– Gaitzekoa harrapatu diat gaurkoan. Ez diaguk iraunen, kaguensos!

Ttotte ez zela gizon libidinos ustel horietarik segurtatzean, etxera eroateko otoiztu zion eta biak mutikoaren autoan sartu ziren, trinkili-trankalaka. Jendarmeak zetozela, Ttotte eta *kaguensos me salbatu nauk* intzirikatzen zion neska bidean zeuden jada. Neskaren etxea Otsabideko muinoetan landatua zen. Bakarrik bizi eta Ttotteren presentziaz baliatu zen, biluz eta ohean etzan zezan eskatzeko. Mutikoa emazte larruhasari begira egon zen; zangarteko ileek osatzen zuten oihantxoak fazinatzen zuen. Gizontzen sentitzen zen eta neskak Ttotteren zakilaren jazarria irakurri zuen.

– Nahi nauka jokatu?

– Orai? Ama etxean aiduru dinat. Gainera ez dakinat nor haizen ere.

– Lila... Haugi Ttotte, joka nezak...

Neskak galtzak askatu zizkion, aberetxo lekedatsuak hondarrean, bitsez emokatu burua agertzen zuela.

– Hori diat gustuko: hire sugegorriaren trenpua. Joka nezak arren!

Ttotte ez zen den-mendrenik ohartu Lilaren aluaren sakona zirrikatzen ari zela, hortik aurrera baserri hartarik kantitu gabe, anitzetan egingo zuen eran, neskaren *joka nezak arren* manu lizunari erantzunez, ama eta jeztekoak zeuzkan ardiak erabat ahantziz.

Amodioaren sareetan preso zegoen garaian, Mikel eta Panpili bi kusiek Ttotteren guraso eri eta ahulak hertsatzen zituzten, etxaldea salbu, funtsak bederen alokatzeagatik. Saldu ere, zergatik ez; semea Lila izeneko emaztearen besoetan zegoen eta irudiz ez zen etxaldeari biziki interesatzen, bi kusiak aldiz bai, errotik:

– Urriza harekin dela lurraz bost axola du, errazu!

– Eta guk bizitzeko hanbat behar...

Mikelen ildotik Panpili auhen lehertzen zen. Ttotteren ama aulkitik zutitzen zen, aitaren besoetako zainetik lerratu perfusio orratza lekuan

ezartzeko. Isilik zeharkatzen zuen sukalde iluna, auzoko bi gizonen zinkurinak oihar:

– Lau hektarea horiekin eginen zenuketen sosarekin, hirian plantatzeko diru nahikoa bazenukete, klinikatik bi urratsetara, Maneren kimioagatik diot hori.

– Ez dik kimio eta zimio beharrik gaizoak!

Ama haserre zen.

– Medikuak lau asterena iragarria ziok!

– Lekuak huts itzazue etxe hontarik...

Zahar eiharrak, gorputzean zeuzkan indar muskilak oro bilduz, deiadarkatzen zuen. Eritasun barkagaitzaren hurrengo erasoaldiraino halako lo-koma batean amiltzen zen gero. Ezintasunez itoa, emazte konkortuak erratza eskuratzen zuen eta auzo hamikatuak haizatzen zituen.

– Ttotte mukizu hura non dugu orain?

Ama galdezka ari zen, ezkaratzeko atea klaskaraziz. Nehork ez zion ihardesten. Bidenabar sentitzen zuen lur-gose ziren mutiko lotsagabeei amore eman beharko zietela noizbait, etorkizun hurbilean menturaz.

Ttotte Lila-zulo bilakatu zen. Neskaren ganbaratik gutxitan baizik ez ziren erosketen egite-

ko kanpora ausartzen zirenean, bikotearen era ikusgarria zen: Lila, baba-cool moldean apaindua zen, arropa koloretsu eta anbre usaina zeriola; Ttottek aldiz bizpahiru hilabeteko bizar nahasia zeukan, zapel zabala buruan eta zilarrezko gurutze saindu erraldoia papoan dil-dil. Herrian, ahapeka erraten zenaren arabera, Lila *Ekiaren Semeak* sektako kidea zen eta Ttotte bakartua, bere sareetan harrapatu zuen, arrain soil baten gisara.

Jadanik Otsabideko Zarteia baserria sektaren mende zen, Lilaren antzeko beste andere batek horko jaun adindua amainatu ondoren: gaurkoan bista laburreko Zarteiako nagusiaz burla ausarki zegiten herritarrek, asunetan ahantzi ahe herdoildua ez zuelako gehiago kausitzen; halaber ments bulta batean, komunione egunean, aitaren aitak oparitu zion golde nabarra errekara aurtiki zuen. Sektako arduradunek behitegiko otalakoetan, korbeen maldan, ohantze moldeko bat antolatu zioten, Zarteia bilkura eta egitate lizunetarako baliatzen zutela. Gertakari horiek ez ziren aspaldikoak. Otsabidetar frankok Zarteiakikoa, Ttotterekin ere pasatuko zela iragartzen

zuten. Halatan, auzapeza arranguratu zen eta jendarmeak abisatu zituen.

Bikotea ohean atzeman zuten Lilaren etxean sartu zirenean. Lila arrastatu zuten, baina handik laster libratu. Otsabideko hegietarik behin betiko desagertu zen. Ttotte zain-beheraldi latzak eroan zuen. Bisitaz zetozkion ezagunei, ez beti intentzio onekin ordea, hala nola aldizka Mikel eta Panpili, Lilari hitz emana laburbiltzen zien:

– Ezkonduko gintuan, auzapez nazkagarri horrek ez baldin bazituen jendarmeak deitu! Pentsatzen duka? Ezkonduko ninduan!

– Zeren trukean? –eskatzen zion trufari Mikelek.

– Errak, ezkonduko ninduan. Etxea *Ekiaren Semeei* utziko niean eta hirira joanen gintuan bizitzera Lila eta biok.

– Funtsak sekta bati abandonatuko hituen? Hobe guri saltzea...

Panpilik ezkel segitzen zuen. Mutiko ezinduak, ahurra begietara lerrarazten zuen eta hizketa motelean zerraikan:

– Bakarrik nauk berriz. Non da Lila? Haren bila abiatu behar diat lehenbailehen.

– Artean, lurrak aloka iezazkiguk...

– Lila non da?

Egun oroz zazpi pastila kimiko irenstearen erruz, ezpainen zirrikituetarik tu malgua isurtzen zitzaion.

– Kalma hadi gizona –ahapekatzen zion Mikelek, egoeraren larria neurtzen zuela.

– Bihar edo etzi jinen gaituk. Senda hadi eta pausa: baduk naski beharra.

– Lila non da?

Berean zegoen Ttotte eta lagunen agurtzeko kemenik ere ez zeukan.

Triste paketa halakoxea!

Bi gauza zeuzkan gogoan biribilkari ospitale psikiatrikoko gela beilegiaren ilunpean, aulkian loturik zegoela: batetik, harritzen zen oraindik, etxeko sukaldean normalean elkarren etsai erreak ziren Mikel eta Panpili bere lurren lehian ahots batez bermatzen ikusteaz; alabaina Mikel, Andde preso herritarraren sustengu komiteko zutabeetarik bat zen eta Panpili guztiz kontrakoa. Bestetik ezintasuna irakurtzen zuen amaren begitartean, gaztigu dorpe; minbiziak zurgatu senarra eta erokeriak desorekatu semea biak ar-

tatzen zituen, olde bakarraz, sekula auhen edo zinkurinik entzunarazi gabe. Irudi zitzaion eiki auzoak arraiki trufatzen zitzaizkiola. Baina lurraz jabetzea helburu argitzat zeukatenen bisitak, nehoiz loratu ez edo nekez garatu zen adiskidantzaren seinale zeuzkan, hain baitzen isolatua. Lilaren galtzeaz horrela kontsolatzen zen. Bederen inguratua zein sosegatua sentitzen zen.

Zena zela, erremedio likits urrina zuen sukalde hartarik ihes egin behar zuela erabaki zuen goiz batez. Amaren urratsen zirrizarra etsitua eta aitaren zintzur korrokak ez zitzakeen gehiago jasan. Lilaren larruaren gozotasuna falta zuela, haren xerka partitu zen. Ez zuen ez jantzirik, ez lo-zakurik, ez paperik, ez eta dirurik hartu. Zainen jabaltzeko pilulak eta haien arraberritzeko medikuaren ordenantzak ez zituen ordea ahantzi. Lekuak husteko arrazoi bat bazuen, ez nolanahikakoa; hain zuzen ere bezperan Mikel, Panpili eta Arbideko notarioaren bisita ukan zuen: lurrak saldu aurretik auzoei alokatzen zizkielako agiria ekarri zioten, izenpe zezan. Presio ikaragarriarekiko denbora pixka bat irabazi zuen, ahoskatu zuelarik, irudiz trenpuan:

– Zatozte bihar eguerdi aldera, gogoetatu eta paperak sinatuko dizkizuet.

– Erran bezala beraz...

Aurpegi alegera zuen notarioak, mahaitik zutitzera zihoala, aulkiak kurruskaraziz. Ttottek hirukotea pozarren agurtu eta arratsaldea gastatu zuen MTVri iltzaturik.

Hiru gizonak itzuli ziren eta izenpetu gabeko paperak eskuratu zituzten. Amak bortxaren bortxaz, Mikel eta Panpiliri, etxeko alorren lantzeko baimena eman zien: egun hartan, elgeak udalatu zituzten eta handik laster nork bere artadia hazten mirets zezakeen, Ttotteren berririk ez zegoela. Bitxiki nehork ez zuen jendarmerian bilatzeko manurik pausatu. Herriko apeza salbu, inor ez zen Ttotteren balizko egoeraz kezkatzen. Funtsean eratorri bereziaren lehen hiru egunak apezetxean higatu zituen. Ausarki jan zuen. Zainek gatibatzen ez zizkioten une lasaienetan konfesatzen zen, apez zaharkituaren belaunetara gorputz-enborra aurtikiz:

– Bekatorosa naiz aita! Barkamendua nahi dut.

– Zuti hadi seme... Hi baino bekatorosagorik baduk hemen gaindi.

Hitz eztigarriak aditzean begiak idortzen zituen. Errealitatera itzultzen zela ematen zuen orduan:

– Ene etxaldea irentsi asmoz Mikel eta Panpili elkartzea bitxi zait.

– Indar antagonistak batzuetan helburuen arabera juntatzen dituk!

Apeza isiltzen zen berak ahoskaturiko zuhurtzia zamaz jabetzeko. Bazterrak jabaltzen zirenean, segitzen zuen:

– Gogoeta ezak, Ttotte: baduka laborantzan jarraitzeko zinezko xederik?

– Ez dute gure baserria ukanen, edo hil beharko naute!

– Arren, ez zakela astakeriarik erran: pentsa ezak ontsa. Aita lazki eri duk, ama xahartuxea eta hi ez haiz momentuan zainetarik ongi; hobe huke etxaldea, landak bederen, lanean aritzeko tirria dutenei alokatzea eta alokairuarekin hire sendiaren sendatzeko sosa sakelaratzea.

– Madarikatua! Zu ere otso hamikatu horien alde zara ala?

Apezetxeko borta karrankarazi zuen eta hor zen egiazki, Angeluko hondartza batean bururatu zen Ttotteren gurutze bidea hasi. Egon-gelako mahaian pausatua zen igandeko eskeko dirua ostu zion hiru gauez bihotz zabalki aterpea eman zion Jainkoaren Zerbitzari suharrari. Gauaren erdian kanpo hotzean aurkitu zenean, ideia zehatz bakuna zeukan kolkoan: Lilaren atzematea. Hura gabe ezin zen bizi. Edo hilen zen. Bizkarreko zakuan zeramatzan erremedioak ferekatu zituen, sosegu bila. Hatsa hartu zuen oparo eta Baionarako norabidean galdu zen.

Goizaldera Sastretegiko bere lurretan Mikel eta Panpili, alimaleko traturretan hupatuak, udalean begimendu eta madarikatu zituen: afruntu hori noizbait ordainduko zioten! Zanpa-zanpa urrundu zen ordea mendekua jaki hotza baino ez zitekeela murmuzikatuz.

Ospitale psikiatrikoko ganbarako aulkian egunak loturik pasatzen zituenean, bizitzaz jada zimiztaka baizik ez zen oroitzen. Lasaigailu txertoak egiten zizkioten orduetan bereziki memoria inarrosaldiak pairatzen zituen eta beti itxura berdinak zetozkion buru-zokoaren lardaskatzera.

Halaz, behin goseak hilik etxe batera hurbildu zen gordeka eta zakurtegian agerian zeuden kroketak ahurtaraka ahoratu zituen. Berandaren maldan bizpahiru abere-bazka poltsatto zeuden eta bizkar-zakuan sakatu zituen. Etxe hartarik aldendu zen punpan, erokeriak biderkatzen zion bere zangoen, oinen, besoen, gorputzaren kalipuaz harriturik. Zainetako gaixotasunak alabaina jendea flakatzen zuen, normalitatetik bereizten baina errealitatearen ukimen doloretsua ere eskain ziezaiokeen, jendetasunaren geruzaren azpian ttattit aiduru zegoen kabalatasunaren antzeko zerbait.

Hiriko karrikan amil zegoela, ardo botila aldamenean, ez arras amoinaka baina kasik, bikote zuhur baten erasiak jasan zituen. Hauek ez zutela biziari deus ulertzen iritzi eta laidoztatzera utzi zituen: jende izugarri onak, alaina txapelaren hondoan euro bat pausatu zioten, hogeita hamazazpi urte eta erdi lanean ari izanik, ederki merezitako erretretara helduak ziren sekula, eta mailukatzen zuten hori, sekula beraz, greba egun bakar bat ez herrokaturik, nagusiaren ez kexarazteko, eta sindikatuetako adiskideei espli-

katuz etxe berrirako hilabetesari garratzen ordaintzeko ez zutela lanaren uzteko ahalbiderik: greba ere aberatsentzat zen.

– Ari hadi lanean kiskila, gu ari izan garen eran! Deabru auherra!

– Lila xerkatzen dut.

Bistan dena gaurko mundu ezaxola deitoratuz eta beraien artean marmaraka, gobernua are gogorkeria gehiagora deituz, so urrikaltsua botaz joan zen behialako bikotea, Ttottek zegoeneko konpreni ez zitzakeen oharrez umezurtz abandonatuz. Handik laster eliza batean sartu zen eta orotan barreiaturiko intsentsu usainak haurtzarora eroan zuen: negar gutizia piztu zitzaion; maitetsuki nehoiz ez artaturik, asun eta sasi arteko lore salbaia zela zirudion. Ilunpean jarri zen. Apeza eta berreterrak irten ziren meza emateko. Ttotte akitua zen, baina oraindik ere gogoa urratzen zion apezaren predikuaren ildo nabarrak:

– Ez ditugu diruz eta ontasunez gose direnak lehiatu behar. Aberatsak halaber Jainkoaren haur izanki, agian pobre larru-hasak baino anitzez gehiago pleinitzekoak dira, gaurko men-

dean hedatzen ari den pikarraitzea garatzen ikustean, sekula ukan ez duten kontzientzia txarra jasaten dutelako, aberats izateagatik. Onartuko duzue horrelako bazterketa bidegabekoa dela! Ez dira etsitzen, aberastasun materiala, ongi-izatea eta dirua metatzea Jainkoak asmatu ekintzak direlako. Jainkoak ez du erran *ez zaitela aberats*, baizik eta *dohatsu pobreak*! Ez da batere berdin. Mundu honetan tokia denentzat baldin bada, aberastasunaren arroskiloaren izaria aldaezina da eta banaketa merituen arabera eginen da, Jainkoa goretsiz. Alabaina, anai-arrebok, herrestek ukanen dute zeruetako erresuman doakien lekua: izkinarik pobreena eta han ez dute RMArik edukiko, zinez diotsuet! Eta hain mespretxatuak, hain irainduak, hain gutxietsiak diren aberatsak Jainkoaren eskuin aldean jarriko dira, betiereko bakean! Amen!

Zakur-bazkaz eta itsu-mandoka irensten zituen erremedioz hanpatutako Ttotte ez zen baitezpada aberats sentitzen, are gutxiago pobre baina apezaren mintzaldia harrigarria kausitu zuen, hiriko apeza zelako eta fededunak hein bateko egoera material satisfosean aurkitzen zire-

lako. Agian. Zena zela, meza bururatu aitzin eliza-zainak Ttotte eskalea kanporatu zuen. Nora jo ez zekiela, sugar baten pare bizia ez aurrera ez gibelera maneia ez zezakeela usteak burumuina zitzikatu zion:

– Orain hiltzeko tenorea etorri zait. Autefera-futro lurra, aberastasuna, borrokak, Andde, Mikel eta Panpili. Bihoaz deabruetan hara! Gaizo ama, beharbada aste berdinean ehortziko dituxu senarra eta semea! Barkatu amatxo...

Hitzak martzilikatu zituen, borobil erraldoi ireki ahoaren zokora, eskuetan zatxizkan pilula ugariak aurtikiz. Itsas aldera zuzendu zen. Azken ibilaldia zukeen.

Suprefeturaren paretik Baionako Barraraino abiatu zen. Grenet zubi azpian liburu urratua irakurtzen ari zen eskalea agurtu zuen, su ahulak argitu ilunpean berotzen zela. Irudiz gizon hark, liburu berdina leitzen eta goraki komentatzen zuen tai gabe. Gogoz ere ikasia zukeela pentsatu zuen zanpa-zanpa aurrera zihoan mutikoak. Izpiritua alha zeukan: azken orduak sakon eta aberats bizi behar zituela zioen; ez, ez zuen herritar zahar eta akitu haien antzera bere buruaz

beste eginen, baizik eta munduaren azala, bilakatua zen itzal herrestaz garbituko, hots osasun publikoaren alderako obra baliotsua obratuko.

Alabaina, ez zen nehoiz maitatua izan, adiskideek abandonatzen zuten, haiekiko interesa apaltzen zitzaionean, emazteekin ibiltzeko herabeegia zen, eta Andde arrastatua izan zen egunean bere ikusmoldea eman zuelarik baztertua suertatu zen. Isolatua eta bakartua. Panpiliren bandara hupatzeak ez zion kideekiko aho-sabaiko samin gustua ezabatu; alderantziz, arrunki erran zitekeen pitokeriaz pitokeria galdu zela, Lilak hartu zueneraino. Lilarekin amodiotan gastatu hilabeteak ez zitzakeen ahantz; zorion eta normalitate trukean, *Ekiaren Semeak* sektako partaidea izatea barkatzen zion. Samurtasuna eta maitasuna zituen eskas, kasik sortuz geroztik. Bizitzeak ez zuen gehiago balio:

– Hedailoen Etorbidean bederen ez dut nehor trabatuko.

Denbora ahitzen zihoakion. Oinak oinategi, soilik loeria astunaren orratzak kaskoan ziztaka nabaritzen zituela, Angeluko Chambre d’Amour hondartzara heldu zen konturatu gabe. Bertan

etzan zen, uhinek lardaskatzen ez zituzten arroketan. Eta hor zuen miratu. Begiztatu. Lila. Andere Zuria. Haizeak neskaren eleen oihartzuna garraiatzen zion. Ttottek bizkar-zakuan zeuzkan erremedioak irentsi zituen, ur gaziaren laguntzaz. Solasari eman ziren biak. Elkarrekin iragan egunak arrapasatu zituzten. Ttotte, azkenean, lorios zen:

– Itzuliko ahal zara neure ondora?

– Haugi...

Itsasoaren izurde marruma galkatu zen. Loaren atarian, neskaren altzoan pausatu zuen burua. Lehen aldikoz agian lasai sentitzen zen: haurtzarotik gaur arte beti kasu egin zuen, zer erran, zer pentsa, zer nabari, nola ibil, nola joka utzia ez izateko. Sektakide bezain militante izateko lur-beltza zen bera. Larderiapean jarduten zuen. Poza garatu ezinik. Gurasoak axolagabeekin. Umiliatzen zuten, mutikoak, etsamin txarpil bat edo beste erreusitu zuela harro zirela ez zezan sinets:

– Has hadi lanean eta orduan gizonki mintzatuko gaituk –ahoskatzen zion aitak, izebak zarraikiola:

– Errient nahi dukala? Aski duk ba zizare pikatzaile... Eta ontsa kontent hortara heltzeaz ere!

Ospitalean kausitu zen bat-batean. Ez Lilaren magalean lo, baina ohe zurbailean burdinez estekatua. Ama ikusi zuenean, hainbeste minez eta dolorez hautsia, erran zuen:

– Hara ama, zurea naiz orain.

– Angeluko hondartzan patruilan zebilen CRS koadrila batek harrapatu hinduen hilzorian! Zer egin dugu horrelako makurra merezi izateko? Ez duka buru izpirik? Jakin ezak salbatu hautelako bozkariatzen garela: ez diaguk ahalkerik behintzat pairatuko? Zer pasatu zauk horretaratzeko? Mentsa behar dik izan!

Ama ez zen galdezkatzetik gelditzen. Bi aste koma egoeran egonik doi-doia iratzarri Ttotte isilik zegoen. *Hara ama zurea naiz orain* perpausa iragaten zitzaion muinetako pantailan, abisu koloretsua bezain etsigarri. Zainak korapilo zeuzkan eta monologatzen segitzen zuen itsasertza hotzean nola:

– Nehoiz sortu behar ez zuen haurra naiz! Zergatik ez ninduzuen munduratu eta bi egunetara urkatu? Gurasoek lehen umeak, istripuz gal-

tzen dituzten arren, hobesten dituzte beti. Dolu handiegia dute eta ez dituzte ordez sortzen direnak laztantzen ahal. Sortu behar ez zuen haurraren zama eroan dut denetan, eskolan, lanean, adiskideetan: aberrazio bat izan naiz. Zergatik salbatu nauzue? Alta bazenekiten ez ninduzuela maitatuko eta nehork ez ninduela maitatuko. Haurrak ekartzen dira gozatuak izateko eta ez ongarri metaren gainean goseak hilik dagoen txori erregepittittaren pare, bere buruarekiko disgustu goiztiarrekin hausnarrean abandonatzeko...

– Hago isilik mutikoa! Jainkoak entzun ere...

– Bai ama.

–7–

Azken denboretan hedoi batean bizi zen Graxi. Etengabeko aro ederra oparituko zion laino mihi arinetan zaldizka. Begiak zerurantz, orduak pasatzen zituen hodeiak aztertzen: goizaldera ortzian zintzilaldi graziosean dilindan agertu zirrukumulu multzoak mirets zitzakeen, eguerdi aldera masa borobilago batean biltzen eta arratsaldean itsasotik altxatzen zen haizeari esker berriz barreiatzen, etzirako eguraldi onaren iragarle xume. Zenbaitetan gora hain gora, hegazkinen keek, lurraren ertza batetik bestera, bi marra paralelo hazten zituzten. Airekoak ttaka zilar ziren eta keak zuri-zuri. Urdina lardaskatzen zuten. Larranzten. Dolorezko agerinde. Lepoko mina jautzarazteraino begira egoten zen Graxi, ke-buztan zehatz haien destinuaz galdezka: iraunen ote dute? Inmaterialitate sentimendu hutsal batek desjabetzen zuen neska. Hargatik, handik laster, lerro zurbailak desegiten jarraitzen zituen, ikuskizuna biziaren ikurra bailitzan. Ikur ankerra. Baina lainoei beha zegoenean ez zuen tristura iz-

pirik nabaritzen bihotzean, ahantziak zituela uste zuen poza eta zoriona baino.

Ibai bazterrean jartzen zen. Belaunak paporatzen zituen eta horrela egoten zen, zerua eta lurra juntatzen zituen errekari begira, orduak ordutegi. Zubi Berriaren hegiak arrasatuz txoriak itsasotik zetozen, karranka. Ibaia hegalez kilikatzen zuten noiztenka, desafioz bezainbat gosez. Uraren azal jabala, ondorioz, borobil meharrez zimurtzen zen. Naturak premia bakarrean harrapatzen zituen jokoa eta behar gorria, biak ekintza beraren partaide oso, aldea eta ifrentzua sekulako lotuak ziren eran, amestutako oreka erdiets lehian. Jokoak huts egiten baldin bazuen, behar gorriaren betetzeko desira eta kemena eskasten ziren; alderantziz behar gorria baizik ez zenean bermatzen eta obratzen, mekaniko, hits eta debalde bihurtzen zen guztia. Hedoien ibilerari hurbiltzen zitzaizkien txorien dantzen arintasunezko bake sakona maite zuen Graxik. Ontzi bat segitzen zuen, ibai zabalean, ezpondatik ezpondara, arrantza sareak hedatzen: haizearen xuxurla, uhintxoen klaska hegietan eta batelaren motor azantz elkorra. Bakarretan erreka az-

patzen zuen harrizko horma itsuan footing egiten zuen baten bat segi zezakeen; haizea azkarregi zebilenean eta euria ezkel, lasterkaria uhinetara eroriko zela zirudion eta hatsa bahitzen zitzaion. Baina ez zen horrelakorik gertatzen, bide hertsian korrikalariaren oina segurra baitzen.

Ez zekien nola deitu. Ingelesa nolanahika erabiltzearen ohitura txarra ezin menperatuz eta egoeraren bitxitasun arrotza gatibatzearren, Man izendatzea erabaki zuen.

Gizonak ezagutu zituen, anitz eta sobera, baina ez zuen Man-ekikoa bezalakorik nehoiz dastatu. Erran behar zen ohea zaplastatu zioten gehienek, izaera eta gorputzaren ahalkean ihalozka, aztal-ukaldi batez ito zutela.

Solasaldi krudelez oroitzen zen:

– Ahizpa zu baino ederragoa duzu.

– Zergatik zara enekin orduan?

Altzairuzko tapak zintzurrean igotzen nabaritzen zituen. Betazalak busti zeuzkan. Ustezko maitalearen ezpainetarik erantzuna, egia hotzetik hain hurbil, maiz harresi eraikitzen zen.

– Hobearen esperoan nago. Ez zaitut desiratzen. Baina inor ez daukadan artean, zergatik ez zu?

– Baiki...

Jaiki eta ganbarako mirailetan jaukiko zitzaion itxura itsusiaz gohaintzen zen, gordeka. Bainu-gelara zihoan, garbitzera eta malkoak urtzera. Ez zezakeen bere burua pati. Nehoiz nehork ez zuen jasan. Auzoko neskekin gaztaroko dantzaldietara joaten zenean, demagun, bakarrik geratzen zen ilunpean, banka mainguetan ttottoturik, gonbitik gabe eta mutiko mozkor berotuek heiatzen zutenean, ezezkoa aireratzen.

Behin Arbideko batek erasiatu zuen:

– Uste duna errefusatzeko heinean haizela?

– Ez diat slow horren hirekin eroateko gutiziarik...

Beldur eta kikil zen, bazekielako ez zuela mokofinaren jostatzeko aukerarik. Mutikoak plastikozko garagardo basoa aurpegira aurtiki zion kexu. Besta bukatzean, zoriona aho beteka irentsi eta urrikal-ezin, lagunak inguratzen zitzaizkion, gizon-gaiak laztanki musukaturik, agudo eta irriz karkailaka etxeratzeko. Ez ikusia eta

amodiozko gauzetan ez ikasia, mundutik kanpo ziharduen Graxik.

Amore ematera zihoala, Man jauki zitzaion, zeru hondoan hegoak bulkatu hedoi zehargiaren gisara. Zerk bada piztu zuen Man-en baitan Graxirenganako interesa? Arrazoitzeko, kalkulatzeko, gogoetatzeko eta bizia ekuazio soiletan finkateko usaiarekiko Graxirentzat misterio ederra zen. Gurutzatu ziren arratsalde hartan geldo geratu ziren, soak iltze. Irriak, adinak mateletan urratu arroilak plegarazten zizkien. Amodioa baino gehiago iluminazioa zen, mendeetako lotsak giltzarrapoz kateztatu bihotzaren iratzartze berria.

Isiltasuna hautsi zuen Graxik:

– Ez nazazu horrela begiratu otoi, ez naiz biziki ederra.

– Lasai, ni ere ez naiz hain gaztea...

Man barrez lehertu zen. Graxik kopeta apaldu zuen eta, jasaniko inarrosaldiaren ondorioz, izpiritua lauhazka, gutxitan bisitatzen zuen haurtzarora itzuli zen: etxe aurreko landaren horiarekin ezkontzen zen zeru urdina irudika zezakeen, auzoak ogi epaiten eta epai arau, rafia esku ba-

tean, igitaia bestean, ezpalak trebeki estekatzen! Ardoa burrustan isurtzen zen, izerdia usain gazi lerratzen eta langileak haiatzeko aitzina-aitzina deiadarrak hegaldatzen... Graxiren memorian txertatu ziren lehen itxurak ekiaren su eta distiraz argi ziren.

Handitzean, nahiko paranoiko bilakatu zen, bidegabeko ohar eta apalestez barneko argizaiola hiltzen saiatzen ziren urte dorpeetan, gogapen salbatzaile horren altxorrari esker zepoaren mehatxutik libratzen zela. Aski zuen bere film pobrea buruko pantailan berriz eta berriz pasatzea jakiteko ez zela beti ingurukoek erakusten zuten inutil eta mukizua. Alabaina, Graxi txikitatik urguilu-ontzi eta harro-putzua zen: umiliatu behar eta ez zuen besterik egin, murruak arrasatu eta itzalekin solastatu. Man-en soak selauru sekretu eta zokoratu hartako borta blindatuak bortxatu zizkion.

Zaila zen asmatzea batzuetan zeru zolan zebiltzan hedoiek zer ekarriko zuten: meteo-agiriek euria hitz ematen zuten eta bat-batean haizea jaukitzen zen iparretik edo hego-beltzetik. Ortzaizean multzoturiko kumulu-ninbo astunak

airez, sabelak haurrez bezala, husten eta hertzen ziren. Bizidunen gainetik, euriaren mehatxua azpatzen zuten. Baina agian, beraien jario amniotikoen txortola zelestiarrak nonbait botatzen zituzketen: nork zekien zuzen zer bilakatzen ziren lainoak... Ordea, hidrogeno masak bata bestearen kontra behaztopatu eta uhar ikaragarriak setia zitzakeen bazterrak. Halaber ortzia berezitasunik gabeko hodeiez estalia zela, denbora dil-dil eta zalantza zen, nora jo ez jakin, burlari. Konplexuek labakitu neskari, hedoiak euritzen ziren uneak amodiozko lantzer-izpi iruditzen zitzaizkion.

Hedoiez aldatu zen Graxi Man-ekin ibiltzen hasi orduko. Maite zuen Man-i so geratzea, Man bera ikuska hurbilaz ohartzen ez zela ardurenean. Karrikan zebiltzanean, metro apurrez atzerago egoten zen Graxi, gizonaren traka hortik, hunkigarri kausitzen zuelako: urrats mantsoan bazebilen, airatzear, hitzen haria ez ebakitzeko noizbehinka inguratuz; neskak aldiz eskuak paltoko sakeletan zatxizkan gehienetan, begiak pindar, izpiritua laino eta aurrean arin zebilkion itzal handia zangopilatzeko asmoz jostari. Kide zeu-

kan gizon luzearekiko harrotasuna bihotzean pizten nabaritzen zuen.

Betirako urrezko ibilera amesten zuen: bideak iraun baleza oraino mila urtez erregutzen zion balizko jainkoari, zabalago zen arren otoitza laguntza-dei izatera mugatuz. Orduan, biluz sentitzen zen, pobre, minbera eta ahul. Bazekien Man-en begirada beltzak sosegua ekarriko ziola. Zertan finkatzen zen bizitzeko bozkario berreskuratua? Zer zen bada hitzik gabeko amodio hori? So bat aski ote zen xendra lahartsuan tematzeko? Maitasunez troxatu pentsamenduak egunerokotasuna onera bidera zezakeena? Kitzikaz eta gutxiestez azpatu mendeak ezabatzeko baliamen ezin hobea zena, mundutik kanpo, lurrean exiliaturik, hondar urteetan Graxik zeraman norabide intimoa?

Ostatu batean sartzen ziren bostetako tearen hurrupatzeko. Buruz buru jarri eta niniken oihal beratzak josten zitzaizkien, urtarril mineko igande azkorrietako izotz edo goroldioz zuritu harri karroinduak adina geldo.

– Gure lehen amodio gauaren oroimen, kaligrafiatu nituen ideograma hauek eskaintzen dizkizut.

– Joan behar zara ala?

Graxi kezkatzen zen, makurrean ohitua, sordeis igurikatzen baitzuen beti.

– Ez baitezpada. Iruditzen zait salbatzen zaitudala. Batez ere zeronen mamuen aztaparretarik.

– Zurekin ederra naizela susmatzen dut.

– Sentimendu berdina daukat. Utziko zaitut, eta utziko nauzu, geure baitako argia egiazki eta behin betiko segurtatuko denean...

Ahots eztiaz haizearen eta larrazkeneko hedoien parabola azaltzen zion, asmatu berria noski.

– Nahiz bortu gainetako elurrak balakatuz hozteko arriskuan dagoen, hegotik buhatzen duen aire beroa, ez da hatsa bulkatzetik gelditzen harik eta zeruaren izkinetarik azken eurilaino mehatxugarriak eten, desegin, menperatu eta ehizatu arte.

Kanpoan narrasti nagi paseatzen ziren jendeak miratzen zituen Graxik leiho hegitik. Bista

amiñi bat haratago zuzenduz, egoitza gorakoien artetik jadanik distiratzen zuen ilargia, artizarra ezkerraldean, zehatz zezakeen. Hotza erraietan zerabilkion. Behin, gogoan zeukan oraino, lanetik gauez gau etxerakoan, bost kantoien plaza desolatuan didjeridoo soinu-jolearen entzuten egon zen: zintzur karranka ematen zuen musika aditzen zen, mutiko isiotuak higiarazten zuen panderetaren xirri-xarrak suge-ozenaren ezpalen karkara zinominokatzen zuela. Plaza hutsera heltzean musikaria harrapatzeaz harritu zen, azantz aboriginal hura enparantza brodatzen zuen apartamentu batetik zetorrela uste baitzuen. Ibiltari batzuk gelditzen ziren, argi zurbailen men, deus ez bailitzan pasatzen zirela anitz, etxerako presaz. Graxi lekuan berean geratu zen, lekuak eta denbora zurunbilo berdinean borobilkatzen zitzaizkiola kolkoaren eremu murritzean.

– Didjeridoo haren hotsak gatibatu ninduen. Ez nintzen nintzena. Alderantziz nintzena banintzen, nintzena baino gehiago nintzen, lurraren ertzetarik jaukiriko izaki zaharkitu eta mendeen hariaz jakituna. Larrua beltz neukan eta hitza

mendekosteko argi-urrakoetan bezain nahas. Sozial, ekonomia eta kultura ezaugarriez desjabetutako humano soila nintzen. Desbejabetasun horren mamitik maita zaitzaket egun. Eta zuk maite nauzu?

– Garrantzia duen zerbait erran behar dizut.

Musu arina pausatu zion ezpainetan, eztabaida giltzatuz.

Goiz hura altxatu zenean, bihotz beratu zen Graxi. Negua zen. Leihotik lurraren ertza bastatzen zuten mendi lerroak ilun, hain ilun eta etsi susma zitzakeen; emeki-emeki, azpa arrosa agertu zen, zeru beltza eta bortu elkorra bereiziz, argizko jazarpena irudikatuz. Hedoi herrokak gero, kolore berdinez apaindu ziren. Gorritasuna burlari zebilen. Urrakotik zenbait minuturen buruan eguna sortu zen, erabateko mirakulu. Urez hanturiko lainoek multzo trinkoa osatzen zuten, bezperako eurien memoriaz erditzear. Bortuak urdindu ziren, ortziak gris doinua hartzen zuela. Argi-zirrintarik sekula behatu ez bailuan tente zegoen Graxi. Man-ez pentsatu zuen. Zintzurra tinkatu zitzaion. Aldamenean lekukorik ez zeukala, erran zuen, hasperen:

– Hauxe bizimoldea...

Eriak kopetan behera ahoraino lerrarazi zituen, beraren izaera haragikorra baieztatzearren. Ahotsaren zehargiaz harritu zen. Larruaren epelaz eta betazalen higiduraz halaber. Etxeko leihoa ireki zuen bazterrak laztantzen zituen hego aire freskoaren sarrarazteko. Ibai gainean jadanik txori herbalak biribilketan bazebiltzan, dantzan eta kantan orroaz, aditzen ziren auto zarata burrunbatsuen arteko isiltasun uneak betez. Alabaina hirira etorriz geroztik zaratarik gabeko minutu apurren maitale bilakatua zen.

Man-en aitzinean edo saihetsean zebilenean, destinu lakarraren muinaren harpe galduenetik zetorrela zirudion, soaren bat-bateko indarraz salbatua izan bailitzan. Ez hain aspaldi, bazterrekoak aspertzeraino, existentzia propiorik ez zeukala errepikatzen zuen eta nehork ez zuela ikusten; egoera horren froga zen karrikan ibiltzen zenean, ondotik pasatzen zitzaizkion jendeek ezaxolati eta parez pare kuskatzen zutela. Ez-izatearen zama zeraman soinean. Ustezko adiskideak bazituen; gustatzen zitzaien min egiten zioten piku mikatzak neskari irentsaraztea, baitze-

kiten urguilua erdiz erdi kolpatuko ziotela. Beraien arazo sentimental likitsen zakarrontzia zela zirudion batzuetan eta zikin sentitzen zen. Hargatik, ez zien jujamendu gabeko behaketarik ukatzen. Talde-lanetan parte hartzeko egokia zen bururaino eroaten zituelako saldoak finkatu ildoak. Leialtasunez.

Baina garai haiek agortu zitzaizkion. Zinezko hustasun latzean kausitu zen, kide, lagun eta adiskide faltaz jardutea suertatu zitzaionean. Aro gogorrak ziren: bakartasuna gaztigu gisa jasan zuen. Negar egiten zuen, uharrak herriko lurrak bustitzen zituen bezainbeste, destinu larria deitoratuz eta herioa desiratuz. Ideia beltzez setiaturik jaikitzen zen eta eguna mutur higatzen zuen. Tristuraren lasaialdietan, zeruko hedoien bilakaeraren miresle bekaitz bihurtu zen. Holtzarte labainean behera lerratzean, on zen alabaina, pareta hausten zuten zuhaitz edo harri ttutturruei ezinbestez lotzea.

Maluraren zigilua Man-en presentziak ezabatu zion. Hala sinesten zuen behintzat. Zoritxarra nola, hala zoriona ere exajeratzeko jaidura txarra zeukan Graxik: gizonarekin harremanetan

hasi eta bizpahiru asteren buruan jabaltze buhako epelak aditzera ematen zituen. Musu eta ele gozoek hainbat hamarkadetako destorbua ahantzarazten zioten. Ezeztatzen. Man nehoiz ezagutu ez balu, galduko zen bistan dena. Deboila intimoaren sentimendua are sakonagoa zuen ingurukoen bizimoduarekin berea konparatzen zuenean.

Erkatzeari utzi eta bakartasuna altxor kontsideratu zuen. Aldion, geroa segurua ez izanagatik, bazekien urostasun purruskak ugaltzen ari zela amodioa egitean, teak hurrupatzean, Manen eskua paper lodian kaligrafiatzen jarraitzean edo elkarrekin Tom Cruise samurai lanetan eskaintzen zuen filmearen ikustera joatean. Eta, noski, zuela gutxi asmaezin zitzaiokeen denboraren harilka berria ez zuen inorenarekin parekatzen. Atseginez hartzen zituen orduak arinago bihikatzen zitzaizkion; ez zuten tenore larratzen orratzek lehen bezainbat sarraskitzen. Altu-estratu gotorrak halaber, hedoien eta euriaren batasunaren aiduru zeuden.

– Maite al nauzu?

– Erran behar dizut... zera... Oizu, irakur itzazu Li-Baien olerki hauek!

Man-ek oparitzen zizkion liburuak irensten zituen, libururik aspaldian haztatu ez zuenaren goseaz. Gizona eztia zen. Man-en fereka zabalen meneko zenean, haurtzaroan ere ez zela horrela gozatua izan iruditzen zitzaion. Nehork ez zuen Graxi altzoan hartzeko astirik ukan. Gela ilunaren zokoan, erregin etsitu eta hieratiko zegoen amatxik izua eragiten zion eta ez zen oroit haren partetik sekula musu bakar bat erdietsirik. Gerta zitekeen berdinki, anai-arreba txikiagoak nola balakatuak ziren ikusten zuela, jeloskeria ziztek izpiritua urratzen ziotela. Bekatu zen jeloskeria eta lausengu eskatzea.

Gehiena zenaz gain, heldutzat jo zuten garaizegi, gabetasunezko umilitatera behartuz. Bizia bereber ikastera behartua izan zen, xendra okerretan barna galduz, erantzun egokiak itsumandoka harrapatzen saiatuz, mugetan harako basamortu desolatuetan eratorri anker eta bakartian higatuz. Denbora sobera gastatu zuen bilatzen, gainerako jendeak automatikoki heltzen ziren gunera iristeko. Inor ez zitzaion Man-en

moldean mintzatu, eta gizonaren hitz bakoitzean solasaren funtsa eskuratzen zuen. Momentu berezia zen, harrigarria eta batez ere ona, zoria batzuetan ona zitekeen eran.

– Ez nazazula utz...

Amodiotik landa Graxiren elea otoitz apaintzen zen, gorputz batuek bakea hatsartzen zutela, izerdi eta aditzez blai. Man-ek orduan burua ahurretan tinkatzen zion:

– Zein da bat-batean daukazun irudipen hits hori?

– Ez nazazula utz...

– Hedoien eta euri uholdeen haria marrazten jarraituko dut, zuretzat.

– Maite nauzu araiz?

Erantzuna igurikatu gabe, gizonaren besotan kuxkurtu zen, papondoa pott arinez estaltzen ziola, loaren aztaparrek astiro, linboetara eraman artean.

Erreka hegian zegoenean maiz, iparraldeko hiri nagusira zihoan garaiak zituen gogoan. Hedoiak batez ere. Angulematik hara, zeru haietako lainoak miresgarri zitzaizkion: betetasun ikaratia bazuten, loditasun harkorra, ortzia pindar-

ka kilikatzen zuten presentzia fisikoa. Treneko bitratik, jargian kasik etzanik, begira zegokien fazinaturik. Bere herrikoak arras zeru-zulo itxuratzen zituela, Tours eta Orleans bitarteko ogi zelai hedatuen zedarrietan hedoiak bereiz zebiltzan, zerua urdintasunaren xatarraz troxatu eta zuritasun mardulez hantuz. Bat-batean euri egiten zuen. Urrunago eguzkia zen andere. Bidaia soilean aroa lauzpabost aldiz aldatzen zen, begikliska narrasean biziaren aniztasuna gatibatuz.

Ortzietara dil-dil zenean, ez zuen leitzen, ez zuen musikarik hautematen, ez zen auzoarekin mintzatzen, ezer ez; lainoak eta zerua nahikoak zitzaizkion. Dena ahanzten zuen, arrakastarik gabeko zorionaren txerkatzea barne: leihoaren miraileko potreta arraroari irri xehea dohaitzen zion. Trenaren abiaduran jende itxura bitxi haren patitzea lortzen zuen. Gaurkoan, Man-en magal abegikorrean zebilela, salbuespenak salbu, kontra-bihotzez suportatzetik bere burua onartzera iristen zen.

Bidaia haietaz oroitzean, barnez iraulia ateratzen zen Graxi. Elea ehuten zuen:

– Ez dakit ekiaren ala biziriko neure agerpen doloretsuagatik zen, baina aste haietan begitik minez ibiltzen nintzen.

– Neure irudikoa zara, Graxi.

– Amankomunean daukagun ontasun handiena bakartasuna dela jakitea onuragarria da...

Neska isiltzen zen. Erromantikoki, amodiozko harreman batean bikotea osatzen zuten kideek bakartasuna baino gehiago jartzen zutela sinesten zuen. Ez anitz gehiago ordea. Hori baizik ez balitz ere, jadanik ederra zen. Ostatuko zabaldurak begiz zeharkatzen zituela, Man-ek erran zion:

– Uler dezazun plazer nuke, eta ez gaizki! Noski, gizon batek emazte bakarti bat, edo alderantziz, harrapatzen duenean, izurriteari nola eskapatzen zaio, eri bailitzan, ez kutsatua izateko parte batez eta bestez bakartiarekiko, uste nagusiaren araberako fabrikazio edo funtzionamendu akats zerbait susmatuz. Ez baita normala bakarrik jardutea. Gure mendean bakartasunaren aurka borrokatzen da. Badakizu aurten lehendakariak bakartasuna nazio mailako kalamitate izendatu duela? Eta zu, pobre buru-ahul gisa

begiratzen zaituzte, salbu neurekin zabiltzanean, bikoteak segurtamen soziala ekarriko bailuan! Elkarrekin gaudenean, urmaelduriko banaezineko batasun baino, noizbehinka ezkontzen diren libertatea eta intimitatea oinarritzen duen bakartasunez azpildutako bi izate arras bereiz izaten jarraitzea komeni zaigu. Eta ildo horretarik uste dut ez garela nehoiz bata besteari rengandik aldenduko.

– Maite nauzu beraz?

Graxik hasperena askatzen zuen.

Man-ek ez zion ihardesten. Neska pentsati geratzen zen. Itotzear zihoanari agitzen zitzaion maneran, urteak burumuineko pantailan abiadura handian iragan zitzaizkion. Ez zion munduari plazer ttantta bihirik iradoki: debekatua zitzaion? Gizona luzaz deitu gabe egon arren gaurkoan, ez zen huts zein hustua sentitzen, izpirituaren labakian auto-suntsiketarako suterik ez zitzaion pizten, hainbat larrutu zuen antsiarentzat den-mendreneko zirrikiturik ere ez zegoen. Amodioa isiltasun eta bakartasun zen eta elea ekai pottolo.

Man-en larru beroak Graxirena farrastatzen zuenean, uste zuen larrazkeneko zein udaberri-

ko lantzerra hasten zela, euri malko xehe eta finez bazterrak astinduz, arteka bedera amultsuki urez emokatuz, idorte mehatxuari arre ozenka. Martxo hondarretako lantzurda eztiak hargatik, zozomiko egunetan, gaiztotzen ahal ziren eta lainoak ortzian eguzkiarekiko lehia hilkorrean higatzen zirela, uhar hotz eta basati leher zitezkeen, Man Graxiren baitan nola. Neskaren intziriak orduan haize marruma zirudien. Sabelaren muinetik ernalduriko garrasiaren hedadura ez zuen ezagutzen. Plazer une horietan bezainbat nehoiz ez zen bakartasunean hain bekaitz sentitzen Graxi: berreskuratzen ikasten zuen gorputzen loria partekatzeko zein erkatzeko gutiziarik ez zuen, are gutxiago aldamenean etenez amildutako gizon maitatuarekin.

– Behar bada maite nauzu?

– Zera erran behar dizut...

Loak gizona gatibatzen zuen, berehala.

Karrikan edo autoa har eta herritik at Manekin ibiltzen zen une estimatuetan, bizian asperrez ikertu hedoi-lainoak oro sarabanda mentsean bazebiltzan Graxiren kasko-zokoan. Begiak herts eta aldizka kumulu-ninboak zein es-

tratu-kumuluak zitzaizkion argitzen, euriaren bidez batasunera edo zeru zohardia lardaskatzen zuten kurloen gidaritzapean bidaia dei. Beste batzuetan aire ingurukariak hautsitako exilioko trenen leihoetarik mendekatzen ziren altu-estratuak zituen pentsaide. Azkenik, arkana bezala izenik ez zuten hodei ilun eta pisuak irudikatzen zituen, galerna oihuak, bihotz kolpeak, teilak higitzen, altxatzen eta etxe saihetsean puskatzen. Mespretxu apurraren aieruz, Graxi lainoetan zebilela zerasaten, baina hobe zen hodeiak buruan kartzelatzen zituela eranstea. Hondarrean, lainorik ederrena Man zuela sinesten zuen. Hura gabe ez zukeen edaten zuen uraren gustua dastatuko, ez zituen trebeskaturiko eremortuen minak izendatuko, ez zen mututasunez lehertu amodiotan egongo. Bilaketa ez zuen ohe baten horizontalera mugatuko, baizik zeruak eta lurrak biltzen zituen euriaren bertikaltasun sakonera hedatuko.

Man-en aixolbean zebilenean, Graxik nabaritzen zuen, maitasun istoria hori ez zuela oroitzapenen lerroan sekulan kokatuko. Ez zuen bizia biderkatzen, ildozkatzen eta neurkatzen zion zu-

rrunbilo horren azkenik antzematen, bukaerarik gabekoa baitzen, mundua adina zabala, zerura iristeko orratz zuloa bezain txikia halaber. Manekiko harremana, iragana salba eta orain ibiltaria baltsa-araz zezakeen geroaldi amestuan mintzo zutitzen zen, denboraren harilka mantsoan. Batzuetan hunkiduraz urtzen zitzaion bihotza eta besteetan irri egiteko irrikaz zegoen, zozoki. Ulert eta iragarrezina bilakatua zen. Xendra dorpean, oinak eta urratsa ez ziren akitzen, mendratzen, dudatzen. Etxeko lo-gelako ohe kantoiko mahaitxoan Man-en marrazkiak metatzen zihoazkion. Maitatzea zer zen bazekien jakin.

– Zergatik ez nau maiteko?

Arratsalde batez Man ileen horitasuna urre zeraman andere baten konpainian azaldu zen Graxirekin zuen hitzordura. Neskaren gogoa ilundu zen: *zera* zitekeen. Urduri zen hainbat non tea kikera eskuetarik erortzera utzi zuen, ostatuko zerbitzarien artean gaitzeko harramantza eraginez. Man ez zen barre egitetik kantitu.

– Zera erran behar nizun Graxi.

– Bai.

– Hara neure emaztea, Lili.

Graxiren mingaina paralesiatu zen. Hatsa eskas zuen. Betazalak apaldu zituen. Ez zuen ordea bere gaizki-bultaren seinalerik eman.

– Askotan aipagai zaitu nire senarrak.

– Pozten naiz.

Estepako otsemearen orroaren deiak bihotza erdibitu zion.

Sabelaren barnetik oldartu garrasia ez zuen ahantziko.

–8–

Eliza mukuru beteko bitrak astintzen zituen euriak, jaitsi ahala. Jendeak barnean elkarren kontra zeuden, idor eta berotasun bila, trinko. Lehen lerroan familia kide apurrak eta atzeragoko jargietan herritarrak biltzen ziren. Apeza hits zegoen egun hartan: euriaren ala adinaren erruz, nehork ez zekien. Zena zela, alimaleko muturra luzatzen zuen. Gizonaren trenpu txarraz ohartu ziren, kutxaren gibeletik Jainkoaren Egoitzan sartu zenerako.

Pena zuen: alabaina Seinan bat ere potretik gabe hil zen, tipus-tapasean, aste bat zuela. Faturrak zuen omen haren gorputza kausitu sukaldearen erdian etzana, zerga-gutuna banatzera joan zitzaionean. Zakurra zaunkaz ari zen loiroan, behiak marrakaz eta oiloak kuru-kuru gosetiz. Bazen jada zazpi egun azken hatsa jabeari itzuli ziola. Usteltzen hasia zen. Murtutseneko inguruetan gaitzeko urrin tzarra zegoen eta pietunak sudurra tapatu zuen mokanesarekin, hilotza-

ren ondoraino heltzeko, kanpoko freskotasunagatik ulu beltz ziztakorrak haizatzen zituela.

– Ez dira sekula akitzen ala?

Nardatua zen. Mugikorretik Arbideko su-hiltzaileak deitu zituen.

Eliza txikiegi suertatzen zen Seinan maitatu zuten lagun ororen kabitzeko. Senide parrasta bat etorri zen bakartasun handian hil zen gizonari hondar agurraren eskaintzera. Pierra, Graxi eta alargundu berria zen aita lehen herrokan zeuden. Maiana Artoiz, emaztez apaindu bere semearekin. Jakes eta Marseillatik trenez jin Antonetta iloba zuzenak. Beinat eta Edmea. Ondoko uztailean ezkonduko zen Jessica, Maddi gaixoa gerizatzen zuela. Ttotte txepela, zilarrezko gurutze miresgarria papoan zeramala, neuroleptikoz hantu ama zut-zuta saihetsean. Andde, Mikel eta Panpili. Sebas langabetua Martinarekin. Kastela zahar zorrizua Thierry eskalearekin, Baionatik autobusez hurbildua. Kartzelatik atera eta Otsabiden ostaler plantatu zen Xarles elizetako ebasle ohia. Gibeleko jargietan Josy, Martin eta Jean Marie sindikalista ageri ziren. Eta pixka bat urrunago, Xarlesekin Parisen egon Gaxton

eta Jeanne. Eta Yvonne, Edmearen adiskidea. Elisa, aldiz, aspaldi joana zen antzara zelestiarren ferratzera. Egia erran Otsabideko etxe bakoitzetik bizpahiru kide azaldu ziren Seinanen ehortzetara, kabala zein baserriko lanak berehala utzi eta kuriositatez beterik.

Peter aberats okitua ere hor zegoen, kutxaren ezker aldean. Airekoa Los Angelesen hartu zuen anaiaren hil-berria jakin orduko. Miarritzen lurreratu eta har zezakeen Mercedesik erraldoiena alokatu zuen, espantero errea baitzen. Auzoek kontatzen zutenez, Euskal Herriko bide zeharretan barna Murtutsenera iristeko nekezia larriak ukan zituen: erregebide hegietako nahar, ote eta belar zorrotzek larrantzi zioten autoazala eta kexu zen:

– Fuckin’ country.

– Hago isilik Pierra, hila badiaguk hemen.

Beinatek amerikanoa jendetasunera gonbidatu zuen. Baina *ni Peter nauk eta ez Pierra* bortizki azpimarratzen zuena ez zen isiltzen, dena laido eta irain, bideak hemen izpirituak bezain hertsiak zirela oihuka. Karkara gordina askatzen zuen noiztenka, etxekoei maleta hanpatu batetik

ilkitzen zituen opariak banatzen zituela: Maianari ile-lehortzeko makina, Sebasi palm agenda elektronikoa, Kastelari usain on karioa, Xarlesi Tarantinoren *Pulp Fiction*-en DVDa, Jessicari Britney Spearsen MTVko unplugged ekitaldiaren bideoa, Graxiri New Yorken enkantean erositako Sam Sheparden *Moon Light Chronicles* antzerki famatuaren eskuizkribua, Beinat eta Edmeari pantaila lauarekiko telebista, eta zoritxarrean ihalozka zebilen Ttotteri James Ellroyren nobela berria, ingelesez. Irakur ere ez zezakeen liburu horrek ez zukeen Ttotteren osasun mentala sendatze-ildoan jarriko, baina zer egin, oparia onartu behar zen! Peter, ahurrak huts geratu zenean, hilkutxan zetzanaren nortasunaz ohartu zen errealki. Negarrez hipaka lehertu zen, amerikanoz zekizkien bi hitz bakarrak malko artean auhenkatzen zituela:

– Fuckin’ the fuck...

Murtutseneko ezkaratza ur lehiakorrez latsatu zuten auzoko emazteek, Mariaren zuzendaritzapean. Ezkaratzean sartzen zirenen sudur mazelak javel mikatzaren urrinak erasotzen zituen. Alabaina, azken egunetako hilotz usain tepoa

ezabatzekoa zen. Seinan zazpi egunez lurrean hedailo geratu zen, usteldurarren abiadura, larruzulo bederatik jario horail eta bitxiak zerizkiola. Seinan ubeldua ikusi zuen Peterrek. Begitartea beltz zeukan. Matelaren zimur baten arroilatik har zuri malatsak begimendu zituenean, orroaz jauki zen:

– Seinan ene anaia! Thou brother of mine... Haugi musu bat...

Hobiaren bazterretan bermatu zen. Gizon gogortuaren soina bi beso indartsuz altxatu zuen eta ezpainetan zizare melengak kilikari nabaritzen zituela pott mardula pausatu zion kopetan. Hilkia tanpez erortzera utzi zuen eta, gorpuak kutxaren zola jo zuenean, izugarriko azantza hauteman zen bildutasunak kateztatzen zuen gelan. Seinanen hezurrak entzun ziren haltsarretan txertatzen, geldotasunaren oreka inarrosiz, jasanezinezko hats hiroa etxe barnean berriz barreiatzen zela. Ganbararen bakean otoitzean zeudenak tarrapataka jalgi ziren birikak kanpoko aire sanoz betetzearren. Peter aldiz anaiaren ondoan egon zen, zur eta lur, dolorez hautsia.

Elizan bertute gehiagoren jabe azaldu zen Peter. Lehen lerroan zutik zegoen, eskuan stetson txapela zeukala, zurgin atorra karratua zerratzen zion turkes harrizko lepokoa zeraman eta gerrian behi-larruan ebaki zintura gotorra, aitzinean zeukan zilarrezko juntagailu distiratsuarekin. Jendeak igandez apainduak ziren eta bere atorra koleretsuaz zein markako jeans pareaz Peterrek ez zuela egoeraren larritasuna errespetatzen eman zezakeen. Baina ez zen hala: Ameriketako ohituren arabera hurbildu zen Otsabidera eta jendeak erranen zuenaren axola mikorik ez zeukan. Horrela bizi zen, lasai, harro eta bere burua nehoiz gorde gabe.

Halaz, Edmeak Sebas eta aitari luzatu zien soako iroitsuaz axolarik ez bailuan, gainerakoak baino asko gorago zerraikan kantan, askoz gorago eta, itsusiago zena, okerrago. Irudi zuen, hainbeste urte herritik at iraganik, mezako abestien erritmo txukunaz ahaztua zela. Belarriak zauritzen eta neuronak txirikordatzen zizkien horrelako marraka marrantak entzutean, neurria zetxikaten Jainkoaren Bildotsak arranguratzen hasi ziren. Justu gibelean zeukan emazte klasiko

eta ponpox beztitua zen Frantxuak bizkar gainean zimikoa egin zion:

– Arren osaba, ari zaitez apalago.

– Zer apalago? Ni apalago? Fuck ya son of bitch.

Zintzurra are indartsuago karrakatuz, country ahaire baten lauhazka-joaldien men segitzen zuen:

– Zerua, zerua, zerua saritzat...

Bat-batean ardi trapatu zahar ahots berria erantsi zitzaion Peterrenari. Ordura arte Jessicak, zail suertatu arren, ahoa tapatzen zion Maddik bere barneko melodia zangopilatua ozenarazi zuen. Ur-benedikatu harriaren ondoko zutoinaren kantoian zegoenak kantatzeari ekin zionean, aditu zen galerietan gizonen gorputzen aurreratzearen balantza bakunaren herotsa eta behereko emazteen bizkar-junten klaska. Maddiren iloba gazteena zen Seinan. Ohoratu nahi zuen baiki eta eiki. Jessicaren amatxirenganako lardeariazko hitzak hegaldatu ziren, halaber jendearen murmurioen artetik, zainen eta giroarengatik eskapatu irri karkaila zenbait.

– Bakea dela zuekin...

Apezak jokoa jabaldu nahi zuen. Isiltasuna hedatu zen eliza txikiegiaren aixolbean. Bereterrak are biziago inarrosi zuen urrezko intsentsu ontzia. Idatzi sainduak irakurri behar zituen Josefina, hinki-tinki igo zen aldarera. Liburua zabaldu zuen, jendetzaren begi orokorrean landatzen zituela bereak.

– Jondoni Paulok korintiarrei...

Hatsa hartu zuen:

– Hara hemen nagoela anaiok *Jerusamele*n zuei izkiriatzen eta erregutzen ez dezazuen gehiago bekaturik egin; ezen zeruetako erresumarako xendak ez baitira denei irekitzen, baizik eta bihotza garbi eta gogoa argi datxikatenei. Anaia Agapeon, zin egidazu *Jerusamele* duzula lehia lohi lizunean ihalozka diharzun hiri zakar horretarik ere...

Hori zen hoberena: Josefinak ez zezakeen Hitz eman Lurraldeko hiri nagusiaren izena zuzen ahozka! Karkaila xeheak jazartzen ziren elizaren sakonetik *Jerusamele* trabukatzen zuen oroz. Apezari behako antsiatsua igorri eta bigarren irakurgaiari lotu zitzaion. Horretan berdinki Melkisedesen ordez *Melzikedes* marmaratu

zuen, baina fededunek ez zuten burlatzeko astirik ukan, herriko xantreak bere tenor boz sakonaz ttattit eta mutu utzi zituelako: alleluia! alleluia! alleluia!... *Dantza kuia*! errepikatu zuen Graxik, haur-denboran ele sakratutik landa mihiputara jazartzen zitzaion zirto bakarraz gogoratuz, soa elizaren erdian zegoen hil- kutxaren eremuan iltzatzen zuela.

Gerla ezberdinetako banderak airean zeuden, lore-sorta handiak kutxaren maldan, lau ezkargi bazterretan, kofoin gorri batean txilintx bi medaila eder eta herritarrek azken hamarkada hauetan etxe batetik bestera garraiatzen zuten zilarrezko gurutze pisua. Epistolen eta ebanjelioaren arteko tartea Gilen xantreak bete zuen *elgarren ogi zu zaitugu zu* kantua aterpe bustiaren izkina orotara helarazten zuela *dugun bihotzez bat egin*... *Entzun bai jauna gure baitan sar* neurkatu zuen eztiki Graxik ezpainak doi-doia higituz, jendetza beha zegoela ohartzeke. Airea burrustan eskapatu zitzaion biriketarik.

Egiaz neskak ez zuen ulertzen zergatik euskarazko ehortz-elizkizunetan, tristezia larriaren

aztaparretan behera amiltzeko ordez, abesteko gutizia oldartzen zen herritarren bihotzetan.

– Beti pentsatu izan dut kantatzeak herioa bera hil zezakeela gure lurretan!

Bere buruarekin ari zen, hiriko jakintsuren bat zinominokatuz, nahiz eta aipatutako unibertsitariak, heriotza-erritualen berezilaria bidenabar, ez zukeen esplikatzen ahalko nolaz kantua oldartzen zen malkoen artetik alegrantziako ezpata gisa, aita edo ama galdu berri zuten semealaben arimetarik.

Ez zuen atertzen. Herritar zenbait, gazte buru-beroak egia erran, ari ziren Murtutseneko hobiaren zulatzen. Aitzur ukaldika harrotzen zuten lurra eta lohi puloak bazterrean metatzen. Irriz lehertzen ziren. Gogoa non zeukaten horrelako zoriontasunean lan egiteko? Ez zen lana funtsean: zerbait gehiago zen. Ezin azalduzko ekintza premiatsua. Hargatik, bizkarra gogortzen nabaritzen zutenean, lanabesen giderretan bermatuz, kopetan itsatsiriko ileak ozkan jartzen zituztela, elizako kalostrapean geratutakoak kitzikatzen zituzten:

– Horiek ere hobe lukete sartzea.

– Baina fedegabeak dira, ez dira sartuko.

Hitzezko erakusketa zorrotzari plegatu ziren.

– Badira orain gero eta jende gehiago, euskaldunen artean partikulazki, ideia politiko zein erlijiosoengatik elizaratzen ez direnak. Ez dute sinesten eta uste dute lekuaren geriza debekatua zaiela. Beren buruak dituzte horrela mugatzen. Badakitea zer den fedea, abertzaleen fedeaz aparte?

– Ez dituk araiz abertzaleak kritikatuko ez direlako mezara agertzen? Euskalduntasunaren gurutzea ekartzearekin aski lan baditek bai!

– Arrazoia duk, aurpegi xifrituak, kezkatuak eskaintzen zizkigutek beti: ez dituk mintzatzen ahal gauza triste eta hits bat aipatu gabe. Hire irri egiteko tirria zozoa hausten ditek halabiz batean. Beraien ilundurak ingurua setiatzen dik, bazekitek euskararen hiltzea, ohituren desagertzea, lurraren desjabetza eta horrelako mila gai...

– Ez duk erraza ez, hiltzera doan hizkuntza batean baikorra izatea!

– Fede dorpea ditek.

Hobi-zulatzaile taldekideak aitzurrari gaitzeko oldea eman zion.

Batera.

Elizaren barnetik kanta suharren oiharra zetorkien belarrien kilikatzera. Uharra ez zen gelditzen. Ortzantz karraska bat aditu zen. Langileetarik batek ardoa ezpainetara ekarri eta zurruta luzeaz botila erditara hustu ondoan, zazpi arte kontatu zuen, ihortziriaren urruntasuna haztatzeko. Bostetan izugarriko danbakoak inarrosi zituen zeruak eta lurrak. Gizonak haritz geratu ziren.

– Hurbiltzen ari duk...

–... Dudarik gabe jujamendu jenerala! Ontsa pentsatzen jarriz gero, Seinan Murtutsen ehortzetako ez zian beste eguraldirik egiten ahal! Pataskan iragan dik bizia gaizagaixoak: gerlari ohia, presuner Bavierako baserri hartan eta Amikuzeko oihanean iheslari. Norbait zuan segurki baina izpiritua beti alha zerabilkion, ez zian sekula bakerik dastatzen, ez eta bozkariorik: oroitzen hiza ezezagun batzuk loaldian zegoela pegartegian zetxikan sosa nola ebatsi zioten? Arratsalde betean, bazauka!

– Bai ohoinak ez dituk gure etxera etorri...

Jukutria zimizta batek irribarrea urratu zion langileari. Erantsi zuen:

– Pasa iezaguk ardoa...

Esku gibelaz begitartea idortu zuen. Oinak lohian iltzatuak zeuzkaten. Eskuak buztinez emokatuak. Ahurrak lerratzen zitzaizkien aitzur eta pala arinen giderretan. Aha-ka ari ziren, indar-herotsak elizatik jalgitzen ziren kanten oihar eta kalostrapean Euskadiren Geroko Gero-az eztabaidan zebiltzanen harramantzarekin na-hasten zirela.

Frantxua miretsi zuten elizatik jalgitzen: hauxe gizon-eme ikaragarria xuxurlatu zuten, buruak apalduz eta tresnen besoak are trinkoa-go tinkatuz. Funtsean, ez zekiten Frantxuari nola so egin: gizona zen, baina emaztez bezti. Maiana Artoizen semea zuloaren hegira hurbildu zen, aztal zorrotzekiko oskiak hilerriko garrailetan kraskaraziz eta ipurdia ederki balantzatuz.

– Aro txarra dugula! –aharrausikatu zuen la-nean zinpurtzen ziren kideen gaizkizana susma-tu ez bailuan.

Inork ez zion ezer ihardetsi. Bazterretara barranda gelditu zen, nonbait haur denborako herriko plazaz gogoratzen zuela: Otsabideko liburutegi bakarra zeukan apezetxea huts, nesken eta mutikoen eskolak biak hertsiak, entseinak herdoiltzen zihoakien lau ostatuak, baina baziren oraino bi zabalik, eta plazan bizi ziren handikien egoitzak salgai. Frantxuaren iledia malgutzen eta desegiten zuen euriak. Langile batek erran zion:

– Hobe zenuke aterperatzea, mezetara ez baldin baduzu nahi, kalostrapera bederen. Han lagunak bazinuzke.

– Haiek lagunak?

– Hustuka agurtu naute.

– Alta abertzaleak izpiritu irekiak dira!

Ironia eroa erabili zuen batek, behatzen artekatik lohia kenduz.

– Pentsa! Beraien penaz baino haratago joateko ez dira kapable: gudarien kalbarioa, nortasun ezaugarrien galtzea eta hein batean, hein batean diot ezen gehienetan bost axola baitzaie, euskararen hiltzea deitoratzen baizik ez dakite.

– Hor gizon, gogorregia zara. Ni ere abertzalea naiz eta ez naiz bat ere horrelakoa.

– Ba hik hamalau xorta edan ondoan ahanzten baituk abertzale haizela!

Azkenik hitz egin zuenaren kidea Frantxuari zuzendu zitzaion:

– Mozkortzen ari da, eguna alta ez delarik horretarako egokia!

Frantxuak barre egin zuen. Hortzak erakutsi zituen, zuri-zuriak. Urrezko hagina zimiztaren itzal ubelarekin distiratu zen. Langileetarik batek begiak zerratu zituen, uste izan baitzuen, argiaren urrakoa lehian, ihortziria bertan eta berehala eroriko zitzaiela. Ninikak askatu zituenean, ohartu zen ez zela deus ere agitu; sosegatu zen. Frantxua gizemea desagertu zen. Berriz elizaratu zitekeen. Ala Jainkoaren egoitzaren barnean, jendeen hats tepoa, perfume eta salboin merkeen usain gohaingarria, besapeetarik jauki kabala izerdi nazkagarria, intsentsuaren baporeak eta ezko-argien urtzearen urrinak biltzen zirela, beroa garratzegi zegoelako, herriko plazaren itzuliaren egitera atrebitu bide zen Frantxua, aspaldiko partez? Langileari ez zitzaion inporta,

emaztez apaindu gizona, gizatasunaren ikur ahalkegarria, deabruetan hara joan zitekeen, lana bururatuko zuen arraiki. Indarrak biderkatu zituen, zizare gorri malats bat erdizkatu eta aitzur kolpeaz behereko zureko kutxaren tapakia hautsi zuen. Itsuki ari zen, ortzantzaren burrunbaren oihartzunak, besainka zainarta neurkatzen ziola. Lohi artean hezur zurbaila jo zuen.

Lagunak oihuka ari zitzaizkion *geldi hadi mutikoa baina geldi hadi arren*! Mensten ari zen hondarra. Zuloaren barnera ponpatu eta buztin astuna arakatuz kaskezur bat ilki zuen. Eskuetan zetxikan. Bitxiki so egin zion. Salbaiki. Harritua zen. Ez zuen sekula jende kaskezurrik begimendu: haragiz biluzi begi, sudur, aho zuloei begira zegoen fazinaturik. Irri zozoak kokotxa desartikulatu zion. Zizare gotorra zapatetan bihurdikatzen zitzaion, laster beste bizpahiruk segitzen ziotela. Kaskezurra besoen helmugan zetxikan, bere destinua bailitzan. Garrasitu zuen:

– Nor zen hau?

– Murtutseneko etxekandere zaharra, dudarik gabe.

Ahotsean erotasunaren zizta nabaritzen zitzaion.

– Beronika? Seinanen amatxi moxkote hura?

– Baiki...

Bat-batean izen-emaileak kaskezurra bere eskuetara heltzen jarraitu zuen. Aitzurra erortzera utzi eta ahurrak ireki zituen azken unean, denen erraietan orain izua hazten zuen *gauza*ren errezibitzeko. Lepoko juntaren gunean zintzilikatzen zitzaion haragi usteldua ikus zezakeen. Gerlarik gerla beste aldetik, munduan zehar hainbat zoritxarren lekuko izan zena goiti egitear zegoen. Sabela setiatu aurretik, kaskezurra, ondoan zeukan kideari aurtiki zion eta saihetsekoak parekoari, parekoak ezkerrekoari, ezkerrekoak aitzinekoari, behatz sokiletarik lerratu zen arte. Kaskezurra mila puskatan hautsi zen lurrean, azantz xehe eta bustia entzungai.

Elizako dorreak hil-zeinuen danbakoak oiharrarazi zituenean, zulogileak irudiz, errealitatera itzuli ziren. Aztalkada xumeaz langile batek purruskak lohiarekin nahastekatu zituen; handik laster hobiaren sakona baizik ez zen ageri. Eta langileak, burumakur, jasaniko ero-bulta izuga-

rriaz hormatuak bailiran. Hil-zeinuak bihotzen taupadak jabaltzen zituen, alabaina. Kaskezurrarekin errugbian jostatu berri zirenak ez ziren kalostrapearen maldan zeuden pagano erreak, hortzak horztegi, so zeuzkatela ohartu ere. Haietariko bat hurbildu zitzaien, oihuka:

– Baina zer ari zinezten? Kaskezurrarekin arrailerian? Baduzue bai burutik horrelako haurkerietan aritzeko!

– Haugi hi, moko-fin, hobiaren zulatzera! –deitu zion langileak:

– Errazago duk federik ez eduki eta elizako atarian geratzea eta gero zer egin behar ez dugun erratera etortzea, ezpainak txukun eta eskuak beti garbi!

– Ez da hori arazoa; bakoitzak bere zeregina. Printzipioa da: ez da hilotzekin, are gutxiago hiltzearekin jostatzen!

– *Herioak berdintzen handi-txikiak*...

Besteak, klasikoak ezagun zituen. Umiltasunez eta mendeku-lehiaz erditzear zen:

– Zer du honek gure aferetan sartzeko?

Isildu ziren denak.

Orduan, elizaren ate nagusitik apeza lehiatu zen, bereterrak euritakoa gora atxikitzen ziola, herriko mutilak intsentsu-ontzia lanjeroski balantzatzen zuen bitartean. Axuantak altxatzen zuen gerlari ohien hiru koloretako bandera, amerikanoak presuner eta iheslari medailez emokatu putzukano gorria, Frantxua gizon-emazteak lorebuket erraldoi bat, hurrengo uztailean ezkonduko zen Jessica xarmantak alzheimerrak jo Maddi arraposki gidatzen zuen kutxa lurperatuko zen guneraino, izai egur merkeenean zizelkatu hilkutxaren ildoan Graxi eta Pierra ageri ziren bilduak, Beinat eta Edmea bata bestearen eskutik aldi honetan, Seinanek Martxelarekin hazi eta garrazki hezi DASSko haur aspaldi tarrotuak, hilzeinuen erritmoan jaso zituzten azote eta kolpe bakoitzaz oroitzen ziren hauek, plegaturik zebilen Ttotteri utzi zioten zilarrezko gurutze pisuaren garraiatzeko betekizuna, eta ondotik herioaren aurrean mutu eta konkor zebilen jendetza zetorren, beltzean beltz. Kusiak izan arren, politikoki etsai zebiltzan Mikel eta Panpili han ziren, adiskide. Arbideko kantonamenduko UMPko arduradun bi eta UDFko kontseilari orokor bat, ez

baitzuen honek jende-bainu ongi sentitu baten aukera izpirik galtzen, ehortzeta amaitzeko kolazionearen karietara partikulazki.

Aitzurraz eta palaz ihalozkatu lur gain lohitsuan pausatu zen kutxa. Apezak ur sainduz zuloa benedikatu zuenean, buztin malguan barreiatu kaskezurraren hondakinen presentzia egiaztatu zuen. Begiak zerura bermatu eta hedoi kargatuek zartagailuen pare, joaldi hotzikaratuz, libraturiko ttantta lodiak baino ez zitzaizkion aurpegiratu. Gaizki-izate latzari ihes, ahuntz ahots dardarkariz, egoerari egokitzen zitzaion abestiari ekin zion:

– *Betiereko zoriona hil honi eman otoi Jauna*...

– *Betiko zeru zabalean zure argiak argi dezan*...

Jessicak kontrola ez zezakeen Maddi adindua hauteman zen. Zintzurra karrakatuz ari zen. Eskuak ortzira zuzenduz, otoizlari eta eske, besoak gibelekoz aitzin kulunkatuz, nahikoa alegeratsu zen ahairea New Yorkeko elizetako beltzek airoski hegaldaraziriko gospel moldean harilkatzen lagunduko bailuan jendeak. Graxik segida asma-

tzen zuen, euriak astintzen zuen hilerriaren pobrezia kontenplatuz:

– Betiko... *Betiko-betiko-betiko*... Zeru zabalean... *Zerua-Zerua-Zeru zabalean*... Hil honi eman... *Bai eman-eman-eman-ba- eman*... Otoi Jauna... *O-o-o-o-toi Jauna-na-na-na*... Betiereko Zoriona... *O Jesus come back betiereko Zoriona*...

– Isilaraz ezazu atso hori! –bortiztu zen apeza–. Eta erran dezagun *Gure Aita* bat kartsuki.

Bezpera-gauean Murtutseneko ganbaran beila kudeatu zuen Leoniek. *Gure Aita*ren erranarazteko ardura zeraman. Alabaina, bitxi zen bizkitartean Euskal Herria bezain fededun fama zeukan herri batentzat, ez zen apezik kausitzen etxeetako ezkaratzetan, behi eta ardi marraken artetik otoitzen marmarikatzeko. Gehiago zena, apezak herrietarik kanpo bizi ziren eta, norbait hiltzen zenean, familiakoek gizon sainduaren mugikorreko mezugailuan SMS moldeko abisua uzteaz beste erremediorik ez zuten. Egiaz zioten trufari ez baitziren berak hilminean, apezak baserrietara hurbiltzeko astia franko bazuen, ez

baitzen hila berpiztuko eta hala gertatzen baldin bazen zinezko mirakulua baitzatekeen.

Kargu sakraturako ikasia izan zen Leonie, Arbideko beneditanoen komentuan egin zuen erretreta oroigarri batean. Hiru egun pasatu zituen. Haurtzaroko kredoak berritu eta bere baitaratu zituen. Ebanjelioko hitzak esplikatu zizkioten, *Jerusamele* non eta *Melzikedesek* nor zen. Halaz Otsabiden edonor beste mundura eskapatzen zenean, fede trahola guztien aitzina eramateko prest zegoen, arima bekatorosak zerura hupa zitezen bidean sobera denborarik galdu gabe alainan.

Herritar zenduen ohorezko bi otoitzaldi kudeatu zituen jadanik: bata Ttoteren adiskidea zen ilobak, hasieran ustez zingar-azpian dilindan zela gero selauruan urkatua harrapatu zen Manexena eta bestea nehork ere bizirik zegoela ez zekien Bordarenbordako Xaxi zoritxartsuarena. Baziren horrela arras ahanzten ziren jendeak. Ez zen segurki eta hala ere Seinan Murtutsen kasua. Hilerrian, Leoniek zaintsuki eraso zuen *Gure Aita*ren lehen erranaldia eta marmara iluna hedatzen zela, hatsa hartzen zeneko murmurioa

ozenagoa bilakatzen zen: ... ZERUetan zirena SAINdu izan bedi ZUre izena EMAguzu gaur gure OGIa...

Apezak eri-kuxkur keinu batez kutxaren lurperatzea manatu zuen. Ahaide eta ezagunek zuloari begiratu zioten, izuaz harriturik: Hori zen beraz bizitza oso baten azken destinua? Hori baizik ez zena? Galdeek bazterrak larrutzen zituzten, eta sokaz lagundua, langileek ireki lokatzaren sabeleko holtzartean behera jaitsi zen izeizko kaxa. Lau salmo oraino eta apezak boz melengaz *zerua zerua saritzat* abestiaren lehen notak hegaldarazi zituen, baina euripean zeuden gehienek nahiagoko zuketen menturaz *lohia lohia saritzat* orroatu, laino artetik ez baitzen ortzi muga idor izpirik ageri.

Peter bildutasun uneaz baliatu zen, erosi berria zuen plastikozko arrosa gorri baten botatzeko urak eta buztinak jagoitik zikinduriko kutxaren gainera; hala egiten omen zen Los Angelesen, geroago kontatuko zuenaren arabera. Batbatean alzheimerrak jo Maddi zuloaren ezpondara hurbildu eta negarrez hipaka lehertu zen:

– Hara, Seinan, habil hoa eta erradak sakrifikatua eta gure baratzeko pikotzearen maldan ehortzia izan zen Eugenia gurutzatzen dukanez zeru goren horietan?

– Amatxi, zatoz –Jessicak andere zaharkitua besotik tiratu zuen–. Hemen ez da pikotzerik, ez eta Eugeniarik.

– Gaixo gu orduan...

Maddi lasterka ihes joan zen hilerritik. Lurrez emokaturiko eskuak amerikarraren alimaleko mercedesaren azalean torratu zituen, arraiki, plazer ikaragarriaz gozatuz. Peter ondotik joan zitzaion, soa beltz eta haserrea gorri.

– Fuckin’ woman... Not on my car!

Jendaldea banatu zen. Zenbait suharki geratu ziren Murtutseneko hobiaren aldamenean. Gainerakoak aldiz, Peter eta Maddiren bereiztera lehiatu ziren, nehor ez baldin bazen mugitu, elkar hilko baitzuten: herio batekin aski zen, bistan dena. Bazterrak lasaitu ziren, eta apezak Leonieren sustenguarekin *agur maria* eresiari ekin zion. Karkazail baten arana hegaldatu zen. Thierryk Kastelari kontatzen zion Maria-Saindua-rekin mintzatu zela Orbe karrikan eske zebilela.

Alabaina urdin argiz apaindu eta ile kuiskulak ikatz zeuzkan emazte hanpurusak, botila tutunetik husten ari zela, erregutu zion:

– Munduan agitzen denarekin Biblia baten izkiriatzekoa baliteke gizon, behar zenuke Lourdesera joan, ardo likits hortaz baino ur benedikatuz horditzera, aurpegia eta bihotzaren garbitzera, hobe zinateke han, etorri nerekin...

– Bakea emadazu.

Herrestaren ustegabeko azalpenak burlagogoa hazi zion, fedeak tanpez aingerututako Kastelari.

– Nork ez du ama birjina elerran hondar mende hauetan? Uste duk bakarra haizela?

Ukabilka bat eman zion sorbaldan.

– Arren, amets gaiztotik iratzar hadi gizona!

Jendetza barreiatu zen. Aitzur eta pala ukaldien harramantzak aditzen ziren berriz. Euriak berean zerraikan eta itxuraz ihortziria urrundua zen. Kaskezurrarekin jostatu zenak ez zuen lur mokor bat ere zuloaren barrura aurtiki: oroituko bide zen Murtuts zenaren ehortzetan mutur egon zela, batez ere bigarren zatian. Apezak zeremoniarako erabili tramankulu sainduak bildu zituen,

begi batez herritarrak ostatura lerroan nola presatzen ziren aztertzen zuela:

– Ez dute denborarik galtzen putxas! Ez dakit Jainkoak zer egin dezakeen horrelako hamaikagarren orduko fidelekin.

Sakristiaratu zen, Leonie segika zeukala:

– Kolazionea bada Papunen ostatuan. Jinen zara araiz?

– Bai, emaztekia!

Jainkoaren zerbitzaria nardatua zen. Elizaren azpiko gelako leihotik langileak hobiaren gainean, jauzi alegeraka, salbu arras beraztua zirudien haietarik gazteena, buztin malgua tapalakatzen begimendu zituen. Beraien baitako gerlakanta baten izariak markatuz ari zirela ematen zuen. Murtutseneko hobia seinalatzen zuen lur freskoko borobilaren eremuan jendakiek ekarri lore sortak landatu zituzten, marmolezko piezak *à notre cher compagnon d'évasion gure auzoari à notre père zurekin betiko à notre oncle adoré urak dakarrena urak daroa.* Hori zen bai, egun bederen urak zekarrena lokatzak zeroala pentsatu eta puska sakratuak plegatu orduko Papunera jo zuen apezak.

Eguraldi bustiaren eta tabako merkearen urrinak nahasten ziren Papuneko taberna zokoan. Lauretan hogei kiderentzako arratsaldeko askaria manatua zuten Murtutsen azkaziek, elkarren artean ordaintzea hitzartuz, txokolatesnea edo kafea aukeran eta bizkotxa xerra idor bana ez baitzizkien ostalerak nehondik ere oparitzen: hiltzea kario suertatzen zen, segurantzarekin *hiltze-konbenio* zehatzik ez zutenen familientzat behintzat. Murtutseneko ahaideak bi mila eurorekin buxetaren betetzera iritsi ziren eta ez zen kolazionearekin diru-kopurua pasatzea komeni!

Bazterrak berotzen ari zirela ohartu zen azkenetarik heldu apeza. Hau eta hura agurtu zituen, Peter amerikanoarekin Los Angelesko bekatu-zorroaz solasean egon zen come to see fuckin’me, Beinati Ikeren berriak eskatu zizkion bakea dela zuekin, Frantxuaren soa bezainbat Kastela eta Thierry eskaleen usain lakarra ekiditen saiatu zen, Maiana Artoiz arras hiritartua kausitu zuen, Edmea Yvonneren konpainian zegoen kafea hurrupatzen, Graxi, Pierra eta Jessica zeuden mahaira bideratu zen.

– Erraxu, Jessica, xure ezteiak apailatu behar txiu orai. Aski'uxu gizungeiaikin pasatzia igande hoita'ik batez.

– Bai jauna, pasatuko niz.

– Eta ez bezperan. Telefona zataxu edo ezemeza portablian utz.

– Bai jauna!

– Erran bezala orduan.

Jessicaren ardurapetik oihuka jazarririko Maddi apezaren lepotik dilindatu zen, mentserdi:

– Beleak bele, zuri nahi eta beti beltz.

– Zer derasazu anderea? Ez dut deus ere konprenitzen.

– Ene hitzak alta latina baino argiagoak dira. Ez al dakizu hilketa latza obratu zela Harrondon? Kontatuko dizut...

– Emazte buru nahasia zara Maddi. Arta zaitez...

Itxindia garretan garatzen zebilen kantoitik eskapatu zen apeza: ez zuen eskandalarik nahi alaina. *Zuri nahi eta beti beltz* nehoiz bildu ez zen zuhurritzaren oihartzunak ostatuko murrue-

tan punpaka zerraikan, pilota sabel hiroduna zartatzear bailitzan.

Apeza lekutu zen. Atertu zuen. Eta iparreko zerua urratu zen urdin. Karrikan zihoala, belarrietan zeukan oraindik barne tepo hartako murmurio gris hantuaren oihartzuna. Palto barruko sakela ferekatu zuen: sosa ederki eskuratu zuen Seinan Murtutsen hiltzearen karietara. Barrez zimurtu zitzaizkion matela malguak. Inguratu zenean ordea, bi mutiko borrokan ikusi zituen Papun aitzinean.

– Mikel, deabru zikina, Murtutseneko lurrak enetako dituk!

Panpili zen, Mikelen tripa ukabilkatzen zuela, geldirik gabe. Kolpez kolpe ihardesten zion:

– Ustela, ustela haiz! Hila ketan eta hire lur gosea agerian! Funts horiek enetako zirela erran ziadakan Seinanek.

– Jan ezak...

Mikeli sudurretik zerion odol xirripaz axolarik ez bailuan Panpili joka ari zitzaion. Orduan, sorginaren gisa piztua ostatutik lehiatu zen Leonie, Maddi orroaz ondotik zetorkiola eta gero herroka

trankalari, arrunt berotua, ehortzetan parte hartu zuen jendaldea.

– Arren, mutikoak!

– Habil hoa astaina handia...

Bi kusiak banba eta binbika zinpurtzen ziren, hegietan metatuek puntuak zenbatzen zituztela.

– Hauts zarete eta hauts bilakatuko zarete: zergatik lur gehiagoren behar hori? –Leonieren ahots kakoila sumatu zen.

– Isilduko hiza buztanik gabeko pika-bele?

– Beleak bele, zuri nahi eta beti beltz...

Maddiren heiagora trenkatuz, Jessicak barnera bulkatu zuen jada bururik ez zeukan anderea. Leoniek ez zekien zer egin. Jagoitik, auzo bat edo beste borrokan sartua zen. Ortziari deika belaunikatu zen. Bistakoa zenez, Jainkoa mutu, gor eta itsu zegoen: harekin ere, apezarekin nola, hitzordua hartzekoa zen mezua mugikorrean utzirik. Eskuak dolorez juntatu zituen eta, pataska hantzen ari zela, mihia ezpainetan eme eta lizunki pasatuz, jendeen arteko batasun zalantzakorra hormarik horma orekatuko zukeen akuilua altxatu zuen:

– *Gure Aita bat* hilen den gutarik lehenarentzat.

–9–

– Amatxi, jaits zaitez zuhaitz hortarik!

Zerura begira zegoen Jessica, arranguratua. Amatxi ez zen bere arbolatik kantitzen. Abarren artean balantza kulunkaz ari zen, itsasora ilkitzeko beldurrez kaiari trinkoki loturik legokeen ontzia bezala. Ahots apalez marmarka zebilen eta Jessica alabatxia otoitzez. Egia erran, bazen bulta bat orain burua arras galdua zuela. Medikuek zenbait urte zuela alzheimer eritasuna kausitu zioten; halaz etxea bizidunez husten zenean, merkatura edo mezetara joateko adibidez, lo-gela zerratutik eskapatzen zen, baratzeko pikuaren puntaren puntara hupatzeko.

Bitxiki, nahiz eta orekaren zentzurik ez zuen gehiago, ez zen sekula erortzen. Jessicari hori harrigarri zitzaion. Gizakideak bazuena, dena galtzen zenean azaleratzen zen kontrola ere ez zezakeen barne-oreka bat? Ikusgarria zen, alabaina, adinekoen tema eta leiendazko garaitezintasuna.

– Amatxi, otoi, jaits zaitez zuhaitz hortarik!

– Nor haut hi? –amatxik jada ez zuen nehor ezagutzen.

– Jessica, Gilen zure semearen alaba.

– Ez dinat familiarik. Habil, hoa berehala, ontsa naun hemen txoriekin.

– Arren, amatxi, min hartuko duzu.

– Ez eta ez –boz ikaratiz oldartzen zitzaion.

Jessicak orduan indarrak biltzen zituen. Burtzoroa eragiten zion arbolaren kaskora abiatzen zen, abarrez abar, amatxiren bila. Orduan, besoetan tinkatu eta besarkatzen zuen.

– Harrondon gertatu zena kontatuko didazu gero.

– Bai hura bai zela itsuskeria.

– Zato beraz...

Arraposki beheititzen ziren, Jessicak ez zekiela amatxi zegoen egoeran nola igo zitekeen hain gora. Txori bilakatzen ari zela iruditzen zitzaion, denboraren atzerakada bukatzearren, arrain bihurtu aurretik. Ez zen oraino horretan eta aski zion Harrondoko lazkeriak behatuko zizkiola hitz ematea, emazte zaharra amaina eta lurrera laguntzeko.

Mila bider entzuna zuen istorioa, baina zer ez zuen neskatxak eginen emazte kikilduaren gozatzeko? Zinez agitu zena horrelakorik Harrondon? Aipatzen zituen hilketa sailek baserria larrutu zutenean sortua zena amatxi? Zerbait bazitekeen bai, ehun urteetara hurbildua zelako; hargatik Jessicak anderearen oroimen likitsak buruhon nahasi bateko ipuinak bailiran hartzen zituen. Sukaldeko zuzuluan pausatu zuen amatxi. Akotea berriz ozkan jarri zion eta arropak eskuaz garbitu, pikotzearen enborreko onddo eta hosto eratxekiak barreiatuz. Egurrez ase sua kantari hasi zen.

Garai hartan, 1914ko iraila izan zitekeen amatxik zioenaren arabera, Pierra Frantzia ekialdera deitua izan zen, gerlara. Bittorrek zortzi eta berak zazpi urte zituzten. Guztiaz gogoratzen zen. Adin horretan haurren kasko zokoetan hazten ziren itxurak eta sentimenduak ez ziren nehoiz ahanzten antza.

Halatan, agorril hondarrean, Pierraren emazteak hirugarren haur bat munduratu zuen, ganbarako hormak odolez perdukatuz. Eta gizonak gerlara joan behar! Halako durduza bulta bat su-

matu zen baserrian: Pierra Espainiara eskapatuko balitz? Dudak ez zuen iraun, apeza eta errientak gerlara hitz emanak bildu baitzituzten, suhar. Aste labur eta presatu haietan Marmaro izeneko sorgina Harrondon ikusi zen ardura.

– Ume sortu berria urkatzen baldin baduzu Pierra, sano eta salbo itzuliko zara gerlatik. Zin dagizut.

– Eugenia urkatzen?

Nagusi gaztea erotu zen. Ezkaratz ilunean hara eta hona urrats handika bazebilen.

– Suertearen haiatzeko maiteenaren sakrifizioaz beste biderik ez da –biloak harro eta harpe urrin dorpea zeraman sorginak jarraitu zuen.

Doi-doia erditze-minetarik zutitzen zen Maria heiagora ozenez lehertu zen, ume ahula papoaren gerizan besarka zetxikala.

– Isil hadi emaztekia! –Pierraren manua harri zitzaion Mariari–. Negar eta zinkurina anitzez gehiago eginen dun bai, gerla hartan hiltzen baldin banaiz.

Mariaren orro desesperatuek ezkaratza hantu zuten. Amaren auhen elkorrak ontsa gogoan zeuzkan amatxik. Jessicak ere erraz imajina

zitzakeen laurogei urte geroago, amonaren eleetan bermatuz.

Marmaroren zuzendaritzapean ondorioz gau batez, otoitzak eta zeremonia zituela kudeatzen, ibai bazterrera jo zuten hogei eguneko ninia eramanez. Maddi eta Bittor sotoan giltzatu zituzten, atean zakur erraldoia zaunkari. Sakrifizioa kontatzen ziola Jessicari, hatsanka, amatxik zintzurra ferekatzen zuen, urkatze eta itotze ekintzak berak pairatzen bailituan.

Gertatuak gertatu, dolu bortxatuak kateztatu familiakideak agurturik, Pierrak Baionako bidea hartu zuen herriko plazan tropatuak ziren lagunekin. Goiz hartan halaber Bittorren galde zaparrada saihesten saiatzen zen ama, begitartea hits.

– Non da Eugenia?

– Osagarriz ahula zuan eta barda hil zaiguk.

– Hil?

– Bai. Baratzeko pikuaren maldan ehortziko diagu sarri.

– Ama... Infernura joanen da beraz.

– Ez. Bataiatua ez zenez linboetan dukek.

– Eta aita? Hura ere gerlan hilen dea?

– Ez, bizirik aterako duk.

Mendeak ziruditen lau urtez garatu gerla. Pierrak ez zuen berririk nehoiz eman. Permisionez ere ez zen sekula etorri. Mariak uste zuen gizona Chemin des Damesko batailako lohietan zendu zitzaiola. Mezetatik landa erosten zuen *Eskualduna* astekaria irakurriz gerlako gorabeherak xeheki segitzen zituen. Sukaldeko mahaiaren ondoan belaunikatzen zen, murruan zintzilikatu gurutzeari marmara bereziak eskainiz.

Baina esperantza ahitu eta beltzez janztera ausartu zen. Betterreneko Agustin azaltzen zen Harrondon, maiz, barrandari. 1917ko apirila erditsutan, auzoko gizon gazte zainarta Harrondoko nagusi plantatu zen, erran-merranen pozoiak baztertuz.

Etxeko-jaun aldaketa izugarri gaizki bizitu zuen Bittorrek. Laster hamabi bedats kunplituko zituen eta bikotearentzat haur nahasia bilakatua zen. Kanporatzea erabaki eta Biarnoko izeba zail baten baserrira bidali zuten mutil, han bederen heziko zutela eta lanean ikasiko zuela gorakoiki azpimarratuz.

Baratzeko pikotzearen puntan baizik sosegatzen ez zen Jessicaren amatxi Maddi, orduan, umezurtz sentitu zen eta sehi zarpail baten maneran manatzen eta erabiltzen zuten, partikulazki Agustinek. Menturaz zakurrak hobeki tratatuko zituen. Maddik anaia mendekari bihurtuko zitzaiela desiratzen zuen.

1918ko azaroaren 11n gerla bukatu zen. Maddiren egoera ez zen kanbiatu, denek hilik uste zuten aitaren itzulera gorputz osoaz espero zuen arren. Maddi batzuetan Harrondo parean altxatzen zen muinora igotzen zen anaia bidean ageri zen ala ez ikusteko. Etsitzen zihoan. Jessicaren irudiko anaiaren itzala xerkatzen zukeen oraino ere amatxik, zuhaitzaren tiniara hupatzen zenean. Bizia tragikoa zen: obsesionez erabat arranpatua. Seguru zegoen alabatxia, burua galtzean are nabarmenago ziren haurtzaroko beldur eta gogotik ezin kenduzko pentsuak.

Jessicaren irri marra ezabatzen zen ordea, Maddik Harrondoko istorio latza kontatzeari ekiten ziola. Esklabu turkoa bailitzan baliatzen zuten, ama urrikalgabeak baimendu Agustinen manuetan ihalozka: urde bazkatzen, ardi zain-

tzen, sukaldea eta ezkaratza xahatzen, ganbarak nistan jartzen, baratze eta arto jorran, lursagar ereiten eta nik dakita zenbat zeregin xehetan higatzen zen bederatzi urteko neskattoa.

Haur hotza izan arren, gorrotoak gogortzen zion izpiritua. Behin baino gehiagotan bargoak hiltzeko labana eskuratu zuen gerlan zendu aitaren omena histen zuen bikotearen kalitzeko. Arratsalde batez, loaldian zeudela, haien ganbarako bortara hurbildu zen. Borta erdi zabalik zen, aski zuen sartzea eta nabala zorrotza papoan tanpez sakatzea. Baina zur eta lur geratu zen: ama eta Agustin biluzirik zeuden, bata bestearen barnean ohean etzanik, goiti eta beheiti ari zen gizonaren sabelpeko makila gorria amaren zangarteko zuloan sartzen eta ateratzen segitzen zuen. Amak errain ukaldi bakoitz intziri hezeak askatzen zituen. Bularrak dantzan ari zitzaizkion. Basaki ari ziren, baina zertan ez zekien Maddik, nahiz eta ilerik gabeko pottotta ikara susmatzen zuen.

Begiak apaldu zituen. Labanaren mihiaren distira miretsi zuen. Une berean abere orroa libratu zuen eztarri hondotik Agustinek eta amak

hasperen ozenaz, isuri zuria ketan mihisean barreiaturik malgutzen zihoan gizonaren zitzi puska kanporatu zuen, gerriaren atzera keinu salbai batez. Etxeko-jaun berria zutitu zen zakila inarrosiz eta ahurraz emaztearen alua garbituz.

Maddik ihes egin zuen, ate ondoan kukuxkan harrapatzen baldin bazuten, segur aski Bittorren destinu berdina pairaraziko baitzioketen. Eta ez zuen horrelakorik nahi. Harrondoko premu hitz emana zelako orozbat.

Munhorantz zihoalako usu erasiatzen zuen amak, ahoak eman ahala: alferkeria leporatzen zion, *hilen gaitun, zer eginen dinagu hitarik, urde zikina edo haur ustela*-ka. Noiztenka Maddi erantzutera ausartzen zen, ezpainak tuaz blai:

– Ikusiko duzue aita eta Bittor Harrondoratuko direnean.

– Ametsetarik ari haiz neska...

Bortitz ebakitzen zion Agustinek elea, gehitzen zuela:

– Deabrua dun haur tzar hori... Marmaro sorgina deitu behar genikeen.

– Marmaro?

Ama hormatzen zen orduan. Izutu zen Maria, sorginaren izena entzutean.

– Ez, ez Marmaro. Apeza hobe.

– Apeza beraz, bihar bertan.

Agustinek esku gibelaz haurraren zartatzeko jestua egin zuen. Eta alorretara abiatu zen, barnetik sutan. Maria sukaldeko mahaian jarririk, ezindua geratu zen, hustua, soa urrunean urtzen zitzaiola. Jadanik senarraren salbatzeko Eugenia, bere sabeleko fruitua urkatu zuten eta ez zen Pierra gerlatik itzuli. Eguerdiko saldaren ontzeko baratzekiak bipiltzeari ekinez, sakrifizio gehiago debalde zitekeela txutxukatu zuen, bereber. Mariak gogapena lehor zuen.

Petarre zaharra behin Donapaleuko merkatutik etxeratu zen urduri. Pierra begimendu zuela iruditu zitzaion, ezagutzen ez zion emazte panpox baten konpainian. Ostatuan zeuden biak, aberats plantan jantzirik eta lasaiki solasean. Petarre oroitu zen azaroaren 11ko azken elizkizunean Pierra gerlan hilen zerrendan kontatu eta haren arimarentzat otoitz egin zuela. Ttattit zegoen tabernako atean dudan, aitzin ala gibel? Ez zen sartzera ausartu. Laster batean Otsabidera-

tu zen, berri izugarriaren hedatzeko. Ez zekien ordea Harrondora hurbiltzea komeniko litzaiokeenez, baina bekatuan jarduten zuten Maria eta Agustin behar zituen nolabait abisatu. Agian, eta horregatik isildu zen Donapaleun begiztatu zuena ez zela Pierra baizik eta Pierraren antz handiko norbait. Beste herritar baten lekukotasunaren aiduru egon zen Petarre, zer gerta ere. Pierra kantonamenduan zegoelako zurrumurrua emeki-emeki zabaldu zen, eta orduan erabaki zuen auzoak Harrondoratzea:

– Pierra bizirik da.

– Zer? Ustel madarikatu hura bizirik?

Zaunka elkorra aireratu eta Agustinek arratsaldeko askarian Petarre abantxu urkatu zuen. Gizonak begiek gatibatu ziotena azpimarkatu zuen, kartierreko bizpahiru gauza lekuko suertatu zirela erantsiz. Ez zuen ordea hitzik erran Pierra laguntzen zuen emazteki punpulinaz. Erranak erranik lekutu zen auzoa, tarrapataka, batbatean gaizki obratu zuela konbentziturik. Mutu hobeko zuen menturaz.

Gazta moztean Mariak ikarak zituen bidaide.

– Bizirik da...

Agustini zuzendu zitzaion:

– Zer eginen dugu orain?

– Alua! Hainbat urtez ez din berririk eman eta gaur mahuma tzar hura Donapaleuko merkatuan azaltzen dun. Merezi duena oparituko zionagu: herioa.

– Pierra hilen diagu? Guk? Ez dea bekatu?

– Bekatu? Bi haurrekin abandonatu hau eta bihotz beratzen haiz? Soizan nola eginen dugun: ahalik ohore handienean errezibituko dinagu, apailatuko diogun bainura gonbidatu eta, bargo gurintsuaren pare, trebeki eta halabiz batean sangreatuko.

Harrondoko loiro lohitsuan Pierra Cassieren konpainian agertu zen justu apezak Maddiri dea-bru-iraizteko letaniak errezitatu zizkion egu-nean. Hamalau udaberritako neskatoa alabaina komentu batera bidali eta oinordeko gisa iloba umezurtz bat har zezaten aholkatu zien apezak. Ez omen zuten nehoiz bakerik lortuko Maddi atxikitzen baldin bazuten. Eta bikoteari Jainkoa-ren Legearekiko zuzen jartzea gomendatu zien, ezkontzea alegia.

Ingurumen berezi horri esker, Maddi ongi gogoratzen zen aita berriz ikusi zueneko goizaz. Alzheimer eritasunagatik, bere zuhaitzetik beheratu ondoan horretaz baizik ez zen mintzatzen: hitzak eskas zeuzkan gainerako bizipenen ahoskatzeko. Jessicak amatxiren istorioaren harilkatzera bulkatzen zuen:

– Eta orduan zer gertatu zen?

– Aitasok aberaski errezibitu zitinan Pierra eta Cassie anderea. Dena laudorio eta espantu faltsu, buruan zuten sarraski lehiaren estaltzeko eran. Ama joan zunan lasterka eta negarra begian, Pierra bere senarraren agurtzera. Aitak Cassie aurkeztu zigunan.

– Hara Cassie, Verdungoa sortzez. Iragarlea da. 1916an kolpatua izan nintzen, gas paralisatzaileak irentsi nituela ederki artatu eta sendarazi ninduen, bestela ez nintzen hemen zuen aitzinean izango. Gerla itsusia zen, eraso bakoitzean erortzen ginen ulitxa ahul, eta hobirik gabeko hilotzen ondoan lo egitera bortxatzen gintuzten.

– Zato gizona... –Maria dena amaina zen–. Bainua prest duzu, ezkaratzean; zure itzultzea ospatuko dugu zikiro on batekin.

– Plazerakin. Zer ari da Agustin hemen?

– Ez zinen urte luzeetan lanean lagundu nau.

– Itzuli naiz orain eta ez dugu mutil beharrik...

Ez zen Agustinen begitarte xifrituaz ohartu Pierra. Alabaina auzo zainarta Harrondoko nagusia zen, nagusi ohiaren emaztearen jabe lehena. Agustin ez zen higitu eta ezkaratzera zihoala Pierra oihuz entzun zuen, haize txepela bailitzan:

– Gela bat apaila ezazue Cassierentzat.

Ile horail kuiskulatuak zeuzkan Cassie Maddirengana hurbildu zen. Biloak ferekatu eta esku ahurrak mirazkatu zizkion. Urrakoak eta arrailak susmatu zizkion. Leihotik kanpoko bazter ilunei begira geratu zen. Cassie iragarle sotilak orduan erran ziona ez zuen Maddik sekula ahantziko:

– Neure zain datza labanaren alde biko zorrotza. Hegats-pean aditzen da herioa xuxurlatzen didan abesti beltza.

– Zer diozu anderea?

Maddi zurbaildu zen.

– Badakit ene ordua datorrela. Pierrarena ere bai. Ez naiz atez ate kalaka ari den iragarlea. Harrondon gaur hilketa zaharren ordaina pagatuko da.

– Ez dut ezer ulertzen. Eugeniarenaz ari zara ala?

– Menturaz. Tenorea da. Agian hobe nuke ihes egitea.

– Zure kuraiak malura zurkaizten du...

Neskak erran eleak ez zituen konprenitu ere.

– Ez da horrelakorik erraten zoriontsu direnei. Ez nau izuak irentsiko, saparrek harrapaturiko papogorri ni...

Musua pausatu zuen Maddiren matelan, suertea opa ziola.

Handik laster odol uholde basatiak bete zuen Harrondo. Maria eta Agustinek indarrak juntatuz, orro artean sangreatu zuten sareetan gatibatu Pierra. Oihuek tirriaturik presaka lehiatzen zen Cassieren aldia izan zen gero. Ezkaratzean jario eta gorri koloreko isuri beroak nahasten ziren. Maddik garrasi haiek nondik zetozen jakin nahi zuen, baina bikote deliberatuak bortak hertsi zizkion. Gorpuak barrukian metatu zituzten. Idiak uztartu. Hilotzak orgetan kargatu eta arratsalde osoa Munhotarreko xaran iragan zuten.

Ezkaratza ur handitan xahatu eta gaua jin zenerako ez zen krimaren aztarnarik nehon, Mad-

dik usna zezakeen alderik alde barreiatu odolaren urrin freskoa salbu. 1922ko martxoaren 29a zela baieztu zuen neskak, sukaldeko murruan dilindatu *Eskualduna* astekariaren hostozko almanakan. Hortik aurrera Maddik artega jardun zuen, bere aldiaren aiduru. Bittor sendiaren mendekatzera etorriko zela esperatzen zuen. Anaiaren berririk ez zeukan. Astia urritzen zihoakion. Ondoko udaberrian Angeluko seroren komentuan sartuko zutela hitz eman zion bikoteak apezari, baina bitartean Munhotarreko hobia lohitsuan bizirik ehortzirik ere burura zezakeen.

Maddi sehi zarpail egunak herrokatu zituenekoaz baizik ez gogoratzen. Ez zuen oroitzapenik. Jessicak pikotzetik jaitsarazi eta sukaldera bilduriko emazte xaharraren buru ona eritasunak higatu, leundu eta klikatu zuen, sailez sail ezabatu, orainalditik iraganaldirako bidaian, geroaren irudikatzeko ahalmenaz arras desjabetua zela: geroaren itxuratzeak preseski jendea jende egiten zuen, erran arruntak biharkoa hobets zezakeen zen lana, etxea eta familiak baino. Amatxik erresumin etengabea zeraman, herio dantza lanzinantearen urratsen urratzaile.

Aitari eta gerlatik hark ekarri zoritxarreko Cassieri pentsatzen omen zuen anitzetan. Krima konplitu zen hilabeteetan odola usnatzen zuen, ezkaratzaren garbitzeko plantatzen zenean, jariakor, mingar eta karats. Ez zuen zola nehoiz aski torratzen, hilketaren orbainak behin betiko desagerrarazteko. Herra pizten zitzaion. Harria bezain gogorra. Mundu osoa kuska, kolpa eta erretzeko adina. Baina hor zegoen, ezkaratzeko harlauzen arteketan gezaminduriko hatza eta hatzarekin batera neskaren ezinkeria larria. Non zen Bittor? Serora sartzeraino asti askirik edukiko zuena? Utziko zutena bizitzera? Noiz etorriko zen anaia arrebaren salbatzera? Galdeak erantzunik gabe geratu zitzaizkion luzaroan. Maddik bakartasunean zirauen, esklabu.

Bikotea elizan ezkondu zen, Jainkoarekiko bake-agiria izenpetuz. Auzoan ordea arrangura dudatsu zerbait jazarri zen, batez ere Pierra Donapaleuko merkatuan susmatu zutenen partetik. Behin horrela Petarreneko nagusia Harrondora hurbildu zen:

– Zer bilakatzen da Pierra?

– Ez dakigu...

Ihardespena ahots bakan ozenarazten zuten hiltzaileek:

– Ez dakigu, hor nonbait bizi da, Baionan behar bada bere emaztekiarekin.

– Harekin irri partida ederrak egiten genituen. Eta orai ematen du hilik dela. Ez da nehondik ageri.

– Ez da agertuko ere. Ezkonduak gara!

Agustin mahaian bermatu zen. Petarre alegia harritu zen:

– Isilean orduan, ez baitugu gonbitarik eskuratu. Hauxe ezkontzeko molde bitxia! Usaian besta handia antolatzen da. Baina berdin du...

– Ez ginuen bekatuan bizi nahi.

Mariak aitaren lasterra marraztu zuen.

– Dena dela, sekulan noizbait Pierra etxeratzen baldin bada, erraiozue gure sukaldean ongi etorria segur dukeela.

– Bai, erranen diogu.

Motz eta hotz despeditzen zituzten gerlariohiaren galdez zetozkienak oro. Ezkaratzeko ate astuna bisitariaren atzealdean banbaz klaskarazten zuten, dagoeneko azkar zebilen odol hats tepoa usnateko arriskua bailitzan.

Ezteiak aipa ditzagun xuxurlatzen zuen Maddik. Ideiak argi zeuzkala onartzekoa zuen Jessicak, ezpainetarik eleen janiza akuilatzen zuen arto irinezko ogale baten pare iragana isurtzen zitzaiola andere adinduari. Zerion tu xirripa malgu eta zehargiak izpirituaren egoera larria frogatzen zuen.

– Aste barneko arrats apal batez joan ziren, biak ilunez bezti herriko etxera eta elizara, ezkontzeko. Eginbeharrak zalu bete zituzten. Ez dakit agur mariarik errezitatzeko astirik ukan zutenez.

Maddi konkortuak kontatzen zuen Otsabidetarrek Katzeneko bide juntatik Harrondorainoko berdura hedatu zutela.

– Badakizu zer den berdura?

– Nola nakike amatxi, hiritarra naiz ni!

– Ba soizu... Ustez blasfemian ziharduten jendeen seinalatzeko ardurenean gazteek, baina taldean adinekoak kausi zitezkeen, belar eta erramu abarretan ebaki hostailak paratzen zituzten erregebidean, denen irrigarri. Harrondoko zakurrak lo-hautsez isilarazi zituzten. Pentsa ezazu goizean borta aitzinean berdura hura ikusi

zuenean nolako kexuan sartu zen Agustin, sustut zakurrak pozoitu zizkiotela iruditu zitzaionean. Berehala Donapaleuko jendarmeengana jo zuen. Gaitzeko errabian zen. Ontsa gogoan daukat zelako zafraldia bildu nuen, bai eta Maria neure amak ere. Erraten ahal dizut Jessica, zauriak eta ubeldurak non nituen. Harrondo izuak azpatzen zuen ordu haietan. Egunak jin eta egunak joan, egoera jabaldu eta gertakaria ahantzi zen. Baratzeko pikotzearen maldan abiatzen nintzen bikotea loaldian zegoen arratsaldeetan eta han Eugenia deitzen nuen geldirik gabe. Marmaro sorgina madarikatzen nuen, funtsean lur osoa irain burbuila berdinean kartzela nezakeen. Bittor ez zen azaltzen. Ez nekien zer egin.

Marmaro hil zen azkenean. Bitxiki amatxiren arabera. Sorginki hots. Bere etxeko ezkaratzean ari zen gerri-mina zeukan ehun kiloko gizon baten garraiatzen. Zazpi ateen azpitik iragan behar zen, gerria trunpilo zornatsuz tatxatua suerta ez zekion. Minak gerria alderik alde inguratzen baldin bazion hainbat gaixto kutsaturiko kidearentzat: xangrea zen haren destinu bakarra. Marmarok gerri-mina sendatzen zuen erraz,

eria bizkarrean har eta naski latinez baina hizkuntza aski misteriotsua zen, bara-baratzen zituen otoitzak oiharraraziz. Marmarok otoitz haiek asmatzen zituela erraten zen, eskolan edo katiximan ibili ez zenez, nehoiz ez baitzuen latinik ikasi. Astoen zintzur karraka antzekoak baizik ez zituen libratzen, jainkoari edo deabruari helaka, nola jakin? Marmarok halatan minaren erasoa geldiarazten zuen. Aldi hartan ordea, ehun kiloko gizonak lehertu eta hil zen tanpez bihotzekoak emanik. Nehor ez zen nahikoa sorgin izan haren berriz piztarazteko. Marmaro hilerriaren zatirik ahantzienean ehortzi zuten, zeremonia murritzaren ondotik. Gerri-mina zeukan gizona berdinki mundutik joan zen sufrikarioz kiribilkatua: haren oihuak haran hegi batetik bestera aditzen ziren, are gehiago haize egunetan. Hirurogei urteren buruan ikara hormatuak sorrarazten zizkion Maddiri Marmaroren izena ahozkatzeak berak.

Hamazazpi udaberri zeuzkan Maddik, esperantzetan Irazeta etxalde txikira ezkontarazi zutenean. Bi hilabeteren buruan Maiana munduratu zuen, lehen alaba. Arto-jorratik zetorren ilun-

pe batez agitu zen bortxazko apaina. Egia erran, bazen bulta bat bera baino hamabost urte zaharrago zen Bettan gerlari-ohia gibeletik zuela neskatxak. Bazebilen guneetan, hura edo haren itzala igartzen zuen: mezetatik etxerakoan, lanetik itzultzean, merkatura abiatzean:

– Nahu'na ene lukainka dasta! –Bettan lizunaire zebilen.

Arto-lerroak garbitzen pasatu egunaren ondotik behin, aitzurra sorbaldan eta askariko zarea eskutan bidean zela, sasi baten atzealdetik punpan jauki zitzaion Bettan. Lurrean etzan zuen, azpiak ireki zizkion, kotoizko frakak urratu eta mizpira makila bezain gogor zeukan abar gorraila aluan basaki sartu zion. Maddik ez zuen higitzeko ahalmenik. Joa zen erdiz erdi. Bettan, bere zango okerra dardararaziz, goiti eta beheiti ari zen, labana zorrotza lepondoan atxikitzen ziola. Bukatu zuenean, galtzak altxatzean orroatu zion:

– Ene gauza haiz orain. Nitaz bete haut. Erein haut.

– Urde zikina!

Hinki-hanka agudoan eskapatu zen Maddi.

Iruditu zitzaion Bettanen oin traketsaren harramantza metalikoa bidean hautematen zuela oraino. Hatsanka etxeratu zen, ahalke. Gertatua amari kontatu zion, hipaka. Amaren soakoan ez zen urrikalmendurik jauki. Harrondoko bikoteak ez zuen iparra galtzen eta ondoko astean eztei solas baizik ez zen haien sukaldea. Agustin Irazetara igo zen, tratua Bettanekin ontzeko. Etxeratzean Mariari erran zion:

– Konpondu gaitun. Han bizia egiazki zer den ikasiko din hire alaba moxkote nazkagarri horrek.

– Arren, Agustin, ez hadila hain gogorra izan; hik haurrik ez didak egin ere.

– Gosaio beharrik ez dinagu, alaxokotzia!

– Noizko finkatu dituzue ezteiak?

– Betea dela frogatuko den bezain laster. Azkenean bakea emanen zigun.

– Isil hadi.

Otsabideko herrian ez zen sekulan eztei tristeagorik sekula ospatu. Ehortzeta arropak ziruditen oihal puska presaka josiek markatzen zuten Maddiren bost hilabeteko sabelaren erronda bekatorosa. Emazteak ez zekien zer zatekeen

hobe, Bettanekin derrigorrez ezkontzea ala, mehatxatzen zioten eran, komenturatzea. Biak kartzela ziren adinaren florian eder zegoen neskatxarentzat. Halaz, apezaren aitzinean bi esposek baiezkoa trukatu zutenean, neskatxaren zintzurrean korrok bat trabukatu zen: ez zion begiradarik bota senarrari. Ez irririk. Ez samurtasun keinurik. Euria ari zuen, burua apalik gero elizako kalostrapean, auzoen eta ahaideen zorionak erdietsi zituen. Ondotik Mutzueneko ostatuko gelan bazkariteko eta besta egiteko bildua zen jendetza alegeraren aurrean mutu geratu zen. Lehertua, zitzikatua, biluzia.

Maiana gordeka bataiatu zuten igande hartan agertu zen ezustean Bittor. Gizondua engoitik, lagun batzuekin zetorren, Irazetan justu kafea zerbitzatu zen unean. Etxean isilka-misilka aterpetu ziren, eta Maddik orduan jasotako besarkadak ez zuen parerik: anaiak mendea irudi zuen luzeki tinkatu zuen arreba, beso arteko berotasunaz ito; ama gazteak ez zuen inoiz horrelako amodio eta samurtasun oparirik erdietsi.

– Ezkondu zaituzte beraz?

Bittoren ahotsa sakona zen.

– Bai, baina ez naiz gaizki. Haurraren ukaiteak lotsatzen ninduen. Dena ongi pasatu da eta Bettanekin akomeatzen naiz hondarrean.

– Maite dut Maddi...

Bettanen ardi-trapatu sabel-oihua entzun zen:

– Ez banu bortxatu, ez nuen Maddi emaztetzat hartzen ahalko. So egizue nola itzuli nintzen gerla madarikatu hartarik! Zangoa hautsirik eta birikak gasez erre eta suntsituak.

– Bego. Ene arrebatxoa zaindu ezak behar den bezala orain.

Buruxkando zuritan troxatua zen Maiana zerura hupatu zuen:

– Ene iloba... Eta Harrondon zer?

– Ama Agustinekin esposatu da. Aita sangreatu zuten duela sei urte Cassie iragarlearekin Verdundik herriratu zenean.

– Jakin ditut gertakari horiek oro. Mendekatuko gatzaizkie.

– Herra daukat bihotzean. Esklabu baten gisa tratatu naute, ezin dut hori kolkotik kendu...

Maddik anaiaren papoaren aixolbera aurtiki zuen burua.

Bittorrek eta bere multzoak Irazetan iragan zuten arratsaldea. Kafetik landa jin zen ondokoa. Aguardienta lagun, mendekua ozkan jarri zuten. Irazetako sukaldean ez zen irririk, ez ele soberakinik, baizik eta noiztenka ulu baten xixtu arina edo Maiana sortu berriaren negar xeheak. Maddik orduan, presaka, atorra irekiz bularrak askatzen zituen eta niniaren ahoa esnez hantu titi ubeletan pausatzen zuen amultsuki. Momentu horietan emaztearen begietan, behialako gorroto zorrotzaren ordez, amodioa baino ez zen irakurtzen. Bittor zein Bettan biak, Maddiri beha zegozkien ikusgarriaren eztitasun harrigarriak hurrupatuak. Harrondotik kanporatua izan eta higatu garaiaz xehetasunak eman zizkien Bittorrek:

– Aitaren Biarnoko azkaziak ongi gobernatu ziren enekin. Hamaika urte arte eskolara joan nintzen, zenbatzen eta leitzen ikasteko. Herri hartako errientak eta apezak nahi zuten kolegioan jarrai nezan, baina Prudentziok ez zuen sosik aski eta eskualdeko arotz baten lantegira igorri ninduen, mutil. Jakin ezazue zaldi-ferratzen ez dudala parerik! Zaldiak gustatzen zaizkit. Kima

zuri eta uzkorno galantarekiko bat badut neure. Ttarrotuko denean, zaldiz ibiltzen irakatsiko diot Maianari. Lautada hotzetan barna lauhazkatzea baino plazer handiagorik ez da bizian.

Bittorri elea agortu zitzaion. Minutu apurretan lainoetan zintzilik zirudien. Baina zaldi solasak eten eta sukaldean metatu jendeen gogoetan ideia berdina bazebilen biribilka, mendekua ahalik trebekien obratzearena alegia. Deus erran gabe naski bazekien bakoitzak zer egin.

Hala uste zuen Maddik behintzat, mende erdi bat geroago Jessicak pikotzetik jaisten laguntzean, zalantzak esku gibelaz saihestuz agertzen zuenaren ildotik. Ondorioz, gauak bazterrak setiatzen zituela, mahaitik zutitu ziren gizonak. Ilunpean barreiatu ziren, pika-bele saldo alegera. Hitzetan ez, baina egitekoaren egitarau zehatza soakoetan iltzatua zuten. Bakarrik geratu zenean, Maddik Maiana altzoratu zuen eta sortuz gero abesteari ekin zion lehen aldikoz: *buba buba ninano haurra duxu minino*... Melodia harilkatzen zerraikan Bettan behiak bazkatzetik sohairotik sukalderatu zenean.

– Zuk ote duzu hain ederki kantatzen?

– Bai, gizona. Amodiozko eresia baino gaztiguzkoa da.

Maddiren ihardespena misterio zitzaion Bettani.

– Beude hilak hilekin...

Dardara zegoen Bettan.

– Hilak hilez gose dira...

Murmurio gozoa aireratzen segitu zuen emazteak, haurra altzoan kulunkatzen zuela:

– Osaba Bittorrekin zaldizka ikasiren duxu: *arre arre iikoko*!

1926 urteko bazko bezpera gaua zen. Bittor, Bettan eta bospasei mutilez moldatu banda Harrondora hurbildu zen. Zaldiak behereko gaztaindian estekatu zituzten eta argizagi beteak troxaturiko oinezko itzal uhargiak etxeko funtsetan kokatu ziren. Sator gaixoen pozoitzeko errautsurez busti haragi puskak bota zizkieten zakurrei. Gosez hamikatu kabala meharrek emaitza nasaia ñaka-ñaka irentsi zuten; laster, auhentxo ahulak baizik ez ziren aditu. Ordua zen. Bi gizon plantatu ziren sukaldean. Beste bi ezkaratzean. Bittor alimaleko labana zorrotza zetxikala esku batean, amaren eta Agustinen ganbarara lerratu

zen, ezko-argia bestean. Agustinen lepo-zaina ebaki zuen dudarik gabeko kolpe batez. Labanaren zerralerra zainarta hautematean, Maria iratzartu zen. Mihiseak odolez gorri zirela ohartu eta begi hormatuak Bittorrenetan bermatu zituen:

– Zer ari haiz hemen seme?

– Eugenia eta aitaren zorren ordaina biltzen.

– Mentsa hiza? Seme...

Mariak ez zuen elesailaren bururatzeko betarik eduki, kokospea ibai bilakatu zitzaiolako. Urdearen pare hustu zen. Bittorrek amaren eta Agustinen betazalak apaldu zituen, niniketan bizihazten zihoakien munduarekiko izua ezabatzeko. Lana bukatutzat eman eta kideei erran zien:

– Hara. Goazen bada, ez gaitzaten hemen ikus.

Zeinatu zen, lo-gelako Jesuskristori barkamena eskatu zion eta ahapekatu zuen:

– Goian beude.

Harrondoko bikoteak harreman gutxi zeukan ingurukoekin. Bereber jarduten zuten, astean behin merkatura eta elizara azalduz. Halaz, hilketa salbaiaren berri aste baten buruan baizik ez

zen jakin. Ustegabetarik gainera. Petarrek zuen baserria huts atzeman, ahea-presta eskatzeko Harrondoratu zenean. Sukaldea eta ezkaratza arakatu zituen, urrin latza ganberatik jazartzen usnatu zuen arte. Odol hotzaren eta haragi ustelduraren kiratsak gidatu zuen hortik aurrera. Hertzeak bota eta tarrapataka jaun meraren zein apezarengana lehiatu zen auzoa, *Pierra itzuli duk* leloa kasko zokoan baltsan zebilkiola.

Eguerdi pasatuxean, Donapaleuko jendarmeak Harrondo mirazkatzen ari ziren, gertakariak zaplastaturiko herkideak ttattit eta mutu loiroan zeudela. Xendrako errautsetan markatu oinatzez gain, Gaztaindi aldean zaldi hatzak begimendu zituzten ikerlariek. Lo-gelaratzen zirenak oro goitika ilkitzen ziren: urrikirik gabeko masakrea zen. Erotua bailitzan Petarrek *Pierra itzuli duk* errepikatzen zerraikan. Apeza haserretu zitzaion:

– Baina gerlako hilen marmolezko zerrendan duzu Pierra, elizako kalostrapean.

– *Pierra itzuli duk*.

– Gaixo honi jabal-belarra edanaraz iezaiozue, otoi.

Jainkoaren zerbitzaria Maddirengana zanpa-zanpa zetorren, sotanaren hegalak harrotuz:

– Horrelako sarraskia zuetariko batek egin baldin badu, egundainokoan ez duzue barkamenik izango.

Apeza hedoi beltzez azpaturiko zerura begira zegoela, Maddi jendarmeak aldiz lurrera, urrin zizkolatsua etxeko leiho guztietarik zeriela, urrunean zaldi trosta hots ozena sumatu zen. Bittor zetorren bere errua aitortzera. Kimu zuridun kabalatik beheratu eta erran zuen:

– Ni naiz hobenduna. Eugenia eta aita mendekatu ditut.

– Eraman ezazue, arren.

Hedexurien buruzagiak manuak txanpatzen zituen. Lau gizonek bizkarrezurra plegarazi zioten. Ukabilka zenbait ere eman zizkioten. Hautsa irensten zuela, eskuak lotzen zizkion burdinaren hegia nabari zezakeen, larru urratzaile. Maddik orduan zuen anaia azken aldikoz besarkatu:

– Bihotzaren xoko batean atxikiko diat hire oroitzapena.

– Har ezazu ene zaldia Maianarendako.

Hasperenka, jendarmeen auto beltzean sartu zen, oldarrik gabe. Handik epe laburrera etxe inguruak zehazki etsaminatu eta munhotarren bi hezur-multzo harrapatu ziren. Batek gerlariei eskaintzen zitzaien identifikazio medaila zekarren, Pierraren izen eta zenbakiekin. Baratzeko lurra irauli arren, Eugeniaren hondarrik ez zen kausitu. 1927an auzia Baionako tribunalean pasatu eta Bittor gogorki kondenatua izan zen, baina ez zen damutu.

Maddik zioenez, Jessicari batez ere, Bittor Cayenneko galeretan zendu zen. Akiduraz eta gosez, tropiketako eritasun batek eraman zuen. Hogeita bost urte zituen. Maddik galeretako administrazioaren partetik Bittor hil zelako berria gutunez ukan zuen. Gorpua aldiz ez zen Otsabideratu. Hilerrira zihoanean, izenik ez zekarren hobian lili buket bat pausatzen zuen Bittoren oroimenez. Anaiari pentsatzen zuen *ikoko* alha begiztatzen zuen oroz, hunkitua.

Maddik Bettanekin Irazetan zoriontsu iraun zuen, salbuespenak salbu, Maianaren ondotik bost haur haziz. Senarra galdu egun berean, ez hain aspaldi funtsean, Maddiren arrazoia nahasi

zen. Jessicaren bisita iragartzen zenean, Harrondoko gertakariak milagarrenekoz alabatxiari kontatzeko aitzakia bila, baratzeko pikotzearen gainera igotzeko usaia ordutik zeukan. Pikotzearen puntatik halaber, Eugeniarekin solastatzea lortuz, Jainkoaren belarria eztitzea espero zukeen.

Behin Jessicak agurtzeko moldean erran zion:

– Amatxi, ezkonduko nuzu!

– Gaizkonduko? Ba segurki eta hala ere zauriak gaizkontzen direla. Gurean odola zerien beti...

Lo-gutizia izugarriak sareetara tirriatzen zuela zirudien eta, buru astuna papora ezkelduz, tu malgua ezpainetarik isurtzen zitzaiola, zurrunga larriak eroaten zuen amatxi. Ahanztea gauza estimagarria zen, gogozkatu zuen Jessicak, baina horretan ere heina zaintzekoa zen.

Elkarrizketak zerraikan.

–10–

Sebasek ez zuen oraino negarrik isuri. Eta hor hipaka ari izan zela oroitzen zen. Ezin gelditua. Begitartea eskuartean ezkutatzen zuen, malkoak nehork ikus ez zekizkion. Ostatuko mahaian jarririk zegoen, garagardo baten aitzinean, begiak bustirik eta ortzaizera so. Zigarreta paketea aldamenean zeukan eta bat bukatu orduko pizten zuen beste bat, zainetan.

Joanes artzain erretretatu zaharra kontuarrean bermatzen zela ohartu zen eta tristuraren sakonetik tabako grisaren biltzeko haren keinuak segitzen zituen: papera ezpain izkinan dilingo atxikitzen zuen, ezker eskuaz eskuineko ahurrean tabakoa abar fin moldatzen zuela. Irriz ari zen bitartean, tabernan sartu berri ziren hiru neska gazteei aspaldiko istorio gordinak kontatzeari ekin zion. Bat-batean papera hartu eta tabako lerroa harekin troxatu zuen, bazterretara tu eta *alajinkoa*-ka. Haren ele eta jarioak oro lurrean hedatu sega-zahian amiltzen ziren. Gaizki ebakitako enbor lehorraren antzeko zigarreta bi

erietan gatibatu zuen, ahoratu eta paperetik kanpo zebilzkion tabako ilatxak zaintsuki moztu zituen. Inguruan zeuzkan neskatxetako bati briketa eskatu zion. Sudurpean sutea itxuratuz azkenean zigarreta piztu zuen eta, jaun bailitzan, kasik auzo zuen Sebasi erran zion:

– Errak hi, ez haiz lanean ala egun?

– Bakea emak gizona!

Joanesek uholde baten asaltoa jasan zuen. Artzain trunkiloak, hinki-hanka, Sebasen mahaira jo zuen:

– Laneko denbora laburtu eta egiazko auherrak bilakatzen ari zarete.

– Isil hadi Joanes! Ez diagu gehiago lanik. Soik...

Zenbait minutu lehenago postan eskuraturiko lizentziamendu gomendatuzko gutuna erakutsi zion: *fini duk guretzat* errepikatzen zuen lelotzeraino. Oroitu zen postako funtzionarioaren aurrean lehertzear egon zela, ahalkearen ahalkez. Langile hura madarikatzen zuen, nahiz eta errespetu handiz eman zion gutuna. Alabaina jakina zen, irratian nagusiak erranik, leterrak bezperan igorri eta biharamunean Etxarri fabrikako

beharginen meneko zitezkeela. Herri txiki hartan *denek* elkar ontsa ezagutzen zutenez, edonork bazekien nor non ari zen lanean.

– Fini duk guretzat –etsia buhatu zuen berriz, Joanesek aurpegira aurtikitzen zion kea saihesten saiatuz.

– Zer derasak? –galdatu zion artzainak–. Egia duk orduan Etxarri hersten dela? Banian ba zerbait entzunik, baina ez hein horretan zelakorik.

Artzaina isildu zen, kea oparoki hatsartzeko. Jarraitu zuen:

– Errak hi, aitor ezak ontsa bizi izanak zaretela zuek langileak, sari finkoa hilabete hondarrean, etxea, familia, bi beribil eta asteburuak oro libre. Sufritzea zer den ez duzue sekula ikasi.

– Ez dakigula sufritzea zer den?

– Ez. Errege jardun duzue eta orain agertzen zaizue astean ostiral bat bederen badela.

– Isilduko hiza urde zikina!

Sebas oihuka ari zen, sangreatutako kabalaren maneran bihurdikatuz, mahaia dardararaziz eta ukaraiaz Joanes mehatxatuz. Kontuarrean, gertatzen zenari beha zeuden hiru neskak beren ttottogia gorakoietarik zutitu ziren, lekuak huste-

ko prest, bi gizonen solasa pataska odoltsu buru-ratuko zelakoan. Margarita, ostatu jabeak beso-ak mugitu zituen, eiherra zaharraren hegalak bailiran. Ordea inor ez zen higitu. Behialako triki-tixa ahairea bera desagertu zen. Segundoa ordu itxestu zen. Sebasek Joanes sorbaldatik inarrosi zuen. Etxera zuzendu zituen urratsak han bakea behintzat dastatuko zuela iritziz.

Karrikan ibiltzen hasi zen. Negarrez oraino. Ez zuen balio, gogoetatu zuen, herrikoengan urriki bila aritzea: egia zen Etxarri indarrean ze-goeno erregeak zirela, ez anitz pagatuak, baina lana bazuten, ausarki, eta zaila izan arren, lanki-deen arteko giroa aparta zen. Zenbat barre. Zen-bat trufa. Zenbat min halaber, lagun batek istri-pua jasaten zuenean adibidez, edo nagusiak ho-geita hamar egunez langabe beharko zutela jaki-narazten zietenean, manurik etortzen ez zelako. Gogorra zen, baina elkartasuna perfektua ez bal-din bazen ere, batak bestea sustengatzen zuen.

Bidean zebilela, lizentziamendu gutuna es-kuan, lan-eskaintzen bulegoaren parean geratu zen. Bi asteko lanaldiak proposatzen ziren beri-netan axolagabeki itsatsiriko papertxoetan,

gehienez sei hilabeteko ordezkatzeak, mugagabeko kontraturik ez zen gehiago. Eta gainera, gehienak gazteentzat. Bera bezala lau hamarkada beteak zituztenentzat ez zen deus, herritik joatea salbu eta hori eginez ere ez zen ezer segurtatzen. Zena zela, eta horrek izpiritua arintzen zion, nagusiaren eta sindikatuen artean hitzartu likidatze egitarauaren arabera hogeita lau hilabete bazituen lan baten atzemateko. Ez zen presatua. Baina pena larria zeukan bihotzean.

Etxera heldu zen. Sukalde hutsa zeharkatu, hozkailua ireki eta garagardo bat jalgi zuen. Emazteak ikastera abiatzean goizeon pizturik utzi telebistaren aitzinean plantatu zen mando, edaria tutunetik beretik zurrutan. Martina lehen plan sozialaren ondorioz kaleratua izan zen, berrogeita hamar emazte eta adindu herbailez osatu multzo batean. Bi urte zuela, planaren salatzeko lantokian inor ez zen kezkatu: emazteak ziren dudarik gabe, eta sagu-muturrekiko kontramaixuek gelditzen zirenei erraten zieten ahapez, hoberenak baizik ez zituztela atxiki.

Etxarri enpresaren ohorea biderkatzen zuen makina erraldoia erosi zen orduan eta sarrerako

atea edertu, burdinazko hornidura gorriak altxatuz. Jean Marie sindikatuko ordezkaria langileen torpea iratzarrarazten entseatu zen, herots metalikoen tzangaken eta kideen burla lerroen azpitik zintzurra larrutuz:

– Nagusiak erabaki du lantegi honen behin betiko herstea. Borroka gaitezen zerratzea iragartzen eta emazteak lanetik kanporatu dituen plan sozial honen aurka: hurrengoan gure aldia date!

– Hoberenak atxiki ditizkek...

Batek eskuan zetxikan mailua sindikalistari besainka bota zion harroki. Jaurtigailuak ez zuen geroko makurra marrazten zinpurtzen zen sindikalista huts egin. Bere ideia politikoak bezain gorria zen odola isuri zitzaion kopetan behera. Pilotan bikotekide zeukan lagunarengana lehiatu zen Sebas eta, urgentziaz deituriko lantegiko erizaina agertu artean, soinean zeraman atorra urratuz burua oihalez inguratu zion. Deus agitu ez bailitzan, langileak lanari lotu ziren, batzuk isilik eta kaskoa ezkel, besteak kantuz 1995eko funtzionario ustelen grebako *tous ensemble tous* lema xoxo eta debaldea zinominokatuz.

Egia zen *hoberenak atxiki* zituztela, Sebas barne. Emazteak jadanik biderkatua izan zen ekoizpen erritmoa ez zezakeen segi, atelierreko gaineratiko andereek bezalaxe. Ondoko lan-gunean berrogeita hamar urte pasatuak zituzten bost kide lizentziatu ziren, aitzakia berdinak erabiliz. Hegats pausatzeko taldean, ezer egiten ez zuen gazte bilo-harro bat aurtiki zuten; lanera buhaka jiten eta egunean zehar dena arraileria eta zinkurina ari zen, aldizka alfer estakuru, hainbat non Sebasen irudiko hondarrean kanporatzea merezitako gaztigua zitekeen: lana maitatzekoa zen, etxea eta haurrak bezainbat, edo gehiago.

Martinak ordu haietan, eskutik eskura bildu zuen langabetze gutuna Sebasi erakutsi zionean, batetik triste sentitu zen etxearen maileguen ordaintzeko emaztearen hilabeteko sosaren premia gorria zeukatelako, baina bestetik, sekretuki pozten zen *hoberenen* multzoan geratzeko hautatu zutelako. Bihotzaren sakonean iltzatzen zitzaion urguiluaren berri ez zien ez Martinari, are gutxiago lankideei, nehoiz eman. Atelierrera zetorrenean, Jean Marie sindikalista huxtuka

errezibitzen zuten: ez zuen hitzik ahoskatzen ahal.

Jacques kontramaixuak lehen segadako gutunak denen bistan banatu zituen egunean, hasi ziren sindikalistaren zoritxarrak: laneko eskubideak zilegituriko pausara zihoanean, baten batek buruaz gizonaren joatea Jacquesi seinalatzen zion. Nagusi-ttikia orduan haren larderiatzera lehiatzen zen eta kafearen edateko betarik ere ez zeukala, denen aurrean garrasika, lanera haiatzen zuen.

– Hori duka elkartasuna? Hi pausan, lagunek hire lana egiten dutela! Hi bai egiazko partekatzailea!

– Baina Jacques? Zer duzu? Ene pausa-unea da! Ez da posible, pausara heltzen naizenerako beti ene bila etortzen zara. Zer gertatzen da?

– Isil hadi eta lanean planta... Ederra dukek etxea hi bezalako auher batekin!

Kontramaixua gaiztotzen zen. Halaz, lankideen irri estofatuak aditzen zituela, Jacques, bere kaiola bitratura itzultzen zen, espantero. Kafe kikera erdi husturik bertan utzirik, halaber

zegien sindikalistak, buru-gainera zer desmasia oraino ote zitzaion eroriko galdezka.

Sebas ez zen gogoratzen sindikalista lantokian izen propioaz sekula deiturik. Lehen plan soziala baino bi urte aurrerago, jakin zenean CGTko karta zuela, jendetasuna erabat ukatu zitzaion eta sindikalista izenaren eratorri iraintsu ezberdinak garatu eta entzun ziren. Etxarri lantegian ez zuten alabaina horrelako zorri beharrik! Ez horixe! Gorria gainera, ezinezkoa zen. Legearen arabera, nagusiak Jean Marieren urratsak trabatu ez baldin bazituen, lankide zein nagusi-ttikiek egunerokoa infernu bilakarazten ziotela argi zegoen. Pausen historioan nola, hala behin komunetan zakila ikusi zitzaionean: izugarri laburra zuelako zurrumurrua hedatu zen lantegiko hegi batetik bestera, gizonen harrotasuna eta emazteen urrikia haziz.

Anitzentzat horrek esplikatzen zuen sindikalista ez zela ezkondua eta ez zitzaiola neska-lagunik ezagutzen. Baten batek, Jacquesek bultzaturik segur aski, haserre bulta batez *pittilitzon* izengoitiaz bataiatu zuen, eta noski ezizena larruari eratxeki zitzaion, lapatin. Familiarik ez

zeukanez, oporren aldia eztabaidatzen zenean, garai txarrenak tokatzen zitzaizkion: Etxarrira jinez geroztik ez zuen sekula udako bakantzarik eduki, are gutxiago eskola-denboretakorik. Eguberri, urtats eta jaietako Jacquesek derrigorrez laneko aukeratzen zuen, sindikatzea garesti ordainarazi nahiko bailion.

Sebasek Jean Marie elaire baino gehiago zuen, asteburuetan elkarrekin pilotan jostatzen baitziren, edozein herritan antolaturiko txapelketen karietara. Funtsean lankideen gorrotoa jasotzen zuen Jean Marie hura, Bidegorri espartin usina hertsi zenean kanporatua izan eta hango errekonbertsio planaren ondotik Etxarrira etorri zen. Sebasek bere sindikalista bokazioaz eskatzen zionean, erraten zion:

– Bidegorrin ez zian ezer, ez enpresa komiterik ez eta sindikaturik. Denak haizatu gintiztean hegoak errautsa baino errazago. Ez diagu zentimorik ere erdietsi. Edo hain gutxi.

– Kasu egik, Etxarrin nahasmendurik ez hazteko! Ez gaituk sindikatuen alde. Ez zaiguk deus gertatuko. Azken aldian langile makalenak ditiztek baztertu.

– Eta zuek hoberenak nonbaitik ere? Ireki itzak begiak, Sebas. Lantegia osoki herstera zihoazkik! Makalenen ondotik hoberenen ordua jinen duk.

– Bakea emak Jean Marie!

– Bai... Nehor ez duk bere borondatearen aurka defenditzen ahal!

– Defenditzaile beharrik ez diagu. Guhaur salbatuko gaituk. Jacquesek akuilaturik, lankideak hire kontra altxatuak dituk.

– Adiskide baihaut Sebas, hik atxik ezak gogoan Etxarri behin betiko zerratuko dela hemendik hamalau hilabetera. Has hadi beste lan bati pentsatzen...

– Arren, jo pilota!

Sebasek irria zabal eta besainka aurtiki borobilak klaska ozenaz plazako murru arrosa kuskatu zuen, ipar aireak erraztatu gunearen isiltasuna hautsiz.

Artoizko Maianaren eguzalaba zen Martinek langabetu eta ume zaintzarako ofizioa ikasten pasatu zuen ondoko urtea. Etsamina lortu bezain laster, leku bat hitz emana zitzaion kantonamenduko hiriburuan sortzear zegoen haurtzainde-

gian. Martinaren lagun-mina zen Elisek informatika jorratzen zerraikan eta, hirukotea osatzearren, Josyk garbitzaile enpresa batean kausitu zuen hondarrean behin-behineko lana; egunero herritik joan behar zuen berrogeita hamar kilometrotara. Hargatik, etxean muin-kurruska eta senarra Etxarritik itzultzen zela beha egoteari bide aspergarri hura nahiago zuen.

Hiru emazteak juntatzen zirenean, iragana aipatzen zuten: Josyk zioenaz, lantegitik iragatean sufritzen zuen, ez zuelako ulertzen zergatik bere atelierrekoak lizentziatuak izan ziren makalak zirelako estakuruaz, aste zenbait lehenago nagusiaren ohore eta zorionak erdietsi zituztelarik helburuak bete zituztelakoan. Elise eta Martinak sentimendu karats berdina zeukaten: funtsean ongi martxan zen lantegi baten zerratzeko lehen ezpata kolpearen biktimak izan ziren. Bazekiten sindikalistak arrazoi zuela, profeta mehakoil eta gosaioa bailitzan mintzo zen aldi oroz kideek harrikatzen zuten arren.

Zena zela, geroa doiez segurtatua zeukaten beraiek; senarrak Etxarrin ziren oraindik eta irudiz bizimoldea ez zen franko kanbiatzen. Aise ez

zen, baina barne-indarrez eta berritasunari plegatzeko malgutasunez, lanaren atzematen xantza ukan zuten andere hauek. Hainbat kolega depresioaren sare ilunetan gatibu zeudela. Alderantziz, Josy, Martina eta Elisek ez zuten nehondik ere burutzerik ikusten.

Mozkortzear, Sebasek lizentziamendu lehen uhinaren ondorioak zeuzkan gogoan eta bere kanporatze-gutuna eskuan. Sukaldeko mahaiaren gainera bota zuen paper purtzilari begiratu zion. Begiak idortu zituen, alkohol bortitzago baten premia erraietan nabarituz: biblioteka zahar eta muntto itxurako armairuko atea errabiaz ireki eta whiski botila bat erauzi zuen. Edariak eztarria erre bezain laster, Rafaren soak pentsamendua larrantzi zion. Martinaren orga berdinean kanporatua izan zen Rafa. Egia erran alkoholarengatik izugarri gaizki zen gizona lanera zetorrenean: arrunt horditua, ez zekien non eta norekin zegoen, fraketara pixa egiten zuen oharkabean; orduan, lankideak biltzen ziren makinen mehatxutik haren baztertzeko eta motore urrina zerien zaku meta gurintsuetan pausatzen

zuten Rafa, lo egin zezan, sirenak azken orena orroatu artean.

Rafa gaztaroan zen mutiko zintzo, zuzen eta gurbilaz oroitu zen Sebas. Bat-batean egoera okertu zitzaion, diru-ahalez haraindiko etxea eraikiarazi zuenean herriko tokirik garestienean. Garai hartan hasi zen errealitatearen zentzumena galtzen eta itsuski edaten. Lanetik landa, irri partida galantak egin asmoz lankideek jokoz bezain axolagabeziaz, ostatura gonbidatzen zuten; han, Rafa askatzen zen: ez zen inor haren aitzinatze kementsua geldiaraz zezakeenik. Trinkilitrankalaka eta ezker eskuko behatz konkortua kolegaren papoan finkatuz, toteltzen zen.

– Ni banauk... Beste bat hartuko duzue araiz?

Basoen baltsak ez zuen etenik. Ilunak herriko karrikak irensten zituenean Rafa inguma bilakatzen zen. Hastapenean autoz zihoan, baina gidatzeko baimena kendu zioten. Gero oinez zebilen, balantzaka. Jan gabe oheratzen zen, koñak botoilatxoa aldamenean, egunero seietan iratzartzeko. Berehala lotaratzen ez zenean emaztea eta haurrak besoek eman ahala jotzen zituen, bere ahuleziaren hobendunak bailiran. Rafaren

barne deboila areagotu zuen lizentziamenduak: emazteak, adinean pasatuak eta famaz auherrak galera kide zituen oraingoan. Maldan behera ari zen garrazki.

Jakin zen, dena jakiten baitzen herrian, supermerkatuan alkohol ebasten harrapatua izan zela behin, bietan eta anitzetan. Azkenean denda handiko jabeak kereila pausatu zuen. Auzia abenduko bigarren asterako iragarria zen. Umiliatze hori ez zezakeen pati eta kaskezurra zartarazi zuen ihiziko arma kokospetik hustuz. Emazteak zuen Rafa lurrean aurkitu, odol putzuan ihalozka. Hormetan zein tronaduran dilindatu buruhon haragi multzo melenga begiztatu zituenean, goiti egin zuen. Sebas Rafaren ehortzeta laikoetan egon zen, tristura bihotzean. Bizitza zaila zela errepikatzen zuen *hoberenak gintuan* erantsiz auhen batean.

Rafa lurperatu zuten aste hondarrean aipatu zen balizko bigarren plan soziala. Hogeita hamabi ziren partitzera deituak. Sebas boladatik kanpo geratu zen berriz. Ez zuen ulertzen: aldion hoberenek ere eskuratu zuten gutuna. Zergatiari erantzun lehiaz, egoera aztertzen saiatzen

zen: Jean Marie *pittilitzon* sindikalista bagoian zegoen, ahoa sobera irekitzen zuelako, normal zitekeen agian, baina Gratien eta Josep, atelierreko lagunak zergatik? Lan erritmo handia zuten eta asteburuetan edo igandeetan beharrean, nagusiak eskatzean, beti bai ihardesten zioten: egunak eta gauak lantokian pasatuko zituzten Etxarri jaunari obeditzeko. Alta alfer eta inutilak bezain axolagabeki haizatuak ziren. Sebasek ez zuen konprenitzen.

Gutunak banatu ziren ostiral hartan adiskideen begitarteak hausten nabaritu zituen. Zerrendetan ez izateaz are gehiago damutu zen Sebas. Etxarrik orduan atalaia metaliko batera hupaturik bere segida eroanen zukeen Delbard jauna aurkeztu zuen:

– Erretretara noala badakizue. Hara egina da. Delbard jaunak ez zituen Etxarrin geratzen ziren laurogeita hamabi langileak oro hartzen ahal. Bigarren plan sozial hau lantokiaren iraupenaren baldintza duzue. Badakit gogorra dela, baina beste aukerarik ez da.

– Haii... Beti *beste aukerarik ez dela* diozue, sakelak bete, diru publikoa zurrutatu eta ospa egin aitzin.

Martxel izeneko gazte bat, taldetik bereiziz, oihuka ari zen. Jean Mariek lizentziamendu gutuna ingurura erakutsi eta alde egin zuen. Sebas gogoratu zen, orduan burua apalik gelditu zela, adiskide zirelarik alta, sindikalista lankideen ausiki zital eta gogorkeriei buru egiten saiatzen zenean. Ez zuen gaizki ikusia izan nahi. Alderantziz, zaunkalariei pozoia erantsiz, trufa trufaren gainera aurtiki zuen, herraren sua atitxatuz.

Hirurogei langile gelditzen ziren Etxarrin nagusi berriaren zuzendaritzapean. Lizentziatuak arrunt irten ziren lantokitik, arropak eta tresna pertsonalak bertan abandonatuz. Geratu zirenek kanporatuen herroka urruntzen segitu zuten, ilun. Delbardek mailukatzen zien lantegiaren geroa segurtatua zela, sakrifizioak egitekoa zirela, *hoberenak* atxiki zituztela aditu zuten oraino, baina ez zen egia ezen Josep eta Gratien, Sebas eta atelierreko edozein baino hobeak zirelako laneko jakitate eta abiadura mailan; arazo bat edo beste agertzen zenean beti imajinazioa martxan

jartzen zuten agudo, aterabide originalak asmatzen zituzten. Martxelek karrankaz jarraitu zuen:

– Ez ditugu egitera utzi behar. Plan sozialez plan sozial, isilka-misilka, lantegia hertsiko digute. Zer agituko da hamar baizik ez garenean izango?

– Gre-ba! Gre-ba! Gre-ba!

Gizon eta emazte apur ahotsez moldatu langile koruak ez ohizko lema neurkatzen zuen. Hitz hori laido eta alfer-zigilu zitzaien garaian mila irri egina zuten eta hor, nekez baina nekez beste elerik ez zeukaten ezpainetan:

– Goazen lehen uhinean eta atzo kanporatuen bila! –proposatu zuen Jeremyk, gehitzen zuela–: Bitartean zuek Delbard bahi ezazue.

Talde bat lantokitik atera zen. Ohikoan hain zaratatsuak ziren atelierretan hormatzea hedatu zen. Ez zen mailu kolperik ez eta langile karkazailik aditzen. Uda izan balitz segur aski, ulu baten hegalka antzemanen zen. Barnean geratutakoek Delbard setiatu zuten, gaua hor elkarrekin lantegiaren eremu hotzean iragatera bortxatuz.

Nagusi berriak erran zien:

– Baina? Emazte eta haurrak baditut nik etxean zain! Eta gainera ez duzue ene gatibatzeko eskubiderik. Hau ez da horrela pasatuko, diotsuet: jendarmeak deituko ditut.

– Nola?

Lanean ebaki eskumuturra erakutsiz, emazte moko fin bat erasiaz zinpurtu zen:

– Atxikitzen zaitugu, eta gure baimenik gabe ez duzu urrats bakar bat ere eginen!

Beste batek hanpurus nagusia inguratu zuen, ondokoak xanpatzen ziola belarrietara:

– Eta guk ez dugu familiarik ala? Zer uste duzu plazerez zaitugula tinkatzen?

– Ez dut horrelakorik nehoiz pentsatu...

Delbard saltsa irakiten ari zitzaiola ohartu zen. Langileek osatzen zuten borobilaren erdian kuxkurtu zen. Handik hara ez zuen ele izpirik ahoskatu. Arrain-zapoa zirudien.

Aurreko bi lizentziamendu boladetan kanporatu langileak hurbildu ziren Etxarrira. Bazetozen gauerako edari eta janariekin. Joao gazteak musika entzuteko tresna ekarri zuen: *libertatearen zapi gorriak* kantak, buklean, lantegi dorpea kulunkatzen zuen, bakarrek ahairea ahots dudako-

rrez laguntzen zutela. Altzairuen maldan, Sebas gogoetatsu zegoen: ez zuen sekula Etxarrin horrelako mugimendurik ikusi, ordura arte langileak plantan eta sanoki lanean ari izanak ziren, beharrean gune industrialeko zapatagintzetan hilortzen ziren grebez burlatuz. Edo haiek hautsiz.

Ez zuten denak batera beren eskubideen defendatzeko kemenik eduki, eskubiderik ez zuten alabaina eta hilabete-saria eskuratzen zuteno pozik bizi ziren: euskaldunentzat ez zen nagusiei asaldatzea *pollit*. Lanaren ukaitea eder zitzaien. Baina, arratsalde hartan, Etxarriko ehun eta berrogei kideak bilduak zirela, ez zen bozkario arina aipagai, baizik eta borroka. Zortziak aldera kantonamenduko FOko ordezkaria fabrika atarian azaldu zen:

– Adiskideak! Zertan ari zarete zuen soldatak galtzeko arriskuan, greba apailatzen eta nagusia bahitzen? Ez dakizue ilegalitatean sartzen ari zaretela?

– Nor haiz hi guri hola mintzatzeko? Ageri duk ez duala lanaren galtzeko lanjerrik! Isil hadi asto handi!

– Adiskideak... bietan pentsa ezazue ezin konponduzkoa obratu baino lehen. Lasai zaitezte eta Delbard libra ezazue. Gero negoziatuko dugu.

– Zer negoziatuko dugu?

Mentsa bezala berotua zen Sebas zintzurretik jaukitzen zitzaion karrankaz harritu zen:

– Ez dakik ala lantegia zerratzeko mehatxuan izanez, deus ez dela negoziatzekorik...

Burdin zatitxo karratua bota zion begitartera. Halaber, Sebasen besoen keinuak zinominokatuz, besteak animatu ziren eta zehatzezinezko jaurtigailu anitzen helburu bilakatzen zela konturatzearekin sindikatu hartako ordezkariak ihes egin zuen. Boz sakoneko batek orduan *internazionala* hasi eta lehen kopla errepikatu zuten, lalalaka bukatzeko. Noiz eta nola ikasia zuten abesti hori? Eskolan beharbada? Ez zekiten, baina argi zen bihotzak gozatzen zizkiela.

Jean Marie agertu zen gauerdi aldera. Makur hauek aspalditik iragarri zituen. Behiala gorrotatu profeta baten maneran errezibitu zuten, hoztasunez eta lotsaz. Abantxu ehun kilo zeuzkan adineko Mattu izeneko andere pulposak *Marsei-*

*llesa*ri ekin zion. Ezbaditzera utzi zuten murmuru apal batez sustengatuz. Isildu zenean, Jean Marie altzairuzko zutabera igo eta erran zuen:

– Bazterrak inarrosten hasi behar dugu. Gaua lantegia setiatzen pasatu eta bihar joanen gara Herriko Etxera auzapezarekin solastatzera, honek prefetari eta eskualdeko politika arduradunei gutunez jakinaraz dezan Etxarrik pairatzen duen egoera larria.

– Nehor ez duk higituko...

Josep zen, arras etsia. Jean Mariek kasurik egin gabe, aitzina jarraitu zuen:

– Kantonamenduko hauteskundeen urtea izanki, hortaz balia gaitezen!

– Bai, hala egin dezagun!

Ahots anonimoa burrunba bihurtu zen.

– Eta bihar lanera itzultzen gara ala ez?

Mattuk, alimaleko bularrak esku ahurrez haztatu zituen, gorputz itzuli-mitzuli zabala obratzen zuen oroz.

Jean Marieri irria eskapatu zitzaion:

– Ez ote dugu grebara bozkatu? Lantegiko sarrerak greba-zutoinez blokatuko eta nagusia gurekin atxikiko dugu.

– Biba hi...

Gehiengoak Jean Marieren proposamena txalotu zuten. Ogitartekoak eskutik eskura lerratu ziren, botilak berdin eta Mattuk katilua luzatzen zion bakoitzari kafe freskoa zerbitzatu zien. Erran gabe zihoan Delbardek bere janari zatia erdietsi zuela, baina ez zioten aulkitik altxatzea den-mendrenik ere zilegitu.

Goizaldera, greba ez egitea erabaki zuten langileek bidea zulatu zuten sarrerako giza-zutoinen eta fabrikan berean loak hartzeko hedatu ziren zaku eta matalaza arinen artetik. Seietako, argitasun zurbailean, Sebasek begiak doi-doia ireki zituen eta harritu zen, bezperan grebaren alde hain sutsuki altxatu zen Katixa begimendu zuenean: lanera zihoazenen lerroetan zegoen, kontramaixuaren aldamenean, urratsa arin, ponpox baina burua apal. Mattin, Delbard nagusi berriaren beso-mutilak, ihalozka eta itxeska ari ziren grebalariak hitzez trinkotu zituen.

– Mugimendua bertan behera uzten baldin baduzue, ez zaizue ezer gertatuko!

– Etxarri lantegia likidatzeko xedea duzue: zer inporta? Egoera horrekin bat ez gatozela dugu erakutsi nahi.

Jean Marie bulkatuz, beste sindikatu bateko kideak hitz egin zuen goraki, sindikatuen arteko influentzia gatazkak langile borroken minean ziharduela seinale, gehienetan langileen beraien kalterako.

– Banekien atzodanik, nor izango zen grebalari eta herriko komisaldegian zuen aurkako auzibidea urratu dut, Delbard bahitzea eta langileen lanerako eskubidea trabatzeagatik!

– Salatari-malatari...

Lurrean borobilean jarriek burdin-makilez zola kolpekatu zuten, erritmoan. Katixa zuten begiko. Zarata garatu zen. Katixa bere atelierreko postura ihesi joan zen.

– Uste duzue ala horrela pasatuko dela? Eskualdeko nagusiekin bat deliberatu dugu lanerako eskubidearen sustenguzko manifestaldi baten antolatzea...

Mattin, eskuak satisfoski torratuz, grebalarietarik aldendu zen.

Sebasek ez zuen elerik inorekin trukatu goiz hartan.

Oraingoan, lizentziamendu gutuna erdietsirik, isiltasun astun haren edukiaz arranguratzen zen, sofaren gainean, telebistari beha zegoela, garagardoak bata bestearen ondotik zurrutatzen, Martinaren aiduru. Astelehenean, lantegi zerratuaren aitzinetik pasatzekoa zen SOR enpresak kudeatzen zuen erraklasamendu zelulara joateko: hogeita hamar urte Etxarrin ari izan eta adina zuena lanez aldatzeko? Egia erran bi udaberriz lan-bila egoeran zegokeen, baina Jean Marie eta gainerako sindikatuetako kideek aztaparka eta temaz lortu akordioa ez zitzaion aplikatuko: ez zuen berrogeita hiru urteetan erretreta hartzen ahalko.

Lehen aldikoz bere bizian anitzez zaharrago izatea desiratzen zuen, eta atzera begira, susmaturiko desira hark jasaten zuen isiltasun zama astuna zitzikatzen ziokeen. Bat-batean holtzarteko leizea barreiatzen zitzaion oinetan, haustura beldurgarri: indargabe sentitzen zen. Gogoeta zurrunbilo berdinean zitezkeen, grebalariak bezainbat uholdeak eramango ez zituela uste eta

lanera zihoazen kideak. Sinesten zuten, ontzia urperatzen zenean salbatzearren aski zela kapitainari leial eta hurbil agertzea, harekin tratu egitea edo haren sustatzea langileen elkartasunaren oinarria lardaskatuz.

Plan soziala ezberdinen garaian ahalezkoa zena, Etxarri herstera zihoala ezinezkoa zen: galernaren uhin gosetu eta basatiak den-denak irentsiko zituen. Kolpez kolpe zein istripu arinez arin, beren eskumutur eta makinek moztu behatz bihurrituak kontenplatzean, noizbait langile izan zirela oroituko bide ziren. Bigarren plan sozialeko gertakari batek harrotu zuen Sebasen kasko zokoa: gaurkoan depresioak joa, kantonamenduko erietxe batean mutxitzen zen Roger zeukan ardatz. Hogeita hamabi lizentziamendu kontatu ziren unean gizona bere gutuna ukaitean kexatu zen, eskupean zeuzkan tresna eta ekaiak birindika aurtikiz:

– Nahi dut nagusiarekin hitz egin! Bestela hemen guztia errautsiko dut!

– Hago Roger, ez haiz bakarra. Kalma hadi, hitzordua finkatuko diagu Etxarri jaunarekin.

FOko ordezkari jabal zen orduan.

– Zer hitzordu eta zer deabru, ni orain baniak...

Labana zorrotza ahurrean tinkatu zuen, eskaileretan gora igo zen, nagusia eta bi sekretariak plastikozko berinaren atzetik beha zeuzkala. Itzuli zenean, alimaleko pizti-irria zeraman:

– Borrokatu beharko duzue... Eta ez date aise.

– Eta hiretako zer? –galdegin zion Sebasek.

– Nik? Ene larrua salbatu diat. Etxerik, emazterik eta haurrik ez duen Alberto kanporatuko ditek ene ordez. Gainera ez duk hemengotarra. Gaitzerdi ez?

Oka egiteko gutiziak sabela iraitzi zion Rogerren elasturiak. Eiki *larrua salbatu* zuen, baina ez luzerako, ezen handik sei hilabetera, Baionako auzitegiak Etxarri legezko likidazio bidean jarri zuen. Hargatik, grebak iraun zuen azken bost asteetan izugarriko barne-biolentziaz ekin zuen Rogerrek. Hark zion Etxarri lantegiaren ondoko aterpeari su eman eta, lanerako eskubidearen aldeko manifestaldian Mattinen saihetsean agertu zen arren, eta suprefeturaren parean langileak bildu zirenean, bera zen polizien aurka edo-

zer autikitzeko trebeena. Errepublikaren Ordezkari Penatua agertu zenean, punpa batez kasketa ebatsi zion eta jendaldeari bota boomerang bat bailitzan. Bestalde, oihukalarietan ez zen besterik aditzen, kideak behin trahitzea bere buruari barkatzen ez balio bezala.

Ororen burukideak, ekin-moldeari zegokionez, hiru taldeetan banatzen zirela ondorioztatu zuen Sebasek, arras hordi orain: nagusien erranak itsu eta ardi eran segitzen zituztenak, gezur bidean ere, hala nola Roger; Etxarri zerratuko zela segur zirenak eta aspalditik beren aldetik lan berri bat bilatu eta atzeman zuten apurrak; eta azkenik, Jean Marie eta sindikalisten kasuan bezala, jakin arren tematzeak ez zuela potretik, borrokatzen zirenak. Nahiz eta hondar orduraino Jean Marieren itzalean jardun zuen, Sebas ez zen talde horietarik bihi bateko partaide sentitzen, are gutxiago lizentziamendu gutuna eskuratu zuenean, iruditu zitzaiolako orduan lana ukatu zitzaionean bera zela, gorputz eta arima hutsean amiltzen.

Etxarri hertsi aitzineko bi asteetan ahoa bete hortz ikusi zituen ardi trapatuak asaldatzen, bor-

tizki, edozein ekintzetan aurreko herroketan, besteak baino indartsuago aldarrika:

– Lantegia erre dezagun! Nagusiak engainatu gaitu: aspalditik bazekien hau zerratuko zela!

– Jean Mariek ere gauza bera errana zauzuen eta hura ez duzue entzun! Arren zatozte gurekin plan sozial on baten negoziatzera!

Sindikalisten saldoko kideak lasaitasuna eskuratzen saiatzen ziren.

– Gutariko nehor ez dadila ASSEDICera izenpetzera joan...

Atelierreko lanabesak puskatzera zihoazen gero.

Desmasiak hasi ziren zehazki, hauteskunde kanpainaren karietara UMPko hautagaia agertu zen bezperan. Hersteaz beste ilkibiderik ez zela bazekien, alta Daniel Lavie kandidatuak Delbard nagusiaren hitzak errepikatu zituen, bake lehiaz:

– Kontseilari Orokor izanen naizeno Etxarriko ateak zabalik egongo dira! Segurtatzen dizuet. Bihar bertan prefetari idatziko diot lantegia zutik atxikitzeko erreserba fondoko dirua desbloka dezan. Zuetariko zenbaitek nahi baldin badute enekin gutuna izkiriatu ongi etorriak dirateke...

Txaloka bukatu zuen solasa.

– Biba hi! Hori! Hori!

– Zerratzeko erabakia aspaldiko duk...

Hibabetea eskas CGTko kide bilakaturiko Rolandek ordularia errealitatera bideratu zuen:

– Ez dira gibelatuko! Hobe genuke prefeturako berezilariekin eta nagusien ordezkariekin plan sozial egoki eta ona hitzartzea hemengo langileen zerbitzuko.

– Nork aipatzen du likidatzea?

Faltsuki harritu begitartea luzatu zuen Lavie jaunak:

– Lantegi hau salbatzen ahal dugu

Esku zarta ugari jasoaz berresten zerraikan. Gezurraren gerizpeko aburu-manipulazioa susmatuz, Jean Marie fabrikatik jalgi zen astiro, Roland, Sebas, Roger gorritua eta langile batzuk gibeletik zeuzkala. Etxarri aldameneko aparkalekuan montatua zuten barrikada erraldoiaren gainean plantatu ziren, frantses eta euskaldun banderak airean, ustez ahantzia zuten *Internazionalaren* bigarren kopla orroatzen. Handik laster Baionako tribunalak, Lavie kontseilariaren ele

txukun eta leunak aditu ez bailituan, likidatzaile judizial bat izendatu zuen.

Etxarrin gelditzen ziren hogeita hamabi langileentzat, Jean Marie eta Rolandi esker, nagusi zein botere publikoko ordezkariek zinez ona eta eraginkorra zen plan soziala marraztu zuten: adinduenek, aitzin-erretretaz gozatuz, erretreta berrogeita hamahiru urtetan har zezaketen; besteek bi urte bazituzten lan baten harrapatzeko, SOR erreklasamendu zelulak formatzen eta bilatzen laguntzen zituela. Aholkuak ematen zituzten eta langile hauek ez ziren aurreko lizentziamendu bi uhinak bezain abandonatuak sentitu.

Langabeziak desertu ohatzen zuen eskualdean berenber utziak izan ziren, hala nola Martina Sebasen emaztea eta bere adiskide taldea, langabezi-saria hunkitzeko arauak gogortu zirela. Baina emazteek xantza akuilatu zuten eta ofizio berrietara egokitu ziren. Sebasek beste hainbeste egiteko ahalmena ukanen zuena? Rafak bere burua garbitu zuen. Roger ospitalean zegoen. Lankide frankok jadanik, gorputzetan minbiziaren ausikiak nabaritzen zituzten. Suzko egunen akidura erraldoiak udalatzen zuen Sebasen

gogoa, telebistaren aurrean lelo-hordi *Les feux de l'amour* telesaila interesik gabe miratzen zuela:

– Hoberenak gintuan hastapenean, atzeratuak ginela erraten zitean gero nagusiaren erabakiak onartzen ez genituelako, eta gaur lana galdurik bizia ere galdu diagu.

–11–

Zazpiak. Agata doi-doia iratzartu zen. Telefonoak jo zuen. Nor zegoen, bada, hain berantetsia? Jauzi borobil batez ohetik erori zen, oin hutsak lur hotzean pausatzen zituela. Zolarekiko ukimenak ikara hazi zion gorputz osoan. Zanpazanpa zebilen etxean zehar, urrutizkinaren txirrina oihar:

– Bai, bai, heldu naizela!

Makina beltzaren besagia altxatu bezain laster Louiseren ahotsa antzeman zuen:

– Goiztiarra zara? Zer duzu?

– Egun on maitea. Ez dukezu engoitik ahantzi datorren igandean Arbidera autoz laguntzen nauzula?

– Ez. Ez dut ahanztekoa ere. Gorriz idatzia dut ene agendan, badezpada. Zortzietan abiatzen gara beraz?

– Nahi duzun tenorean, eni berdin zait; gauez, ez dut lorik egiten. Errazu, Agata, postara behar nuke arratsalde honetan: jinen zara enekin?

– Lanean nizateke, baina bihar bai, zergatik ez.

– Ongi, badakizu gero whiski ttilika bat hurrupatuko dugu gure ohiko ostatuan.

– Baiki. Deituko zaitut bazkalondoan.

– Hitza hitz –xuxurlatu zuen Louisek adio eta eskerrik gabe, telefonoa pausatzen zuela.

Laster, nehor ez zelako bip-bip seinaleek Agataren belarria oihartzun metalikoz bete zuten.

Irratia martxan jarri zuen. Mintzo zela, lursagar bat martzilikatzen ari zela zirudien berriketariaren ahots gordinak, munduko azken berriak herrokatzen zituen: Angeluko abere hiltegi industriala suaz erre zen gauean, Poliziako ikerlarien arabera istripuzko gertakaria zitekeen, baina ez zuten pista bakar bat baztertzen, Iraken oraino lau atentatu pairatu zituen amerikar interbentzio armadak, Frantzia iparraldean bi haur kiskaldu ziren eta tokiko informazio sailean, Batera plataformak beti Sarkozy ministroaren bisitaren aiduru zegoela bere ekintzak desobedentzia zibilaren ildoan plantatzea deliberatu zuen biltzar nagusi batean, Miskandi lantegia sekula-

koz hertsiko zen arra-hartzailerik ez baitzen, eta bukatzeko, kiroletan, Aviron Bayonnais eta Mauleko SAM ospetsuko rugbi talde biek atzo galtzekoak ez ziren partidak irabazi zituzten kanpoan: bakoitza bere multzoaren buru zegoen. Politika, soziala eta kirola, lekuan lekukoa eta nazioartekoa.

Aldaketarik ez: mundua bere zurrungan! Hargatik aurkezleak ez zuen Agatak lurrean harrapaturiko ETAren azken agiria komentatu: borroka armatuari buruzko hausnarketa zeritzonean irakurtzen zen *Euskadi Ta Askatasunak ez du(ela) inoiz inoren aurka egiten «ezberdin pentsatzeagatik»* baizik eta *Herriaren eskubide ukapenaren arduradun nagusi eta zanpaketa diseinatu, sustatu eta bermatu* dutenen kontra! Agiria bururatzean betiko leloa jazartzen zen: *borroka armatuak eskatzen duen konpromisoak borroka molde hau zapalkuntzaren aurkako erresistentzia goreneko agerpen bihurtzen du*. Hogeita hamar urte bazen bizia Euskadirentzat emateraino borrokatzen ez ziren euskaldunak apalesten zirela, sekula ez zen aski, nehoiz ez zen asko, hil behar zen bizitzeko, apurrak ahu-

rretan zenbatzen ziren eta *joan daitezela deabruetan hara* marmaratuz, bezperan karrikan eskuratu papera purtzilikatu zuen Agatak zikin-ontzira botatzeko.

Dutxara joan aitzin Agatak irratia eho eta KD irakurgailua piztu zuen, ilunak iluna ausikari, Michel Portalen *Minneapolis* albumeko jazz ahaireak hegaldaraziz. Louiseren deia gogoan zeukan halaber, istant batez *Solitude* zatiaren lehen notak aditu zirela. Oroitzen zen nolako haserrealdia jasaten zuen Agatak, jadanik hirurogeita hamar urteak alegeraki gaindituak zituen Louise andere xaharra, Luixa bihurtzen zuenean.

– Zenbatetan erran behar dizut, ni Louise naizela.

– Bai. Barkatu.

– Kasu egizu otoi.

– Eginen dut.

Ondorioz Agataren ezpainetarik isurtzen ziren euskarazko hitzen erdian, zutoin altxatzen zen erdarazko Louise enfatiko hura. Louiserentzat laidoa zen Luixa; izena ihes zihoakiola iruditzen zitzaion, baina gehienetan kontuz ibiltzen zen neska, anderea hain baitzen minbera.

Agatak izenak pentsagai zituen; alabaina, lankide bat bazuen Thérèse deitua izatea eskatzen zuena atsolutoki, gehienei eskapatzen zitzaion Tehexaren ordez. Orduan, soakoan belduurra eta lotsa irakurtzen zitzaion, bere jatorria, nekazari eta jende xehe jatorria, hain zuzen, ezabatu nahi bailuan. Larru-zulo sakonetarik iraizten zen hizkuntzaren, lurraldearen eta etorri sozialaren gutxiestea. Besterik ez jakin eta erdara, gazta mozteko gai ez litzatekeen labana herdoildu soinuaz erabili arren, Tehexak lankide gazteagoak beren artean euskaraz aditzean, arraroa zen alaina, haien ingurumenarekiko errespetu falta handia salatzen zuen goraki, aztal puntutxak zoladura zementatuan klaskaraziz.

Agata denentzat Agata baizik ez zen, ona, isila, soila eta isiltasunean arrazoilaria. Makurrez lagunak Luixa edo Tehexa deitzean, Agatak imajinatzen zuen nekeziaz troxatu haurtzaro triste eta hitsa jazartzen zitzaiela, bestela izen batek ez zuelako horrelako erranahi ezkorrik. Beharbada, eskolako lehen egunetik haste, errientsa larderiatsuak Louise edo Thérèse izendatu zitue-

nean jende sentitu ziren. Biak funtsean hainbat urtez Euskal Herritik kanpo bizitu ziren, boterea, errespetua eta ohorea oparitzen zieten beren nortasun berria baino ez baitzen onartzen.

Louise atzeman zuen Baionako Zelai liburudenda orain hertsian Greziara abiatzeko gida bat erosi nahian zebilela. Milaren artean ez zekien zein hauta. Gida praktiko sinplea ala argazkiz ederreztatua hartuko zuen kalkulatzen zihoala emazte batek kuskatu zuen. Inguratu zen neska:

– Barkatu.

– Ez da zerik. Hor zinena?

– Bada, hor naiz...

Agatak jada ikusezin bilakatua zelako bere irudipen sekretua gordean atxiki zuen, lañoki ihardetsiz. Alabaina, karrikan eta dendetan, ezer, itzal zehargi edo paper uherra bailitzan jotzen zuten jendeek. Segitu zuen:

– Liburu anitz bada hemen eta ez dakit zein aukera.

– Bidaiaz joan nahi duzu? –galdatu zion andere adinduak.

– Bai, datorren udan. Greziara.

– Ni ere joan nindaike, baina ez naiz atrebitzen. Ez da gozo bakarrik bizitzea...

– Badakit.

Ele-hustasuna hedatu zen bien artean. Segur aski bataren eta bestearen zintzurretik antsiaren borobilak hantzen suma zitezkeen. Emazteak mututasuna hautsi zuen:

– Louise naiz. Arbiden sortua.

– Baia? Ni Otsabidekoa nuzu.

– Auzo gara beraz?

Ordaintzera lehiatu ziren. Jean D'Ormessonen azken nobela zeraman besapean eta Agatak *routard* gidaren edizio egokitua. Louisek kanpoan, Agatak zeraman liburutegiko poltsaren izkina zurian bere telefono zenbakia idatzi zion. Jarraitu zuen:

– Beharbada tea edatera gonbidatzen ahal zaitut? Denbora baduzu?

– Bai.

– Arren, goazen Patxienera...

Begi ninikak bozkarioz hanpatzen zitzaizkion. Louise emazte mehe eta txikia zen. Zaintsua. Elekaria. Patxienera zihoazela, bakardadearen oinarriez galdezka hasi zen Agata. Bi urte zaha-

rreko kezkak ez zion kaskoa libre uzten eta galdegaia jaukitzen zitzaion, Louiserekin tea hurrupatzen edo whiskia zurrutatzen zuen oroz: bakardadea ez zen beti min eta bakarturiko jendeak jende ziren oraino, ez uste komunak zioen eran eriak edo arazodunak. Agatak ordea ez zizkion emazteari bere arrangurak azaltzen, laguntzea eskatzen zion arren Louisek berak bizitzarekiko xehetasunak ez baitzituen aise askatzen.

– Frantsesa erakasten ibili naiz, eskola libroetan.

– Eta gaurkoan erretretan zara menturaz...

– Aspertzen naiz. Astean bietan, gazte edo helduei kurtso partikularrak ematen dizkiet.

– Eder da zuk egiten duzun eran pentsamendua harrotzen, lantzen eta inarrosten segitzea...

Agataren ikusmoldea artekatzen zen noiztenka solasaldiaren mugetan, neuronak bihurdikatzen zizkion galderaren asaltoa ekiditen saiatzen zela:

– Baina zertarako zaude bakarrik?

Eskatzen ez zena.

Agatak bazekien zergatik bakarrik zegoen. Laster ezkonduko zitzaion Jessica ahizpa ez be-

zala, gorputz eta aurpegieraz arras itsusia zen. Zangoz laburra. Lodia. Bularralderik ez eta ipurdi sobera zuen. Amodioa harekin egin eta hainbat gizonek azpimarratu zioten argi eta ankerki bere itsustasuna. Alabaina eta ondikotz sedukzio ahalmena ez zuela altxor eransten zuen negarra begian. Irriz lehertzen zen batzuetan! Iruditzen zitzaion hobeko zuela sortzean berean hil izan balitz, anaia hilorteginaren pare. Nehork ez zion maitasunik aitortu. Ez etxekoek, ez amanteek, are gutxiago laneko kolegek. Baztertua sentitzen zen, eta leku guztietarik ebaslearen plantan partitzen zen. Gau batentzat balio zuen, baina ez bizi osorako. Polita ez izateaz gain, herabea zen: ez zuen deus erraten. Hargatik, jende arrunt bezain zoriontsuek bezala pentsatu, bizi, ekin, etxea eta familia eraiki nahiko zuen. Baina ezin. Madarikatua zen.

Agataren ikerketatik landa argi zen ez zela itsustasuna Louiseren bakardadearen arrazoia. Alderantziz. Gaztetan ponpoxa eta arina izana baitzen segur, urteek larruan zimur ugari udalatu zizkioten arren: *Zerengatik ziren jendeak hain*

bakar eskatzen zuen Agatak karrikatik ibiltzen zenean.

Garbitzen ez ziren eskaleak, zikin eta urrinez likits, harrapatzen zituen. Puskila nahasien gainean kuxkur zeuden, lur hotzean pausatutako musika partizioak alegia irakurriz, flauta edo gitarra jotzen. Kastela adineko herritarra hasi berria zen amoinakan. Usain txarra zuen, goraki hizketan zebilen, garagardo zein ardo botilak eskuan. Eguberrirako argiztatu denden espaloietan esertzen ziren, zakurrak ferekatuz, euro bat otoika. Neskak, noiztenka euroa alkoholez gogortu txapelaren barnera erortzera uzten zuen.

Agataren beste itzal barkaezina onezia zen. Mugarik gabekoa. Denborarekin eta Louiseren oharrak zirela kausaz, bere tirria xoxoaz ahalketzera heldua zen: onezia, barne-ahultasun eta norberarekiko errespetu falta larriaren marka zen, lehiakor, handi eta aberats garatzekoa zen gizarte gatazkatsu honetan. Louise ez zen onetarik: ez zuen nehoiz ez zentima bat doan emanen. Ez zen etxekalte ari izan, ez eta ariko.

– Sobera ona zara Agata.

– Eta zer?

– Aski du lan egitea horrek.

– Ez da lanik.

– Ez du laneko gogorik.

Bazterrak larrutzen zituen irri sarkastiko metaliko bat libratu zuen. Agatak orduan bazekien melenga bat baino ez zela. Gisakoa edo bihotz onekoa zela erraten ziotenean, zoriontsu jartzeko partez, tristatzen zen, iluntzen, berriro jendetasun normalaren duintasunerako maila huts egin bailuan. Ez zuena Agatak sekula ulertuko, eta hori zion Louisek mailukatzen, mundua ez zela bakezko laino, baizik eta borrokak, jeloskeriak bereziki, eta nahikeriak zizelkatu jendeen arteko guda etengabea? Onezia sendatu beharreko eritasun nagusia zen. Agatak gaiztoa izan nahiko zuen batzuetan, ausartu, laido egileei bortizki ihardetsi, bere burua defendatu zuzengabe ere, inori arrazoirik ez eman, bizi hots!

Lanera zihoanean Louise so eta agurrik gabe ondotik pasatzen zitzaion. Herra kolkoan sumendi pizten nabaritzen zuen, emaztearen zerbitzurako zegoela konturatzen zenean. Baina Pannecau zubitik iragatean, goizaldeko ibai azaleko brumak ez zirela oraino barreiatuak, haurtzaroan

hor izebarekin barazkiak saltzen nola egoten zen oroitzean amiñi bat lasaitzen zitzaion gogoa. Hedoi zehargien artetik antzinako jendakien siluetak jardunean itxuratzen zituen eta ukitua zen. Ilunpe trinkoen orduetan, lauretan jaikitzen ziren eta gosaldu gabe, hegiak agerian zeuzkan kamioira igotzen. Garraiogailuaren atzealdean ttottotzen ziren haurrak tomate, ilar leka, porru eta lur-sagar kaxen erdian, haiek ere saltzekoak bailiran. Ikaragarri hotz zen. Euria jausi ahala. Baionako Bar du Marché delakoan txokolatesne beroa hurrupatzen zuten, kruasanekin, salgaien gibelean zubira plantatzera joan aurretik. Kruasanak zer gerta ere zubitik uretara botatzen zituzten: haur salbai haiek ez zuten sekula horrelakorik jan.

Zenbait mende geroago lanerako argi-urratze uherretan aspaldian Otsabidetik partitu herritarren bat ezagutzen zuen. Solasa ehuten zuten:

– Ez ote zara zeraneko zera?

– Bai, Maianaren alaba gehiena.

– Zera beraz... Eta zertan duzue aita?

– Osagarri gorabehera zenbaitekin, baina ontsa.

– Badakizu harekin nintzela eskolan! Hura zen abila! Zertifikata airez aire eraman zuen! Zeranean denak izugarri abilak ziren... Hala zarete zuek ere?

– Ahal duguna egiten dugu...

Jadanik zerako zera izendatzen zuen herkideari umilki ihardesten zion, presa zeukala gehituz. Zera *goraintziak etxera*-ka ari zitzaion. Antzinako itzal eta ingumen ordez, isiltasuna hedatzen zen gero zubi gain konkorrean.

Neu eta *ni* haren arteko liskarrean Agata ez zen inoiz garaile. Berrogei urte berrikitan beteagatik, jendartearen misterioa ez zezakeen urra. Bakardadearen arrazoiak bilatzeari ekiten zion tematsu eta Pannecau zubiko uherrak horrekin lotura zehatz bat bazuela susmatzen zuen. Louise halaber mututasun katetua zen, salbu Agataren premia zeukanean. Hitz egiteko. Edo zerbitzatua izateko ordu erdi baino gehiago aiduru egon behar zen postara zuzentzeko adibidez. Han, herroka beltzean zegoenean, nehork ez ulertzeko maneran, jendea eta langile funtziona-

rio auher haiek kritikatzen zituen euskaraz. Ageri zen alta ez zutela aise burutzerik egiten, indarrak biderkatu arren. Hargatik Louise pika bezain elekari zebilen. Bakardadearen labanak mintzairaren pleguak zauritzen zizkion, nabarmenago demagun ilargi-bete bezperetan: ingurukoak Louise erratera derrigortzen zituen, baina emaztea Arbideko euskara laxoan mintzo zen, solasak erdarazko hitzez perlatuz.

Hiruzpalau hamarkada Paris aldeko lizeo pribatuetan irakasle higatu arren, etxeko hitza piztia kontrolagaitzaren pare eskapatzen zitzaion, eta bere elasturiaz damutzen zen, zikinkeria, bekatua, medikuntzak berak senda ez zezakeen gaixotasun fisiologikoa bailitzan. Bat-batean zerabilen adiztegiaz ohartu eta publikoa lekukotzat hartuz, erdarara pasatzen zen, euskaraz erranak sakonki itzuliz. Agatak herrikoa baliatzen zuenean, Louise asaldatzen zitzaion:

– Kasu egizu euskaraz ari zarenean, edo petxero edo hiltzailetzat joko zaituzte.

– Ene mintzaira da. Eta dakidanez ez dut oraino nehor hil.

Agatak apalki arrapostu egiten zion, Louisek jasan zezakeen Arbideko euskalki tinkoa ahalik hurbilena marmaratzen saiatuz. Andere xaharrak ez zeukan euskara komunikatzeko, baina euskaldun frankoren moduan, ohiko komunikazio sareetarik baztertzeko, nork bere eleen zurunbiloaren klandestinitatean gorde eta gerizatzeko. Euskaraz hitz egiteak Agatak bezperan lurrean bildu erakunde armatuaren agiriaren antz handia zeukan: ezkutuko borroka zen, auzoa(k) ez ulertzeko adiztegia, etzidamurako eskakizuna eta bizirako sakrifizio erraldoiak eskatzen zituena. Ofizialtasunaren argia errebindikatzen zen noski, baina zurubia hain zut paratua zen, non aurrerapauso bakoitza ezin eta debalde zirudien.

Hizkuntza atsegingarria behintzat ez zen. Louisek erdara aldiz baliatzen zuen plazer hanpurus, Agataren aieruko herritar arruntekiko jakintza-lezea azpatzeko: ikastearen ondorioz eliteko kidea bilakatua zen. Eta hitzen mediozko urrako kultural hori izan zitekeen, Louiseren bakartasunaren oinarrietarik bat. Funtsean, argi zegoen Agatarentzat eta agian horregatik zeraman hain soilki Louiseren laguntzaile lana,

emaztea ez zen inorekin harremanetan jartzen ahal, euskaraz kabalegia eta frantsesez jantziegia sentitzen zelako.

Igande batez Otsabidera zihoala, Arbideko bere sortetxean utzi zuen Agatak Louise. Andere ponpoxaren agerpenen arabera, Goikotxea baserri aberats eta ederra zela imajinatua zuen neskak, baina ez zen horrela. Alderantziz. Elizaren ekialdean kokatzen zen, herri osoari bere pobrezia erakusten ziola. Loiroa lohiz emokatua zen eta begimen zeukanez, barrukia oraino iratze eta otez ihaurria, lehenagoko moldean. Adinean hara joandako Louiseren anaia, besoak papoan gurutze, ezkaratzeko bortan azaldu zen:

– Zato, kafea hartuko duzu.

– Ez. Ez dut astirik. Otsabiden igurikatzen naute bazkariteko.

– Sarri orduan!

Gizonak irri zaparrada ozena airarazi zuen, Louise hapa-hapa hurbiltzen zitzaiolarik, andre zaharkituaz, ardiak jetzi berri zituen semeaz eta garrasika biltzen ziren arra-haur saldoaz setiatua ematen zuela. Aziendak bordatik marrakaz entzuten ziren, saihetsean urdeak kurrinkaz eta

haizea marrumaz mendi muinoetan behera lerratzen.

Izugarriko aldea zegoen, Agataren irudiko, Louisek eskaini nahi zuen sozialki heldu itxuraren eta sortetxearen egoeraren artean. Milenario bat demagun. Baina etxea etxe zen edozein kukusotegi izanik ere: koinatak kozinatu salda beroa hurrupatuko zuen, Goikotxeko mahastiak oparitu ardo mikatzetik edanen eta ilobekin eskolako lanak, batez ere frantsesezko ariketak, landuko zituen. Badakizu, erraten zion Agatari, bere ekimenaren justifikatzeko, ohartzeke ere euskaraz ari den ingurumen batean dauden haurrek zailtasun ikaragarriak dituztela frantsesari uztartu behar zaizkionean, frantsesa ez baita nolanahikako mintzaira: ez zuen arra-haurren bilakaera linguistiko handikapatua begiko.

Igande hartan, Otsabidetik Arbiderako bide biluziko lautada gorakoian, zuhaitz iharrak tankaz inarrosaraziz hegaldatzen ziren hogei bat sai, zeru gris hotzean jostatzen miretsi zituen Agatak eta harrapakari erraldoien dantza zabalari beha zegoela, Louiseren eta bakardadearen oinarrien bilatzeak sortzen zizkion burutazioak

ahantzi zituen. Hori zen preseski desiratzen zuena: espantu eta harrotasunik gabeko naturaren elementu soil bat izatea, harria, hegaztiak, belarra edo axolarik gabe zeruan bazebilen euriz kargatutako hedoi bat. Ipar aire karroinduak bizihaztu isiltasun bat.

Otsabideko kermezan Agatak anitz hitz egin eta asko edan zuen. Arbideko mugan zegoen Katzotegiko Dorotearekin harilkatu zituen eleak. Louiseren bila joatekoa zela erran ziolarik, honek eskatu zion:

– Nor da Louise hori? Ez dut ezagutzen.

– Goikotxeko nagusi xaharraren arreba. Louise bai, erakaslea, gaur egun Baionan erretretan dagoena.

– Louise?

Dorotea trufaz hantzen ari zen:

– Mailuxa, dudarik ezin!

– Ez du nahi Mailuxa edo Luixa izenda dezadan!

Ipurdi mazelak esku ahur oparoaz banbatuz segitu zuen herritarrak:

– Hauxe anderea! Urguilu eta izpiritu gogortasun handia du. Uztaritzen sartu zuten serora

eskoletan. Orduz geroztik ez dugu biziki ikusi hemen gaindi. Hamasei urte zituela Pierra Puttu bere kusiak bortxatu zuen. Puttuko nagusi zaharrak beste ezteirik espero zuen eta komentura igorri zuten, apezaren baimenarekin. Ukan zuen haurra, sortu eta aste baten buruan, Baionako jende ospetsu batzuei eman zitzaiela jakin zen. Lehenago hola egiten baitzen bekatuaren umeekin! Abila zen eta ikasketak eginarazi zizkioten. Parisera joan zen irakasle. Hara, orain, erraten didazunez, Baionan bizi da?

– Bai. Neke da harekin ibiltzea, baina hala ere badu ukitzen nauen alde bat. Beharbada hobe ulertzen dut orain Louiseren urguilu balios bezain zozoa...

– Arren, Agata zoaz: ez utzi anderea mutxitzera!

Irri karkaila lizun batek kermezarako betetzen zen JACko gela inarrosi zuen. Agata autora lehiatu zen. Aipatu behar zituena Louiserekin Doroteak xuxurlatuak oro? Emaitzak berekiko atxikitzea erabaki zuen, jada hein bat estimuan zeukan Louiseren adiskidantza ez galtzeko.

Ilunpea zilar eta autoa setiatuz, euria ausarki ari zen. Louisek eguna kontatzen zion: salda, herriko azken berriak, elizara eta hilerrirako itzulinoa, arra-iloben frantses ariketak, anaiaren ziatika, koinataren flebita eta amaginarrebaren fibroma. Dendariak eta amak ahapeka zerrendaturiko adinaren zedarri ilun ziren hiru eritasunak gogoratzean, Agatak barre-gutizia zeukan baina ez zen askatu. Emazteari, ordu lausoak hedatu zitzaizkion, haustura, harridura edo etsidurarik pairatu gabe. Gai batetik bestera hegaldatzen zen: urte hartan etsaminetako egitarauetan zegoen *Godoten aiduru* antzerkia ikasleekin nola aztertzen zuen esplikatzen zion:

– Ez da erraza hemezortzi udaberriko haurrotz mukizu horiei testuaren funtsaren konpreniaraztea.

– Antzerkia zuzenean begiratu behar lukete. Segur naiz bizi osorako memorian iltzatuko litzaizkiekeela Vladimir eta Estragonen pertsonaiak. Desertu erdiko lilura salbagarriak bailiran.

– Poeta zara Agata: hori ere ez da on zuretzat.

– Naski ez...

– Ikusia duzu zuk? –galdatu zion Louisek.

– Bai, duela aspaldi Parisen eta Godoten ondotik kasik jarraian *Partida azkena*. Ez ditut ahanztekoak. Eta Racineren *Fedra* halaber Dominique Blanc-ekin.

– Ez zen emanaldirik hoberena ene irudiko.

– Nonbaitik ere...

Agatak pikua milikatu zuen berekiko. Beti berdin zen Louiserekin, Agatak erran, miretsi edo aipatuak gutxiesteko ohitura zeukalako. Hitz huts geratu zen neska. Louise aldiz, euriaren pare zen, mintzatzetik ezin geldi. Agatak arratsaldean Otsabideko kermezan ikasiak ezpainen harresietan kolpeka susmatzen zituen. Baina ez zion zekiena jakinaraziko. Bizidunen munduarekin zeukan hari bakarra ez zuen horrela apurtuko. Dorotearengana berriz itzuliko zen Agata eta segur aski ezagun zeduzkakeen Louiseren bizitza sexualarekiko xehetasunak eskatuko zizkion, ikusteko ea berari ere gustatzen zitzaizkion aldizkari eta film pornografikoak andere xaharrak maite zituen: hala bailitzan, zerbait bazuketen elkarrekin partekatzeko, tea eta whiski ttilikaz

aparte. Kokin-aireak harrotu zion burumuin desolatua eta bitxiki begiratu zion:

– Hara, Baionan gara!

Louise urtu zen gauean. Euriak karrika zolak distirarazten zituen eta hiriko argiek ilunpean gidatzen ohitutako Agata beraztu zuten. Su gorri batean geldirik zegoela erran zuen goraki: Louisek bizia huts egin dudala irizten badu, zer egingo dut bada? Bost axola, bakarrik nago, anitzetan sufritzen, baina pentsatzeko eta irakurtzeko astiaz gozatzen; egia da hargatik gaztaroan baldin eta den-mendreneko txalo edo bultzada eduki izan banu, orain nagoen baino urrunago heltzen ahalko nintzela. Nora helduko ordea? Kolorez aldatu zen semaforoa eta auto ilararen abiadura berdinean galdu zen.

Louisek baiki *erreusitua* zuela, aspertzen zen arren, osagarri maila hein batean baliatzen zen xahartasunaz, adiskideak hautatzen zituen, ahalaz emazte jeloskorrekin ezkondu adineko gizon jakintsuak; maite zuen espantuka aritzea, zelako andere hura senarrari kexatzen zitzaiola Louise harekin hain usu mintzo kukuxkatzen zuelako! Berak azpatu bizitzako alorretan, nehoiz desbi-

deratu gabe, trinko ibiltzea segurtatzen zion izpiritu gogortasun ikaragarria zeukan. Zorroztasun haren hegiek noiztenka Agata larranzten zuten ezpata finaren moldean. Itsasoan eratorrian higatzen zen ontzi txepelaren kapitain flakua irudi zuen: Baionako jende ohoretsu haiei emateko iradoki zioten umea eskas zuena?

Agata dudaz iltzatua zen; izua zer zen ez zekien ordea. Louisek alderantziz ez zuen obratzen zein deklaratzen zuenaz zalantzarik nehoiz, izu ikaragarria ordea irakur zitekeen haren ekintza eta gogoetetan. Larderiatsu ziharduen, ez erortzeko, malkotan ez hausteko, pairatzen zuen bakardadeaz ez damutzeko eta egoera deitoratzen zueneko ostatu zokoetan biltzen zirenean, solasa auhen bilakatzen zitzaion:

– Ene ametsa New Yorkera joatea lizateke.

– Airekoa har eta zazpi orenen buruan Central Parken zirateke.

– Bakarrik? –kolokatu zuen minberaki.

– Zeren ez? Louise, ez da ezer gertatzen bakoitz zabiltzanean. A bai, bidaia eta hoteletako gelak karioagoak direla. Bakardadearen altxorra horrela gaztigatzen bailitzan!

– Badakizu arauz ez dela gauza ederra; arinki kontsideratzen duzun bakartasuna bekatu da, Jainkoak gizona eta emaztea sortu baitzituen elkarrekin bizitzeko.

– Agian bai... Baina bizia ez da eredu horretan baizik finkatzen.

– Eta amodioan ez baldin bada zertan bada?

– Ez dakit gaizoa! Ez dugu eskapurik...

Agatak hasperen bat libratu zuen. Berak jada ezagutzen zuen New York: dorre biki ohien hirira itzuliko zen noizbait. Urteak ba omen ziren Louise ez zela Baionatik kantitu. Bakartasuna gohain eta saldoak apalets zeuzkan. Geldotasunaren aztaparretan harrapatua zen, lotsaren lotsaz. Louiseren batela tenpesta erdian hinki-hanka bazebilela ohartzean, jendez betetzen ari zen tabernako zerbitzariari neskak bi whiski gehiago manatu zizkion: marinel zaharrak azken porturaino nabigatzen laguntzeko sosegu zen altxagarria.

Handik denbora labur barne, Pannecau zubi lainotsuaren gainetik lerratzean lanera joateko larunbat goizetan ardura kausitu zuen zerako zera trinkili-trankala hurbiltzen, txapela buruan trebes eta eskuak merkatuan erosi fruta eta ba-

ratzekiz astundu zakuz tiran. Elkarren parera heltzen ziren, besarkatzen eta agurtzen, bederazko zereginetara lehiatzeko. Louiseren aztarnarik ez zuen aurkitzen orduan, nehon. Zirudien plazatik desagertu zela arras. Itsuarena ere ez zuen egiten. Falta zen.

Agatak kasko-zokoko zinema gelako pantaila zurbaila ireki zuen eta betiko filma berriz pasatu: noizbait ohartu gabetarik, bere ele batek edo besteak emazte panpoxa kolpatu zuketen, ez zekien zein hitzek, jendeak hain ziren minbera partikulazki latz eta kitzikagarri ziren uneotan, nehor ez zen libreki mintzo, gizartea gaitzikorra zen, ohikoan baino gehiago erraten zenari kasu egin behar zitzaion. Agatak zernahi entzun zezakeen, baina kontuz: lagun protsimoa sensiblea zen, Louiseren gisako emazte larderiatsuak eta beren izaeraz ideia berezia zutenak batez ere. Beraien istorioa dilindan zegoen, ilundurak galdera eta erantzunak motz! Ostatuaren ate aitzinetik pasatzean, onezia zozoaren hondotik, Agatak doluak zeuzkan itzal.

Hilabeteak ahitu ziren eta Agatak, tristura sakona gainditurik, gutxienez solaskide izaera es-

kertzen zion Louise memoriaren selauruan kokatu eta laster ahantzi zuen. Hiria mugatzen zuen muino aldeko etxeetan bizi zelako eri imajinatu zuen: ez zen gehiago erdialdera oinez jaisten ahal. Erraza zen itxuratzea hura zen urguilutsuak ez zuela alde txarretik ikertua izan nahiko, makila eskuan, karriketan ttoko-ttoko ibilki. Beste aldetik, Agatarekiko eztabaiden ingurua egina bide zuen, neskaren jakitatearen zedarrietara heldua zen eta ez zukeen ezer berririk ikasiko New York hogei urte zuela oporretan egona zenarengandik. Bai, hori zen, zioen etsitzear, Agatak lagunen, adiskideen eta kide soilen hagitz aspertzeko ahalmen izugarria zeukan. Isiltasuna bezainbat onezia hats bahi eta betegarri suerta zitekeen. Louiserekin kontrestan, Agata zen jendetasunaren aberrazioa bakarrik bizitzeko egokiago zen: on dagiola behintzat! Zerbitzu arruntak eskaintzearen estakuruz garatu zen Louiserekiko nagusi-esklabu harreman horrek zirauenо sufritzen zuen, erran gabe nondik. Joko faltsua baitzen.

Urte hartan eguberri-kari elur egin zuen. Baionako zubiak oro zuriz apaindu ziren. Jende-

tza iluna berandu arte opariak erosten ibili zen. Haien artean, eskaleak besoak tente, eguberrikariko manaren parte bat lurrean pausatu bunetetara eroriko zitzaiela amets. Errumaniatik etorri musika jole hirukoteak tzigane aireak eskaintzen zituen, beste batek ondoko karrika kantoian bouzoukiz alegeratu soinu sotilak eta denen gainetik, zurrunbilo elkor, hiriko animazio taldeak aurretik grabatutako 40 Top-eko kantak isurtzen ziren.

Eta hara non, soa norabide zehatzik gabe inguruan barreiatzen zitzaiola, Orbe-ko gizon-arropa denda batean Louise begimendu zuen, bi emazte eta gizon baten konpainian. Laurak saltegiaren ikurra zekarten zakuz zamatuak ziren. Agatak laster egin zuen, aspaldiko ustezko adiskidearengana heltzeko. Taldea aurrean bazihoakion zanpa-zanpa; urratsa emendatu zuen eta emaztearen saihetsera iritsi zenean erran zion:

– Louise, arren, eguberri on!

– Ez dut denborarik egun...

Aldamenean zeukan neska gazte ederrak eta irudiz honen senargaiak buruz baieztatu zuten Louiseren oharra. Agata ahoa bete hortz geratu

zen. Begiak begietara egon ziren bi segundoetan ere ez zirudien Louisek egiazki Agata susmatu zuenik. Arrotz bilakatuak ziren, harrigarriki eta ez zen deus larririk sekula gertatu haien artean.

– Ez dut denborarik. Lanpetua nago gaurkoan...

Agatak egur hiro ukaldia kokotsean jaso zuen: denbora eskasa betikotasunaren itxuraz loriostu adiskidantza-harien hausteko baliatzen zen aitzakia logikoa zena? Louisek estakuru berdina ilkitzen zion. Histura bulta jasan zuen Agatak.

– Zer pasatzen da?

– Ezer ez! Utz nezan bakean Agata!

Negar zorian zegoen Agata.

Louise desagertzearen ondotik, gauza bi gogoan txertatuko zituen, urre-pikor: lehenik, norbaitek bakartasuna pairatzen duelarik, izerdimin darion auhenari serioski behatu behar zaiola eta bigarrenik, mundua oihan basatia denez, lehoi edo leopardo jeinua bereganatzea komeniko zaiola, berekiko bakartasunaren bozkarioaren defendatzeko eta luzaroan gerizatzeko.

– Horretan ez daukat zorionerako eskakizun mikorik.

Bereber ari zen, gauaren erdian, karrika zeharkatzen zuela.

–12–

Hamar soldaduko herroka meharra, desertuan doi-doia seinalatu bide batetik zihoan. Trapu zaharrez jantzirik ziren eta armak zein zakuan metatu puskak zamatzen zitzaizkien soin gainean. Aitzinean bi behari izutu bazebiltzan eta gibelean, lerroa hersten zutela, beste bi kide alde orotara barranda. Konpainiako kapitaina tropa-ren buruan zegoen, aldizka isil ala oihukari. Lur idorrezko pista, mendeak zuela errekaz betea zirudien mendi gorakoi arteko aska batean sigi-sagaka garatzen zen. Pentoken kukurustetan noiztenka itzal iheslariak begimentzen zituzten eta, orduan, bata bestearen atzean kuxkurtzen ziren, noranahi tiroka, beren baitako dardara itsuaren uxatzeko. Baina tiro itsuei tiroen oihartzunak baizik ez zieten ihardesten eta, kolkoak amiñi bat jabaldurik, lerroa berriz binaka osatzen zuten, zelai eta ordoki mehatxagarrietan aurrera egiteko, hurrengo lilura lelotu arte. Ikusten ez zuten arren, bazekiten etsaia hor bertan zegoela: hargatik ez zezaketen zehatz beraiek izuaren

minetik asmatua zuten ala errealitatea zen aditzen zuten ahots edo garrasi hura. Eremu misteriotsuenetan, eskuak fusiletan kizkurtuak eta otoitzak marmaratuz arraposki pasatzen ziren, jakinez jo-muga egokia osatzen zutela, keinatzen ere ez zekikeen edozein felaga deabrurentzat.

Aste bat zuela mendi lehorren erdian kokatu herri batera iritsi ziren. Herriaren atarian geratu zen troparen gehiengoa, hizkuntza ezagutzen zuten haietariko bi, lekuko arduradunekin solastatzera igorri ondoan. Karriken artetik haur irriak eta ama aspertuen deiak biderkatzen ziren, oilo koloka karakaka zenbait eta txakur txanpak ere bai. Herriak lasaia ematen zuen, baina soldaduak beti mesfidatzen ziren, eta urmaelak baino engainagarriagorik ez zela behialako biek harrizko xendari ekin zioten. Fusilak ontsa agerian atxikitzen zituzten, turista arrunta ez baina gerlariak zirela ederki bezain harroki erakusteko. Kapitainak kakiz beztitu burkideen ibilera largabistekin segitzen zuen, irudiz herriko auzapeza zitekeenarenean sartzeraino.

Zainen tentsioa jabaltzeko, tropako gainerakoak herri behere hartan alhan zebiltzan poallak harrapatzen jostatzen ziren; oilanda gazte bat atzeman, lumatu, tripatu, erre eta bazkaldu zuten han berean, data-ondoaren malda zekenean.

– Etxean baino nehon ez hobe –erran zuen pentsakor arma azpi-artean zutik zetxikanak.

– Egia duk.

Kapitainak oilaskoaren hegal hezurra murtxatzen zuen, hezurraren barneko jarioa hurrupatuz eta gero behatz puntak milikatuz.

– Aspaldian ez diaguk hain gauza onik irentsi... Luc eta Marc jateko zerbaitekin itzultzen ahal balira!

– Ez baldin badira itzultzen herria zitzikatuko diaguk! –espantu egin zuen besteak, ezpain izkinetarik urina zeriola.

– Bazterren baketzera etorriak gara –azpimarratu zuen kapitainak, luzaroan isilik geratua zen Beinatek eransten ziola:

– Gure baketzea eta gerlaren egitea ez dea funtsean berdin?

Gau urdinak mortua eta mendi kaskoak balakatu zituen. Luc eta Marc ez ziren itzuli, ez ziren egundaino itzuliko ere. Ondoko goizean, tropa urriak igurika egoteak aski iraun zuela jujatu eta herria setiatu zuenean, bi gizonen hilotzak, barrabilak ahoan trebes, egurrean gurutzefikatuak kausitu zituzten. Ahal zuten egoitza orotan sartu ziren. Ateak ostikoka zabaldu ziren. Mugitzen zen guztiari tiroka zebiltzan, beldurraren beldurrez, izan oilo, arratoi, ardi edo ahuntz. Jenderik ez zuten harrapatu: azantzik gabeko beren krima kunplitu eta, etsaiek ilunpearen geriza baliatu zuketen mendian haratago ihes joateko. Haatik, aterpe apal eta beltz bateko ezkaratzeko izkina batean, soldaduek ahantzia edo abandonatua zitekeen mutiko ahul bat gatibatu zuten: ez zen ibiltzen, jarririk zegoenean gorputza balantzaka zerabilen, soako herabetia zeukan eta munduaz haratago zegoela zirudien. Kapitainak bortizki galdezkatu zuen:

– Herritarrak non dituk?

– Ekakik, ekakik... –marmaratzen zuen, begirada zohardiaz soldadu izutu haiena desafiatuko bailuan.

– Soik putiko... Gure bi lagunen pare gurutze batean zintzilikatuko haugu!

– Kapitain, ez du deus ulertzen; propioki mendeka gaitezen –proposatu zuen karkar susmatzen zenak–, ikus dezaten, gordagietarik ilkiko direnean, hemen nork duen manatzen.

– Herritarrak non dituk?

Kapitainak eskatzen zerraikan, mendekuaren ildoa urratu nahi zuenaz axolarik gabe. Elbarriak ehungarrenekoz *ekakik* marmaratu zuenean, gontzetarik errautsi kapitainak zaflako bortitzaz mutikoaren gorputza lurrera aurtiki zuen, birindika.

Luc eta Marc dilindan zeuden egurretarik jaitsi zituzten eta lurperatu, kapitainak Georgesi errautsez ito Biblia zaharra eskatu ondoan. Banaka zein taldekako joaldien ondorioz hiltzeraino kolpatu eta jadanik panpina dislokatua bihurturiko mutikoa hagetan iltzatu zuten, gizagaixoaren oihu eta auhenei elkor. Artalde baten marraka antzeman zuten. Zeruan aireko militarra pasatu zen. Gizonek mendeku lana mututasunik hotzenean bete zuten, Luc CGTko ordezkari eta Marc Naonedeko errient lanean hasi berriak gogoan.

Marcek palto kakiaren barruko sakelan zeraman bere emaztegaiaren potreta Beinati eman zion kapitainak:

– To, hiretako.

Beinat kapitainari beha zegoen, afruntatua.

– Ardura egon zarete argazki horri begira: emazte umil eta eder hori nola deitzen da?

– Marie-Pierre.

– Hemendik bizirik ateratzen baldin bahaiz ene partez goraintzi emaiok.

– Bai, kapitain jauna.

Beinat kasik guardian bermatu zen, armadanagusiak esku gibelaz *jada ez dik balio* keinukatzen ziola.

Mendietarik Aljerrerako itzulerako bidean zazpi kidetako saldotxoak ez zuen gelditzeko betarik. Ez gauez eta ez egunez. Mehatxupean bizi ziren. Handik eta hemendik zetozen etsaien tiroak. Ez zekiten nondik: horrek errabiatzen eta urduritzen zituen. Kapitainak hotsak entzuten ziren lekura bidaltzen zituen gizonak, eta sute hondarrak baizik ez zituzten han aurkitzen. Zanpazanpa aitzinatzen ziren orduan, hatsa labur eta buruak apal. Ninikak hargatik finko. Ekia zerua-

ren erdian jauntzen zenean, egarria pasatzen zuten eta olibatzeen maldara heltzean, itzalean jartzen ziren ahamen eta ur ttilikaz sosegatzeko. Hitzik ez zuten trukatzen. Bakoitza bere gogoetan itotzen zen. Une horiez baliatzen zen Georges apeza, zakuan zeraman liburuko zatiak irakurtzeko:

– *Ez dute gehiago ez goserik ez egarririk pairatuko, eta eguzkiak edo ezein berokeriak ez ditu trabatuko. Tronuaren gainean dagoen bildotsa beren artzaia izanen delako, jario biziz aberastu iturrietara gidatuko ditu, eta Jainkoak begietako malkoak oro idortuko dizkie.*

– Ez hiza zozokeriak erratetik nehoiz aspertzen? –artekatzen zuen lagunen batek:

– Isil hadi, otoi.

– Utz azue –marmaratzen zien kapitainak.

Beinatek halaber heziketa hutsez, belarria xerrent beha jartzen zion etxean ikasia zuelako apeza derrigorrez errespetatzekoa zela. Georgesek jarraitzen zuen:

– *Ikusi nuen gero jende multzo erraldoi bat, nehork zenbatu ez zezakeena, nazio guzietarik, tribu guzietarik, jendalde guzietarik eta mintzai-*

ra guzietarik. Bildotsaren eta tronuaren aurrean zutik zeuden, arropa zuritan apainduak, palmorriak esku-artean zatxixkatela.

– Arren goazen orain, agudo!

Kapitainaren marraka ozen zebilen, bortu lerroaren malda ilunean, inguma ibiltariak begimendu zituela zioelarik.

Behialako gatazkan Luc eta Marc galdurik, armada puska gero eta urriagoa eratorrian aitzinatzen zen. Beinatek aldion taldea gibeletik zaintzen zuen. Metro zenbaitetara kapitainaren urratsak segitzen zituen. Oroitzen zen nola gizon zardai horren ezagutza egin zuen hogei hilabete zuela, kontinentetik zetozen beste bost ehun adin bereko mutiko gazterekin Aljer hiri bazterrean kokaturiko Lyautey izeneko kasernan sartu zutenean. Bi asteko soldadu-apailakuntza ukana zuten Marseillan. Halaz, lurrean herrestatzen ikasia zuten, horma gorakoiak gainditzen, lohian ihalozka lerratzen, berrogeita hamar kiloko pisua bizkarrean lasterkatzen eta egunean behin bizkotxa gazia ur xorta batekin irensten. Orduko bidaiaren asperraz gogoratzean oraino mareatzen zen Beinat, kapitainaren itzalean berme. Otsabi-

detik lau mutil abiatu ziren. Baionan bildu zituzten. Han, armadako jantziak eman zitzaizkien eta Afrikara joateko premiazkoak ziren txerto bat edo beste egin. Hogei urte zituzten.

Gerla, zaharren ahotik ipuin anker nahiz gertakari latz gisa kontsideratzen zuten haur hotzak baino ez ziren. Pierra, anaia zaharrak doi-doia ekidin zuen Aljeriakoa, Ameriketara joan zelako, osaba Johnen gonbitari erantzunez. Peterren suerteaz jeloskor zen Beinat. Baina zer egin? Amodio seinaleak bazeramazkien infernuaren bihotzeraino, etxetik partitu zenean, amamak oparitu zion eta lepoan zeroan Lourdesko medaila zilar-urdina ferekatzean. Ez zuen inori aitortu, baina Baionako kasernako lo-gela zabal eta urrin txarreko ohean, Beinatek negar egin zuen: Maitexa amets? Ez bakarrik. Galtzen ari zen lasaitasuna eta inozentziaren zama zeraman kolkoan. Ilundura bultak gau bat iraun zion eta goizean kideen antzera, prest zen Aljerialat joateko, belaunaldi hartako gazteen destinua halakoa zenaz gain.

Beinat, Etxeberriko Patzikorekin Marseillarako trenean sartu zen. Adrien eta Michel Tolosan

jaitsi ziren, beren bidaiaren jo-muga Port-Vendres zelako eta handik Oranera zuzenka. Baionako geltokian, gerlara zihoazenen ohorez menturaz, andere panpoxen agur kantatu eta hunkigarriak jaso zituzten: Aljeriak frantses behar zuela zioten, han ororen gainetik bakea premiazkoa zelako. Medaila-sailak papoan daldar zeramazkiten adineko soldadu-ohi batzuek banderak inarrosten zituzketen eta jendarmeak mutikoak, atzera begiratzeko astirik ukan ez zezaten segurki, abereak bezala bagoietara bulkatzen saiatzen ziren. Trena hartzen zuen lehen aldia zen Beinatentzat: ez zen sekula etxetik Donapaleuko merkatua baino urrutiago ilki. Bihotza pilpilka ari zitzaion, baina uniforme beilegiaren azpian, norbaitek mutikoaren izpirituaren bihurguneak ikertuko baldin bazituen, halako harrotasun zutabea ere sumatuko zuen.

Anitzetan aditua zuen arren lanerako deuseza zela, besta eta neskak gustukuago zituelako agian, aitatxi eta aitaren ildotik abiatzen zen bederen: gerlari. Kausa onarentzat gainera. Alabaina, prediku aulki edo *Herria* astekariko orrialdeetarik adibidez, apezek eskualdun gazteak leialta-

sunera haiatzen zituzten: felaga tzar horiek behar ziren betirako kalitu. Familia jatorriz Bankakoa zeukan eta Orleansville eskualdean etxalde handi baten buru zen Bettan Bidegorry batek izenpetu gutuna harriturik leitu zuen Beinatek astekari euskaldunean, sei-zazpi hilabete aurrerago, sukaldeko subazter xokoan:

– Bakerik ez dugu. Egun soil bat ez da pasatzen araba auher horietarik bat gure kontramaixu bati edo besteari arrabokatu gabe. Nabala distirarazten dute fite eta gureak lanjerrean dira. Jendarmerialat joaten gara, baina nahasmenduen geldiarazteko ez dira sekula aski. Kukumixak nola hiltzen dituzte banaka. Jakin dugu Frantziak bazterren kalmatzeko armada igortzen zaukula. Hondarrean! Ondorioak sentitzen ditugu jadanik eta eskerrak bihurtzen, gure salbatzera jiten diren eskualdun soldadu gazter...

Halatan, Marseillako Sainte-Marthe bil-zelairaino zihoala, harri batez bi txori, Aljeria frantses zaintzerakoan, hango frantses-eskualdunak salbatuko zituztela barneratzen zuen Beinatek.

Biskratik Aures hegiko mendietan barna zetorren armadatik geratzen ziren soldaduen itzulera

zail eta gogor hau bezain gogorra iruditu zitzaion Beinati Nemours izeneko itsasontzian egin zuen Mediterraneoaren zeharkaldia, hogei hilabete lehenago. Uniforme garbiaren ordez, berde-marroi koloreko soldaduena ukan zuten, barda eta fusila arautuekin. Bi mila eta bost ehun mutiko binakako herroketan kokatu ziren tropa-garraiorako baliatzen zen batel erraldoiaren sabelean. Armadako buruzagiek ez zituzten handik ateratzera uzten, beren beharren eta itsas-minaren ondoriozko aurtikitzeen urrinak ontziaren behereko gela pozoitua perdukatzen zuela. Larruan josten zen zital tepoa. Hezurretan barreiatzen.

Lo egin gabe higatu gauetarik landa goizean kafe ura banatzen zitzaien, eguerditan salda ura eta ogi puska idor bat, eta arratsetan eguerdiko hondarrak. Beinatek solaskide arruntik ez zeukan. Patziko auzoa Marseillan galdu zuen, zertifikata erdietsia zuelakoan irrati-transmisioetara bideratu zuten, korpuz hartan biltzen zirela herriko notableen gomendioak lortuak zituzten gainerako euskaldunak, ikasle, apezgai eta etxetiar ohoretsuen semeak! Irakurtzen zekien arren, Beinat aldiz, azken mailako soldadu izendatua

izan zen. Adiskideen hatzik ez baldin bazuen ere, gaurkoan Biskratik ihesean Aljerrera itzultzen entseatzen zen armada-abartxoaren baitan kidetzat zeukan Georges apeza batelaren tripa hiroan ezagutu zuen. Goitikin eta kaka meta lehortuen artean zutitu eta liburu zaharra irekitzen zuen:

– *Eta bere ahotik bi aldetara zorroztu ezpata jalgitzen zen, nazioen kolpatzeko; burdinezko makilarekin gorbernatuko baititu, ezen hark Jainko guziz ahaldunaren kolerazko oldez hanpatu ardo-ontzia aztalkatzen baitu. Bere apainduran eta bere azpian darama idatzirik: erregeen errege, jainkoen jainko...*

– Mutu sortu bahintz behintzat bakea genikek.

Gehienak oihuka jaukitzen zitzaizkion, batzuek zapata ferratuak begitartera aurtikitzen zizkiotela.

– Aljerialat etortzea errefusatu behar genuen.

Georgesen ahots eztiak kideen harramantzauhin ilunaren ezinegona atitxatzen zuen.

– Auxilik Jesus! Nork entzun ere!

– Gure hogeita lau hilabeteak ahalik lasaien pasa eta killa! Eztiaguk besterik nahi. Eta etxera.

– Uste duzue lagunok nor zareten badakizuela, baina Aljerian jasango duzuenaz haratago izatera bortxatuko zaituztete...

Apezaren hizteria ez zen gelditzen, eta goseagatik, zorriengatik, aire likitsagatik, ontziaren behereko gela zikinean algara animalea hazten zen. Beinatek adituriko gerla garaiko karkara eta desafio bakuna entzun zuen:

– Ez ote gaitu hire Jainkoak salbatuko?

Aljerian zegoen lehen hilabeteetan troparekin lur suntsituaren politika zela ziotenean parte hartu zuen Beinatek. Eta ez zen irri egitekorik: mextak sutan, kabalak sangreatuak, neskatxak bortxatuak eta umeak urkatuak, harkiek makila ukaldika kalituriko FLNko errebeldeak, soldaduek eri ttittila higitze beharrik gabe. Gizon gehienak hainbeste bortizkeriaren aitzinean mutu eta ezaxola geratzen ziren; Aljerialat etorri berriak aldiz trenputxartzen ziren, izutzen eta sabel husten. Erotzen batzuk. Gogoan eduki behar zen, zioen Beinatek geroxeago, soldaduak hor aljerianoei mila pairamen jasanaraziz, fran-

tses armadan zeramaten bizimolde doiaz mendekatzen zirela, hogei urte zituzten, bi gauetarik behin guardiako ziren, deusengatik kasik, hamar egun segidako gaztigua harrapatzen zuten, beren emaztegaietarik bereiz zeuden... eta kanpamenduetan burrustan isurtzen zen garagardoak hazi hordimenak ez zien bihotzaldea baketzen, alderantziz behar bada. Aljerko Lyautey kasernan doan banatzen zitzaien gitane zigarreta merkea erretzen zuen Beinatek, eztul eta auhenez konkorturik.

Hor zuen halaber, pazifikatze operazio batetik itzultzean, zaindari zegoela, gizon bat nola zitzikatzen zen lehentze begimendu. Uste zuen ez zela ohituko. Baina usaia hartu zuen. Ez zituen gehiago erraiak botatzen, felaga baten orroak aditzean edo felaga hori bera mila puskatan hautsia eta hila begimentzean. Hiru etsai, familia bereko kideak omen, arrastatu zituzten Tizi-Ouzouko gailurretan. Soldaduz inguraturik hirira ekarri eta bi egunez ganbara ustel eta hertsian preso atxiki ziren. Arratsalde batez soto batera eraman zituzten. Biluzik, zutik eta eskuak loturik pairatu zuten telefonoaren, hala deitzen baitzen elektri-

ka gorputzean hedatzen zeneko tortura, eta urlaurdenaren estira gaitza: ez zuten hitz egin. Behi-zain kolpeka joak eta artarik gabe abandonatuak izan ziren, hilak. Semeetarik bat mintzatu zela jakin zen ondotik, beste biak laxatu zirela sinetsarazi zietelako. Harrapatutakoak ubelduraz ubel ziren. Eta soldaduentzat berdin zen hiltzen baldin baziren ere, gerizatuak eta presoak edozein gisaz exekutatuak zirelako. Tortura salaketak kazetetan azaltzean, armadako buruzagiek soldadu txepelen basakeriaren gain jartzen zituzten arren biolentziak, bigarren bulegoko kapitain-zuzendari arduradun handiak bazekien gertatzen zena, eta maizenean, tortura ekitaldietan hor zegoen, soldaduak haiatzen. Jadanik Beinatek, Biskratik Aljerrerako armadatxoaren gibelean barranda zebilenean argi zuen hori, ez zeukan eraginiko minarekiko sentimendurik: orobat zitzaion eta bizirik etxeratzea baizik ez zuen desiratzen.

Blidako kasernatik hurbileko jaurretxeko sotoan begiztatuak behin betikoz markatuko zuen. Han alabaina, presunerrak metatzen ziren, eta goserik atxiki artzain-zakur hamikatuak gela ho-

tzetan zerratu preso musulmanen artera libratzen ziren. Bistan dena etsai bihirik ez zela desmasia hartarik salbatzen. Halatan, egiaren errateko, itsasontziko Georges apezgaiarekin betekizun berrira moldatutako taldean kausitu zenean, Beinatek atsean hartu zuen. Kaserna eta torturaguneetarik urrun ibiliko zen, kanpoan, aireari, mehatxupean baina aldi berean, ustez kontzientziaz lasaiago. Adiskideak, agurtzean, Liburua erakutsi zion iragan partekatuaren jakile bailitzan:

– *Beren lekukotasuna ematea bururatuko dutenean, amildegitik gora jiten den abereak gerla eginen die, garaitu eta erailen ditu.*

– Hara Georges! Nola zara?

– Ongi. Eta zu? Nola patitzen duzu hemen pasatzen dena? Munduaren azkena bertan dugula irudi luke.

Apezak korrok egin zuen. Beinatek Blida eskualdean begiztaturikoa kontatu zion:

– Zakur haiek izugarriak ziren. Ez dakit non hazten diren horrelako piztiak. Burua apaltzen nian ez ikusteko, baina paraxutista batek jo eta

bulkatzen ninduen: «Atxik itzak begiak zabalik mutxiko!».

– Aljerialat etortzean zerbait galtzen diaguk, Beinat. Jendetasuna naski. Kartzelan egon nauk, sei hilabetez burdinak oinetan, sarjentu bat hiltzen entseatu nintzelakoan, operazio batean neskatxak bortxatzera behartu nahi ninduelako. Nik, mentsa ninduan, sakelatik pistola atera eta pum! Huts egin nian, zorigaitzez. Bi manamendu baditiat bide-zedarri!

– Baia? Zein dira?

– Ez hiza girixtinoa Beinat? Naski baietz. Muinak inarrosiko ditiat: bata *ez duzu jainkoaz besterik zerbitzatuko* eta bigarrena *ez duzu hilen*. Biak abantxu larrantzi ditiat sarjentu asto harengatik!

– Gero preso. Ukan dukezu pentsatzeko astia.

– Eta nola! Hondarrean, Biskrara manatua den hamabost soldaduko saldo urri honetara igorri nitek. Operazio berezia. Sekretuzkoa. Hire harrapatzeko ene plazer berritua!

Murritzago zen ordea Biskratik itzultzen zen taldea. Kapitaina aitzinean zihoan eta gibeletik

bospasei gizon gazte. Atzealdean, beti, Beinat. Lurralde lanjerosean bazebiltzan. Itzalak bat-batean hupatzen ziren muino kaskoetara eta zohartu bezain laster urtzen, mehatxua areagotuz. Kiderik ez zuten nehon kausitzen eta zeharkatzen zituzten gune mortuetan izuak malgorturik ibiltzen ziren. Gelditzen zirenean, edateko, jateko edo karta geografikoak aztertzeko alde orotara so zeuden, tiroak nahiz kolpeak nondik etorriko zitzaizkien goaitatzen. Bideak minatuak ziren.

Beinat gogoetatsu zegoen. Ez hain aspaldi Malraux ministroa entzun zuen irratian, metropoliko prentsaren akusazioak ezabatzearren Aljerian ez zela gehiago torturarik obratzen bere ahuntz ahotsaz finkatzen. Alta ez zuen burutik kentzen ahal felagetarik ere ez zen musulman bat nola arrastatu zuten Palestron: jejenaren suplizioa plantarazi zioten, larruzko zintaz kaskaka jo, ukabil eta ostikoka zitzikatu. Omo lixiba errautsa irenstera behartu zuten. Etsaia lurrean zegoen, oihu eta negarrez ihalozka. Soldaduak irriz, konpainiako omonierra barne. Geroago, goitikinez eta gorotzez tindatu gela hertsian, axuanta bere zerbitzuko pistolarekin tiro eginez

lasterkaraziko zuten, mendekuaren jokoa baltsa hilkor bihurtuz. Gizon horren bekatua: ez zuen urtarrilaren 8ko erreferendumean bozkatu eta herkideak berdin egitera gonbidatu zituen.

De Gaulle Frantziako lehendakaria erreferendumaren sustengatzeko Aljerren zen abenduan. Aljeria frantses nahi zutenak eta independentziaren aldekoak buruz buru borrokatu ziren. Paraxatutisten jukutrien ondorioz ehun eta hamabi hil zenbatu ziren ofizialki. Georges ere Aljerko manifestaldiaz gogoratzen zen:

– Paraxutisten kasta bat sortu zuan orduan, supergizonak, kolorez apainduak, nabala gerrian eta fusilak eskuetan karriken jaun eta jabe paseatzen zirenak, musulman airea edo itxura zeukan edonor goratik hartuz. Txapel berde, urdin eta gorriak armadaren indarraren ikur, bazauka hiri Beinat!

Mutikoaren oharrik igurikatu gabe zerraikan apezak:

– Militarrei inteligentzia ez zaiek gustatzen eta pentsatzearekiko herra soldadu izendatutako haur hotzen burumuinetara isurtzen ditek. Gazteria horri jendearen errespetua galarazi eta

ume aurpegiekiko paraxutistak, hirietan musulmanak eta beraien bidean trebes dauzkatela irizten duten adineko zohituak urrikirik gabe kolpekatzen ditiztek. Harrigarria duk, hilabete batzuk lehenago lantegietan edo eskoletan, edo oraino elgeak goldez udalatzen idien hotsemaile perestuki lanean ari ziren haur hutsak nola aldatu dituen armadak eta indarraren gorazarreak.

– Ipar Afrikako Frantses Lurra zaintzeko betekizuna diaguk, haien erranen arabera.

Beinatek Georgesen elegorea apurtu zuen.

– Sasi-oldartze baten erasoetarik jendeak salbatu behar genitian. Bizitza ekonomikoa, garraioen segurtasuna, etxe eta eskola eraikuntza obretan gure parte hartzearen garrantzia azpimarratzen zigutean.

Bi gizonak hitz agortu ziren.

Biskratik nekez Aljerrera zetorren saldo xifrituko soldadukide bihurtu aitzin, Georges apeza hiri nagusitik hamabost kilometro eskasetan zegoen Aterpe batera izendatu zuten. Horra ekartzen zituzten, operazio militarretan harrapatu eta terroristei laguntzea leporatzen zitzaien herrikide eta laborari familia osoak. Han egon zen

lauzpabost hilabeteetan, Frantziako armadak, KGBren ikas-lerro nagusiak baliatuz jende *galdu* horientzat kudeatzen zuen ekintza psikologikoaren harat-honaten ikertzeko astia ukan zuen: lehenik gizakia desintegratu behar zen, isolamendu egoera sortu, gosea, egarria eta umiliazio etengabea landuz, jendea bere girotik bereizi, buruzagi bekaitz eta kanpotik manatuek engainatu gaituzte erratera heltzeko gisan; bigarrenik gizaki hura hartzaile plantan jartzen zen, kolpe psikologikoak emanez, jendartearen aurkako krimak haiatzen zituztelako kontzientzia txarra garatuz eta konplizeenganako herio-gaztiguaren mehatxua hedatuz. Bertan hasten zen endoktrinatze sail berria, Frantziak zergatik oldartuak borrokatzen zituen sakon, fermu eta zabal irakatsiz, psikologikoki berregituratu talde azkarra osatuz eta azkenik, barnetik heziak izan ondoan, batzuetan nehoiz etortzen ez zen askatasunaren parpaila begien menean inarrosten zitzaien. Georges, Lillen sortutako oihalgintzako langile bikote komunistaren semea, armadaratzean apez zelako faborezko tratamenduari uko egin ziona, kirolaz arduratzen zen Aterpean. Baina

Aterpeko zuzendaria, izpirituz egokitzekoak ziren jendeen osagarriaz sobera axolatzen zela konturatu zen eta Palestro kokatzen zen paraxutisten IV. Konpainiara bidali zuen. Han geratu zen Hichter sarjentua tirokatu eta huts egin zuen arte.

Beinatek zinez maite zuen arrats apaletan, eguzkiak gorritzen zituen mendi arteka gordeetan gauerako borobilean kuzkurtzen zirenean Georgesekin hitz egitea. Ez zitzaien horrelakorik usu gertatzen, gehienetan iluna zetorrela, zanpa-zanpa ibiltzen zirelako eta egunez gordetzen. Baina agitzen zenean Georgesek Liburua eskuratzen zuen:

– *Ordu hartan berean, lur ikara erraldoia garatu zen munduan; lur ikara horren karietara hiriaren hamarrena erori zen eta zazpi mila jende hil ziren, eta izuz harritutako besteek zeruko Jainkoa auspez goretsi zuten*.

– Biba hi!

Beinat lausenguz hurbiltzen zitzaion, kapitaina isilik eta gainerako soldadu anaiak trufari altxatzen zitzaizkiolarik:

– Nondik duk istorio zozo hori, apez? Isil hadi bederen, etsaiak ez gaitzan entzun!

– Segi beza, apalago...

Kapitainak Georgesi eskatzen zion, amultsuki:

– Baduka hor nonbait Mateoren ebanjelioko Mendiko Predikuaren idatzia? Irakur iezaguk bada.

Lehen aldia zen kapitainak Georgesi Liburuaren zatiren bat leitzea galdatzen ziola. Lanjerra ukigarri zen, Aljerrera ari zen soldadu talde tartail eta tematsuarentzat: kapitainaren gustuko gizonei libertate pixka bat zilegitzea komeni zen agian eta berak Mendiko Predikuaren aditzeko gutizia larria zeukan.

Bideari ekin zioten. Borj Boun frantses kaserna bat bazen: sufrikarioen amaiera zena? Mutikoek atsean hartuko zuketen ohean etzatea eta ur freskoz garbitzea; ez zuen gehiagokorik amesten Beinatek, aldion saldoaren buztanean zebilela. Hamabost kilometro zeuzkaten egiteko armadaren kanpamendura heltzeko. Baina hara non bortu-gain zehargi batetik, nehork ezin zehazki iragar nork eta nondik, tiro batek erdiz erdi

urratu zuen Beinaten lagun-mina bilakatzen ari zen Georges apez gaztea. Euskaldunak, kidea aldamenean erortzen ikustean, urkatzen zen kabala orro latza bota zuen. Saldoko partaideak inguratu eta hurreratu zitzaizkion. Bazterretara begira kapitaina mintzatu zen, durduzatua:

– Mila deabru! Urde zikinak! Georges hunki ditek! Baina? Bizirik duk oraino.

Eskuko bi hatzak lepo-zainean pausatu zizkion.

– Pultsua ahul daukan arren, bizirik da, dudarik gabe, ez luzerako ordea... Goazen arroka horien maldara!

– Lagun nazazue Georgesen tiratzen...

Beinat otoizka ari zen, malkotan, soldadu-lagunak dardararen dardaraz, zuloetan gordetzera lehiatzen zirela, hartz-ume lotsati: ahal duena salba bedi! Beinatek oinetarik garraiatu zuen apez erdi-hilaren gorputz astuna.

Tiro-trukaketak bizpahiru oren iraun zuen. Saldoak ez zuen felaga bakar bat begitandu. Gerard eta Martin, Provence aldeko bi adiskideak ehoak izan ziren; kapitainak bat-batean ez higitzeko eta tiroei ez ihardesteko ordena eman

zuen. Beinatek Georgesen burua ahurretan zetxikan, oraindik ere ahulki baina hatsa hartzen zuela. Harriaren maldan ttottotu zen kapitaina, fusila zango artean zutunik, etsia:

– Hauxe bakea! Gu hemen sufritzen, kideak hiltzen ikusten eta gerlara deitu gaituztenak han, lasaiki beren bulegoetan, lan hiroa dagigula...

Ahotik, eztul batez, lurreko errauts gorriarekin nahasi zen kerru malgua bota zuen. Jean, Pierre eta Philippe bata bestearen kontra geratzen ziren, ikara, eguzkiaren azpian erretzen, berotasuna eskas balute bezain hoztuak. Beinat Georgesi mintzo zitzaion:

– Errak hi, apez, ez haiz araiz mundutik horrela eskapatuko? Hago istant bat, Aljerrera bizirik eroango haugu. Bertan gaituk... Oroit hiza duela bi egun, piztia eta mamu istorioak bazterturik, Mendiko Predikua irakurri haugula? Jadanik hitz hauek iltze zeuzkeat arima-zokoan, orduko goizeder hura, gerlarik, jende hilik eta torturaturik ez bailitzan, denak etxean bagina bezala... Baina ez gaituk etxean...

Matela Georgesengana hurbildu zuen bizi-indarraren neurtzeko. Georgesek orduan begiak ireki zituen eta kordoka auhentsuaz libratu zen:

– Beinat, har ezak Liburua hiretzat. Izan hadi lurraren gatz eta munduko argi.

– Hau baiki apez solasa! Deabrua! Georges nora hoa? Hago! Kanta dezagula oraino! Georges?

Basamortuaren ozena jabal zegoen. Bizirik ziharduten apurren hats hartze kolpekatua salbu. Denek, momentu latz horretan, Georges, Gerard eta Martinen antzera, segur aski hilik nahiagoko zuketen. Ehiztarien mehatxupean ibili ondoan, beltzaren beltzean, zepoan sartutako azeri sotil eta akituen pare ziren, aitzina ezin, gibelera ezin eta infernua bera etsai. Zeruaren hegitik, arranoa edo saia zen ez zekitela, txori erraldoia jazarri zen, intzirika. Tiroak oihartu ziren ortzaizeaz bestaldean. Georgesek Beinaten altzoan azkena eman zuen, odolez itorik. Apez gaztearen gorputza hatsak abandonatu zuela konturatu zenean, haren soako urdinean bere desesperantza propioaren hondoa izartu zuen: nehoiz eta nehori ez zion adiskidantzak zitzifrika-

tzen zituen gerla hau aipatuko, batez ere ez noizbait edukiko zituen haurrei. Aitatxi eta osabek ez zuten besterik egin, gerla besta handia bailitzan, tiroen artetik zimiztatu neska panpoxez eta hordimenez mukuru.

Behatzen laztana erakusle, Georgesen begiak hertsi zituen. Liburua orrialde itsu batean ireki zuen:

– *Hemen da zuhurtzia. Endelegua duenak konta beza piztiaren zenbakia. Ezen haren zenbakia gizon batena da, eta haren zenbakia sei ehun eta hirurogeita sei da.*

– Beha itzazue... Burrunba horiek?

Philippe zutik zegoen, iparraldera begira.

– Behar bada gureak dira?

– Pentsa, nehork ez daki eskualde hauetan gabiltzanik ere! Ahantziak gara! Arrunt ahantziak! Laster, zeruan zirurikan dabiltzan arrano horiek gure haragi ustelduz aseko dira...

Lehen aldikoz hitz egiten aditzen zen Jean martinikarrak huxtukatu zuen, Beinati Liburua eskutik ebatsiz:

– Irakurtzen dituan gauzek urduri jartzen nitek! Kalitzen haut zikinkeria hori berriro zabaltzen baduk!

– Apalago, otoi!

Kapitainak orroaz, belarria luzatzen zuela.

Aska lehorraren sartaldeko mihian, frantses bandera kapotearen gainean zut-zuta zekarren kamioi bat azaldu zen. Gorderik zeuden gizonek, kapitainaren manua igurikatu zuten, ageri jauki aurretik. Jeanek punpa batez zeharkatu zuen aterpe naturalaren eta bidearen arteko eremua. Oina pausatu orduko, tiro zaparrada batek gerri aldea erdizkatu zion eta odol putzuan ihalozka, gibelera erori zen. Kamioitik mitraileta asots nasaiak ozen zetozen eta partida zuena irudiz, tiratzaile bakartia, tiratzetik gelditu zen, hila menturaz.

Kapitainak soldaduei kamioira igotzeko ordena eman zien. Kolpatuak eta hilak atzera aurtiki zituzten, martxandiza arruntak bailiran. Beinat bat-batean gerizara itzuli zen. Kapitainak erasiatu zuen:

– Beinat, zer duk? Mentsa hiza, hilen haute!

– Liburua... Georgesen Liburua han utzi dut.

–13–

Ostiral gaua. Baionako geltokia. Kaiertzera goiz etorri zen Edmea, ezen oraino jende gutxi baitzen ageri trenaren zain. Apurrak baziren ordea, aiduru-gelako aulkietan irakurtzen jarriak. Zenbaitetan hauetarik batek burua altxatu eta begirada borobilaz geltokiko mugimenduak aztertu, haztatu eta baloratu ostean soa berriro paperera plegatzen zuen. Guneko isiltasun hotzean egunkari hostoen inguratzea ozen bilakatzen zen, halaber edonork askatu zintzur karraka edo eztula. Altzairuz eta bitraz eraikitako aterpean gaitzeko oihartzuna hautematen zela gogozkatu zuen Edmeak.

Mila urrats eraman ondoan, hondarrean adineko emaztea ttottotzera joan zen, *Le Monde* zaharkitua leitzen ari zen gazte baten saihetsera. Gizon hark ez zuen bidaia-zakurik eta, agian, arratsaren parte bat geltokian pasatzen zuten eskaleetarik bat zela iritzi zuen andereak, alkohol eta pixa urrina usnatzen ziolako gehienbat. Hasieran ikusia ez zuen zakurra bazeukan gaz-

teak aulkiaren azpian gorderik, ukaraian sokaz lotu eta muturretakoz hornituriko alimaleko zakur beltza. Abereak barne-zurrunga argia laxatu zuenean, Edmeak punpa egin zuen, harritua.

Geltokiko bozgorailutik trena zetorrelako abisua aditu zuen, emekiro isuria: *le train en provenance d'Hendaye et en direction de Paris-Austerlitz va entrer en gare dans quelques instants, veuillez vous éloignez de la bordure du quai s'il vous plaît*! Edmeak hilabetean bietan entzuten zituen marmara sintetikoak ziren; alabaina ahots sintetikoz hegaldatzen zirela, bere baitako kanta doloretsuaren errepika ematen zuten.

Deia aditu eta oren erdi bateko tartean azaltzen zen Palombe Bleue-a. Emaztea zutitu zen eta bagoietaratzeko SNCFak plantan jartzen zuen ttattolara hurbildu zen. Langile akituari billetea erakutsi zion, eta honek arkatzaz kuxetaren zenbakia gurutze grisez markatu zuen. Billetea itzuli ziolarik, ezagunen arteko seinalea beharbada, gizonak irri bat eskaini zion. Edmeak, alegrantzia zimizta batez, molde berdinean bihurtu zizkion eskerrak.

Edmea kairantz zuzendu zen berriz; aldion izaki gehiago bazuen niniken jo-mugan. Iruditu zitzaion oporretara ez zihoan bakarra zela. Aldamenean ama-alaba bikote bat euskaraz mintzo zen, ondoko goizean Parisen bisitatuko zutena planteatzen:

– Italiako plazara joanen gara eta han non bizi izan ginen erakutsiko dautxut. Eguerditan Massena etorbideko Patou txinatarraren jatetxean bazkaldu eta arratsaldean Ivryko neure bulego ohiko lankideen agurtzera lehiatuko gara.

– Eta ukanen dugu shopping egiteko astia? –edertasuna lore fresko zeukan neskatxak.

– Bai, bistan dena. Metroko Marie-Curie ahoan sar eta Rivoli karrikako HM magasinetara erraz helduko gara.

– Ni ez noa Parisera pelerinajez xu bezala, baizik eta arropak erostera.

Neskaren karba-zinkurinak hautematean, Edmeak bereber *haur guastatua* musurikatu zuen, *ama ahula* erantsi aitzin. Orduan zintzurrean negar gogoa hazi zitzaion, hitz horiekin, kaiertzeko emazte xoila baino xoilago, bere burua agertzen bailuan. Ilunpeak troxatzen zion soa gelto-

kiaren eremuan urtzen saiatu zen, tristura bultaren ezabatzeko. Argi zurbailek itzal bilakarazten zuten ertzean metatzen hasia zen jendetza. Bozgorailuak suge-gorria iragarri zuen. Baionako geltokiaren puntako tunelera bermatzen zituen begiak. Trenak, dena pindar berde eta urdin, geltokiratzen segitu zuen, eremua erroten arrastatze azantzek bizidun oihu eta garrasiz mukurutzen zutela.

Tren astun bezain itsuak aldiro bihotza lehertzen ziola itxuratzen zuen Edmeak. Bagoira hupatzen zenean bazterrak odolez eta haragi puska zizkolatsuz emokatzen imajinatzen zituen. Trena abiatzen zen eta, Akizeraino kasik, leihotik beha geratzen zen, Baiona aldeko Aturri ibaiaren azal beltza eta ortzi iluna zurkaizten zuten docks zirelakoak bistatik desagertzeraino. Gero kuxetara igotzen zen. Adina kontuan edukiz azpikoa aukeratzen zuen ardurenean.

Denbora ematen zuen etzaten, SNCFko ohe hertsien mihise bereziak desplegatzen eta kotoi arruntezko estalia ez hozteko moduan hedatzen. Txikitako ohituraren arabera bost *Agur Maria* eta *Gure Aita* bat osorik errezitatzen zituen, kuxeta-

ren gainaldeko zaiolatxoa eho aurretik. Loa luze zitzaion etortzen eta, gehienetan, trena gelditzen zen toki bederetan iratzartzen zen, batzuetan jaikitzen, bostak aldera demagun Saint Pierre Des Corps-eko geltoki erraldoian: orduan desordenatu antzaz gurutzatzen ziren burdinbidez, katenerrak airean atxikitzeko zutoin gorakoiez eta kontrol-postu arruntez osatutako paisaia desolatua mirets zezakeen, beltz eta karroindua. Arima izpirik ez zen.

Hargatik, ez zen berriz lotaratzen, ezen Tours-etik Orleans-Les Aubrais-en zehar, ordu bat eta erdi baizik ez baitzen eskas Austerlitz-ko terminusera goizeko zazpiak eta laurdenetan heltzeko*: assurez-vous de n'avoir rien oublié dans le train, la compagnie des wagon-lits vous souhaite une agréable journée*...

Edmea haizeek erraztatu kaiertzean kausitu zen. Bezperan Baionan antzemanak puskaz eta zakuz kargaturik segitu zituen, panpina edo automata hutsak bailiran. Behialako ama-alabak ttaka-ttaka bazihoazen eguneko lehen kafe azkarraren hurrupatzera Austerlitzeko ostatura. Alaba gaizki iratzarria zen, baina ama zaintsuki

bazebilen aitzinean. Bihotza beratu zitzaion bikotea ikustean eta aitatxiren aitak astokatzen omen zuena marmazikatu zuen: *hara kuraios bat ihardets diezazuten, aski duzue Austerlitzen nintzen erratea...* Alabaina arbasoak, Otsabideko anitzen gisa, Harispe marexalaren armadetan sartu ziren, Napoleon enperadorearen amets europarrak egiaztatzearren. Edmeak ez zuen bestelako gerla-ipuinik aditu, salbu geroago, ohe kantoian jarririk larrua jo ondoan, Beinat senarraren Aljeriako gertakariena. Gainerakoetan arras mutu zegoen arren Beinat orduan ez zen isiltzen.

Halaz Edmea Austerlitzeratzen zen oroz, hilabetean bietan beraz, Napoleonen deklarazioa arrapasatzen zuen. Baina maizenean bere erraietako dolorearen oihukatzeko gutizia errea zeukan. Hil-hurran lebilkeen otso-uhuruz aritzea ez zen hargatik Edmearen trakako emazte baten egin-moldea, bost haurrak munduratu zituenean ez baitzuen intziri edo minduri bakar bat ere ozenarazi. Pentsa!

Kafea hartu zuen ostatu berotuan. Miraila jalgi zuen esku-poltsatik eta ileak ozkan ezarri zi-

tuen, ezpainak gorritu, koloniako urarekin begitartea ikuzi eta freskatu ostean. Hara-honaka presatuan zinpurtzen ziren gazte talde bati beha geratu zen eta *Iker* auhenkatu zuen. Gauzak ezberdin izan balira Ikerrek, edo berarentzat betiko Laurendik, hauen bizipena eroan zezakeen: goizean goiz jaiki, gosaldu, lanera jo, bazkaldu eta arratsaldean lanetik landa, pilota partida bat egin adineko lagunekin, besta zein mozkor zenbait, *Nouba* dantzatokira ilkaldi batzuk auzoko Menanek kontatzen zuen eran semea aipatzen zuenean:

– Jeremy? Lo dun oraino. Barda Nouban zunan. Argi-zirrintan sartu dun, erdi-edana.

– Gaztetasuna ez dea bada higatu behar?

Elizako kalostrape hormatuan biltzen ziren, baina Edmeak bere baitan mina zeukan, min erraldoia. Menanek ez zion nehoiz Ikerren berririk eskatzen. Funtsean nehor ez zen bere azken haurraren destinuaz axolatzen. Austerlitzeko aire-jauzietan Edmea etsirik zen. Mokanesa hartu eta begi-izkinan loratu malko-muskila idortu zuen.

Ametsez zebilen jarraian: Iker ezkonduko zen menturaz. Hogeita lau urte baizik ez zituen. Arrahaur ederrak eskainiko zizkion segur aski, baina Edmearen xede horiek ezabatzen zituen seme gaizoaren behin-behineko egoerak. Ez zuen ez, bestalde, penaz lehertzeko aitzakiarik: eiki, Andderen bi umeak ardura ekartzen zizkioten zaintzeko, halaber Maiteren mutikoa eta Gilenena, astezkenetan. Halatan, Uharteko ezkaratz eta loiroek ikastola edo haurtzaindegi ematen zutela loriatzen zen Edmea.

Familia aipatzean zama dorpe bakarra susmatzen zuen: sortu zenetik senarrak soporta ez zezakeen Germena alaba gehiena mutxurdin geratu zen eta horrek Ikerren egoerak bezainbat kezkatzen zuen; Edmeak ezin izan zuen Beinaten neska txikiarenganako mespretxu hotz eta bortitza ekidin: esklabo hezia izan zen. Edmeak garai batean pentsatu zuen, Germena etxeko eta beraren barne-bakeagatik seroratuko zela; ez alta, pobreki bizitzen zerraikan Parisen, mundua eta munduaren libertatea biak ukatuak bailitzaizkion.

Eta Iker preso zen. Bi urte jadanik eta auzia ez zen oraino iragarria. Presoen komitekoek erraten zuten hamarkada bat gaztigu bil zezakeela, ETA erakundea iparraldean laguntzeagatik. Beinatek ez zuen Laurendi ere maite, hazikoa ez zeukala ustez. Edmeak bazekien senarra auzoan ezker eta eskuin zebilkiola, baina berak ez zuen nehoiz nehorekin beste apainarik gozatu. Halaz, ontsa oroit baldin bazen, jokaldi labur eta presatu baten emaitza zen Laurendi. Mutikotxo eder, pottolo eta arrosa jazarri zitzaion sabeletik.

Ikusten zuenean Beinatek Germena eta Laurendi zein hiski erabiltzen zituen, gizonaren bihurdikatzeko, haurren urkatzeko edo sangreatzeko gutiziaren inhaziak larranzten zion kolkoa. Dolorez plegatzen zen. Itxura ikaragarriaren meneko belaunikatzen zen presaka, ume zenean nola, hala deabruak buruan erein pentsamendu txarrentzat barkamendu eskatzeko Jainko Jaun Onari. Zerukoa eskertzen zuen Iker hargatik ikasle abila zelako, Germena bezala, besteak baino abilago naski. Eskolan hasten zuena arrakastaz bukatzen zuen.

Baxoa iragan eta estudioen ordaintzeko gasolindegi batean lanean ziharduela, irakasle bilakatzeko sailari lotu zitzaion; hondar urtera heldua zen bi udaberri zuela Miarritzen arrastatu zutenean. Orduan mutiko txikiaren bizitza hautsi zela zioen Edmeak. Aitak, Germenak salbu anaiarrebek, azkaziek, herriko adiskide haboroxenek Iker deituz ohoraturiko Laurendi kaiola baten ilunpearen aztaparretan mutxitzera utzi zuten.

Edmea akitua sentitzen zen. Kanpoko aireak matelak urratu zizkion geltokitik jalgitzean. Eskua begitartera altxatu zuen, odolaren berotasuna zeukan jario imajinarioaren lehortzeko. Keinu horretan josten bide zen Edmearen bizitza osoko dolorea; hala zirudion behintzat, aterpean sartu eta eskaileretan gora, metroko tiketak saltzen ziren gune jendetsura hurreratzearekin. Hamabostero etortzen zenez eta, Fleury-Merogiseraino bidaiaren egiteko ohituraz, karta-lanjarekiko txartela erosten zuen; halatan, arazorik gabe iragan zen kontrol-makinen artetik, zaku astunek ibilera mendratzen zioten arren.

RER C seinalatzen zuten iragarkiak segitzen zituen. Bercy ageri zen. Kaiertzearen puntan jai-

tsi eta lurpeko hodietan itsumandoka zihoan: karrelaje zuri-urdinez perdukatu hegiak zorrotzak ziren, hain hurbil zeukaten lohiaren izerdia arteketan perlatzen baldin bazitzaien ere. Saint Martin D'Etampes norabidea begiztatu zuen. RERa sei minuturen buruan etorriko zela zioen geltokiko eme-ahots sintetikoak.

Kalkulu antzuetan zinpurtu zen emaztea: sei minutu, hiru oren laurden eta gero autobusezko zati bat, kartzelako atean bi ordu aiduru, oren bateko bisean-bisekoarentzat. Bazter batean jarririk zegoen Edmearen izaera absurdua zen, batez ere denbora kontuetan. Denetarik abandonatua zen semearen maita-saria zena? Norbaitek behar zuen Laurendi maitagarri hura goxatu ez? Ez zena halaber haurraren sufrikarioa arindu aitzakiaz, etxetik eta Otsabide seguru, urguilutsu zein hertsi hartarik eskapatzen? Orozbat pozik zegoen nehor ez zuelako eskuinaldean gisa horretako pentsu agorrak jazartzen zitzaizkionean; bidaiaren bakardadea gustatzen zitzaion, gizarteari ebatsiriko intimitatea, beste jendeak ikustea eta Fleuryko bortan herrokan gertatzen zirenean, zazpi semeetarik lau paristar

banlieuko presondegi ezberdinetan barreiatuak zituen Fadilarekin mintzatzea. Aljeriar jatorrizko Fadilak zapi iluna zeraman buruan eta zenbaitetan, ez marrantatzeko, Edmeak ere buruko lilizua zekarren: ohituraren erruz adiskidetu zirela erran zitekeen, hainbat non Edmeak ardi-gasna zatiak oparitzen zizkion Fadilari, honek bideko eskaintzen zion couscous puskaren trukean.

Edmearena ez zen hirurogei urte hurbileko emazte baten bizimoldea. Ostiral gauean Baionatik abiatzen eta larunbatean Fleuryrako joanjina egiten zuen, igande goizean Palombe-Bleuearekin herriratzen zela. Parisen bertan egoten ahalko zen bistan dena, Saint Michel eskualdean ostatua eta apartamentua zeukan ahizpak ongi-etorria egiten bazion. Baina ahizpak ez zuen legearekin arazorik nahi, terrorismo akusaziopean arrastatu semearen ama bera terrorista bailitzan. Destinu zakarra horrela baieztatzen zuen, ezinbestez: hondarrean, ezkaratzaren abagunea ukatzen ziotela, Ikerrenganako ibilaldiak askatasun uneak ziren Edmearentzat, batez ere Presoen Elkarteko kide politizatuegiekin ez bidaiatzea erabaki zuenetik. Hiri arrotz etsaian

galtzeko lotsaz agian, zioen emazteak irrinoa ezpainetan, hauek talde trinkotan bazebiltzan: lo, jan eta edan, guztia elkarrekin obratzen zuten. Garai onetako haietariko batzuen agerpenez oroitzen zen:

– Gure haurrak ez dira gaiztaginak, frantses eta espainol botereen kontrako borrokan eroritako gudariak baino: euskara salbatzea eta herriaren independentzia zurkaitzak dituzte indartzen!

– Ez horixe, ez dira hiltzaileak: boterearen ikurrak baizik ez dituzte errausten. Gureak bezain gazte suhar eta argirik ez dago...

Orduan baten batek *aupa* eta *gora* oihu artean, alaba ala semearen argazkia jalgitzen zuen sakelatik, treneko bagoian tinkatu lagunei errondan erakusteko.

– Iparraldeko anaiei!

Errioxako ardo zehargiz arradaz bete godaleta altxatzen zuen batek. Edmeak basoa ahoratzen zuen Iker itxuratuz eta ezin-erranak udalatzen zion gogoeta-saila isilduz: *bai-bai diozuenak dira gure umeak baina ez dute ongi egin, euskaldun zintzoak izanagatik, gaixtaginak eta hiltzaileak laguntzean edo hiltzaile eta gaixtagin bila-*

katzean. Bazekien horrelako eleak hortz artetik ihes joan balitzaizkion, orok berdin pentsatzen zutela jakinez, ez ziola nehork gehiago hitzik egingo. Baztertuko zuten. Oharrez ohar gutxietsiko. Herriak ez baitzuen barkatzen.

Hargatik behin, Amaiaren amarekin bagoian bakarrik zegoela erran zion, hauts-zorian:

– Haur terroristen gurasoak gara. Nik behintzat ez dut Ikerrek egin duena sustengatzen; baina halarik ere, semea dudanez, ama gisa ikustera banoakio. Uste dut Ikerrek hori argi daukala.

– Ez, Edmea, gureak ez dira terroristak, sartu ezazu hori zeure kasko-zokoan. Herriaren alderako ekintzaileak dira. Zureak bezalako arrazonamendu motelekin mutilok ez dute herriaren askapen prozesua bururaino eramaten ahalko, eta betiko etsaien aztaparretan gatibu egongo gara. Edmea kasu egizu erraten duzunari!

– Sentitzen eta bizitzen dudana azaldu dizut. Ez naiz zuek bezain euskalduna! Jende arruntetarik naiz eta nahikoa dut gurutze hau bizkarrean eramatearekin, balizko beste sufrikariorik erantsi gabe.

Egiaz, seme terrorista baten ama izatea egiazki barnetik pairatzen zuen Edmeak, Amaiaren aitetamek harroki alderantzizkoa irizten zuten arren. Pentsa bezate nahi dutena pentsatzen dudana pentsatzeagatik, are gehiago gaizki pentsatzen dudala: zer egin? Izena presoen laguntzeko zerrendetarik kentzea eskatzear egon zen orduan, bere gain hartuko zituela semearen behar afektibo eta ekonomikoak aitzinatuz.

Gaueko treneko solasa aipatu zuen Ikerrekin aldi hartan: borrokaren gaia aireratzen zela, Edmeak berretsi zuen:

– Ez nauk hiltzaile-laguntzaile baten ikustera heldu, baizik eta hi neure semearen bisitatzera, inork ez baitu jada zeregin horretaz axolatzeko kalipurik...

– Baina ama, zer derasazu?

Berinaren atzealdeko mutiko gaztea harritu zen. Amak zerraikan apalki:

– Gaizki egin duana ez diat nik ez baieztatzen, ez eta sustengatzen –isildu zen Edmea, hatsa hartzeko–. ETAkoak hiltzaileak dituk. Ez nezakala bortxa, haurrenganako urrikiaren ize-

nean, eneak ez diren ideiak gogoaren kontra plazaratzera!

– Ama, nork aipatzen du ETA?

– Inork ez, bistan dena! Zorigaitzez! Hobe lukek denen ahotan balitz eztabadagai. Baina hor duk beti pentsamenduaren gibelean, isilean, sekula garbiki agertu gabe, herensuge mehatxatzaile!

– Ama, zer gertatzen zaizu?

Ikerrek Edmearen matelan malko bi lerratzen segitu zituen. Emazteak akotea orekatu zuen, sudur hipako bat irentsi eta mokanesaz betezpalak torratuz gehitu:

– Nahiago diat bakarrik bidaiatu, hemendik hara.

Kartzelatuak burua apaldu zuen. Ordulariari behatuz ohartu zen zilegitzen zitzaien ordu eta erdiko jardunaldia bukatzen zihoakiela. Atariko zaindarietarik batek Ikerren besoa tinkatu zuen:

– Allez! Terminé pour aujourd’hui!

– Ama, etorri arren datorren hamabostaldian, ez huts egin otoi!

Gizonak oihukatu zion gontz erraldoiekiko borta astun eta beilegiaren atzealdean desager-

tu baino lehen. Eta klask... zinominokatu zuen mentalki Edmeak: bukatu da! Klask ozen bakunean halaber bururatu ziren Parisera taldean egindako bidaiak, penak, zorigaitzak eta makurrak treneko bagoiaren borobilean bata besteari azalduz elkar sustatzen zutela, etsai erraldoi eta komunaren aurka.

Hilabete hartan Ikerrek ez zuen Hator presoen etxekoen batasunetik ukan ohi zuen mandata eskuratu: zetorrenean jateko, arropa zenbait, liburuak eta kartzelako idazkariari uzten zion dirua ekartzen zizkion amak. Erran behar zen ondorioz, Fleuryko beste euskaldunen partetik halako saiheste aieru bat nabaritu zuela mutikoak: edo munduarekiko bere familiako kontaktu bakarra edo preso abertzale kideak zituen galtzen; zaila suertatu arren, amaren alde egin zuen.

Edmeak biek pasatu zituzten une gogorrak zeuzkan burumen RERaren sabelean Nike kaxketa gibelera zeraman alimaleko beltz baten ondoan ttattit ttotto zegoela. Bidealdiak markatuz, herrokatzen ziren Ivry, Vitry, Choisy, Villeneuve-le-Roi, Ablon, Athis-Mons, Juvisy, Savigny eta Epinay hiri-izenetarik haren esku-gain ilunetara

iragaten zuen soa Edmeak, fazinaturik: huntz itxuraz zizelkatu zilarrezko eraztunez hornitu auzoaren behatz sotilak eder kausitzen zituen eta, telebistan anitzetan ikusiaren ildotik, jazz aire bat pianoan jotzen irudikatzen zituen.

Gogoeta pinpirinka zerabilkion, arin eta astun aldizka: Sainte-Geneviève-des-Boisko geltoki hits eta pobrean jaistean oroitu zen Hator elkartetik nola kanporatu zuten, urte saria orduz pagatzea ahantzi zuelako estakuruaz balia; alabaina ez zen gehiagokorik aipatu, baina Edmeak erabaki horren oinarrian politikarekiko bere ezadostasuna zela bazekien. Euskal Herrian ardura gertatzen zen zenbaitetan funtsik gabeko arrazoi txepel eta umiliagarri batengatik edonor batasun batetik botatzea. Bere baitako nahaspulo desesperatuan honenbestez, galdez, ahalkez eta dudaz urraturik, zergatiak bilatzen zituen, hausten zen, zergatiak hain zuzen argiki ideologikoak baizik ez zirenean, baina agertu-ezinak, kanporatuari ohorerik ez egiteko. Duintasuna lehen.

Edmea xifritzen zen Poliziak ETA erakundea laguntzeagatik gazteak arrastatzen zituenean zein auhen, negar eta deitoratze gutxi aditzen

zen euskaldunen munduaren zurrunbiloetan: banda armatuak, muga etikoaren axolarik ez bailuan, ekintza gero eta bortitzagoak obratzen zituela, diskurtsoa ez zen loeriatik kantitzen.

– Gazte sutsu horiek ez dira gaiztaginak: gure haurrak dira.

– ETAren biolentzia deitoratzen dugu, baina ezin dugu kondena...

Kontzientziak lasaitzen zituen teoriak ontzeko eta bermatzeko trebe ziren, edo ginen, zioen Edmeak. Etsidura oiharrik ez zen sumatzen, denmendreneko dolorezko intziria aditzera emanez, euskalduntasuna eta abertzaletasun suharra kolpatuko edo indargetuko bailiran: mamua ez zen mindu behar, bestela agian, are tzarragoa iratzar zitekeen edo intziri egileen kontra bihur zitzakeen pistolak eta fusilak. Egiaren errateko Iker *erori* zen egunean, Edmeak ere ez zion barneko zauriari iradokipenik zilegitu: hortzak trinko eta zintzurra lehor zeukan, FR3ko sei minutuko emankizunean semea ETAko organigramako hirugarrenaren konpainian Miarritzeko ostatu batean bazkariten zegoela gelditu zutela ikasi zuenean.

Zenbait minutu lehenago hargatik, ezagutzen ez zuen Maider izeneko batek berria jakinarazi zion telefonoz. Egur eskailatzen ari zen Beinatengana lehiatu zen, oihuka:

– Iker! Iker duk! Preso hartu ditek!

– Bakea eman emaztekia, ez duna ikusten lanean nizala!

– Iker dela, preso datxikatek...

Aljeriako gerlaz geroztik itxuraz elkortua zeukan senarra, aitzur eta gaztainondo puskekin teman abandonatu zuen. Maider hark Baionako komisariaren aitzinean bilduak zirela erran zion. Haietara abiatzeko xedea zeukan.

– Jantziak ekar iezaizkiozu! Segur da Parisera eroanen dutela gaur edo bihar.

Arbideko Yvonne deitu zuen. Herstura horietarik iragana zen hura jadanik, Mikel hondarrean libre eta herrian erlegintza ogibideaz ohaturik zeukala, hein bat normalki. Alabaina hamabost urte lehenago IKren inguruko terrorismo afera baten karietara giltzaperatu zuten Mikel. Adiskide minak ziren bestalde: seroretako dendari-eskolatik pasatuak ziren eta irri algara mozkor artean, beraien senarrak, biak Aljeriatik itzultzen

zirela, batera *frekantatu* zituzten. Segur aski Edmea Yvonneren gizonarekin ezkonduko zen sentimenduz, tipus-tapasean Yvonne ez balitz Renez haurdun geratu, eta alderantziz.

Zena zela bizitza osoko urrats garrantzitsuenak oro elkarrekin eraman zituzten: umeak adinekoak zituzten, urtero Iratira ateraldi bat egiten zuten, eskualdeko jaietan dantza bat edo beste eskaintzen eta Lourdeserako larrazkeneko beilara joaten. Mikel Yvonneren seme gehiena zen, etxeko pentsatua eta bistakoa zenaz, preso egon zen denbora etengabearengatik, Thierry bigarrena, hautatu zuten Larrondoko segidarako.

Yvonnek Edmearen deiari baietz ihardetsi zion. Adiskidearen beribil handi eta erosoan Baionara heldu zirenean, komisariaren aurrean jende multzoa begimendu zuten, *Iker eta Txupas askatu* idatzirik zeraman banderolaren gibelean zutik, ikurrinak gora zatxizkatela.

Sainte Geneviève-ko geltokitik kanpora jo zuen Edmeak. Kartzelara zihoan autobusaren atean plantatu zen, jada hor metatzen ziren ama, ahizpa eta emazte beltz, arabe, asiar eta

pobreak ziruditen zurien herrokan. Usain onak, izerdiak eta jatekoen baporeak nahasten ziren, Edmearen burua itzulipurdikatuz. Argi zen aldion Ikerri zekarkion ardi gasnak urrin bortitzegia zuela. Urrinek airea zirikatu arren, izpiritua iraganaren pentzeetan alha bazebilkion; halaz bazen bi urte Iker eta Txupas izengoitia zekarren Josean arrastatuak izan zirela eta ez zituzten oraino jujatu, bi urte, Edmeak hamabostero kasik bide hau egiten zuela.

Kasik zioen, ezen bularreko mamografiaren ondotik, harrapatu zioten minbiziaren kausaz artatu zuten hiru hilabeteetan ez baitzen tren eta autobusen itzaletara hurbildu, mutikoaren bisitatzeko. Ahal zuen neurrian Germenak zukeen amaren lekukoa hartu. Artean Yvonnek bizpahiru gutunez Ikerri etxeko eta amaren berriak helarazi zizkion.

Iker arrastatua izan zenetik, Edmeak bi pentsa-ildo zeramatzan: batetik gauez, amets egiten zuen makur-ekarleak zitezkeelakoan haurrak urkatzen zituela sortu arau eta tanpez iratzartzen zen, izerdi eta hatsanka; bestetik zoritxarreko egun hartarik Hator elkartetik kanporatu zutene-

raino, iruditu zitzaion uhin batek bultzaturik aurreratzen zela, ez zuela bereberetik ezer obratzen. Beinat izugarriko egoera apatikoan behera zihoan, biziarekiko interes jada ahula erabat itotzen bailihoakion.

Presoen batasuna denez axolatzen zen, diru bilketaz barne. Emaztea beraz Euskal Herriko eskualde ezberdinetan agertu zen, presoak etxera zapi beltz zein gorria lepoan zintzilik. Behin edo bietan mikroaren parera hupatu zuten, semeak jasaten zituen bortizkeriak eta askatasun murrizketak aipatzeko, haustear zebilen malkoen korroka ahotsean. Jendeak ikaragarriko ama bailitzan txalotzen zuen, biba zu, aupa, oihukatuz eta ausartzen zen:

– Iragan bisitaldian parluarrera heltzeko bidean bost aldiz biluzi dute. Ez du egunkari eta gutunik ukan azken aldian: umiliatzen dute. Baina morala dauka: kontzientzia lasai duela erran dit anitzetan eta sinesten dut, nahiz eta...

– Preso-ak Etxe-ra!

Taulako ekintzaren kudeatzaileak oihukatu zuen, Edmearen hitzaldia moztuz eta anderearen dudak guztien buruetarik at mantentzeko es-

loganez indartu barrakia bat eraikiz: Eskerrik asko Edmea...

– Preso-ak Etxe-ra! Preso-ak Etxe-ra! Preso-ak Etxe-ra...

Haurrak preso zeuzkaten familia kideek eta presoen sustengatzera bezain horditze on bat atzeman eta neska zenbait «altxatzera» gerturaturiko multzo gotorreko zintzur zabalek mailuka segitzen zuten. Edmeak orduan populua aztertzen zuen: aho bat, sabel bat eta pistolak kilikatzeko bosna behatz baizik ez zituen itxuratu. Ez zen begitarterik, ez irririk, ez eta esku-ahur irekirik. Goiti egiteko gutizia tripan gora igo zitzaion.

Hargatik, animatzen eta ederki laguntzen zioten taldea estimatzen ikasia zuen. Ez zekien hilabete batzuk geroago, orain justuki, nahiagoko zukeela bakarrik ibili Austerlitzen arrailtzen ziren gauerdiko trenetan eta Fleuryko kartzelako burdina berdezko atearen maldan ezagunekin lerroetan, hitzorduaren aiduru.

Yvonne ez zen besta herrikoi horietara nehoiz etortzen; ez zituen Hatorko zuzendarien ideia berdinak. Mikel IKn sartu zitzaion eta Iparraldean naski istorio ezberdina zen. Baina Edmeak

sudur-pean jartzen zizkion presoak hurrera eta askatzeko izen-biltze paperak ez zituen baztertzen eta sinadura marra fin biren artean kokatzen zuen, xumeki, adiskidantza osoz segurki.

Borrokan eta GALen estatu terrorismoaren ondorioz hil gudarien omenaldi igande batean beltzura dorpe eta arraro batek gatibatu zuen Edmea: elkartearen oinarria beti odol-berritzen zihoan. Nola iharduki ez zekiten guraso gazte batzuen parean suertatu zen. Hemezortzi urte baino ez zituen Irati erakunde armatuko baten konpainian Gers eskualdean Poliziak hartu zuen. Edmeak sentitzen zuen bikote haren tristura, eta elkartasunik ez balitz, ETA eta euskalduntasunaren kontra asaldatuko ziren, beren alaba maite bakarra ebatsi ziotelako, eta zerendako? garrasituko zuten, zerendako jauna? errepikatuko zuten elkarrizketa ozenean. Erantzunik espero gabe. Nehoiz. Baina batasuna, laguntasuna, diruzko eta moralezko sustengua nabari zen; halaz, gertakaria jasaten zuten, hiltegira eroaten ziren ardiak bailiran. Irati ez zitekeen berehalakoan kartzelaren xederatik libratuko.

Larunbat arratsalde hartan, bisitatzaileen uholdea errezibitzeko, Fleuryko gizonen presondegiko ateak ireki ziren. Marea ilun eta koloretsua ematen zuen esperoan zeudenen lerroak. Higitzen hasi zenean, Edmeak zakuak eskuratu zituen eta jende oldeak bultzaturik abiatu zen, hinki-hanka. Gela berde handi batean kausitu zen. Bitrazko hormen atzealdean kartzela ikusten zuen, semearen eguneroko egoitza: eskailerak, zaindarien ttattolak, eta leihotik paseialeku hertsia. Bere makurrean xantza zeukala zioen, guraso frankok hainbat bide bazutelako Paris baino anitzez iparreragoko ez-tokietan ziren bahi-tokietara heltzeko. Erraz zitzaion emazteari ohituraren ohituraz Fleuryratzea eta arratsean berean Austerlitzen Madrilera zihoan Palombe Bleue haren magalean kabitzea. Auzitik landa, Bordele ondora edo agian Tarbesera ekarriko bide zioten *bere* Laurendi.

Mirazkatua izateko aldia jin zitzaion. Xumexumea eta muturik jasan zuen, umiliagarri zeritzon zaindaritzako guardien ekina. Zakuan bi liburu eta gasna puska bat zeramatzan arren pasatzera utzi zuten: ez zekien zer zitzaion zilegi

eta zer ez; menturaz zaindarien umorearen arabera zela ondorioztatzen zuen, batek sakon *pasa* erran ziola. Bisean-biseko gela tepo beilegian plantatu ziren herrokan. Kartzelako funtzionario batek bitraz setiaturiko tartetxoan seinalatzen zion jargian pausatu zen. Orena edukiko zuen Ikerrekin herriko azken berrien trukatzeko, arakatzeko, harenak xeheki entzuteko eta hurrengo aldirako hark behar zituen arropa edo aldizkari zerrenda arraposki idazteko.

Iker etortzearen beha zegoela, hirurogei minutu horiek zoritxarrari ebatsi zorion-uneak zirela zirudion eta bihotzaren ponpak susmatzen zituen: haragizko ponpak segundo bakoitza markatzen zion. Presoak zetozen gelako bortatik Iker gorpuzkera ederra aitzinatzen miretsi zuen zaindarien artean: osagarrian ematen zuen, zelda barnean kirola egiten eta egunaren barnean zurgintza-atelierrera joaten zela segurtatzen zion amari: *zer masakrea!* pentsatu zuen Edmeak.

Zenbait hilabete lehenago presoen aldeko besta batean argazkitan begimendu Iratiren potreta irristatu zitzaion kolkotik eta muinak urratu zizkon oihua errepikatu zuen: *zer masakrea!* Hil-

tzea helburu bakartzat zeukan erakundea laguntzeagatik! Euskararen alde ari zirela zioten, euskara zen borrokaren giderrik aurkezgarriena, botere bekaitza eta bereizketa politikoa ez aipatzeko. Baina Edmea zalantzaz zegoen: baserriko solairuan Ikerrek bi astez ezkutatu zuen Ternuaren antzera, erresistentzian sarturiko gazte gehienek euskara ez zekiten eta barra-barra espainolez mintzo ziren edo frantsesez, ikaragarriko kastelar aieruarekin. Pistola hartzea erosoagoa zen nonbait euskara biziarazteko, hizkuntza berreskura eta erabiltzea baino!

Zernahi gisaz orduan, Ikerrek aski karba eginik eman zion Edmeak Ternua ustezko mendizalea selauruan aixolbetzeko baimena. Emazteak mutikoa bere haurra bailitzan artatu, ase eta garbitu zuen. Ordea, klandestinitatean zebilenaz mesfidatzen zen etxeko anderea, baina ez zuen deus erran, ez dudarik, ez galderarik, ez oharrik. Beinat itsu zegoen, ez zen bere egitekoa eta semeak txiki-txikitatik edozer obra zezakeen: Iker ez zen berea eta gizonari berdin zitzaion.

Iker, Ternuarekin ez, baina Txupasekin arrastatua izan zen.

Hirurogei hamarkadako lehen abertzaleetarik zen Erramun osabak aldiz, Ikerren ekintzak, balentziak eta agerpenak oro txalotzen zituen, bereak noiznahi eta hanpurus kontatzen zituela:

– Frankoren garaia zian, eta Mikelen 2CVaren kofrean ez diagu sekula jakin nondik heldu ziren armak kargatzen gintian. Luzaiden muga pasatzen genian Irungo abertzale batzuei martxandizaren helarazteko. Baginian guardetan berriemaile bat, guarda lo zirela hark heiagora eta gu pasa.

– Eta ez zineten arrastatuak izan? –Ikerrek, osaba soaz jaten zuela.

Orduan Erramun harroki zutitzen zen, eria zut-zuta hizketan zarraikala:

– Ez. Ni ez bederen. Baina Mikelek bai, bizpahiru hilabete higatu zitian Iruñean preso, fraide komentu batean. Aspaldiko gauzak dituk, hire aita Aljeriatik itzuli eta ezkondu zen urtea zitekean. Apezak eta jende parrasta bat mobilizatu zuan Mikelen askatzeko, apezgaia zelako. Erreusitu genian alafede!

Osaba isiltzen zen unea gogoan zeukan Edmeak eta hamalau urteko Ikerren ordez, klan-

destinitatea, terroristei laguntzea eta beharbada hilak baziren ekintzetan parte hartzeagatik kartzelatutako mutiko gogor eta zainartaren bisean-bisean adi segitzen zuen.

– Ama.

– Etorri nauk aldi honetan ere. Hiretako gauza on zenbait utzi ditiat zaindaritzan.

– Gasna erdi bat?

– Bai.

– Zeldako kideekin partekatuko dut. Eta Elena zertan da?

– Ez zekiat.

Edmeak isiltasuna neurtu zuen, Elena beste batekin zebilela bazekien arren.

– Noiz ilkiko haiz, Iker?

– Ene abokatuak egin behin-behineko askatasun galdea berriz ezeztatu du jujeak. Eta auzia bitartean libratzen baldin banaute, Parisen bizitzera behartuko naute.

– Beha ezak Iker: nahiago haut Parisen libre bisitatu ezen ez eta zoko urrin likitsa darien lau murru hits hauen artean.

Emaztearen begietarik behera bat-batean isuri ziren malkoak zehaztu zituen Ikerrek. Ama-

ren pentsua iraultzen zuena erraz irakur zezakeen: semea aske izaten ahal zela ETAren laguntzeko zeregin txepel horietan zinpurtu ez balitz, familiari anitz kostatuko zitzaizkion hamar urteko presondegi zigorra emanen ziotela paper faltsu eta arma debekatuekin ibiltzeagatik eta ilunpearen su-apalean gaztaroa erreko zitzaiola. Edmeak soa semearenean iltzatu zuen.

Ordua ahitu zitzaien. Zaindariak Ikerren gibelean zeuden, agurren zeremonia hautsi nahi ez bailuten. Amak eskuak bitraren gainean pausatu zituen. Iker zutitu zen eta, aterantz erdi-bihurturik, despeditzeko moldean ahurra doi-doia mugitu zuen. Edmeak, orduan, xuxurlatu zuen:

– Nork erranen du *aski*? Nork du gazte lapurreta honi *geldi* deiadartzeko kemena edukiko? Nork futxo? Madarikatuak ote gara?

–14–

Maskaratuak eta base-ball makilak eskuetan zatxizkatela etorri ziren gauerdi aldera. Poterne izeneko baratzean gertatu zen borrokak ordu laurden bat baino ez zuen iraun, baina odolak denak ziliportatu zituen eta, hor, lagunez osatu borobilaren erdian, konorterik gabe zetzan Yves, hedailo. Herioa zekarten txori basatien moldean barreiatu ziren gero erasotzaileak, taldeko nehork ez zuela mendekatzeko zein higitzeko astirik ukan. Alta hitz emana zioten elkarri oldartu zitzaizkiela, duintasunaren eta lekuan lekukoak zirelako aitzakiaz.

Eraso-zimiztaren unean, esku huts soilez gerizatzen zituzten buruak eta gorputzeko gune ahulenak oro: debaldetan. Etsaiak kolpeka ari ziren, parkeko argi zurbailaz baliatuz are indartsuago ekiteko. Zintzur heiagorak eta oihu elkorrak hauteman ziren, besteek joka animatzeko ozenarazten zituzten orroen gainetik. Hondarrean paristarrak desagertu eta bazterrak lasaitu zirenean, besoak balantzan, Yvesen sorbaldatik

isurtzen zen jario gorriaz ziliportatuak, huts geratu ziren:

– Zer egin behar dugu orain?

– Alde hemendik, Poliziak ez diezagun Yvesen hiltzea lepora.

Kastela zaharra urduri zegoen, lurrean zetzanari deika:

– Yves? Yves? Ez hadila hil! Otoi...

– Azken hatsa dik.

Talde burua zirudien Thierryk, gorpuari beha, gurutzearen seinalea marraztu zuen, edale amorratu keinuz:

– Gure aita zeruetan zarena... Emaguzu gaur egun hontako ogia, barkatu gure zorrak guk ere gure zordunei... Putxas zein da segida?

– Ahantzia duka? Ez haut nik lagunduko, aspaldi badik ez naizela elizetan sartzen. Atean egoten nauk eske.

– ...Guk ere gure zordunei barkatzen diegun bezala, amen –otoitzaren bukaera marmaratu zuen Philippe gazteagoak, zainengatik agian, karkailaka.

– Isilduko hiza, mutiko deabrua! –Thierry erasiaka akitzen zen–. Yves hilik eta hi irriz! Bazauka!

– Ez zaukuk, ez, gaixo gizona orain asaldatuko! Soik ninikak ubeltzen ari zaizkiok! Arren herts iezazkiok begiak, ezin diat gehiago!

Hilotzaren aldamenera makurtu zen Thierry. Txapela kaskotik kendu eta izua gatibatzen zuen hondamendiaren sakonera apaldu zizkion betazalak. Leihoak zerratzen bailituan. Mundu baten sarrera lurrez emokatuko bailuan. Behin betiko tapatuko. Zintzurra tinkatu zitzaion eta berriro *Gure Aita* murdukatzeko saioari ekin zion, gune berdinean behaztopatuz. Kideek ezpainak josi zituzten, ez trufatzeko. Pobreak eta eskaleak ziren, baina jendetasun apurraren jabeak ere bai: Kastelak ardo zakar pinta bat ireki eta botila, inguruan bilduak zirenei eskaini zien, hil-beilaren hasiera markatzeko:

– Edan dezagun, piskolatzeko! Thierry kluka bat irents ezak Yvesen oroimenez. Eta gero zuek, Jules eta Philippe! Edan dezagun bada, heriotzaren mehatxua haizatzeko eta mozkor gaitezen!

– Harritzen naiz –ahoskatu zuen eztulka Julesek edaria kontra-zulo zeriola– ardo txar hau zenbat maite zuen Yvesek! Nik jada ezin diat hurrupa.

– On ez bazaik, utz ezak besteendako –Philippe itsuski egarri zen.

Kastelak belarria luzatu zuen:

– Ixo! Heldu dituk! Gazteluko aterpe horren maldara goazen!

Hala egin zuten. Poternako baratzeetarik Baionako hirira joateko erabiltzen zen tunelaren itzalpean ezkutatu ziren, dardaraka, metatuak, bata besteen bihotzen punpak estereotan antzeman zitzaketela. Beldurrak atxikitzen zituen eta bidean besta sobera eginik goraki kantuz eta eleketa multzoan zetozen ikasleak zirela ohartzean, doi bat jabaldu ziren. Alkohol, pixa eta izerdi urrina zeukan gorputz puloaren aitzinetik pasatzean, baten batek erran zuen:

– Baina zer ari da Polizia? Beha ezazue hordi hori lurrean zabal-zabala eta besteak hor traban!

– Alajinkoa... Gobernuan banintz, akabatuko nikek pobre gisa kontsideratzen diren alfer zorri-

tsu horiekin: karrikak garbi litezkek eta jendeak lanean balekebale!

– Biba hi!

Mutikoaren besotik zintzilik zebilen neskatxa ederrak kurukurukaz zerraikan. Ilunpe zakarrean eskale bihi batek ez zuen gazteen ele-balentria-rekiko arraileria edo iharduki gogorik. Gorpua ekidinez Yvesen ondotik iragan ziren, eta tunelaren azpian pobrezia laburbiltzen zuten behialako urrinei neskak zeraman Dior-en Addict perfume eztia gehitzen zitzaien. Thierryk goiti egiteko tirria nabaritu zuen erraietan:

– Nahasketa hori da munduaren usain tepoa...

– Eta gure soin meharretan, base-ball makilen oiharra! –Julesek Thierryren sententzia aberastu zuen ahapez.

Estudianteak gauean urtu ziren.

Iragarria zen arren, gau hartan gertatu zenak uholdea ematen zuen. Baionako Besten karietara Paristik etorri eskale-taldea karriketan eske zeuden etxekoei eldarnioka hasi zitzaien, zakurrak haien aurka haiatzen eta noizbait lekutuko zituztela mehatxatzen. Behin edo bietan ele go-

gorrak jazarri ziren, kolpeak banatzen eta biltzen zituztela. Paristarrak nagusiak bezala zeuden, tokiko herrestak hiriaren hegietara bidaltzekotan, hauek asaldatzen ez baldin baziren.

Thierryren bandakoak ez ziren ez denak euskaldunak: sorguneak soilik osatzen zuena nonbaitasuna? Zena zela, Kastela zaharra salbu, gaineratikoak bizitzaren uhin likitsek Baionako harkaitzetan aurtiki itsas-belarren antzekoak ziren: non-ik ez zuten, Baionako Poterne baratzeetako izarren aterpea baizik. Ez ziren denak sainduak ere. Borroka luze eta latzaren ondorioz kontrolatzen zuten beraiena zeritzoten eremua. Tunelaren bestaldean ez zuten areriorik edo konkurrentziarik onartzen.

Erran behar zen ordea, enpresen munduan diruarentzat eta boterearentzat nola, pobreen artean hala tokien, batez ere lo eta eske tokien zaintzeko guduka hilgarriak sutzen zirela noiztenka. Thierryren bandakoek, nahiz eta handik lekora kide gehienak eritasunez, akiduraz eta etsiduraz hil ziren, garai hartan Pelele Pupu animale-lodiaren saldoa Poternatik kanporatu zuten. Orain, Thierryren eske-lagunak ziren laba-

naren harian dil-dil, Paristik jin mutiko basa horien parean. Ez ziren hauek leialenak, pataskak oro irabazten baitzituzten base-ball makilak erabili eta aireratuz. Izugarriko zauriak eragin zitzaketen. Biolentziak ozkak neurtu ezinak ziren jadanik. Neurtu eta geldiezinak aldi berean.

Erasoak odoltsuegiak zirenean, Thierry eta Jules komisariara bazihoazen paristarren kontrako kexua aurkeztera: galdezketak zirauela, polizia-andereak etsaien izen-deiturak eskatzen zizkieten eta behaztopatzen ziren, ez zekiten, mutu zeuden. Hondarrean, beti erantzun berdinarekin ateratzen ziren polizia-etxetik:

– Konpondu zaitezte zuen artean! Ez dugu guk deus egiten ahal!

– Baina zitzifrikatuko gaituzte!

Jules izutzen zen hori entzutean. Polizia-andereak besoak altxatzen zituen: zer gehiago egin? Halatan, elkar sustengatuz, Thierry eta Jules komisaldegitik ahurruts jalgitzen ziren:

– Alabaina –zehazten zien geroago Yves pentsalari-filosofoak– Polizia ez da herresten aferetan sartzen, haren lana aberatsak zein erdi-aberatsak herresten gutizia sozial jeloskor eta herra-

tsuaren zurrunbilotik at begiratzea da. Besterik ez.

– Eta gutariko bat hiltzen baldin badute?

– Bat gutxiago, erranen ditek –zioen trufaz Philippek–, hala nola iragan udako zakur-beroagatik hil zaharrentzat, sei hilabete barne eta estatistiken arabera arras zenduko zirela azaltzeko kopeta ukan zitean telebistako komentatzaile batzuek. Gauza bera guretako.

– Baina jendeak gara gu ere!

Kastela adinduaren jazarria hunkigarria zen, solasaren hein horretan eta Philippek burla merke zeukan:

– Lanik ez diagu, etxerik ez diagu, emazte eta haurrik ez diagu, bozkatzaile kartarik ez diagu, zuzenbide zehatzik ez daukagunez: gu jendeak? Nondik? Miseria diagu alde orotarik.

– Ez ote dituk hautematen egiazko jendeak gutaz mintzo, lagunduegiak garela, estatua sobera ona dela gurekin, ez dugula dugun diru apurra ere merezi, lanean beharko genukeela zakutik edo zorrotik, ez dituk entzuten ala Kastela?

– Ha-a, baina haientzat ere lanik ez duk. Gu lanean ezartzen baldin bagaituzte, jende planttako horietarik parrasta bat karrika izkina honetan legokek gure ordez, eske.

Irriz lehertzen ziren. Monoprix dendan ez hain aspaldi erosi ardoa inguruka ibilarazten zuten eta bakoitzak, eskuarekin ttuttuna xahatu gabe, botila berde uhargia ezpain artera hupatzen zuen. Zakurrak saihetsean zeuzkaten, mihia lurreraino tiran eta hatsanka. Kastelaren euskaldun txapel beltza kalearen erdian zen, eurozko arditen aiduru. Julesek misterioski errekuperatu musika tresna erraldoia martxan zegoen, Yvesek izugarri maite zuen Beethovenen koro-fantasiaren nota arinak hegaldarazten zituela.

Yves taldeko intelektuala zen, gertakariak distantzia amiñi batekin aztertzen zituen. Bazirudien karrikara amildu aurretik norbait izana zela, burges gustuak zituelako batik bat: hiru tomotan banaturiko liburua eskupean zeraman, *Denbora Galduaren Bila* alegia eta agiriak gerizatze lepoko poltsan lau disko-konpaktu, elkortu zen musikari aleman baten bost piano kontzertuak eta bederatzigarren sinfonia osorik, hain zuzen. Bere

gauzatxoei biziki atxikia zen. Behin haserre gorriturik, ukaraia hautsi zion Jules buru-arinari, honek *Denbora Galduaren Bila*-ko biblia paperezko orrialde bat, deus ez bailitzan, zigarretaren biltzeko xehakatu zionean. Yvesen jabetasun pribatua errespetatzen zen.

Harrezkero, Poternan iratzartzen zirenean, Julesen makinan Bozkarioari Himnoa bataiaturiko zatia ezartzen zuten; aditzearen bortxaz Philippek bihotzean bizi-nahi berria txertatzen zitzaiola sinesten zuen. Melodia hura aitzinean pasatzen zitzaizkion jendeei eskaintzen zien, flauta dudakorraz. Alkoholak eta kanpoko hotzak eriak malgortzen zizkiola, musika ez zen diskokoa bezain ederra. Baina ezagun zitekeen urrunetik.

Philippe Golkoko lehen gerlan soldadu izan zen, aski maite zuen arrats apaletan horren kontatzea. Erradioaktibitateak eragin odoleko kutsadura zikinaren kausaz, minbiziaren antzeko eritasunak xurgatzen zizkion hezurrak: ehun bider operatu zuten, arrakastarik gabe. Thierryren taldearen aixolbera jaitsi aitzin, gauez, banku publikoetan lo zegoela, makuluak ebasten zizkioten. Jargia madarikatuz, norbaitek ospitaleraino

eroanen zuela igurikatzen zuen orduan, eta segur izan zaitez luze zela, beharrean zegoenaren laguntzea ez baitzen mende honetako gizakideen premietan sailkatzen. Alderantziz naski.

Isilak mutuak lauhazkatzen zuen maneran, gehienetan doi-doia zutik zebilen amatzi edo aitatzi batek zion esku-ukaldi bat ematen, musutruk. Amultsutasun une horietan oroitzen zen Villejuif hirian utzi zituela andrea eta alaba, bere soldadukide hoberena emazteaz amorostu ondoan. Ohean larrutan harrapatu zituen egunean, hilen zituela eta alde egin zuen, sarraskia obratu aurretik. Hilabete oroz berrehun euroko pentsione bat erdiesten zuen, aski baitzuen postara joatea diru horren haztatzeko.

Yvesek ozenarazten zuen musikaren behatzea maite zuen hainbat non garraiatzearen erruz zuloak tapatzen ari zitzaizkion eta alabari ostu plastikozko flautaz melodia haiek errepikatzen saiatzen zen: sosa postan jasotzeak bezainbat on eragiten zion erraietan, musika sakon eta alegera hark. Amodio gabezia ahantzarazten zion.

Kastela zen taldeko zaharrena. Hala deitzen zuten orok; egiazki Bernardin zen, Ameriketan artzain egonik LAPD Polizian ziharduen eta aberats okitua zen Pierra haren anaiarik txikiena. Otsabiden sortu eta gazte-gazterik Aturriko Burdin-Olhetara lanera etorri zen. Hamarkada loriosak bizi izan zituela erraten zien noiztenka, Poternako baratzean berotzeko pizten zuten suaren inguruan bilduei:

– Uros gintuan orduan. Zortzi oren lan eta hilabete saria apala baina segurra. Baina ez zian irauten ahal. Erretretara heltzeko hiru urte banitian eta orduan, kostaldean azkenetarik baiki, lantegia hertsi zigutean. Lanik ez, aitzin-erretreta txarra, emaztea joan zitzaidaan semearen etxera bizitzera eta duela bi bedats jabeak egoitzatik kanporatu ninduan. Hara orain, hirutan hogeita sei urteetan herresta, ezdeus eta zorritsu, zuekin naizela.

– Bakarrik bahintz, sordeis...

Yvesek maluraren katea ebaki nahi zuen. Kastela ordea ez zen isiltzen:

– Gogoratzen nauk lehen aldikoz Orbe karrika izkinara eske jalgi nintzenekoaz. Ez nezakean si-

nets hain behera eror nintekeenik. Negarra begietan nian. Emazteak erosteko ohitura zeukan Valda pastila ontzi-azal bat atzeman eta han egon ninduan, dardar, ahalke eta begitartea lurrera.

– Zer nahi huen? Gosez hil ala? –Jules gaztea dena maltzurkeria zen.

Baina adina aitzin zaharkitu eta hautsi gizonak gor bailitzan segitzen zuen:

– Eske. Alta ez nian gaizkirik egiten. Hori diat beti errepikatzen, atzo lanean, gero erretretan eta gaurkoan eske ikusten nauten behialako adiskideei: ez dut gaizkirik egiten.

– Bistan dena ez duala gaizkirik egiten...

Thierry RMIstak zaharraren irudipena amultsuki baieztatzen zuen. Bazekiten ordea zein zaila zen beren sator-zuloetarik alkohola buhaka *lehen aldikoz* jende normaletara eurotxoa amoinaka jalgitzea. Gogoeta hegaldatu zitzaien. Kastelaren mateletan, menturaz, malkoaren lerratze oiharra adi zitekeen.

Unearen ahulaz baliatzen zen Jules nonbait harrapatu (ez bide zuen ebatsi?) konpaktu-irakurgailuan Yvesen lepoko zorrotik bristan ilki be-

deratzigarren sinfoniaren bosgarren mugimenduaren deiadarrarazteko. Jules, mutiko trebea, bihurria eta alegera zurgintzan ari zen, baina aterperik ordain ez zezakeenez Yvesen eta Thierryren saldoaren magalean egoten zen gauez. Hark zituen Monoprix dendan erosketa apurrak egiten denen izenean, lanean ari zenez garbiena zelako. Dutxa lantokian hartzen zuen, bazkaria halaber.

Egunerokoaren joanarazteko zeukaten diru xuhurra esketik biltzen zuten, bekaizgorik gabe, Yves eta beraiek eduki solasaldi mamitsu batetarik ondorioztatuaren arabera:

– Hemen bekaizki jostatzen baldin bagara, gureak eta asto beltzarenak egina duke. Gutxirekin bizi gara, baina ez gaitezen hargatik txarki bizi. Duguna dugu eta aurrera!

– Nik haur bat badut hazteko!

Julesek Philippen oharra trenkatu zuen:

– Hiretik ere hazia eskas ez? Haziko diagu elkarrekin. Aski duk Beethovenen Bozkarioari Himno zatia flautaz jotzea eta ikusi duk zein laster aberastuko garen.

Irri uholdeak alde orotarik altxatu ziren, xehe eta gordin. Hastapenean Philippek burua apaldu zuen, baina taldean garatzen zihoan zorionaz konturatu zenean, alegrantzia partekatu zuen arraiki.

Thierryk aldiz *Easy Rider* filmeko Bill-en itxura zeukan, norbait Dennis Hopper-en obra hunkigarri hartaz oroitzen baldin bada. Hogeita zazpi urteko gizon gottorrak txapel handia zeraman, biloak urrin eta korapilatsu, abere hortzandi zurituz osatu lepokoa, kate eta metalezko girgilak papoan, ixkilimak adibidez, bizpahiru tatuaje besondoetan, egur-mozle atorra lodiak eta bera baino zabalagoak ziren galtzak soinean, bekan xahatzearen erruz usainduak. Gizon ederra zatekeen Thierry, biziak gehiago guastatu izan balu, begi urdin bixiak zeuzkan eta eleketari gozoa zen. Bihotz handikoa halaber: abandonaturik kausitzen zituen puska, kabala eta jendeak oro Yvesen taldera gonbidatzeko ohitura zuen.

Behin horrela esperantzetan zen neskatxa bat ekarri zieten. Regina zuen izena. Errumaniako Transilvania eskualdetik trenez abiaturik, Europa osoa billeterik gabe zeharkatu eta Baionan

geratu zen. Geltokian Thierryrekin topo egin zuen:

– Zer egin behar dut eman dizkidaten multa hauekin guztiekin?

– Ordaindu gaixoa edo asistanta sozialaren ikustera joan.

Aieru balkanikoaz erdara astokatzen zuen andereari gizonaren erantzuna ez zitzaion balios. Thierryk iheserako keinua markatu zuen, baina emazte zohiak besotik tinkatu zuen, antsiaz:

– Ez daukat lo egiteko tokirik! Otoi!

– Nik ere ez dut dirurik! Baina zatoz neurekin, adiskideak aurkeztuko dizkizut, neska.

Bideari lotu zitzaizkion biak. Santa Izpiritu zubitik iragatean, haizea zifli-zafla, ekialdeko alaba atzetik ttette umilaren antzera segika zeukala, itzulikatu zen mutikoa:

– Nola deitzen zara?

– Regina.

– Erregina! Hauxe izanen da gure erregina...

Pozik zegoen Thierry eta pozaren berri eman zien ibaiari, izarrei eta uraren azalean distiratzen zuen ilargi borobil gorriari.

Isiltasun karroinduaren sarkorra baizik ez zen ozen, bistan dena.

Regina adoptatu zuten salbaiak ziruditen herrestek. Eskeko diruaren parte handia harentzat jateko erosten gastatzen zuten. Lo-zakuak prestatzen zizkioten gauak hotzegiak bihurtzen zirenean. Batzuetan Grenet zubi gorriaren azpira zihoazen eta, han pizten zuten sutearen ondoan, emazte gaztea bere haurdun sabel errondaren ferekatzen jarrai zezaketen: eskua ez zen gelditzen eta irudi zuen lurraren makurdura eta malurak oro zituela horrela laztantzen.

Zikinak eta urrintsuak izan arren, ikusgarriaren aitzinean larrua jotzeko gutizia jaukitzen zitzaien. Hainbeste urte bazen guztiz gehienentzat ez zutela amodioa egin, non berekiko koldarkeria baino ez zuten sumatzen, baina Reginarekin gorputzez biltzeko gai sentitzen ziren. Hargatik ez zuen nehork nehoiz urratsa bete eta bakoitzak beren zokoan aditzen ziren auhen eta intzirika, ilunpearen desesperantza urratzen.

Goiz batez halaz Reginak lekuak hustu zituen, suaren aldamenean haur sortu berria eta umeontzi odoltsuak abandonaturik. Thierry zen

lehena iratzartu orduan, umearen negarrengatik. Besteak esnatu zituen eta arropa zaharkituen erdian troxatu haurtxoa miretsi zuten. Regina! Regina! oihuz zinpurtu ziren, debaldetan. Errumaniatik zetorren andereak ihes egin zuen, agian helburutzat zeukan Madrileraino bide luzea zeukala oraino gogoan.

Kastela zaharra zen zenbait astez niniaz axolatu. Egiazko aitatxi baten gisa moldatzen zen. Esperintzia bazeukan alabaina, semeak arrahaurra ikustea debekatu zion arte attatta-kremazua izan zelako. Urez eta esne-errautsez osatu biberoiak emateko umea besoetan zeraman oroz, jendetasun izpia berreskuratzen zuela zirudion. Yvesen opus 80 musika airosa jartzen zuen zinta-irakurgailuan, Philippek flauta jotzen eta Julesek bazterretan beti zerbait on edo ezti kausitzen, izenik ere ez zeukan gizakume soil harentzat. Beraien artean Roman deitzea erabaki zuten.

Halatan, uda eta larrazkeneko egunak ederki iragan zitzaizkien. Lasai. Ahalik hobekien konpontzen ziren haurrak deusen eskasik ukan ez zezan. Eta heltzen ziren. Hiru hilabeteko ume po-

ttolo baten aitak, eguzaitak, osabak, anaia handi arduradunak zirela sinesten zuten. Negua etorri zen arte. Ohikoan baino garratzagoa. Arratsetan Mousserolletan plantaturiko *Gaueko Mahaietara* joaten ziren, Roman aldizka begiratu bitartean. Zerbitzu sozialak taldearen jukutriaz ohartu ziren.

– Zer ari zarete zokomokoka? Ez ahal duzue izpiritua trankil?

– Alimaleko zakur zanpakaria badugu eta lotsa gara hemengo baten bat ausikiko duela. Zaindu behar dugu.

– Arren, erradazue egia –otoizten zien Maite sozial laguntzaile gisakoak–, ez diot inori ezer salatuko.

Maite abiatu zen Kastela gaixoaren itzaletik, Gazteluko harresien maldan Roman altzoan zegoen Philipperengana.

– Norena duzue haur hori? –asaldatzear zegoen Maite–. Nori ebatsi diozue?

Beste orduz onezia dirdir zuten begiak zulo beltz irekitzen zituen:

– Osagarrian dea?

– Bai, ez du deusen eskasik.

– Non da bere ama?

Maite urduri zen. Ez zuen ulertzen. Orduan Yvesek hitza hartu zuen:

– Reginarena da. Errumaniatik zetorren, eta haurra erditu bezain laster, gu alkoholez hordi, lotan ginaudela eskapatu da. Madrilera behar omen zuen. Roman deitu dugu. Uda gurekin pasatu du eritasun edo arazorik gabe.

Maite premiatsuei salda beroa eta afari banatzera itzuli zen. *Gaueko Mahaien* axoladunari ikuskatu zuena azaltzen ziola, bost gizonak primaderako ainaren pare hegaldatu ziren. Arrats hartan tenperatura zeropera lerratu zen. Gizon gorputzaren beroan geratu zen Roman Yvesen lo-zakuan. Negarretik ez zen gelditzen eta goizaldera Baionako katedraleko kalostrapera joatea deliberatu zuten, Maiteren oharrei arrazoi emanez, zutoin baten aldamenean buruxkando zuritan gerizatu haurra han pausatzeko.

– Haur honek guk eskain diezaiokeguna baino gehiago merezi du... Etxe bat, adoptatuko duen familia bat, eskola eta ongizate apurra...

Thierryk tragikoki, perpausen arteko dorpea mailukatzen zuen.

– Bai, gurekin polizia erronden eta jendeen laidoen menpe legokek.

Kastelari zimurrek udalatu matelak bustitzen zizkion malko jarioak.

– Roman ene semea izan zitekeen. Nik nuen Regina geltokian gurutzatu duela kasik urtea...

Thierry hipaka ari zen, eskuez begitartea torratzen zuela. Taldekideek hasperen sakona askatu zuten. Adiskideak galtzen zirelako irudipenak ehun bahituraren antzeko antsiaz kateztatutako buhakoa.

Hilabete zenbait geroago atsean hartu zuten Roman beraiekin ez edukitzeaz, batez ere paristarren bandako boskoteak bortitz erasotzen zietenean. Haurra base-ball makila ukaldika zitzikatuko zuten segur aski. Gatazka bereziki gogorra suertatu zen gau hartan bezala: Yves hilotz zen Poternako baratzearen kantoi batean eta beste laurak tunelaren azpian metatuak zeuden, izuak xurgatu kukumixa. Borroka-gune etengabea zenez, karrika ez bide zen Romanentzat egokia. Hala kontsolatzen ziren behintzat, pataska-orduetarik landa, zauriak eta minak sendatzen

lehiatzen zirela, mediku artamenduetarik urrun, hain urrun.

Noiztenka, ubeldurak arintzen zihoazkionean, Thierryk Reginaren sabel borobil leuneko mugimenduen urria eta samurtasuna berriz itxuratzen zuen. Soakoa uhertzen zitzaion eta zintzur aldea korapilatzen. Zer bilakatu zen Roman? Ongi zena? Zergatik karrikan bazebilen bera aterpe, lan eta sos ments? Ez ote zuen bizimolde normalago baten eramateko deretxorik? Galdeak egiten zituen Kastela adinduaren sorbaldan bermatuz. Beethovenen bederatzigarren sinfoniaren lehen notek baizik ez zuten ilunpe lanjerosa jendetzen.

Tunelaren azpitik jazarri ziren. Barreiatzea erabaki zuten. Paristarren banda itzuliko bide zelako. Azken hilabete garratzak bizi izan zituzten: beti aharraika, patarraka, oldarka, hitzezko mehatxuei ihardukitzen. Ez ziren sainduak, ez, errepikatzen zuten etengabe, jukutria, faltsukeria eta bazterkeria baizik ez zeukaten buruan, baina bakea ihes zebilkien, berak baino ero eta indartsuagoak harrapatu zituztelako.

Behin Poternako jargietan lotan zeudela, boskote izugarriak Yves eta Thierry atakatu zituen. Odola bazerien. Uspelak. Kanpoan egotearen eta alkohol gehiegi edatearen bortxaz ahuldutako soinek ez zuten ihardukitzeko kalipurik. Komisariara joatea erabaki zuten berriz kexuaren agertzera. Han errezibitu zituenak sudur mazelak tapatzen zituen argiki, pobreziaren urrinak kutsatuko bailuan. Horrelako jestuak ikustean gaitzitzen ziren gizonak, bakarrik eta defentsarik gabeak izanagatik, ez zirelako bakarrak, milaka eskale baziren hirietan. Kereila pausatzen zuten artean, bulegoko poliziakidearen kolonia ur merkezko usaina burlatzat kontsidera zezaketen:

– Jo gaituzte! Gure egon eta eske lekuak ebatsi nahi zizkigutek...

Yves antzematean, maleziarik gabe alta poliziak segitu zuen:

– Badakizue ez duzuela eske ibiltzeko eskubiderik; eta isileko baimena daukazuen arren, ez zaretela jendeei arrabokatzen ahal.

– Lafaiak gara eta nehor ef dugu laidoftatzen... –gaueko pataskan hortza galdurik, hatsar-

tzeko eta hitz egiteko nekeziak zeuzkan Thierryk.

– Dena dela –jakinarazi zien poliziak– gu ez gara zuen barneko saltsetan sartzen. Badugu beste egitekorik. Jende arrunten seguritatea bermatzea adibidez.

– Ez gara jende arruntak ala?

– Ez dut horrelakorik erran, gizon.

– Orduan zer?

– Konpondu zaitezte zuen artean...

Poliziak bi kideak zutitzera gonbidatu zituen, bulegoko atea eriaz erakutsiz.

Egun hartan Yves eta Thierry errabiatuak ziren. Jules, Kastela eta Philippe Poternan aiduru zeuzkaten. Philippek hiriko jatetxeetako zikin-ontziak arrakatu zituen eta elkarrekin oparoki bazkaltzen zirela, *beraien artean konpontzea* deliberatu zuten. Paristarren kolpeei ihardesteko Baiona Ttikiko, geltoki aldeko eta ZUPeko lagunak deituko zituzten eta saldoan irabaziko zuten gerla hau: ez ote ziren alabaina etxekoak, edo behintzat etxekotuak! Julesek orduan gogorarazi zien lerroko-batailen saila nola abiatu zen, Baionako Besten laugarren goizean:

– Gure lo-tokietan atzeman genituen paristarrak. Ezin onartua zen. Hainbat urte bakean ginaudela, guk zurkaiztu bakean! Oroitu zein gozoki eman genien hortik aldentzeko manua! Baina tirrint! Jeff hark base-ball makila ilki zuen eta banba...

– Gabiltzan gune guztietan gurutzatzen ditugu, gure zainak harrotzen eta nardatzen ari bailiran. Nazkagarriak. Behin betiko suntsitu eta buztana ixtapean Parisko trenean sakatuko ditugu!

– Hori! Hori Kastela! Hik dukan kemena!

Philippe solasaldian algaraka sartu zen:

– Antola gaitezen beraz...

Yvesek eguerdiko jateko hondarrak baratzeko zabor-kaxa publikora bota zituen, behingoz hiritarki obratzen zuela. Gudurako deiak banatzeko alde orotara hegaldatu ziren banaka. Poternako baratzea laster hustu zen eta arratsaldean ama-haurrez mukurutu.

Erasoa gertatu zen. Garratza Yves hilik zegoen. Besteak odoletan eta orroaz zaurituak. Tunelaren azpian ere ttattit zegoen Thierry: nora joan ziren bada? Seguritatea eta intimitatea zaintzea-

rren, bakoitzak hirian zehar zeukan sator-zuloetara lehiatu ziren menturaz: Jules, Grenet zubipeko aixolbera, Kastela Baiona Txikian zetxikan ate-itzalera, eta Philippe inork ez zekien nondik baina giltza bazeukan hiriko lurpeetan dauden soto misteriotsu haietariko batera. Negu minean han biltzen ziren, Maite *Gaueko Mahaietako* buruzagiak Bergeret kaian jarri berria zen prefabrikatuetara deitzen zituen arren.

Toki eskasa zen, bata bestearen zangoetan ziren, kanpoan nahiago zuten. Gainera ebasketak gertatzen ziren. Halatan, tenperatura zero azpira arras jaisten zenean baizik ez zuten geltoki auzoko etxola hartako borta jotzen. Batzuetan betea zen eta zenbaitetan ohe bat edo beste libre geratzen zen. Taldeko ahulenak bertan uzten zituzten, hala nola Kastela eta hotz hormatuarekin hezurretako dolorea areagotzen zitzaion Philippe. Yves, Thierry eta Jules aitzina bazihoazen lo-zaku zaharkituetan beraien abereepeltasunaz harresien maldetan, gaua salbatzera.

Hor harrapatzen zituzten Baionako beste herrestak, dardarka, lagunak eta etsaiak. Hotzak

mugak berdintzen zituen. Zerbitzu sozialetako borondatezko langileak ikuska iragaten ziren noiztenka, ardo zein salda beroak eskainiz. Eta argi-zirrinta urratzen zenean, bizirik irauteaz oraino harrituak, ostatuetara bideratzen ziren, zeukaten diru apurrak xahatuz kafe ketariak hurrupatzeko, kikerak eskuetan trinko atxikiz, izotzaren ikaragatik.

Paristarrak bidean trebes jaukitu aurreko urteak zituen Yvesen hil-beilari zetzan bakarrik Thierryk gogoan Poternako baratzean. Aspaldikoa zirudien: eske abiatzen ziren, mendeak zuela zintzoki lanera zihoazen eran; Yves Monoprix magasinaren parean plantatzen zen, Philippe eskuz idatzitako partizio dudatsua zekarrela, flautarekin Suzeye karrikan, Thierry Bost Kantoien Plazan eta Kastela Gaztelu-Zahar etorbideko eskola publikoaren hegats itzalean. Jules aldiz bere zurgintza atelierrera zihoan. Eguerdi aldera handik ateratzean, egur eskail eta ezpaltxoak larruan txertatzen zitzaizkiolako aitzakiaz, dutxatzen zen. Arratsetan berdin. Taldeko mutilik garbiena zen Jules. Nagusiak ez zion nehoiz deus galdatzen. Ordaintzen zion hilabete-sariaren

urritasuna eta apartamentuen prezioaren heina kontuan edukiz, aise asma zezakeen etxe baten alokatzeko nahikorik ez zeukala.

Julesen enplegua arra-insertatze sozialekoa zen. Lan asko eta sos gutxikoa. Eskuineko politikari aho-handiek, aberatsen sustengatzaile lehenak, nagusigo liberalaren *fidelis canis* leialenak, pobrezia alferkerian oinarritzen zutenak, enplegu mota horren jendetza osoari hedatzea amesten zuten. Politika bekaitz horrekin eskaleen taldea emendatuko zela iragartzen zuen Yvesek. Halaz, erretreten erreforma garaiko greben karietara bitxiki, herrestak grebalarien alde zeuden, batez ere manifestarien erditik ahalkerik gabe agurka aitzinetik pasatzen zitzaizkien postako andereekin, nahiz eta grebarengatik egun haietan Thierryk ez zuen ardoa eta janari zuhurraren erosteko dirurik eraikitzen ahal. Erretretaren eta Seguritate Sozialaren aldaketa sakonen ondorioz, pobrezia materialaren mugetan doidoia burua itolarritik salbatzen saiatzen ziren oldeak, egiazko miseriaren zamapera uzkailiko ziren.

Auhena apalesten zitzaion eskualde aberatsetako laurden munduari. Karrikan Yvesek biltzen zituen egunkari zenbaitetako elkarrizketatuek zioten hemengo jendeak beti pleini zirela, ez zekitela pobrezia zer zen, horretarako Afrika zolara joan behar zela, beraiek nola, morala egile burges horiek bazekitelako!

– Herri bateko kideen sufrantzaren ukatzeko, aski duk konparatzea. Gure artean ere gu baino gaizkiago denik atzemanen diagu, eri kartzelatua den etxegabea adibidez, baina horrek ez dik kentzen bizitzen duguna ez dela zuzen eta zilegi.

– Ohartzen hiza –jarraitzen zuen Philippe inguruaren azterle finak–, eske gaudenean, jendeen solasak zeinen pobreak diren, pobreziaren ateetan kolpeka ari bailiran jadanik: hitz eta aditzik errepikatuenak SOS, EROS eta BALIO dituk.

– Telefono mugikorra ahurrean bikotekideari erraten ditek *hara kuttun zazpi ehun euro balio dituen larruzko paltoa erosi dut* eta uste ditek karrika zein plaza publikoa beraien etxeko sukaldea bilakatua dela, oihuz ari dituk, elkar maite dutela bezain elkarri mokoka, gure zakur hamikatuak errabiarazten. Bazauka?

Thierry irriz ari zen jendea zinominokatzen zuela.

– Eta euro bat eskatzen diegunean?

Kastela loeriarik jalgi zen harritua:

– Aski duk lan egitea, auher madarikatua... ihardesten digutek, soak herraz eta madarikatzez zuri. Ederki bizi eta pentsatzen duten jende arrunt horiek ez ditek sekula ulertuko beren ongizate maila berma dezaketela gu milioika lanmundutik kanporatuak gaudelako! Funtsean, hain ongi bizi direa?

Paristarren eraso hilkorraren ondotik eleek muntarik ez zuten gehiago. Yves odol zipo karroinduan igeri zegoen, gogortzen. Thierryk egunaren altxatzea igurikatzen zuen. Nonbait Julesek mailegatu KD irakurgailuan Beethovenen bederatzigarren sinfoniaren bosgarren mugimendua ezarri zuen. Biolinak eta zahamiola musika tresnen oihartzunek ilunpea inarrosi zuten. Hasierak kaos ikaragarriaren itxura zeukan, zahamiola eta biolinen jokoak isiltasunaren eremua azpatzeraino bederen.

Thierryk negar egin zuen eta malkoak matelan behera, ahuspezko iturria bailitzan, Bozkario-

ri Himnoa deituriko melodiaren lehen ahairea iragarri zuen, hasieran apal-apala kasik iragar ezin, musika masaren minaren ezkutuan. Gero, biolin uhinek gorago, beti ozenago errepikatzen zuten burumuinetan hagunaren moldean itsatsiriko soinua. Une zehatz hartan karrikako bizimoduaz, karrikako bortizkeriaz, karrikako ez-jendetzeaz asea zen Thierry. Eske zebilenean, aurretik musuka eta tinko-samur lerratzen zitzaizkion maitaleak gogoratu zituen, eztitasun izpiaren ezpatak erraiak lardaskatzen zizkiola. Orduan biolin oldeei zahamiola zehargiak uztartu zitzaizkien, su eta oihar.

Urdin-histen zihoan Yvesen aurpegi geldotik, Poternako baratzea argiztatzen zuen zeru ubelgorrira altxatu zuen soa. Bozkarioari Himnoa apoteosis tragiko batean bururatu zenean, oskarbi zen: *an der freude*! Thierry zutitu zen. Irakurgailutik Beethovenen musikaren KDa kendu zuen eta momentu batez bihotzari hurbil atxiki. Pobreen destinua eta, hala deitu zezakeen engoitik, Ludwigen melodiaren poza zeukan goiz hartan, altxor.

Atzera begiratu gabe, baratzetik kanpo abiatu zen, urinez, ardo txarrez eta bizitzako edozein isuriz zikindu konpaktua eskuan, zerbitzu sozialek edo ibiltari erretretatu goiztiar batek harrapatuko zuen Yvesen gorpua bertan abandonatuz. Ez bide zioten izenik kausituko eta hiriko beharrunanten hilobian ehortziko zuten.

–15–

Uztailaren 31 hartan ekiak zuzen jotzen zuen.

Kamera numerikoaren begiaren bestaldean zegoen Agatak ez zuen argi borobil jazarkoia baizik ikusten. Bakarrik zetorrela, hau da gizongai izendaturik gabe, andere-esposak galdegin zion ospakizunaren filmatzea, horrelako eguna ez baitzen ahanzten ahal; horretarako itxura mugikorrak argazkiak baino politagoak ziren. Agatak manua betetzen zuen soil bezain fermuki.

Jessicak biziko laguntzat hartuko zuen Theo hara eta hona zebilen, hurbiltzen zitzaizkion azkaziak agurtzen. Jessica bere aldetik ibiltzen zen pinpirin, lilitik lilira, izeba zahar eta lehengusu gazteei ongi-etorriak banatzen. Goizaldeko antsiak, dudak, beldurrak eta zalantzak oro ahantziak zituen. Alabaina ile-apaindegian mutu geratu zen eta Sybele edertze-institutuan doi-doia hitz egin zuen, Maritxuk begitarte berria marrazten ziola.

– Egun handia zuretzat ez?

– Ez dakit. Berdin bai.

– Zer duzu ilundura hori? Ezteiak ederrak dira beti.

– ...Batez ere Euskal Herrian, kantuak dioenez! –hitza jalgi zitzaion ziztuka, hortz artetik.

Maritxuk bere ohizko irri erraldoia libratu zuen, ezko arrosa peza bat betazalen gainetik brist-brast ilkitzen ziola, behatza gune xifrituan pausatuz, neskak gehiegi sufri ez zezan. Garrasia auhen bururatu zitzaiola gogoratu zen Jessica, bat-batean Theo osasuntsuaren soa gurutzatu zuenean, tximistaren pare.

Nakoren semea zen Theo, Otsabideko eihera zokoan martxoko eurite batez sortua. Harritzen zen ezkonduko zen arratsaldean oraino, herriko etxe handieneko alabatxia bereganatzeko gai zelako. Harrondoko fama zabala zen. Ardiak, behiak eta Munhotarreko patarretan hazten ziren bi zaldi ere bazituzten. Arraroa zen garai hauetan zaldiak edukitzea. Ardurenean, Patsanean nola astoak atxikitzen ziren, edo bazterren garbitzeko pazoin bati sokaz estekaturiko ahuntzak. Gertatzen zen, udak idorregiak zirenean, belarra eskas eta pittikek korda ausikika hausten

zutela. Desagertzen ziren ondikotz. Baina hau beste istorio bat zen.

Zena zela, Theo ez zen laborantzako gauzei biziki interesatzen, ofizioz irakasle baitzen Baionako lehen mailako eskola batean. Umeak maite zituen eta partikulazki bakantzak. Oporretan zakua bizkarrera hupatzen zuen eta, haurtzaroko urteetan bezala, bidez bide abiatzen zen. Ateraldi horietarik baten karietara ezagutu zuen Jessica, eta erran genezake tanpez maitemindu zirela. Anitzen gustuko lasterxka. Halatan, ondoko astean berean, apartamentu amankomuna alokatu zuten Baionan eta geroztik, mundu osoa lekuko, bikotea osatzen zuten. Arropa zuritan apaindu neskaren soa harrapatu zuenean, sabela inarrosi eta ihalozka hasi zitzaion.

Agatak Beinat ikusi zuen solaskide bila. Azkenean honek xanpaina zerbitzatzen zen mahaian Sebas kausitu zuen, mutur, bestan ziren lotsabako haboroxienek burlatzen zutena lana galduz geroztik auhertzat kontsideratuz.

– Parisen ninduan iragan uztailaren 14an. Desfilean. Eta ez ditek CGTko zorritsuek ikuski-

zuna den-medrenik ere nahasi. Telebistak alta iragarria zian!

– Zergatik aipatzen didak desfilea? Eni berdin zaidak Parisen ala zakurraren ipurzuloan izan hizan!

– Ederra zian, izugarri! Musika militarra, Chirac pasatzen ikusi diat buru-has, bere autoan jendetzari agurka, zaldizko guardia errepublikarrak babestua. Hiru oren iraun dik eta zoratu nauk.

– Zoratzekoa bazukean bai! –Sebasek ihardetsi zion bakea emak gizon murdukatzen bailuan.

Baina Beinatek segitu zuen:

– Beldurra bazian CGTko mandoek desfilea trabatzea lortuko zutela, badakik erretretaren erreforma dela kausa! Badakik zer pentsatzen dudan?

– Ez jauna!

– Langile puta andana horiek merezi luketela lanean arinaraztea, ez hogeita hamabost orenez astean, baina bai berrogeita hamarrez, gu laborariak ari garen maneran, soldata emendaketarik eta erretreta esperantzarik gabe! Eta hire gisa langabezian direnak behar litezkek bortxatu

edozein lanetara makurtzera, auher higatzea baino hobe litekek ez?

Sebasek, haserre, lepotik tinkatu zuen salbaiki Parisko desfilean egon, Chiracen Eliseoko garden-partyan horditu eta MEDEFen katixima betebetean errezitatzen zion Beinat harroa. Ardurenean, Aljeriako gerlan mihia galdu zuela zerasaten gizona ez zen entzuten. Jessicaren ezteietan hargatik ahoak eman ahala ari zen, atzeman zuen lehenbiziko arroka Sebas zuela. Sebasek ez zezakeen pati: kexu gorrian sartu eta Beinat lurretik hogeita zazpi zentimetrotara altxatu zuen, kolpe motzaz erortzera utzi aitzin. Gorputzeko hezur eta haragi malatsak klaska eta glup ozenkari, gerlari ohia txiki-txiki egin zen Sebasen aurrean.

– Jessicaren ezteiak dituk! Lasai mutikoa! Ez gaituk araiz hain gauza gutxirentzat asalduko ez?

– Nor da hasi?

– Ez palpita mutikoa! Ez dea egia erraten dudana ala? Soik hantxe Peter, gure amerikanoa: jin duk hura ere hain urrundik...

Bake-lehiaz eta amen batean ohartu zen Peterren presentziaz, izualdi gaitza eragin zion Sebasen mamua saihetsetik kantitzen zarraikala.

Jessicaren osaba zen Peter. Seinanen ehortzeten karietara zeukan mercedes animale berdina alokatu zuen Miarritzeko aireportuan hegazkinetik jaistean. Giltza astunekin jostatzen zen. Sakelaratzen zituen, handik jalgitzen, haiekin goiti eta beheiti ari zen, denek ikusteko moduan. Jessicarengana jo zuen, zanpa-zanpa.

– Oixu neure oparia xuretako darlin'!

– Zer duxu? Afruntatua nuxu! Eztixit horrelakorik mehexi!

– Mehexi? Zafraldi ona zinuke mehexi egiazki buhame-ondo batekin ezkontzen baitxira; baina, paso. Ireki ezaxu paketa!

Amerikanoa begiak zulo geratu zen, neskaren eskuek oparia gerizatzen zuen papera eta hari urdin meharra nola ebakiko zuten aiduru. Noiztenka bihurtzen zen eta taberna barnean taldean eleka zirenak hurbiltzera deitzen zituen: Beinatekiko eztabaida antzuan beroturiko Sebas eta Martina, Pierra eta Graxi anai-arrebak, kamera eskuan Agata, Maiana eta emazte blonda bu-

lartsuz beztitua zen Frantxua Artoiz, Gaxton, Jeanne eta Xarles berrogei urteren buruan Paristik herrira bilduak, Ttotte eta zurrunga kimikotik bekan baizik iratzartzen ez zen bere ama gaixoa, Jakes eta Antonetta ezteietako espreski Marseillatik jinak, irudiz mozkorra zen Beinati ihes zebilkion Edmea, Baionako Poternako baratzeetan aterpetzen ziren Kastela eta Thierry eskaleak, urrin txarragatik ostatutik kanpo atxikitzen zirenak, aulki batean malinki estekaturiko alzheimer eritasunak aspaldian ezabatu Maddi Jessicaren amatxia, multzoari juntatu ziren paketearen irekitzen zinpurtzen zen esposaren aldamenean borobil zehatza marraztuz.

Peterrek, herrian eta partikulazki familian, aberats okituaren fama zeukan. Zirudienez, Jessica opariaren agertzen ari zela, zaintsuki, izugarria jaukiko zitzaiela pentsatzen zuten gehienek: Ameriketan gauzak ez ziren erdizka egiten gero! Halaz, urre puska gotor bat emango zion. Edo munduaren itzulia haizearen lau norabideetara egiteko eztei-bidaia baterako hegazkin billeteak. Edo cadillac beilegiaren erosteko elastikaz batu-

rik dolar orlegi metak. Edo berinazko ontzi batean zerratu uranio horaila purruskan.

Hatsa ezpain hegian dilinda zuten eta etsipena zein ustegabe hutsa irakurri zen haien begietan, Jessicak irririk gabe kaxa handitik mila paperetan troxaturiko oihalezko buruko soila atera zuenean. Tristezia mota batek zeharkaturiko begien aurrean, barre bat plegatzen saiatuz, oihala hedatu zuen Jessicak eta ikusi ahal izan zen Kaliforniaren kolorezko karta: beti alerta gorrian zen Malibu iparrean, San Frantzisko, Los Angeles, Hollywood, Santa Barbara eta han, hegoaldeko puntan, Mexikorekiko mugan zegoen Tijuana in Blue. L.A. hizkiak agertzen ziren gunean pausatu zuen behatza Peterrek:

– I live in that fuckin' area!

– Mila esker osaba. Thanks.

Jessicak buruko anekdotikoa mantalinaren ordez lepoan zintzilikatu zuen. Ama ahuntz-jauzika ondoratu zitzaion, afruntatua:

– Ken ezan itsuskeria hori. Mentsa hiza?

Herbail-aulki baten erroten zirri-zarra isila hauteman zuen Agatak, eta Maddi amatxia hor zeukan ondoan, *eni*, *eni*, *eni* kukumixa-oihuka.

Peter Theorengana lehiatu zen:

– Haugi mutikoa! Badiat hiretako ere fuckin' zerbait...

Irriz ari zen, gonbidatuak lehen xanpaina godalet meharrak hurrupatzen hasiak zirela. Mokanes brodatuaren gerizan sakelatik jalgi zuena erakutsi zion jendeari.

– Ene LAPDko poliziaburu plaka ematen deat boy!

– Ez dut ez horren beharrik osaba. Irakaslea naiz ni. Baina hartuko dizut atseginekin ene girgilen gordetzeko.

– Ez duk ez gordetzeko, baina papoan zintzilikatzeko.

Senar gaiaren palto beltz distiratsuaren gainean txintxilatu zuen zilarrezko izarra irudikatzen zuen gauzatxoa. Izarraren mamian LAPD idatzia zen. Peter ezin isildua zen:

– My fuckin' life... Zazpi urte iragan nizkian Coloradoko basamortuetan ardi kankaila batzuen zaintzen eta gero John Biscay herritarrak Los Angelesera deitu nindian, polizia lanetara. Ehunka gaiztagin arrastatu ditiat ikur hori erakustearekin berarekin. Hogeita hamar urtez ari

izan nauk Los Angeles hirian barna autoz barranda, Mike ene lankide beltzaranarekin. Hura Watts auzoan gertatu zen tiroketa batean eho zitean droga trafikatzaile batzuek, eta bakarrik suertatu nintzenean, bulego batean higatu nitian azken urteak.

– Uste duka eztei-egun bateko solasak direla horiek Pierra? –Kastela zaharra asaldatu zitzaion, eskale zen arren jendetasun apurra zaintzen zuela.

Karkaila amerikano batez lehertu zen:

– Ya son of a bich... Eta badakizue zein den ene balentriarik gogoragarriena? Ez, bistan dena. Begira, duela hamarkada bat, James Ellroy zerbitzura hurbildu zitzaigun, El Monte aldean 1958an erail zioten amaren inguruko txostenaren arakatzera.

– James Ellroy? –xanpaina basoa mahaian utzi eta interesatzen zela zirudien Graxik erran zuen, miresmena ezin irentsiz–: *Neure Itzal Zatia* nobelaren izkiriatzeko xehetasunak zuregandik erdietsi zituen beraz?

– Yea... Right. Ya know Ellroy? Alta ez da Etxeko Oilakian sortua! –Peterrek trufa zuen

lehia, erantsi aitzin–: Uste nuen ez zenutela mundua ezagutzen.

– Zu joanez geroztik, Euskal Herria anitz aldatu da, ez guk nahi bezainbat, baina aldatu da –kamera ezkelduz mintzatu zen Agata. Handik denbora labur barne, mututu zen neska, ortzaizeari beha.

Beinat arrailtzear zen, Graxi Theok eta Peterrek osatzen zuten taldean sartu zenean. Euskal Herriak, nola eta nondik ikusi, bizi edo jasan kanbiamendu erraldoien harkaitzetan lehertzen zihoan eztabaida:

– And this fuckin' violence?

– Aipatzeak ere ez du balio –Graxik motz artekatu zuen, baso bila eta kopetan behera, kanpoko beroa zein ezkaratzeko tepoagatik, isurtzen zitzaion izerdia lehortzen saiatzen zela.

James Ellroy Errioxako ardoaren pare klika-klika irakurtzen zela agertu zion, Star Academy telebistako sariketako lehenetan suertatutako Patxi saratarrak Paul Auster ikaragarri maite zuela, eta zineman Mikel Mooreren *Farenheit 9/11* frankok estimatu zutela. Zerrenda luzatuko zuen neskak gehituz demagun berari, eta ez zen

norma, Tom Cruise aktorea ikaragarri gustatzen zitzaiola, partikulazki *Eyes Wide Shut* eta *Minority Report* filmetan. Ahantziko zuen Susan Sarandon aipatzea. Baina ez zuen ezeren argitzeko astirik ukan hiru arrazoirengatik: batetik Farenheit hitza entzun baiko, haserre gorriak lauhazkatu zuelakoan Peter, bushean higatu urteak gogoan agian, sutsuki Bushen aldekoa baitzen eta Bush leinukoek obratzen zutena errotik begiko zuen, izan Irakeko gerla edo abortuaren legearen ezabatzeko xedea. Hainbeste amodio eta umiltasunen aurrean isildu zen Graxi: ez adiorik Tom Cruise eta Susan Sarandon!

Bigarrenik, Beinat eta Xarles bi auzoak, pataska larrian antzeman zituen, koloreak gorri eta mihiak zintzilik:

– Hago isilik, hire uztailaren 14ko desfilearen istorioez axolarik ez diat. Bakea emadak.

– Behar hituen soldaduak lerroan ibiltzen ikusi, zinez eder zian, eta ondotik armada motorizatuak, buruen gainetik pasatzen zitzaizkigun airekoen burrunbez lagundurik. Zoragarria zian...

– Habil, hoa hemendik.

Iheserako keinua egin zuen Xarlesek, baina Beinatek zerraikan, lelo:

– Arratsaldean Arbideko UMPko diputatuaren eskuinaldean nintzela Jacques Chirac lehendakariarekin hitz egin diat. Bihotza pil-pil nian. Hauxe gizona. Jainkoak zain dezala luzerako Frantziako presidentea.

– Haize parpaila hori?

– Bazauka? Nola mintzo hizan gure presidenteaz? Blasfematzen ari haiz.

Ukabilka elkorra eman zion sabelean. Xarles dolorez plegatzen zela, lasterka lekutu zen Edmearen magalean gerizatzeko. Edmea aldiz Yvonne eta Maianarekin eleka ari zen, Iker semearen egoeraz dudarik gabe, ondorioztatu zuen besteagorik gabe Graxik. Hirugarrenik, ezkaratzeko ahots eta irri burbuila *plazara!* oihuaz urratu zen.

Jessicak azken soa bota zion aitatxiren lo-gelako mirail handiari. Biloak pixka bat nahas zeuzkan eta gerriko zinta laxo. Theok paltoa estekatu zuen, papoan dilindan zerabilen LAPDko sherif plaka, oihal zuri zatiaz kukutzen entseatu zela. Marisantz auzo lehenak bikotearen irudia

ozkan jarri zuen: eskuilaz mutikoaren jantzia xahatu zuen, usain onez perdukatu eta neskatxaren matelan malinki haztuak ziren ile marrak zuzendu zituen. Aperitifa ez zen, ez, bake-unea izan. Jendakiak, ahaideak, azkaziak eta auzoak traputzen zihoazen, zangalatrabatzen edanaren ondorioz. Jaun-andere esposak egiazki arrangura ziren mezaren zabalkundearekiko.

Etxe aitzinean landatu ziren metan, bilintzabalantzaka beha, espantu baizik ez baitzen, Peter amerikanoak nola ilkiko zuen bere mercedes handiegia, herritarren 4L eta R5 herdoildu eta makatuen artetik. Auto erraldoiaren muturra, loiroko asunaldearen maldan zegoen ahe zaharkituaren gainera aurtiki zuen oharkabean.

– Need five strong fuckin’ men... Zatozte ene laguntzera!

Kaskoan zeraman stetson txapelaz hornitu begitartea leihotik jazarri zuen, suge gaizto gisa bihurdikatuz, orroaz. Ezteiak bertan zirela burutik kendurik, sei gizon azkar plantatu ziren mercedesaren sudur aurrean, eta a-ha, eta a-hi, bultzatu zuten, beribil gaixoaren motorra marraka antzutan akitzen zela. Erraiak eta tripakiak bota-

ko zituzten alajainkoa! Hondarrean, garraiogailu astun eta zabalegia asunetarik salbatu zuketen. Ahearen giderrak hegiak marrazkatu zizkion.

Irri bortxatua aireratuz, txoferraren umore beltza eragin zuen gertakari horrek. Baina denborarekin mercedesa berbideratu zen, elizarantz, esposena zetorrela ondotik eta segidan ezkaratzeko atarian, ehun bat burlari muturenak, tipula-kordela melenga antzera, emeki.

Atsean hartu zuketen esposek Herriko Etxekoa eta elizakoa arazorik gabe iragan zelako. Gaxton eta Jeannerentzat salbu. Halaz, Harrondotik plazarako bihurguneek ez zieten on anitzik eragin. Baina bihurguneek baino gehiago atzean zekarzkiten Kastela eta Thierry eskaleen urrinak zituzkeen trabatu eta trenputxartzeko puntura eroan: senar-emazte plaxenten hertzeak korapiloz kordokatu ziren lauzpabost kilometro baino irauten ez zuen bidaian zehar. Thierry oihuka ari zen, Gaxton ttattarratuaren belarriak larrutuz:

– Etxe gabeak izanagatik ez gara teteleak!

Ekiak soa nabartzen zion. Kastelak besoa tinkatzen zion, isil zedin amoreagatik. Debaldetan. Ez ziren geriza ofizialetan aterpetzera atrebitu:

zeremoniek zirauteno etxekoek kanpoan egotera deitu zituzten. Berdin zitzaien funtsean, herriko etxe zein elizetan baitzen eskean dirurik gehiena erdiesten. Hala egitea deliberatu zuten. Jendea ez zen gogoratzen Kastela eta Thierry, biak, ezteietara gonbidatuak zirela, sozialki menturaz arras ezberdinak zirelako; herritarrek, egun bereziaren haroa aitzaki, euro bat edo biko txanpon mardulak iraizten zituzten herresten buneta zolak perdukatuz.

Auzapezaren aitzinean Jessicak eta Theok bai-a xuxurlatu zuten. Ele bera, eskerrak zeruetako jaun maiteari, errepikatu zuten apezaren bozkariorako urrezko eraztunak trukatzean, Agatak galerietarik unea kameraz bizihazten zuela. Bi momentu handiosetan Harrondoko amatxi xerkatzen zuen begiz Jessicak, jendearengana bizkarrez erdi-tolesturik. Oroitu zen orduan Santsaneneko Marikaren gomendiopean etxean abandonatua zela Maddi, elizan eskandalarik sor ez zezan. Alabaina, Maria Birjinaren tailua zuriurdinaren aurrean aurkitzen zenean, kalapita, irain eta sakre ugariren uhinetik, eritasunak jo emazte adindua arras biluzten zen eta zahar-

tzeak gorputza nola astintzen, higatzen, zimurtzen eta oroz bat husten zuen begimen zezaketen fededunek, harriturik.

Egiaz, zahartzea besteen soinetan baizik ez zitekeen suma, bakoitzak bere burua beti gazte irudikatzen baitzuen. *Marikarekin ongi date Maddi* pentsatu zuen Jessicak, artean apezak seinalea eman ondoan, musu arina pausatzen zuela Theoren aho-izkinan. *Ongi date* eta irri egin zuen, Marikak aspaldiko etxekandereen laneko nilonezko dabantale koloretsua itxuratuz: zerrailu meharraz hersten zen goitik beheiti zen eta horiz azpatu lore arrosa xumeak urdinezko gibeldian irekitzen zitzaizkion.

Jendetza gaitzak airoski kantatzen zuen anjelusa oihar, bikotea kalostraperatu zen familiaz setiaturik. Herriko adiskideak elizaren maldan zeuden irris pikorrak aurtikitzen, oraiko moldean. Theok ez zuen segitzailerik. Ama ez zitzaion azaldu. Hala uste zuen behintzat, Nako Mikelekin Santoineko hilerriaren maldan solasean kliskatu zuen arte. Autobusa hartu zukeen San Andresen eta, atzo bailitzan, oinez etorria zitekeen Arbiderateko bide juntatik Otsabideko

plazaraino. Plazerez hantu zitzaion bihotza eta amarengana lasterkatu zen:

– Ama?

– Ezkondua haiz seme! Zenbat urterentzat?

– Zer zenbat urterentzat? Bizi guztiko araiz ama!

– Hori mutikoa ez baitakik. Bahaki, ez hintzateke sekula ezkonduko.

Nako hitz gabetu zen. Burua apaldu zuen. Malko baten jaukia iragarri zuen Theok amaren matelak ureztatzen. Tristura bulta batek inarrosi zion barnea.

– Jessicaren bila banoa.

– Ez, utz ezak den lekuan. Handikiekin ez nauk ontsa. Errak, bakar eta ametsetarik dagoen hura ez dea Graxi?

– Bai, naski.

– Haren amak eman arrautz eta xamango hondarrekin aseak izan zarete. Eskerrak bihurtu behar hizkioke.

– Nik?

– Bai. Baina bego. Banoak. Deit nezak haur bat ukanen duzuenean, zuen ezkontzak ordurainо irauten baldin badu.

– Ama, otoi!

Ekiek, euriek, haizeek, ihortziriek eta ilunpeek beltzatu larruarekiko Nako buhame ohia Otsabidetik partitzen begimendu zuten jende anitzek. Agataren so-numerikoa emaztearen siluetari itsatsirik geratu zen. Graxik, herritar gehienek nola, itzal luzea ezagutu zuen. Sute, ke, lur heze eta mihimen busti hatsaren oroitzak zirikatu zizkion erraiak. Theo begiratu zuen, hormatua: bederatzi udaberri zituela sortzen kukuxkatu zuen mutikoa Jessica bere lehengusu txikienarekin esposatzen zen Theo hura balitz?

Munduaren bildutasunaz harritu zen, halaber harri batetik besterako xendaren laburtasunaz. Ikuskizun eta sentimendu doloretsuak ziren, Graxik uste zuelako hobi baten maneran, iragana, oraina eta geroa irensteko destinua bereganatzen ari zela, ahantzezinezko urrin arraroa bazterretan txertatuz ihesean, zanpa-zanpa zebilen Nakoren urratsetarik. Ahurrak tinkatu zituen. Jendetzak zoriontzen zuen bikotearen norabidean galdu zituen begiak. Uda mineko haritz hostoen murmurua, eguerdiko sasien usain oparoen eskaintza, txori xeheen txio-txio baketsua

eta martxo bukaerako kukuaren kanta uztartzen zitzaizkion sabelaren ganbara beltzetik ilki umearen garrasien oroitzarekin. Itxura meta opakoa zeukan buruan. Agerinde suntsigarria. Betazalak apaldu eta hasperenkatu zuen:

– Non dira ene egunak?

Ordura arte mendeak jaten eta zorionez lan egiten higatu zituela gogoetatzen zuen unean, ezteiliarren harramantza sumatu zuen, ez baitzen bakarra, fazinaturik Nako segitu zutenen artean: marmara tai gabea zen. Bizidunak, guztia ongi zebilkionean ere, suge-zilar eztenaren pareko mihia zeukan, errabia bat bihotzean, funtsik gabeko herrari plegatzen zitzaion jeloskeria. Harrondo peko errekara zihoakeela itxuratzen zuten batzuek, besteek gertakaria buhameen ezkontza izendatzen zutela arraiki, eri puntaz zeru gorenak erakutsiz:

– Gaineko hura duk mendekatuko!

– Pentsa! Badik aspaldi ez dugula haren berririk...

Beinatek solasa mozkor-karkara gordinez troxatu zuen.

– Jendeak jendeekin, beti hala izan duk gure Euskal Herri maitagarri hontan, ustegabea ekidinez eta sanoki.

– Arrazoi duk...

Edmeak erran eta erantsi zuen:

– Maiana, so egizan nor den hor pasatzen?

– Kakueneko astaina bilo luze hura, zakur trapatua ondotik, hiritarra bezala lasterka. Ageri din ez dela lanean akitzen! Hobe liken horrek ere ezkondurik, hezteko amiñi bat!

– Erran Maiana, artekatu zion Edmeak erromantikoago zelako agian, ez dea amodioz ezkontzen?

– Amodioa, ezkondu aitzin badun eta, ezkontza ahitzean, bikotekide batek edo besteak bere gustuko ohaidea harrapatzea lortzea duenean, bestela bizi osoa amodiorik gabe higatzeko arriskatzen dun!

– Hara! Entzun behar nuena! Ez haiz biziki baikor hi!

Kakueneko astaina bilo luzea, hala deitzen zuten apalestea airean, herri hartan emazteek ez baitzuten ez irakurtzen ez eta kiroletan betarik galtzen, jendetza bilduan ezagutzen zituenak

agurtuz iragan zen; eskua altxatuz Jessica eskolako lagun ohia zoriondu zuen. Ez zen gelditu aldion ahurrean zeraman ur botilaren betetzeko. Egarriak hilen zuen engoitik etxerainoko bide neketsuan. Patzarreneko bihurgunean urtu ziren inguma izerditsua eta zakurraren tu lerroaren aztarnak.

Behatzaileen karra ezteien minera itzuli zen. Beinatek oraino, Parisko uztailaren 14ko desfilea kontatzeko solaskideren bat xerkatzen zuen. Edmea Maianarekin ari zen. Peterrek andere panpoxez apaindu Frantxua zeukan lagun. Ttotte Sebasekin eta Martinarekin ari zen, hirurek sufritu berri baitzuten gontz-karrankatze egoera berdina; klikatzen zituzten erremedioen on-gaitzak aztertzen zituztela, aita borobilean sartu zen.

– Nik egun oroz hogeita hamasei pilula irensten ditiat, denak kolore eta ekai ezberdinekoak! Bazauzue?

– Iraunen duzu bai horrela gizon!

Sebasen arraileria orduz kanpokoa zen. Aitak igandeetako begitarte serios eta larderiatsua aitzinatu zuen:

– Zahartasuna zuek bederen ez didazue ordainduko! Bata zainetarik eri, bestea langabezian, azkena estatuak lagundu enplegu batean! Egia erran, dena estakuru, laneko gutizia duzue eskas zuek!

– Alu zikina.

Sebasen haserre-muskila susmatu eta aitak taldea utzi zuen, eguraldi ona ihortzirira bideratzen ari zela iruditzen zitzaiolako. Sua piztu eta eskuetarik eskapatzen zenean, jakin behar zen gar eta itxindietarik ordu zeno ihes egiten.

Herriko plaza zabalean barreiatutako gonbidatuen artean hara-honaka zebilen Peter bere *self made man* istorio erakargarria aditu nahi zuenari azaltzen:

– Han, Ameriketan, ez duk fuckin' seguritate sozialik, are gutxiago fuckin' erretretarik, edo fuckin' SMICik. Han dena libre duk. Eta pobreak pobre gelditzen dituk alfer hutsak direlako. Ez hemen erraten den moldean, lanik edo nik dakita zerik ez delako. Funtsean, lelo bera duk mundu osoan: pobrezia auherreziaren eta bizioaren umea duk! Eta langileak orotan umezurtz... merezi baitute! Estatuak ez dik muturrik sartzen

nagusien eta handikien aferetan! Nik lanaren izerdiaz gaitzeko sos zionea metatu diat eta Wattsen bizi nuk, ederki. Mikel, ikusi duka ene mercedesa? Segur nuk horrelako beribil baten jabe izatea hiretako ametsa dela; enetako errealitatea duk, ya know...

– Baiki.

– Zer egin duk hik azken urteotan aberatsago izaten saiatzeko?

– Sastretegiko lurrak eneganatu ditiat eta laster Murtutsenekoak.

– Biba hi!

– Murtutsenekoak enetako zituan ez bazinituzte, zuek euskaldunek, bazterrak harrotu! –saihetseko multzoan abere eta emazte solas ari zen Frantxis mehakoilak karakatu zuen talderantz inguratuz.

– Egia –baieztatu zuen ausarki edaten hasi zen Mikelek–, adiskideak deitu eta ikurrinaz airostu bizpahiru manifestaldi SAFERaren egoitzaren aitzinean, prefeturalat igorri mila izenez hornitu petizionea eta desmasiarik eragin ez zuen zartagailu baten laguntzaz lortu nuela Murtutsenea!

– Hainbeste lur eremuren premiarik baduka? Eta guk nola behar dugu iharduki?

– Zoazte deabruetan hara! Zuzentasuna ene alde dago!

– Bortxak, mehatxuak eta apalesteak zurkaiztu zuzentasunaz ari baldin bahaiz, nik ez diat hire lurrik nahi...

Motz eta hotz, Frantxis bat-batean desagertu zen, buru-gainean errautsez emokatu txapela ozkan jartzen zuela. Gizonak geldirik gabe erretzen zuen caporal tabako usaina hedatu zen herriko plazaren lau izkinetara. Agataren manuz, alabaina jendetzaren bozkarioa filmatzen zarraikala noiztenka pixagaletzen zen hura ere, kamera numerikoa aharratu berri zirenengan finkatu zuen Graxik, diskretuki.

Ez zekien Graxik, arratsaldean zeharreko gertakarietarik zer irentsi zuen Agatak zetxikan kameraren ahoak; filmaren gibelatzeko gogoa piztu zitzaion. Baina ez zuen ezer egin eta ikusten zuena bizihazten segitzen zuen, xumexumea. Begia kameraren atzean zeukan lehen uneko irudipena areagotu zitzaion: ez zen ordura arte konturatua, baina bi edo hiru auzo biltzen

ziren ber, Jessicaren ezteietan gatazka eta aharra pizten zen, eleen burbuila egoskorra isurtzen zen zokorik ezkutuenetara. Ez pataska hilgarririk, ez, euskaldunak bake itxura eta neurriak zaintzen bazekielako; norbait hitzez eta aditzez suntsitzen eta lurra baino apalago ehortz zitekeen behin betirako irri osasuntsua ezpainetan ixkilim.

Presiopean konkortzen eta mututzen zen herria zen gurea, zioen Graxik. Kameraren ninia Maianarekin, Yvonnerekin eta Jessicarekin ahapez ari zen Edmearengana zuzendu zuen.

– Ikerren bisitatzen izan naiz iragan larunbatean.

– Eta nola da? Morala badu? –Yvonne zinez interesatua zen.

Maianak burua inarrosi zuen:

– Ez dugu suerterik gure semeekin, Edmea!

– Enea bederen ez da emazte gisa apaintzen...

– Errazu, otoi!

– Zer? Ez da egia ala? Herriaren alde biziaren ematea ez dea ederrago?

– Baina?

Maiana uzkurra harritu bezain gaitzitu zen. Segitu zuen:

– Gainera badakit Edmea, Iker terroristekin nahasten dizutenean zenbat sufritzen duzun. Ez du balio minaren ezkutatzea.

– Ene aferak dira. Ez duzu ene jujatzeko eskubiderik.

– Ez zaitut jujatzen Edmea. Ez zaitut gaitzesten. Sortzen eta hazten garenean ez dakigu egunak zerekin beteko zaizkigun: bakoitzak bere gurutzea badu ekartzeko eta eramateko. Ez duxu xuk, Jessica, horrelako gogo-hausterik! Iraun bekixu!

Maiana abeslari zerabilkion hurbiltzen zitzaion andere esposari, bera Frantxua semearen itzalean kausitzen zela. Begia kameraren zuloan, gogoetari lotu zitzaion Graxi: bai horixe zen, jendeek elkarrekin hitz egitea xerkatzen zuten eta aldi berean eskapatzen ziren, hitz egitea baino gehiago desiratzen bailuten, hala nola gatazka, eztabaida, erasialdia emateko aukera, belaunaldiz belaunaldi landu gorrotoa, beraien buruarekiko norbait zirela egiaztatzearren. Euskaldunak izpiritua beti alha zuen: apaldua, umiliatua, baz-

tertua sentitzen zen, beti negar eta auhenka. Hargatik, bizitzeko era ezberdinak onartzen ez ziren bezala, pairamenak, batez ere lehen auzoarenak, ez ziren nehoiz kontuan hartzen.

Filmatzen ari zela, kameraren puntak nortasun sakonarekiko irekitzen zion lezeaz hormatua, Graxi oroitu zen Arbideko ezagun baten administrazioarekiko ohar oldartuaz:

– Erran nionan: pasa ezadazu arduraduna eta agudo!

– Baina ez zen sail hori langilearen egitekoa...

Graxi mutu geratu zen, mundu osoa aztalpean lehiatzen zuen arbidetar abertzale-feminista haren zinkurinak behatzean. Horixe bera zen, errepikatu zuen: euskaldunak ez zuen ezer egiten ahal botere indartsu baten hegalpetik kanpo, izan eliza, izan notableria, izan edozein alorretako buruzagi; botere indartsu horiek halaber etsai handitzat kontsideratzea maite zuen, beraren balioa biderkatzen ziotelako. Euskalduna ez zen nornahi, buruzagiekin mintzo zen, buruzagien aurka borrokatzen zen eta buruzagi zen bere herrian berean. Buruzagitza galtzen zuela iruditzen zitzaionean gaiztotzen zen, udamineko leizafin.

Erakunde armatua eskumen zeukan mendekatzeko: laburpen injustuak min egin zion Graxiri.

Izuak eragin dardaraz filmatzen zuen argazkitan hartua izatera presatzen zen plazaren erdiko jendetza: bakean eta soseguan bizitzea xede baldin bazen, erantsi zuen Graxik kamera Agatari pasatuz, herria zein euskal nortasunarekiko distantziarik ez zitzaion norberak bere gogoari zilegitu behar.

Eliza ondoko sasiak higitu ziren. Graxik Agatari eriaz lurrean sigi-sagaka elkarturik lerra eta bihurdika zebiltzan bi sugegorri erakutsi zizkion, filma zitzan. Oilo larrua hazten zitzaien eta orroemez urrundu ziren sasiaren maldatik. Bi emazteen ikarak susmatuz, Jessica eta Theo hurbildu zitzaizkien:

– Zer ari zarete? Argazkiaren egiteko ordua dugu.

– Bai, heldu gara Jessica. Eztena agerian zeukaten herrestariei beha ginauden.

– Baia? Hauxe ikusgarria! Dena ongi pasatzen da momentuko. Theo eta biok zoriontsu gara gurekin zaudetelako, bakarrik eta kasik bakartuak etorri zareten arren.

– Ahal duguna egin dugu...

Agatak deus ez bailitzan begia kameraren zurrutagailuan pausatu zuen, solasak, ele-meleak eta karkailak bazterturik, argazkiaren ontzeko petik gora herrokaturiko jendeak jargietara nola hupatzen ziren miretsiz. Gazteenak gainean zeuden, helduak erdikoetan eta zolakoetan adindu kurkuilatuak, bata bestearen kontra trinko. Hortzik gabeko ahoak erakusten zituzten irriaren ildoa urratzerakoan. Bat-batean oihu latza aditu zen: Edmea zen erori. Jendaldearen zati handia mugitu eta makurtu zen, kide gaixoaren laguntzeko. Edmea zutitu zen, arropari itsatsi belar idor ilatxak eskuz garbitu zituen eta ahurraz akotea orekatu zuen.

Jaun-andere esposak gonbidatuen artean jarri zirenerako gertakaria ahantzia zen, salbu Edmearentzat ezkerreko azpian garatzen zihoakion ubela torratzen zuela, lizun-aire? Artean gazteen mugimendu salbaiek aldamuaren antzera plantatutako eraikuntza inarrosarazten zuten, dudak eta zalantzak multiplikatuz.

– Orain irrino bat denek –argazkilaria presatua zen.

Une horretan Agata Peterren ondora lehiatu zen, ez baitzuen potret oroigarritik kanpo geratu nahi, bakarrik eta bakartia etorriagatik, Jessicaren arabera.

Klix-klax: eta bat. Klix-klax: eta bi. Azkena: klix-klax.

Jargietan barrez bizihaztuak oro barreiatu ziren, pika-bele saldo. Batzuk jadanik mozkor. Besteak alegera. Emazteak, gurbil, andere esposa amultsuki inguratzen. Beinat aldiz hinkihanka Kastelaren aldamenean kausitu zen, uztailaren 14ko desfilea zeukala beti aipagai.

– Bakea emak gizon!

Aise aspertzen zen Kastela. Eskalea amerikanoaren maldan gerizatu zen. Fuckin' handik eta fuckin' hemendik entzun zuenean, Sebas hautatu zuen aixolbetzat, baina hau ere bere barneko zauriez mintzo zen. Edmea eta Yvonne ahapekarien aitzinetik pasatu zen. Maianak Frantxuaren zetazko zaia orraztatzen zuen. Ttottek, amaren besoa zetxikan.

Musika oihartu zenerako Pierrak Agata gerritik hartu zuen, dantzara deituz. Agata ez zen libre eta beraz arrebarekin abiatu zen balts ero

baten urratsak errautsean marraztera. Xarlesek orduan, sekula egin ez zuena, Jeanne bere lehenbiziko maitalea tinkatu zuen, Gaxtonen so sutsuaren menean. Gaineratikoak, herriko plazako harizti ederraren aterpean zeuden basoak bete ahala husten. Hargatik, aharra muskilak nabaritzen ziren, alaitasuna eta amodioa goresteko antolatu bestaren bihotzean.

Graxik hori zuen gogoan, soinu arrotza antzeman zuenean. Taldearengana lasterka eta klarinetea jotzen zuena adiskideki besarkatu zuen Kastelak.

– Dragan! Jin zarete beraz!

– Bistan dena Kastela, ez genezakeen horrelako ospakizuna huts egin!

DJ Katx izeneko arbidetarrak Dragan eta haren lagunei lekua abandonatu zien. Egarri hila zen. Ostatura bideratu zen. Isiltasun une laburraren ondotik, klarinetearen hots eztia altxatu zen errauts zutoin baten pare, hamabi soketako gitarrarenak izpiritu nahasiak kilikatu zituen eta akordeoia negarrez ari zela bouzouki xeheak poza bihikatu zuen, Otsabideko plazara Errumania eta Donau ibai erraldoiaren ezpondetako

ahaireak ekarriz. Jendea istant batez izotz geratu zen:

– Baina zer da hori?

– Buhameak hemen ditugu...

Beinatek, uztailaren 14ko doinu militarren oihartzunak tanpez ezabatu behar izan zituen. Kastelak, ametsetako kadrilla eskain asmoz, Yvonne bahitu zuen; emaztea, mutur, urrin txarra zerion gizonaren urratsean ingumatu zen. Theo esku zartaka hasi zen eta hark ireki bidetik ezteiliarrak txaloka zinpurtu ziren. Peterrek stetson handia kasko-pelatuan pausatu eta haritzen freskuran handitzen ari zen dantzarien borobilera eroan zituen beso bietan zintzilik zeramatzan Edmea eta Maiana. Jessicaren ezkon-jantzi zuria errautsez beilegi zen. Theok ttattarra belarrera bota eta Graxi hartu zuen.

Mila urte bazen neskak ez zuela deabruak berak itxura ez zezakeen horrelako zaldizka hunkigarririk eskaini. Zatia bururatu zenean, Theok, eskerronez eta Jessicaren begietarik at, musu mardula pausatu zion ezpain idortuetan. Martinaren sorbaldak goseti ferekatzen ari zen Sebas. Xarlesen ahurrak Josyren azpi oparoen erronda

ikaragarria haztatzen zebiltzan. Josyk laztan olde bakoitzean auhen luzea askatzen zuen. Ttottek, erremedioak hartu berria baitzen, dantzarientzat erritmoa oinaz markatzen zuen zuhaitz zaharraren enborrean bermatuz:

– Arren! Arren! Arren!

Eromena hedatu zen. Dragan, Vaclav, Ilich eta Georgiuk alaiki jotzen zuten soinuak arimak urratzen zituen. Agatak ordutik hara ez zuen saihets-batzarrik filmatu: denak bat ziren, bouzoukiaren neurkadaz aharrak, jeloskeriak, tristeziak ezabatuak bailiran. Errautsa laino astun altxatzen zen. Donau usaina zerion Otsabide herriari. Bestelakotasun urakan bat. Thierryk musikariei edatera eman zien. Eta berriz tzigan kutsuko aire baten azpiltzeari ekin zioten.

Laukotearen aberasgarri, Etxepareko Jason etorri zen Arbideko musika eskolan ikasteko baliatzen zuen biolina kokospean. Handik laster Mikelen txistua erantsi zitzaion musika-taldeari, herriko xantreak bere ahots sakonaz, hitzik gabeko kanta batzuk airarazten zituela. Hamabi soketako gitarra eta biolina batzuetan aldizka ari

ziren eta Draganek belarrientzat mingarri suerta zitekeen melodia eztitzen zuen klarineteaz.

Dantzan ari zen herria, dantzan ohikoan elkar ausikika bazebiltzan auzoak, jaun-andere esposak, azkaziak, dantzan sartu zen bekatu zen arren, bereterrez lagundutako apeza, dantzan halaber azkenik herri horretan zegoen giroa dastatzeko plazan ikusgarriari so kurios gelditzen zirenak oro.

Peter izerditan zen. Stetsonak aurtikiz marrakatu zuen:

– Life is a miracle!

– Mintza hadi euskara garbian, mutikoa –Kastela zaharraren orroa zen altxatu.

Donau ur-handia hegietan hazi Draganen besoartera erori zen kalifornikatzaile arraila. Lurrean zetzan klarinetea biltzen lagundu zuen.

– Eztei ederrak Euskal Herrian, isn’t it?

– Yea man, fuckin’ the fuck –hirugarren behatza zerura, Draganek filmetan hainbat aldiz entzuna errepikatu zion, ekialdeko mintza-moldea areagotuz.

Musika indartsuago aditu zen, jendea dantzatzetik geratu zen bat-batean, borobilaren erdian

Jessica eta Theo elkarri musuka luzean begimendu zituztenean.

Aingerua hegaldaka iragan zen.

–16–

Klinikako aparkalekuan utzi zuen autoa. Motorra eho zion. Azantzarekin batera kasete-irakurgailuan zebilen Stingen *Sacred Love* zinta berriko melodiak korrok bitxietan amildu ziren. Aitaren ikusteko antsia, New Yorken bizi zen ingelesaren ahotsak eta Manu Katché atabalari ausartaren erritmoek arinduko ziotela uste zuen Graxik: *Shut out the world behind us, put your long black dress...* Musika zinta halatan, biribilka ari zen, emaztearen gogoan aztarnarik utzi gabe.

Garrailaz estali klinikako xendetan ibiltzen hasi zenean, oroitu zen kanta berdinak lauzpabost aldiz hauteman zituela, are gehiago azken beltzaren atarian zegoenean. Aita tanpez gaizkitu zenetik astean bietan egiten zuen hiriburuko bidaia, muinetan metatu altxortegi musikalean (Ry Cooder, Chrissie Hynde, Sting, Sinead O'Connor, Bono, Emmylou Harris besteak beste) irauteko eta ihardukitzeko arrazoiak bilatuz. Baina ez zitzaion erraz ohe zimurtuan zetzan gizonaren herio hurbilaren aurreko izuaren bazter-

tzea. Gela beilegitik ateratzen zen, negar zorian eta sabela atxikiz, ez oka egiteko. Musikak laguntza erraldoia eskaintzen zion alta, balizko etxea eraikitzeko aldamioa bailitzan.

45. ganbarako atea jo zuen. Erantzunik ez. Sartu zen.

Hatsartze elkor eta kolpekatua.

– Arratsalde on, aita.

Eskua tinkatu zion, ohearen ondora heldurik musu bat pausatuz kopetan. Gizonak begitartea itzulikatu eta begiz bakarrik ihardetsi zion. Ahurra trinkoago egin zen. Aitak ez zuen jada hitz egiten, zenbait aste lehenago jasan buruko odol erasotik landa. Ulertzen zuela erakusteko, eskuineko besoa ahulki mugitzen zuen edo ninikak zituen higitzen, oraino munduaren partaide zela frogatzeko. Beldurra iraizten zitzaion. Graxiren soan ere, menturaz, hiltzearen beldur berdina pizten zen, su berekoia, baina aitaren aurrean sentimendua neurtzen saiatzen zen. Jendeak ez ziren debaldetan uhertu behar.

Halaz, sekula aitaren begiak *ene aldia dea orai?* eskatzeko moldean bereetan bermatzenegi baldin baziren, apaltzen zituen, lotsaz eta

agian arrapostu zintzo bezain argia ez zezakeelako hitzez bidera; ez zen ausartzen. Uneak baziren, zioen Graxik, non ez ziren beharbada egia guztiak aitortzeko gai. Hargatik garbi zegoen. Gela hits hartan egiarekin buruz buru gelditzeko ikara hotza nabaritzen zuen bakarra orduan, Graxi zela. Ez aita. Hark bazekielako. Hitzorduaren aiduru baitzetzan, ttattit.

Eskuen eta begien elkarrizketa mutuari ez zen ohitzen. Ohean zegoenak ele-gabeziaz gaztigatzen zuela sinestera heldu zen Graxi. Aditzen ausentzia. Bihotz urrakoa. Hitza premiazkoa zen. Gogoan zeukan aitarekin eroan zuen hondar solasaren eduki pobrea, behin betirako gogoan zizelkatutakoa. Igande arratsalde batez joan zitzaion bisitaz; gelaratu zen ahalik azantz gutxien eginez. Ohantzearen parean plantatu zen. Aitak erran zion:

– E’hut sartzen intzun.

– Atsalde hun. Untsa zirea?

– Ba, lo’in nahi niken eta e’nun heltzen.

– Sufritzen duzia?

– Eez, bena...

Ez zuen perpausa bukatu, betazalak erori zitzaizkion etxeko norbait ganbaran ikustearekin gorputz osoa lasaitzen eta laxatzen zihoakiola. Zoriontsu zitekeen nortasunik ez zuen klinika horretan, ez hain abandonatua hots. Ezpainetan irri mehar bat jauki zitzaion. Graxik perfusioaren hari zehargitik leiho ondoko kantoi batean pausatu bunet ilunera lerrarazi zuen begirada, biak biziaren hasiera eta bukaeraren ikurrak bailiran. Sosegatu zen: gizona bunetarekin sortu zen, eguneroko urratsetan nehoiz ez zuen kitatu eta pariatzekoa zen garaitezintasunezko seinale erregetiarra hobira eta Josafateko Soroetara eramango zuela.

Bizitza laburbiltzen zion erraustez, hautsez eta izerdiz emokatu buruko umilak. Hargatik, igande hartan, jada hatsartzeko nekeziak zeuzkan arren, aitaren isiltasun tematsua akiduraren gain jarri zuen. Partitzean, hiltzera zihoan haragiaren berotasunak harritzen zuela, pott presatua matelan txertatu zion eta agur lainoak plegatu zituzten:

– Jinen nitzaitzu etzi.

Hatsartze elkor eta kolpekatua.

Aitaren isiltasunak kezkatzen zuen. Herrirako bidean Graxik ez zeukan pentsamendu minberagorik jorratzeko. Hatsartze elkor eta kolpekatuek gizonaren kokotxa dilindan eta ahoa zabalik geratzera behartzen zuten. Airea premiazkoa zuen eta kantitate handian. Airartze latz bezain dorpeak batzuetan hitz eskasiaren harrobi larria zulatzen zuen, biziaren segurtatzeko hain garrantzitsua zen oxigeno ttakak nonbaiteko linboetan zintzilik baileuden. Molekula bederaren xerka joatea komeni zitzaion, gizonaren begi geldoetako arranguraren hedadura lekuko.

Aitak bizirik irauteko zegizkien indar erraldoiak menean, orduan bai, zinez ulitzen zela Graxi eta *laguntza* galdatuko zuela! Baina laster, mendeak ziruditen segundoak ahitzean, birikak ozenki eta neurka naturalagoan husten eta betetzen sumatzen zituen.

Graxiren izpiritua alha zebilen: igande aipatu hartan, erizain nagusia edo familiako medikua deitzekoa zena? Eta autoan zebilela ez aski eginaz hobendun sentitzen zen, herioa bezalako gauza itsusi eta hitsaren etorreraz errudun. Iluna jaistear zela, izpiritua desbideratu zitzaion kulpa-

ren zurrunbilotik aitaren berekiko mututasunaren oinarrien aztertzera; halaz, injustua zen arren, gertakaria gizonaren bereganako betidaniko kexuaren gain jarri zuen. Nehork ez zion hitz egiten. Maitaleek kidearen kitatzeko baliatzen zuten teknikaren pare itxuratzen zuen elehustasuna: metaforikoki larru-azala larrantz ziharduenari beste batengana zihoazela nola erran ez jakin eta isiltasun-harri bihurtzen ziren.

Hiru egun, hiru hilabete zein hiru urteren buruan, bereizketarekiko zehaztapen eskasak mila puskatan barreiatzen zuen Graxi, zartatzen, hausten, zira arrosezko panpina: zorionik ez zen. Halaz, ohean zetzanarena asmatuzko mendekuaren bizkar ezarri eta negarraren beroa oldartu zitzaion betazalen izkinan. Aitaren herioa iragarria izanki eta alaba zen haren mezulari herabea.

Graxik berrogei urte zituen. Ezkongabea zen. Gaurko menderako kanonekiko gorpuzkera ingrata zeukala ager genezake: txikia, lodikotea, papogabea, beltzarana, erdi-mutiko. Itsusi kausitzen zuen burua. Ohaide bihi batek ez zion ederra zenik nehoiz azaldu, are gutxiago amodiorik

baimendu. Beti arropa ilunez bezti zen eta ikusezina bilakatua zen; karrikan demagun ibiltariek kuskatzen zuten eta deplauki haren presentziaz ohartzean, harritzen, loriatzen edo haserretzen ziren. Jende-kalitaterik ez zitzaion onartzen eta mintzatzea zilegitzen baldin bazioten, akats oroz aberats zela azpimarratzen zuen, barre etsia ezpainetan dildilika *sortzeagatik barkatu* ahoskatzen bailuan.

Maitatua eta jende-gisa kontsideratua baino, hazia izan ordez gogorki hezia zutela iruditzen zitzaion: konparaketa poetikoa sobera garatu gabe, nahar artean eta lur hiletan handitu eta lilitutako arrosa zuria zen. Aitarengandik ele bat espero zuen unean, mugak eta bizitzako esperientziarik bortitzenak, burdina gorriz markaturik, gostariak gosta, larruan pairatzera behartua izan zela konturatzen zen Graxi. Itsumandoka gehienetan. Galdeei ez zihoazkien erantzunak erreusitzen zutenen partetik erdietsiz. Frustrazioa areagotzen zioten.

Anitzetan bidez engainatzen zen, hutsa zein bekatua preziorik garestienean ordainduz. Samurtasunaz eta maitasunaz enorant eta ez-jakin

zebilen. Destinuaren aztarnak finkatzeko gai ez zen hosto zuriekiko liburua zen. Bere ez-izatearen deboila fisikoa besteen begietan irakurtzen zuena. Munduarekiko funtsik gabeko kalaka ugari eraman eta egiazko solas gutxi trukatu zuelako. Laster berandu zatekeen. Autoaren ilunean, musika eho zuela, *hori guztia* preseski zeukan bihotzean iltze herdoildu, aitaren isiltasun mingarriaren mailuaren pean.

Hatsartze elkor eta kolpekatua.

Gurasoren baten herioa hurran sentitzen zenean, gauaren erdian norberaz dolutzeko ordua zabaltzen zen. Batzuk *zeruetako erresuma* lehian, ez ziren tristatzen: aita edo ama azken hatsetan ikusi eta esperantza lantzen, iraultzen eta zaintzen zuten oraino. Graxi aldiz, hiltzea usnatuko zukeen kabala errabiatuaren maneran zebilen: zanpa-auhen luzeko zakur, zurrunga xehe eta entzunezineko erle, bakardadea deitoratzen zuen otso-eme. Herioa leitzen zuen aurpegi horaildu eta gristuetako matela edo kopetetako arroiletan. Herioa leitzen zuen hatsartzeko moldean. Soakoetan. Eleen mamietan. Ametsetarik ezpata zilarrak dantzan zekuskien adiski-

deen ahurretan. Dardar eta egarri jaikitzen zen orduan.

Hiruzpalau egun herioa agitu aurretik karnetak, kaierak, kontabilitateko liburuxkak *dad is dying* oharraz iluntzen zituen, ezinbestez iragarritako errealitateak sinesgarritasuna ukatuko zion fikzioan urtu nahiaz. Eroa eta irrazionala zela sinesten zuen, neurriz kanpo. Arrunt mentsa, aita hilen zelako ustea kolkoan ereiteko, ingurukoak arrangura ez eta gizona hobera ari zela errepikatzen ziotela. Barneko sua eho zuen, lagun hurkoen konfiantzaz asebetetzeko: biharko geroa sordeis baino sordeisago imajinatzen zuen beti. Lasaiturik hondarrean, eskuan arkatza baldin bazuen idatz zezakeen: aurrebizitzen dudan herioa misterio bat da eta herioa da nire jakitate eremurik zabalena.

Ohean zetzan gizonari behatzen zion, perfusioaren hariek armiarma sarea ehuten ziotela. Hatsa nekez baino nekezago biriketaratzen zitzaion. Graxik hor berean eta berekiko, aitaren gorputz geldoaren aitzinean, heriotzak bizitza nola kateztatzen, mugatzen eta baldintzatzen zion arrapasatzen zuen: hainbat urtez ez zen

egun bakar batez jaiki, hilko zela eta etsiduraz hil *behar* zuela asmatu gabe. Karrika zeharkatzean, kuskatuko eta zitzikatuko zuen autoarekiko errekontrua desiratzen zuen.

Mihi-kolpe soilaz ezaba ez zitekeen aspaldiko istorioa zen. Alabaina sortu omen zen anai-arreba hilen ordezkari, ordezko, ordain, bazko-egun bateko mirakulua baina nehoiz izate propiorik ez zuen eduki. Hala uste zuen behintzat. Sendiko hilak oro bazerabilzkion halaber buru-onaren itzalean, dantza eta ingurutxo zoroan, batzuetan bizia trabatzen eta besteetan bizitzeko lotsa gerizatzen. Iruditzen zitzaion halatan, bizitzaren ezpondetan aiduru zegoela, zeren aiduru ordea ezin finka.

Leinuaren herio memoria zen. Haurrean beldurra eragiten zioten amamaren mantalet eta kapeletak zein armairutan zeuden bazekien, hil mihise amironatuak, ezko-argiak eta izai merkezko kutxa distiratsuaren gainean pausatzen ziren hornigailu sainduak. Erituak ezagutzen zituen: frankotan aditua zuen, norbait zentzean, baserriko nagusiak erleak abisatzen zituela:

– Erle maiteak, etxekanderea hil da...

Aitak eskuineko ahurra mugitu zuen.

– Erle maiteak...

Klinikako gela batetik zakur errebelatu baten zaunka luzea oihartu zen. Arima iraitzi zitzaion. Hil kanta baten abesteko premiak gorputz osoa urratu zion.

Hatsartze elkor eta kolpekatua.

Negu hartan elurra egin zuen nasaiki, bazterrak mantal lodi batez estaliz. Auzo batek mundua utzi zuen. Hil-jarraigo iluna bidean pasatzen segitu zuelakoaz bakarrik oroitzen zen Graxi: lehen auzoa gurutze zilarra zetxikala, apeza bi bereterrekin, zaldiek tiraturiko orga batean sokaz eratxiki kutxa, doluz apaindu jendalde trinkoa eta gibelean, isilik eta burua apal etxeko labrita, denak ere elurraren zurian beltz. Fededun bilduei kea zerien ahotik.

Beharbada orduan zuen lehen aldikoz entzun *betiereko zoriona hil honi eman otoi Jauna* ahairearen melodia umila. Ez zezakeen deus segurta, denborak memoria higatzen baitzion. Senideak hotzez karkara imajinatu zituen, mendien bestaldetik etorritakoak barne. Etxetik elizara zeuden hiru kilometroetan oinak bustirik eta aur-

pegiak gorriturik bazebiltzan. Hitza zuhur zerabilten. Menturaz, Jainkoaren Egoitzara heltzea ontsa estimatuko zuten, hango bero eta aterpeaz gozatzeko. Intsentsu eta ezko usainak agian, salbatuak zirelako seinale zitzaizkien.

Alargun eta haurrenez aparte, ez zen hipako ozenegirik aditu. Heriotza bizitzaren zatia zela zirudien, suerte mota bat ezen adinean harategi zihoazenek oraino hatsaren hartzen jardutea salatzen zuten:

– Jainkoak hemen ahantzi nu ala?

– Ez zitela inketa Erramun, jinen zautzu ba aski goiz.

– Alaxokotzia... Jin bedi arren, prest nizano.

Heriotzarekiko ohiturak arras barneratuak zeuzkan arren, Graxik izua nabaritzen zuen, batez ere begien ortzaizean aita flakatzen eta ahultzen ari zihoakionean. Bizitza bakuna zen eta behin baizik ez ziren, salbuespenak salbu, gurasoak galtzen. Ezin erranezko dolorea zen. Halaz, gerlari abiatzeko plantan, kantatzeari ekin behar zela murmuratzen zuen emazteak. Aitaren goraipatzeko hitzak arrakatzen saiatu zen.

Ahaire monotono eta lanzinantean hasi zen gizonaren itzalak eta argiak zerrendatzen, garaitezintasuna azpimarratuz lehenik. Antzinaroko Mediterraneo hegietako andere saldoko partaide zela irudikatzera iritsi zen: beltzez jantziriko familia ezberdinetako mutxurdin adinduen taldean zegoen, itsusi edo jainkoen zein etxeko zaharren artatzeko ezkongabe atxiki zitezkeen emazteen erdian. Herriko edonor zentzen zenean, aberats ala pobre, haren merezimenduak jendaldearen aurrean laudatzeko zeregin berezia zuten alaina. Halaz Graxi, aita hedailo beha zegokiola, Hektorren ohoreak abestuko zituen *Iliada*ko Helenaz alda zitekeen:

– *Troia zabalean, denek gaiztoki begiratzen nautenean, nehor ez baitaukat nerekiko on eta ezti izateko, halatan neure bihotz kolpatuaren aixolbean zutaz bezainbat nitaz negar dagit.*

Herioa hurbiltzen usnatzean hala zen, etzidamuko hilotzaz baino, norberaren idatziriko balizko suntsiketa itsaso galernatsu bilakatzen ziren malkoak.

Hatsartze elkor eta kolpekatua.

Euria zeharka ari zen, klinika isileko bitrak astinduz. Soa kanpora hedatu zuen Graxik, ohean irudiz azkenarekin guduka zihoan gizonaren begiei ihes. Txapela ikusi zuen leihoaren maldan eta marmarika hasi zen: herioak txikitik troxatu zaituena, zu, neure aita ez zaitezela hil, ez hil bederen eni hitz bat erran gabe, mintza zakizkit, lehen idien aitzinean hots emaiten nenbilenean mintzo zintzaizkidan bezala, ote eta iratze biltzera auzoen laguntzera gindoazenean bezala, mezatik landa hilerrian otoitz bat murdukatu ondoan, karamelo eta karanbar ezti erosteko libera soila ematen zenigunean bezala, Donapaleuko merkatura joateko bi oihuz iratzarrarazten edo ardiak Lakabirako artadira eskapatzera uzteagatik larderiatzen gintuzunean bezala. Mintza zakizkit. Isiltasun hori ez dezaket pati. Zure ninikетan neurekiko erasia irakurtzen dut, ez nazazula erantzun ments abandona, bestela bizi osoan so horren kezka putzu amilgarri gisa atxikiko dut, damuzko makila: mintza zakizkit oraino.

Ez dut zure hatsartze elkor eta kolpekatua gehiago aditzen: nahi ote duzu medikua dei dezadan? Lotsa naiz aita. Ez zaitezela joan. Besoa

kopetaratzen duzu. Betazalak apaltzen zaizkizu: loeriak eroaten zaitu. Ahoa zabalik pausatzen zara: zergatik ez didazu hitz egiten? Alta, ez hain aspaldi, egoera gogorrago zenean, baten edo bestearen hiltzea jakitean, ele kitzikariak ilkiko zitzaizkizun:

– Hua’re juan dun ni beno lehen.

– Etzena azkarki eri?

– Haaa... Hameste kalapita! Itxuraz mundua berak iretsi behar zinan.

– Iduri’izi kuntent ziela! Etzu urrikiik ala?

– Urrikia? Etzinan urrikiik ez haak. Hor dun orai.

– Eztuguia noizbait hil behar?

– Omen.

Aitaren ihardespen ezin-sinetsiaz oroitzean, klinikako gelaren tepoan, hatsaren erritmo motelarekin dantzatuko zukeen irri ertzoa askatzear zegoen Graxi. Karkara doiak buru-zokoa bete zion, zarta eta bazterrak ezpalez ziliportaka. Etxebarneko Jakes zendu zelako berria zekarkion auzo bati, orduan euskara ongi ez zekien anaietarik batek egin zirtoa errepikatu zuen berekiko:

– Ba, ontsa’uzu.

– Goiz huntan partitu’uk, ttume-ttumea.

– Denak hil behar tziu.

– Bena mutikua ze’ari hata hi? *Denak hil behar tziu*: errak *denek hil behar diuk* alo!

– Barkatu...

Anaia ahalketua sukalderatu zen, Jakesen lehen auzo xifritua itzaletik segika zekarrela, madarikari. Aita, Etxebarneko nagusi zaharrarekin ere pataska gorrian ari izana zela burutu zen Graxi. Alabaina, haur zelarik oraino, buhameak bazter orotan kurri ibiltzen ziren garai loriosetan, *erremenbramendua* deituriko herriko funts eta etxaldeen berrantolaketa xedea eraman zen. Espertak, geometrak eta politikariak etorri ziren laborantza eraginkortzeko auzoen arteko lurren esku-aldaketa sustatzeko eta justifikatzeko.

Jakesek nahi zuen atsolutoki Lakabira bereganatu, zedarrietan han hara zegoen iraztor heze baten trukean. Aitak ez zuen horrelakorik onartzen eta mehatxuengatik, eskaintzak ezeztatzen zituztenen izenak enkre gorriz seinalatuko ziren, Lakabira baserriaren mengoan mantendu zuen. Igandeetan, herrira zihoanean, Graxik maite zuen, zakurra ondotik zeukala Bordaraino

oinez hupatzea eta handik, urrezko leku perfektu eta karratua zen Lakabira mirestea; aldi berean alkateak antolatu bilkuretarik landako tentsioaz ezkaratzean sartu orduko aita husten berritxuratzen zuen, emazteari eta haurrei lardeariaz.

– Hail anoka...

Umeren batek botila berdearen tutuna tinkatzen zuen. Gizonak ele-gaizto zerraikan:

– Ene hiru hautinak ez daztatela ebatsiko! Alajinkoa ez!

Hatsartze elkor eta kolpekatua.

Mintza zakizkit. Graxik bere nahikundea aitari telepatiaz helaraziko zuen ahal izan bailuan. Loeriatik jalgitzen zenean, gizonaren ezpainak mugitzen jarraitzen zituen, baina hitz bihirik ez zitzaion jaukitzen: ohituraren arabera, ardura bereber mintzo zen aita. Ez zuen nehoiz gaurkotasun lasairik jastatu ohean mutu zetzan gizonak: inguruarekiko hiruzpalau elkarrizketaren abantzamendua bazeukan beti. Batzuetan, ustez inork ez ziola behatzen, goraki ari zen, gertaturikoa komentatzen eta emango zion arrapostua apailatzen. Antsiak eta barne-minberatasun han-

diegiak zuten gerizarik gabeko gerora akuilatzen.

Neskak halaber, larruari lotutako dote gisa ulertzekoa zen, galdeak, dudak, segurtamen izpiak, erantzunak, hipotesiak eta anitzetan ondorio hutsalak zizelkatzeko gai zen alimaleko irrati bat zeraman kolkoan, ahots etengabe bat, lotarako bakarrik isiltzen zen murduka zurrun bat, menturaz ametsetarik eleka ari zitzaiona. Bazekien jende zoriontsuek ez zutela horrelako plomuzko tramankulurik burumuinean trebes, bazekien haiek interlokutoreak erraz kausitzen zituztela kezka gehienen arintzeko, izan senar zein emazte, izan adiskide, izan ezagun.

Bakartasunaren sentimendu leherkorrak ez zaplastatzeko, noiztenka ernatzen zen ahots hori bera, ulutxa nahasi, aitaren ahotik herotsik gabe jazartzen imajinatzen zuen, hor klinikako ganbaran, eta dolorea, puñal zorrotz, zutundu zitzaion bihotzaren basamortuan. Hasperenkatu zuen:

– Mintza zakizkit aita, otoi...

Hautsiko zen Graxik aitak ez baldin bazion hitz egiten. Aditza, katea zen. Eterrez usaindu ospitaleko zeldaren murritzean, behin erraiak

xahatzen behatu baitzuen astiro, lagunak bere aitaren pentsa-indarra nola bereganatu zuen agertu ziola oroitu zen. Adinean zihoan arren, haurtzaroko debekuak oraino izaera osoa baldintzatzen ziotela zioen. Mundua ukapen zitzaiola salatzen zion.

– Ez nuen ezeren eskubiderik eta gaur berdin, hormak arrasatuz bizi naiz, uhargi. Mezara joateko edo jendeetaratzeko ahalkea sartu zidan. Biloak, besoak eta zangoak gorde behar nituen, udako berorik minenean ere, erakutsia izateko gai ez banintza, nonbait itsusiegi. Eta egiaz, itsusia bilakatu naiz. Molde batez aitak txikitatik errautsi ninduen, nitaz ahalke zelako. Ene ingurukoak zu barne, aitaren pare, nitaz ahalke direla sinesten dut.

– Ez, ez dut zurekiko horrelako sentimendurik.

– Ez dezaket jada jasan gurasoek umeak apalesten dituztenean, karriketan edo dendetan ahoak eman ahala: *ez zara deusetara helduko* edo *sortu zarenean urkatu behar zintudan* errepikatzen diete eta ele makur horiek gero, norahaize-ikur, baliatuko dituzte egunero. Ez dira

konturatzen zein hitz larriak ahoskatzen dituzten, maizenean haurren onerako ustez. Haurrek herioa baizik ez dute gogoan, herioari esker askatzeko lehia, bizi osoa iraun dezakeena, hil ez izanaren damua eta gainera maitatuak ez direlako, ez dakite maitatzen eta maitatuak izaten: ez dute nehoiz ikasi. Etxekoek gutxienez, umeak laztantzen, ohoratzen eta sustengatzen jakin behar lukete.

– Ez da erraza bizitzea...

– Ez noski –ihardesten zion lagunak–, batez ere hastapen-hastapenetik dena gaizki borobilkatzen denean. Begira, ni sei urtetan, jadanik ezkor aire batekin eskolaratu nintzen: tatxa bat neukan mihi puntan, ez nuelako ikasgelan erabiltzen zen hizkuntza ezagutzen. Salbaietarik nintzen. Baztertzen ninduten eta errientsa nitaz trufatzen zen, gaineratiko haurrak irri eginaraziz. Bihotzean nuen ahalkeari gizarteak pairarazten zidana erantsi zitzaion eta paralesiatua geratu nintzen. Ahalke horren zama larria horma jazartzen zait, gizon baten aitzinean amodiorako biluztera bortxatua naizen bekanetan...

– Arren utz ditzagun agerpen tristeok –artekatzen zuen Graxik zintzurra tinko–, eta goazen mozkortzera!

– Hordimenak ez nau salbatuko.

Hatsartze elkorra eta kolpekatua.

Memoriaren bihurdikatze antzuak akitu zuen, laster zenduko zen aita etzanari so zegokiona. Hargatik mara-mara jarraitu zuen: lagun harekiko solasetik lekora, lau hilabete eskasaren epean, egunkarian irakurri zuen bere burua ibaira bota zuela, loak hartzeko erremedioak alkoholarekin nahas irentsi ondoan. Inork ez zuen kidearen jestu iluna ulertu, ongi pagatutako lan segurua eta apartamentu ederra bazuelako. Egia zen, bizia materialki lortu arren, ez zela aise garaizegi sufritutako ahalkearen harrak karrakatzen zuen zurrunbilo mentaletik salbo ilkitzea, partikulazki laguntzarik gabe.

Graxik frankotan aholkatzen zion psikoanalista batengana joatea, baina haren orduko arrapostuaren oiharra ernatu zitzaion klinikako ganbara mutuan:

– Parasitatzen nauen gaitzaren erroen ikertzea, aitaren trahitzea liteke neuretako. Lotura

negatiboa izan arren, enetzat lotura da halarik ere, manera bitxi batez, leher eta bizi-kemenaz hustuz, zuhurki baizik ez baldin bazen ere, maitatu ninduelako seinale bat. Hiltzen nauen seinale bakarra. Hautsi nauen oroz neure behin betiko harekiko sumisioaz segurtatu da. Nabaritzen dudan ahalkeaz ahalke naiz eta horrek isiltzera eta errealitatea jasatera kondenatzen nau...

Aurpegia apaltzen zuen adiskideak, Graxik gaurkoan, zegien eran, lur gorrian zizelkatu Asineko erregearen maneran azpiko kokotxa dil-dil hatsartzen zuen gizonari begira. Zintzur ezpondak lardaskatuz igotzen zitzaion airea eta, sekula aski ez bailitzan, biriketan behera zurrumilatzen, haize-uholde. Premiazko hatsa loditzen eta haragitzen zihoakion, zaina noiz nahi tapa zezakeen birla erraldoi bilakatzeraino. Ikara zen neska, eta bat-batean pasagian hara eta hona aferatuan zebiltzan erizainaren bila abiatu zen.

– Untsa da aita?

– Baa, lo dea?

– Bai, bena...

Erizainak azalpen saioa moztu zion, eztiki:

– Utz azu lo egitera.

– Banoa orduan...

Graxi aitaren saihetsera itzuli zen, karrankaz hatsartzen zuenaren mateletan despeditzeko bi musuren pausatzera. Klinikako atarian negarrez urtu zen. Autoan malkoak ibai bilakatu zitzaizkion, hatsartzearen ozena eta galdeekiko erantzun ezaren samina gogoan. Bazekien, jagoitik, *zergatik ez zait mintzatu* eskatzen zinpurtuko zela, zalantza eta itxaropen artean urratua. Biharko egun bakoitzean, baldin eta... Hainbatetan jada keinka larrietarik atera eta aita ez bide zen egundainokoan hilen. Halatan, arranimatzeguneetarik jalgitzean etxaldeko sukaldean espantuz ari zen, osasuntsu berriz:

– Ez zuan enetako aldi huntan!

– Doietarik ha.

– Alajinkoa... Eta ni hemen...

Hatsartze elkor eta kolpekatua.

Mintza zakizkit aita galderatik *zergatik ez zait mintzatu* arranguratsura lerratu zen hiriko karriketarik kopeta ilun zebilen Graxi. Igande arratsalde hartarik hiru egunen buruan, klinikatik telefonatu zioten gizonari azken ordua zetorkiola errateko. Alabaina, eraso zerebrala erasan zuen

astelehenarekin eta ordutik hara bisitatu zutenek ere ez zuten harekin hitzik trukatu. Graxi gaizki zen, gizonaren mututasuna sumatu eta bertan ez zelako mediku baten bila abiatu: zerk bada jargian itsatsirik atxiki zuen? Aitaren herioaren hobenduna sentitzen zen nolabait.

Geroago arrazoiaren xenda zulatzen zuenean, bizia horrela zela eta ez zuela den-mendreneko errurik mailukatzen zuen. Ez zen ordea arras sosegatzen. Gorputza dardaraz ari zitzaion. Negarra bazerion. Aldamenean norbaiten behar gorria nabaritzen zuen, hitz egiteko eta manera berezi batez kontsolatua izateko. Atzerriko adiskide min haiek deituko zituen eta penaren zama elkarrekin garraiatuko zuten.

Klinikako gelara heldu zenean, aita hariz eta monitore argitsuz setiatua ikusi zuen. Ahoa eta sudurra kartzelatzen zion tresna uhargiak hatsaren abiadura biderkatzen zuen, irudiz erritmoan ari zen monitorearen hots labur zehargiarekin jostari. Zintzur korroka eta bip mekanikoak. Aldizka. Batera. *Hondar borroka* epaitu zuen Graxik. Betazalak apaldu zituen. Minutu zenbait oraino eta hatsartze ahula baimentzen zuten ho-

diak ilkiko zituzten, karranka motz eta bip ozenak geldiaraziz.

Aita! oihu egin zuen, borreroak abandonatuko zukeen biktima, desesperaturik. Intziri berdinak libratzen zituen, bakoitza beren maneran, bai aitak eta bai Graxik. Uhin-hotzaren igoera nabaritu zuen neskak bizkarrezurrean. Soa leihotik hegaldarazi zuen. Erizainak bazebiltzan alderik alde, uneak den-mendreneko berezitasunik ez eta herioa erabat arradoa bailitzan. Medikua hurbildu zitzaion:

– Atera zaitez.

Ganbaratik jalgi zen. Eterrez eta sendagailuz urrineztatu klinikako pasagia beilegian, eskuak aurpegiratu zituen. *Aita lama sabactani?* Murmuratu eta bitxiki, hortik aurrera bete-betean bizi zitekeela irudikatu zuen Graxik. Trenpu txarraren arintzeko, jartoki bat xerkatu baina ez zuen ezer kausitu: zutik geratu zen. Karranka latza antzeman eta orduan buruhona zitzikatzen zitzaiola pentsatu zuen. Auhen labur hark gelako hormak zeharkatu zituen. Itxuraz, klinika eta mundu osoa larrantz zitzakeen, Graxi suntsituz bidenabar.

Azken hats haren molekula bihurtzen ari zen, bera ere husten, erretzen, ezeztatzen, oinarrizko kaosera itzultzen. Kaos hartarik alabaina ibiltzen eta jendeekin solastatzen ikasten hasiko ote zen? Herioak amodio bekaitzak lurrintzen zituen, egiazko maitasun ipuinak zilegitzeko. Malkoak dilinda zeuzkan. Soa nahas. Erizainak bultzatu zuen:

– Zatoz. Bukatua da.

– Badakit...

Jadanik hilotz zetzanaren gelan sartu zen, herioaren misterioaren jakile bakarra bailitzan. Nini txikia zen. Umea. Haurrotza. Mukizua. Lehergarria. Erizainak gogortzen zihoan aitaren parean utzi zuen. Buneta han zegoen beti, leiho hegian.

Oroitu zen. Nabala ukaldia zen. Odola kopetan behera zetorkiola imajinatu zuen. Aho-sabaia karastu zitzaion: edozein esteketarik libre zen. Mugaide galdu berriaren sensazio beroak, hormatzen zihoazkion zango-besoak epeldu zizkion. Uda eta aita belar epaiten irudikatu zituen: barrukian idiak, Katzo eta Mantxo uhalez uhal uztartzen ziren, abere-estalkiak bizkarralde aberatsetan pausatzen, kabalen muturrak ahate edo

antzara urrinez torratzen, ulu beltz kitzikarien amoreagatik. Gero idiak loiroratzen ziren, erromatar enperadorearen barbaroen aurkako garaipena ospatzeko bezain eder eta distiratsu.

Batzuetan Graxi idizain ibiltzen zen, baina gehienetan ohorezko kargua Pierra anaiari jaukitzen zitzaion. Etxeko bidean mutikoak orduan, akuilua sorbaldetan gurutze goiztiar, idiak ibaiertzeko pentzera gidatzen zituen, *behia be*-ka. Aita ez zen sekula urrun. Edo aitzinean zegoen, epaiteko makinaren olioztatzen eta burdinazko juntetan kokaturiko belar puskak eskuz kentzen. Bai hori zitekeen, Graxik aitaz atxikiko zuen itxura: munduaren aitzinean hotsemaile, bere trakako etsaien aurkako borrokari, irria maite zuen urtxo eta otso errabiatu aldi berean. Gizon gogorra. Bortitza, bere eta ingurukoekiko. Barkatzen ez zekiena. Aitaren azkenak Graxi askatu zuen eta barkatuko zion, orokorki.

Garaitezin izan arren aitak amore eman zuen.

Aspaldiko Mehainerateko xendra hertsian, behialako Eguberri hartan aita nola, Graxi herioak baketzen eta lasaitzen zuela zirudien etxeko

jaun ohiari buhameen gisara mintzatu zitzaion, umekia adina distira zebilkion irri xehea ezpainetan:

– Apaitapa? Jopoapan zipirapa beperapaz?

– Epenepe tepenoporepeapa jipinapa dipinapat...

Erantzun ziona? Mentalki eleka segitu zuen, tristura sakonaren oihalaren argi zuloetarik maitasuna birla kotoitsu jazartzen zitzaiola:

– Apaitzinapa opordupuapan...

Sabelaren barnetik oldartu garrasia ez zuen ahantziko.